

MICHEL FOUCAULT

JAKITEAREN ARKEOLOGIA

SARRERA

Duela zenbait hamarkadatik hona historialarien interesa gehiago zuzendu da periodo luzeez arduratzera; ematen du gorabehera politikoak eta hauen inguruko gertaerak alde batera utzi eta ahalegintzen direla argitara ematen oreka egonkorrak eta hauskaintzak, itzulera gabeko prozesuak, amaigabeko arauketak, mendeetan zehar joera bera izan eta euren gailurrera heldu ondoren ustekabeen atzeraka egiten duten zenbait fenomeno, metaketa-mugimenduak eta euren saturazio geldoak, oinarri handiak, higiezinak eta mutuak, kondaira tradizionalen nahasmenduak gertaeren geruza sendo batekin estali zituenak. Analisi hau aurrera eramateko historialariek badituzte, alde batetik, eurek landutako tresnak eta, bestetik, beste inorengandik jasotakoak: hala nola, hazkunde ekonomikoaren ereduak, elkartrukeen jarioaren azterketa kuantitatiboa, demografiaren gorabeheren perfilak, eguraldiari eta beraren aldaketei buruzko ikerketak, konstante soziologikoen zehaztapena, moldaera teknikoen deskripzioa eta baita euren hedapen eta iraupenarena ere. Tresna hauen bidez historiaren alorrean bereizi ahal izan dituzte zenbait sedimentazio geruza ezberdin. Ordura arte ikerketaren gaia izan den gertaeren segizio linealen lekua sakoneko erauzketa jokoek hartu dute. Azterketaren mailak biderkatu egin dira, mugikortasun politikotik hasi eta «zibilizazio materialaren» geldotasuneraino: maila bakoitzak bere hausturak ditu, bakoitzak berarena besterik ez den aletzea, eta zenbat eta mailarik sakonagotara jaitsi orduan eta luzeagoak izango dira etendurak. Gobernuen, gerren eta goseteen historia zalapartasuaren gibeletik, itxuran mugiezineko, aldats leuneko, historiak diseinatzen dira: itsas bideen historiak, gariaren edo urre-meatzeen historiak, lehorreko eta ureztatutako laborantzaren historia, laboreen errotazioaren historia, gizateriak gosetearen eta ugaritasunaren artean lortu duen orekaren historia. Analisi tradizionalaren galdera zaharren ordez (esaterako, Nola uztartu loturarik ez duten bi gertaera? Zein da bien arteko nahitaezko segizioa? Zer jarraipen dago euren artean? Zer esanahi ateratzen da bien artean? Defini al daiteke osotasun bat ala kateaketa soilak besterik ezingo ditugu bururatu?), beste mota bateko galderak egingo dira aurrerantzean: Zer geruza bereizi behar dira elkarren artean? Zer motatako serieak finkatu behar dira? Zer periodizazio-irizpide hartu behar dugu serie bakoitzarentzat? Zer harreman-mota finka daiteke elkarren artean (hierarkia, nagusitasuna, mailakaketa, determinazio unibokoa, kausaltasun zirkularra)? Serieen artean zer serie ezar daiteke? Eta epe luzean zein mailatan zehatz daiteke gertaera bakoitzaren jarraipena?

Alabaina, garai berean gutxi gorabehera, historiaren izena izan arren beraren lanetik eta metodotik aldentzen diren diziplina horietan, ostera, –ideien, zientzien, filosofiaren, pentsamenduaren edota literaturaren historia deritzen diziplinetan, alegia (euren arteko berezitasunak alde batera utz daitezke une batez)– garaitzat edo mendetzat jotzen ziren batasun handiak utzi eta etete-fenomenoetan jarri dute arreta. Pentsamenduaren segizio handien azpitik, gogo edo adimen kolektibo baten adierazpen masibo eta homogeneo baten azpitik, existitzeko eta bere hasieratik bere burua osatzeko amorratzen dagoen zientzia baten bilakaera setatiaren azpitik, genero baten, forma baten, diziplina baten, jarduera teoriko baten iraupenaren azpitik, orain hausturen eragina antzematea bilatzen da. Haustura hauen estatutuak eta izaerak oso ezberdinak dira. Batzuk G. Bachelordek zehazten dituen ekintza eta atalase epistemologikoak izango dira: ezagupenei dagokienez euren metaketa amaigabea alde batera uzten dute, euren heltze geldoa mozten dute eta garai berri batean sarrarazten dituzte, euren jatorri enpirikotik eta hasierako motibazioetatik banantzen dituzte, irudimenezko konplizitateak

arazten dituzte. Horrela azterketa historikoari eskatzen diote arrazionaltasun-mota berri bat bila dezala eta ez, ordea, hasiera isila iker dezala, ez bukaerarik gabeko lehen aitzindarien bila aritzeko. Kontzeptuen desplazamendua eta eraldatzea ere izango dira beste batzuk: G. Canguilhemek azterketak izan daitezke honen adibidea. Hauek erakusten dute kontzeptu baten historia ez dela, guztiz, bere mailakako zehazketarena, etengabe hazten doan bere arrazoizkotasunarena, bere mailakako abstrakzioarena, baizik eta bera non eratzen den eta baliozkoa egiten duten eremu ezberdinena, erabilpeneko ondoz ondoko arauena, bera landu eta mamitu den inguru teoriko ugariena. Bestalde, G. Canguilhemek berak ere egiten duen zientzien historiaren eskala mikroskopikoen eta makroskopikoen arteko bereizketa dugu, haietan ez baitira modu berean banatzen gertaerak eta hauen ondorioak: aurkikuntza bat, metodo bat mamitzea, jakitun baten lana, beraren huts egiteak, ez dute eragin bera eta ezin dira modu berean deskribatu maila batean edo bestean; ez da historia bera aurkituko idatzia leku ezberdinetan. Birbanatze errepikatuak, hauek zientzia bat eta berarentzat, bere presentzia aldatzen den neurrian, zenbait iragan agerrarazten dute, kateatzeko zenbait era, zenbait hierarkia garrantzitsu, erabakitzeke zenbait sare, zenbait teleologia; honela deskribapen historikoak jakitearen gaurkotasunaren arabera taxutzen dira derrigor, bere eraldaketekin biderkatzen dira eta euren buruarekin hausten dute gelditu gabe (fenomeno honi dagokionez, M. Serres jaunak eman berria digu teoria matematikaren arloan). Sistemen unitate arkitektonikoak, M. Gueroltek aztertu dituen modukoak, hauek ez dute loturarik eraginen, tradizioen eta jarraipen kulturalen deskribapenekin, baizik eta barruko koherentziekin, axiomekin, kateaketa deduktiboekin eta bateragarritasunekin. Azkenean, zalantzarik gabe, etendura erradikalenak hausturak dira, eraldatzearen lan teoriko baten bidez gauzatzen direnak «zientzia bat sortzean bere iraganeko ideologiaz askatuz eta iragan hori ideologiko bezala agerraraziz¹». Honi gaineratu beharko litzaioke batasun modura ulertzen den azterketa literarioa, ez garai baten arima edo sentsibilitatea, ez «taldeak», «eskolak», «belaunaldiak» edo «mugimenduak», ezta ere bizitza eta bere «sorkuntza» uztartu dituen egilearen nortasuna, baizik eta lan baten, liburu baten testu baten egitura.

Eta azterketa historiko hauetatik aterako den –ateratzen den– arazo handia ez da izango ezagutzea zein bidetatik ezarri ahal izan diren jarraipenak; nola sortu eta iraun ahal izan duen egitasmo bakarrak, ostertz bakarra, hainbeste gogo ezberdin eta bata bestearen ondokorentzat; zer jarduera eta zer oinarri biltzen duen transmisioen, berreskuratzeen, ahanzturen eta errepikapenen jokoak; nola heda dezakeen etorburuak bere erreinua berarengandik urrun eta sekula heltzen ez den amaieraraino; arazoa ez da aurrerantzean izango tradizioa edo arrastoa, baizik eta zatiketa eta muga, ez da izango betikotzen den oinarria, baizik eta sorrera modura eta sorreren berriztatze modura balio duten eraberritzeak. Honela ikusten dugu galdera-eremu bat zabaltzen dela, galderon artetik batzuk ezagunak zaizkigularik eta hauen bidez historiaren era berri honek bere teoria propioa mamitzen ahalegintzen da: nola zehaztu jarraitasun-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, mutazioa, eraldaketa)? Zer irizpideren bidez bereizi arazoak unitate bezala: Zer da zientzia bat? Zer da lan bat? Zer da teoria bat? Zer da kontzeptu bat? Zer da testu bat? Nola dibertsifikatu maila ezberdinak norbera bertan kokatu ahal izateko eta bertara bakoitzak bere etendurak eta bere aztertzeko erak ekar ditzan? Zein da formalizazioaren maila legitimoa? Zein interpretazioarena? Zein azterketa estrukturalarena? Zein kausaltasun esleitzekoa?

Azken baten, pentsamenduaren, ezagutzen, filosofiaren eta literaturaren historiak badirudi hausturak ugaritzen dituela eta jarraitasun-ezaren harrotze guztiak bilatzen dituela, historiak berez, historia hutsak, berriz, ematen du gertaeren oldartzea baztertzen duela, egitura sendoagoak bilatuz.

Alabaina, ez dadila inor liluratu gurutzatze honekin. Ez dezala inork irudikatu, itxurek nahastuta, historiaren diziplina batzuk jarraitasunetik jarraitasun-ezera iragan direla, eta besteak, berriz, jarraitasun-ezen nahasmendutik etendurarik gabeko batasun handietara iragan direla; ez da irudikatu behar politikaren, erakundearen edo ekonomiaren azterketan gero eta arreta gehiago jarri izan zaienik mugapen globalei eta ideien eta jakitearen azterketan gero eta arreta gehiago jarri zaienik jokoei eta diferentziei; ez da sinistu behar deskribapen bi era hauek gurutzatu direla, atzera ere, elkar aintzat hartu gabe.

Izan ere, arazo berak planteatu dira bi kasutan, baina azalean aurkako ondorioak izan dituzte. Arazook hitz batez labor daitezke: dokumentua auzitan jartzea. Ez dadila gaizki-ulerturik egon: garbi dago historiaren gisako diziplina bat existitzen

denetik dokumentuak erabili izan direla, euren galderak egin zaizkiela, euren buruz galderak egin direla; galdetu izan zaie ez bakarrik zer esan nahi zuten, baizik eta, baita ere, ea egia esaten zuten eta zer arrazoi izan zezaketen egia adierazten dutela aldarrikatzeko, ea zintzoak edo gezurtiak ziren, ea ondo informatuak edo ezjakinak ziren, jatorrizkoak edo aldatuak. Baina galdera hauek guztiak eta egonezin kritiko handi hau helburu berari begira daude: dokumentuek diotenetik edo iradokitzen dutenetik abiatuta berreraiki nahi dute euren jatorria den iragana, gaur egun urrunduz eta desagertzen doana euren atzean; dokumentua beti tratatu izan da, egun, isiltasunera kondenatua izan den ahots baten hizkuntza bezala, honen arrasto hauskor baina, beharbada, ulergarriaren modura. Alabaina, mutazio bat dela-eta –oraingoa ez dena, baina oraindik inolaz ere burutu ez dena–, historiak dokumentuari buruzko bere jarrera aldatu egin du: lehen lana ez da, jada, izango bera interpretatzea, ezta ebaztea ere ea egia dioen edo zein den bere adierazpen balioa, baizik eta dokumentuaren barruan jardutea eta bera lantzea: bera antolatzen du, moztu, banatu, ordenatu, mailakatu, sailak finkatu, egokiaren eta ez egokiaren artean bereizten du, elementuak banandu, batasunak definitu, harremanak deskribatu. Dokumentua ez da, orduan, historiarentzako gai inerte, historia gizon-emakumeek egin edo esan dutena berreraikitzen ahaleginduko da beraren bidez, kontu hauen arrastoa besterik geratzen ez den kasuetan: dokumentuzko ehunean batasunak definitzea bilatuko du, hala nola multzoak, sailak, harremanak. Historia askatu behar da denbora luzez beretzat atseginez hartu duen irudiaz, justifikazio antropologiko modura balio izan diona: hots, milaka urteko memoria kolektibo baten justifikazioa, agiri materialez baliatuz oroitzapenak berriro burura dakartzana. Historia beti eta nonahi, gizarte guztietan, iraupenaren forma espontaneoak, nola antolatuak, erakusten dituen dokumentazio materialak (liburuak, testuak, kontaerak, erregistroak, batzar-agiriak, eraikuntzak, erakundeak, araudiak, teknikak, gaiak, ohiturak eta abar) lantzea eta baliatzea da. Dokumentua ez da berez eta eskubide osoz memoria izango den historiaren zorioneko tresna; historia zera da: gizarte jakin batek beretik banandu ezina zaion dokumentu-lantzeko eta aitorpena emateko duen modua.

Labur esanda, historia, era tradizionalan, iraganeko monumentuak «memorizatzen» ahalegintzen da, eurak dokumentu bihurtzen, eta hitz eragingo die berez sarritan hitzezkoak ez diren eta isilean diotenaz beste zerbaite dioten arrastoei. Gaur egun historiak dokumentuak monumentu bihurtzen ditu, gizakiek utzitako arrastoak deszifratzen ditu, lehen aztarnetan oinarrituz ahalegintzen bazen gizakiak zer izan ziren jakiten, orain osagai multzo bat agerrarazten du; osagai horiek bakartu behar dira, taldekatu, egokiak bihurtu, elkarren artean harremanean jarri, multzoak sortu. Garai baten, arkeologia monumentu mutuen, arrasto bizigabeen, testuingururik gabeko gaien eta iraganak utzitako gauzez arduratzen zen diziplina zenean historiarantz jotzen zuen eta bere lana diskurtso historikora itzuliz hartzen zuen bere zentzua. Esan ahal izango da, hitzekin pittin bat joko eginaz, gaurko historiak arkeologiarantz jotzen duela, monumentuaren barruko deskribapenera.

Hemendik zenbait ondorio aterako dira. Eta lehena aipatu den azalekotasun-efektua izango da: ideien historian hausturak ugaltzea, historia hutsaren baitan denbora tarte luzeak sortzea. Historia huts honek, bere era tradizionalan, egitateen edo data jakineko gertaeren arteko harremanak definitzea zuen helburua (hala nola, kausaltasun soileko harremana, mugapen zirkularra, aurkakotasuna, adierazpena). Saila behin emanda, kontua zen osagai bakoitzaren arteko hurbiltasuna zehaztea. Aurrerantzean, arazoa sailak eratzea izango da: sail bakoitzarentzat bere osagaiak definitzea, bere mugak zehaztea, berari dagokion harreman-mota berezia agerraraztea, berari dagokion legea formulatzea eta, honetaz guztiaz gain, sail ezberdinen arteko harremanak deskribatzea, honela sailen sailak, edo «koadroak», eratzeke: hortik letorke geruzen ugalketa, euren erauzketa, euren dagozkien denboren eta kronologiaren berezitasuna; hortik gertaera garrantzitsuak (ondorio kateaketa luzea darraiena) bereizi beharra, garrantzi txikienekoak bereizi beharra, baina baita guztiz maila ezberdineko gertaera-motak ere: laburrak batzuk, erdi iraupenekoak besteak –esaterako, teknika jakin baten hedapena edo diruaren eskastea– eta beste batzuk, azkenik, garapen geldokoak, adibidez, oreka demografikoa edo ekonomiaren klima aldaketa bati pausoka moldatu beharra; hortik dator sail luzeak agerrarazi ahal izateko aukera, gertaera arraroz edo errepikatzen diren gertaerez osatutakoak. Gaur egungo historian denboraldi luzeak agertzea ez da historiaren filosofietara itzultzea eta ezta munduaren garai handietara, edo zibilizazioen patuetan aurretik idatzitako faseetara, itzultzea ere, baizik eta adostutako metodoen bidez sailen elaborazioaren ondorioa da. Alabaina, ideien, pentsaeren eta zientzien historian mutazio berak aurkako ondorioa ekarri du: kontzientziaren aurrerabidea –edo arrazoiaren teleologia edo giza pentsaeraren eboluzioa– osatzen duen sail luzea bereizi du; bateratzearen eta gailurra jotzearen gaiak auzitan jarri ditu, totalizatzeko aukerak zalantzan jarri ditu. Elkarren ondoan, elkarren segidan, bata bestearen gainean jartzen diren edo eskema lineal batera murriztu ezinik gurutzatzen diren sail ezberdinen bereizketa ekarri du. Horrela, arrazoiaren etengabeko kronologia honen lekuan –zeinak helezina den jatorrira, irekiera fundatzailera, joarazten gaituen– agertzen dira batzuetan laburrak diren eskalak, elkarren

artean ezberdinak direnak, lege bakarra onartzen ez dutenak, sarritan bakoitzak berea duen historia-mota duena, murriztu ezin direnak bereganatzen duen, aurrera egiten duen eta gogoratzen duen kontzientzia eredu orokor batera.

Bigarren ondorioa: jarraitasun-ezaren adigaiak leku gorena hartzen du historia diziplinetan. Historiaren era klasikoan jarraitasun-eza emana eta pentsaezina zen aldi berean: sakabanatutako gertaeren artean agertzen zena –erabakiak, gertaerak, ekimenak, aurkikuntzak– eta analisiaren bidez saihestua, murriztua, ezabatua izan behar zena gertaeren jarraipena ager zedin. Jarraitasun-eza, denborazko barreiaketaren estigma horixe, hain zuzen, historiari ezabatzea izango zen historialariaren eginbeharra. Bera bihurtu da orain, berriz, azterketa historikoaren oinarritzko osagarrietako bat. Modu hirukoitzean agertzen da. Hasteko, historialariak gurata egindako eragiketa bat da (ez, oster, berak jorratu behar duen materialetik gogoz kontra jasotzen duen zerbait): izan ere, berak, hipotesi sistematiko modura gutxienez, azterketaren ahalezko mailak bereizi behar ditu, hala nola bakoitzari dagozkion metodoak eta komeni zaizkion aldizkatzeak. Bera, bigarrenik, bere deskribapenaren emaitza da (eta ez azterketaren ondorioz deuseztatu behar den ezer): izan ere, aurkitu nahi duena prozesu baten mugak dira, bihurtu baten inflexio-puntua, mugimendu erregulatzailer baten alderantzaketa, oszilazio baten mugak, funtzionamendu baten atalasea, kausaltasun biribil baten haustura unea. Eta, hirugarrenik, lanak etengabe zehazten diharduen kontzeptua da (bera alde batera utzi gabe, bi irudi positiboren artean dagoen zurtasun uniforme eta aiherga biltzan); izendatzen zaion eremuaren eta mailaren arabera forma eta funtzio berezi bat hartuko du: ez dugu berba egiten jarraitasun-ez berari buruz deskribatzen dugunean atalase epistemologiko bat edo biztanleria-kurba batek goraka egiten duen puntua edo teknika aldaketa bat. Adigai paradoxikoa jarraitasun-ezaren hau: aldi berean ikerketaren tresna eta gaia baita, berak mugatzen baitu arlo bat zeina bera ondorioa den, esparruak banakatzen baititu, nahiz eta ezin diren esparru horiek finkatu eurak alderatuz ez bada eta, azkenean, beharbada, ez delako historialariaren diskurtsoan aurkitzen den kontzeptu soila izango, baizik eta historialariak berak isilean auresuposatzen duen zerbait: nola hitz egin ahal izango luke, bestela, historiak –eta beraren historiak– gai bezala eskaintzen dion haustura hori gabe? Historia berriaren ezaugarri funtsezkoenetako bat jarraitasun-ezaren desplazamendua da: oztoppa izatetik praktikara pasatzea, historialariaren diskurtsoan integratzea, eta hemen ez du jokatu deuseztatu behar den kanpotiko ezbehar baten papera, baizik eta erabiliko den kontzeptu eraginkor batena; eta hori guztia dela eta, zeinuen alderantzaketa honi eskerrak, jarraitasun-eza ez da izango gehiago irakurketa historikoaren negatiboa (bere alderantzizkoa, bere porrota, bere ahalmenaren muga) baizik eta bere gaia mugatzen duen eta bere azterketari balioa ematen dion osagai positiboa.

Hirugarren ondorioa: historia global baten aukera desagertzen eta diseinu oso ezberdin bat zirriborrotzen hasten da, historia orokorra dei daitekeen horretxan zirriborroa, alegia. Historia global baten egitasmoak zibilizazio baten forma orokorra berreraikitzea bilatzen du, gizarte baten hastapena (materiala nahiz espirituala), garai bateko fenomeno guztien esanahi baterakoa, euren kohesioa azaltzen duen legea –metafora erabiliz garai baten «aurpegia» deritzona–. Era honetako egitasmoa hipotesi bi edo hiruri lotuta dago: suposatzen da ondo definitutako espazio-denborazko esparru bateko gertaera guztien artean, arrastoa aurkitu ahal izan zaien fenomeno guztien artean, harreman homogeneoen sistema bat finkatu ahal izan behar dela, hauetako bakoitza ondorioztatzea zilegiko duen kausaltasun sarea, alegia, analogia-harremanak elkar nola sinbolizatzen duten erakusten dutenak, edo baita erakusten dutenak ere nola adierazten duten guztiek muinaren erdi bat eta berbera; suposatzen da, bestalde, historikotasunaren forma bakarrak eta berberak biltzen dituela egitura ekonomikoak, gizarte egonkortasunak, pentsamoldeen inertzia, ohikuntza teknikoak, jokaera politikoak, eta guztiei eraldaketa-mota bera ezartzen diela; suposatzen da, azkenik, historia bera artikula daitekeela batasun handitan –estadio edo faseetan– euren baitan dagokien euren kohesio-hastapena biltzen dutenak. Postulatu hauetaz eztabaidatzen du historia berriak auzitan jartzen dituen sailak, zatiketak, mugak, mailen arteko ezberdintasunak, desorekak, berezitasun kronologikoak, irauteko modu bereziak, harremanen ahalezko motak. Baina honela berak ez du bilatuko bakarrik historia ezberdinak mamitzea, elkarren ondoan jarrita egongo direnak eta elkarrekiko askeak izango direnak: hala nola, ekonomiaren historia erakundearen ondoan, hauen aldamenen zientziena, erlijioena edo literatura; ez du bilatuko, ezta ere, historia ezberdin hauen artean azpimarratzea datuen arteko kointzidentziak edo formen edo zentzuen analogiak. Orain agertzen den arazoa –eta historia orokor baten eginbeharra definitzen duena– izango da mugatzea sail ezberdin horien artean zein harreman-mota deskriba daitekeen legitimoki; zer sistema bertikal era dezaketen eurek; zer korrelazio eta menderatze-joko dagoen euren artean; zer ondorio izan dezaketen desorekek, denboratasun ezberdinek, iraupen ezberdinek; zer multzo ezberdinetan ager daitezkeen aldi berean osagai jakin batzuk; laburbilduz, ez bakarrik zer sail baizik eta baita zer «sailen sail» (edo beste hitz batzuetan, zer taula²) osa daitezkeen. Deskribapen global batek fenomeno guztiak erdigune bakar baten

inguruan biltzen ditu: hastapena, esanahia, espiritua, mundu ikuskera, multzoaren forma; historia orokor batek, aitzitik, sakabanaketa baten espazioa agerraraziko luke.

Bukatzeko azken ondorioa: historia berriak aurrez aurre egiten du zenbait arazo metodologikorekin; hauen artetik zenbaitek zalantzarik gabe bera baino askoz lehenagotik existitzen ziren eta orain euren osotasunean hartuta bera ezaugarritzen dute. Hauen artean honakook aipa daitezke: agirien corpus koherenteak eta homogeenak osatzea (corpus irekiak edo itxiak, burutuak edo burutugabeak); hautatze-hastapen bat ezartzea (nahi den arabera: dela agiri mordoa modu sakonean jorratzeko, dela datu-biltze estatistikoko metodoen arabera laginak ateratzeko, dela alde aurretik osagai adierazgarrienak zehazten ahalegintzeko); azterketa mailaren eta berarentzat nabarmengarriak diren osagaien definizioa (ikertutako materialean adierazpen numerikoak nabarmenaraz daitezke; nabarmenaraz daitezke, halaber, gertaerei, erakundeei, jardueri buruzko erreferentziak –esplizituak nahiz ez–; erabilitako hitzak, erabilpeneko arauak, adierazten duten eremu semantikoa eta guzti, edo, gehiago oraindik, proposizioen egitura formala eta batzen dituen kateatze-motak); azterketa-metodo baten zehaztapena (datuen lanketa kuantitatiboa, zehaztu daitezkeen ezaugarri batzuen arabera deskonposaketa, ezaugarri horiei buruz ikertuko da euren arteko korrelazioa, dezifrapen interpretatiboa, maiztasunen eta banaketen azterketa); lantzen ari den materiala artikulatzen duten multzoen eta azpimultzoen mugapena, (eskualdeak, denboraldiak, prozesu unitarioak); multzo bat ezaugarritzea baimentzen duten harremanen mugapena (harreman numerikoak edo logikoak izan daitezke; eta baita harreman funtzionalak, kausalak, analogikoak; izan daiteke adierazlearen eta adieraziaren arteko harremana).

Historiaren mutazio epistemologiko hau ez dago burutua oraindik gaur egun. Alabaina, ez da atzo bertako kontua, izan ere, zalantzarik gabe Marxenganaino jo ahal izango dugu haren abiapuntua aurkitzeko. Baina denbora luzea joan zen ondorioak izateko. Gure egunotan oraindik, eta, batez ere, pentsamenduaren historiari dagokionean, ez da erregistratua izan eta ez da berari buruz hausnarketarik egin, orainagoko beste eraldaketa batzuk, berriz, bai erregistratuak eta hausnartuak izan diren arren –hizkuntzalaritzarenak esaterako–. Ematen du bereziki zaila izan dela, gizakiek euren ideia eta euren ezagupen propioen historia hau berriro moldatzean teoria orokor bat formulatzea jarraitasun-ezaz, sailez, mugez, batasunez, ordena espezifikoek, autonomiez eta berezitateko mendetasunez. Ohikoa izan denean jatorriak bilatzea, aurrekarien lerroan barrena atzeraka jotzea mugapenik gabe, tradizioak suspertzea, kurba ebolutiboek jarraitzea, teleologiak proiektatzea eta bizitzaren metaforetara jotzea eten gabe, badirudi higuin berezi bat sumatzen zela diferentzia pentsatzeko, urrunketak eta sakabanaketak deskribatzeko, berberaren forma lasaigarria bereizteko. Zehazkiago oraindik, badirudi atalase, mutazio, sistema independente, sail mugatu eta era honetako kontzeptuetatik –berez historialariek darabiltzaten moduan– nekeza dela teoria zertzea, ondorio orokorrak ateratzea eta baita inplikazio guztiak eratortzea ere. Ematen du beldur garelako bestea pentsatzeko geure pentsamenduaren denbora berean.

Bada honetarako arrazoi bat. Pentsamenduaren historia iraun ahal izango balu jarraitasun etengabeen baita izaten, gelditu gabe lotuko balitu kateaketak –inongo azterketarik desegin ezingo lituzkeena abstrakzioa jo gabe– ehunduko balitu, gizon-emakumeek esan eta egiten duten guztiaren inguruan, bere buruaz iragarpenak egingo lituzketen sintesi ilunak, bera gertatu eta amaigabeki etorkizunerantz eramango luketenak, babesleku pribilegiatua izango lituzke kontzientziaren subiranotasunerako. Historia jarraitua, bera da subjektuaren funtzio fundatzailearen ezinbesteko korrelatua, ihes egin dion guztia berriro bereganatuko duen bermea; aseguratuko duena denborak ez duela ezer barreiatuko berregindako batasun batera ekarri gabe berriro, aginduko duena subjektuak –kontzientzia historikoaren forman– ezberdintasuna dela-eta urrun mantentzen diren gauza guztiak berreskuratuko dituela egun batean eta euren nagusitasuna berrezarriko duela, bere bizilekua dei daitekeena aurkituz. Azterketa historikoa jarraituaren diskurtso bihurtzea eta giza kontzientzia bilakaera ororen eta jardute ororen jatorrizko subjektu bihurtzea, hauexek biak dira pentsamendu-sistema beraren bi azalak. Denbora totalizazio modura bururatzen da eta iraultzak kontzientzia hartzea besterik ez dira.

Forma ezberdinak hartuz, gai honek etengabeko papera jokatu du XIX. mendeaz geroztik: hain zuzen, deszentramendu guztien aurrean subjektuaren subiranotasuna eta antropologiaren eta humanismoaren irudi bizkiak salbatzea. Marxek –produktzio-harremanen, determinazio ekonomikoaren eta klaseen arteko borrokaren azterketa historikoaren bidez–

gauzatutako deszentramenduaren aurrean XIX. mendearen bukaera aldera historia global bat bilatzeko bidea eman du, honetan gizarte bateko ezberdintasun guztiak forma bakar batera murriztu ahal izango lirateke, mundu ikuskera baten antolakuntzara, balio-sistema bat ezartzera, zibilizazio-mota koherente batera. Genealogia nietzschearrak gauzatutako deszentramenduaren aurrean arrazionaltasuna gizateriaren telosa bihurtuko duen jatorrizko oinarriari buruzko ikerketa kontrajarri du eta pentsamenduaren historia osoa lotu du arrazionaltasun horren babesarekin, teleologia horri eustearrekin eta beti beharrezkoa den oinarri horretarantz itzultzearekin. Azkenik, orainago psikoanaliaren, hizkuntzalaritzaren, etnologiaren ikerketek subjektua deszentratu dute bere nahiaren legeekiko, bere hizkuntzaren formekiko, bere jardutearen arauetikiko, bere diskurtso mitiko edo alegiazkoarekiko; argi zegoenean gizakiak, bera zenari buruz galdeketa, ezin zuela bere sexualitatearen eta bere inkontzientearen kontu eman, ezta bere hizkuntzaren forma sistematikoena edo bere fikzioen erregulartasunarena ere, historiaren jarraitasunaren gaia berpiztu egin da: etendurazkoa izango ez den historia, bilakaerazkoa baino; harreman-jokoa izango ez dena, barruko dinamismoa baino; sistema izango ez dena, askatasunaren lan gogorra baino; forma izango ez dena, baizik eta kontzientzia baten etengabeko eginahala bere buruari helden diona eta ahalegintzen dena bere burua atzematen bere baldintzarik sakonenetaraino: etendurarik gabeko pazientzia luzea izango litzatekeen historia bat eta, aldi berean, muga guztiak apurtzen bukatzen duen mugimendu baten bizitasuna ere. Egituren «mugiezintasunari», euren sistema «itxiari», euren nahitazko «sinkroniari» historiaren irekitasun bizia kontrajartzen duen gai hau baliarazteko beharrezkoa da, jakina, azterketa historikoetan uko egitea jarraitasun-ezaren erabilpenari, mailen eta mugen definizioari, sail espezifikoen deskribapenari, ezberdintasun-joko osoaren eguneratzeari. Joera dago, beraz, Marx antropologizatzeke, bera totalitateen historialari bihurtzeko, eta berarengan humanismoaren asmoa aurkitzeko; joera dago, beraz, Nietzsche filosofia transzendentalaren ikuspegitik interpretatzeko eta bere genealogia jatorriaren bilakuntzaren egitasmo baten mailara jaitzarazteko; joera dago, azkenik, alde batera uzteko, sekula loratu izan ez balitz bezala, historia berriak gaur egun proposatzen duen arazo metodologikoen eremu hori guztia. Izan ere, egiaztatuko balitz diziplina historiko guztietan planteatzen dela jarraitasun-ezen arazoa, hala nola, sistemena eta eraldaketena, sailena eta atalaseena, (eta ez gutxiago ideiez edo zientziez arduratzen diren diziplinetan, ekonomiaz edo gizarteaz arduratzen direnetan baino), orduan nola kontrajarri ahal izango lirateke zilegitasun zantzuren batekin «bilakaera» eta «sistema», mugimendua eta erregulazio zirkularrak, edo arinkeriaz eta burua nekatu gabe esaten den moduan «historia» eta «egitura»?

Funtzio kontserbatzaile bera egongo da ekinean kultur totalitateen gaian (izan ere, honegatik Marx kritikatu eta mozorrotua izan da), jatorriari buruzko ikerkuntzaren gaian (Nietzscheri kontrajarri izan zaiona ondoren Nietzsche bera horretan txertatu nahi izan delarik), eta historia bizi, jarrai eta ireki baten gaian. Oihu egingo da asasinatutako historiagatik ikustean azterketa historiko batean –eta bereziki pentsamenduez, ideiez eta ezagupenez dihardugunean– modu nabarmenegian erabiltzen direla jarraitasun-ezaren eta diferentziaren kategoriak, atalasearen, hausturaren eta eraldaketaren adigaiak, sailen eta mugen deskribapenak. Salatuko da hor historiaren baztertezinako eskubideen aurkako eraso eta baita ahalezko historikotasun ooren oinarrien aurkakoa ere. Baina ez du inork bere burua nahastu behar, hain ozen negar egiten bada ez da historiaren desageregatik, baizik eta ezkutuan, baina oso-osorik, subjektuaren jardura sintetikoari uztartua dagokion historiaren formaren ezabaketagatik; negar egiten da kontzientziaren subiranotasunari aterpea eman behar dion bilakaeragatik (mitoak, ahaidetasun-sistemak, hizkuntzak, sexualitatea edo nahimena baino seguruagoa eta babes handiagokoa dena); negar egiten da egitasmoaren bidez zentzuaren eginbeharra edo totalizazioaren mugimendua suspertzeko aukeragatik, eta baita mugapen materialen, arau praktikoen, sistema inkontzienteen, harreman zorrotzen baina hausnartu gabeen, bizi izandako edozein esperientziatetik at dauden korrelazioen jokoak suspertzeko aukeragatik ere; negar egiten da historiaren erabilera ideologikogatik, zeinaren bidez ahalegina egiten den gizakiari itzultzeko mende bat baino gehiagoan zehar etengabe ihes egin dion guztia. Garai bateko altxor guztiak historia honen hiri zaharrea pilatu dira; sendoa zela uste izan da; sakralizatu izan da; pentsamendu antropologikoaren azken kokalekutzat jo izan da; uste izan da beraren kontra anker jokatu duten haiek harrapatuak izan ahal izango zirela; uste izan da eurak jagole arretatsuak bihurtu ahal izango zirela. Baina gotorleku zahar hau aspaldi utzi dute bertan behera historialariek eta joanda dira lanera beste leku batzuetara; ezagun zen ez zutela bermatzen Marxek eta Nietzschek beretik espero izan zuten zaintza. Ezin zen eurekin gehiago kontatu pribilegioak gordetzeko, ezta baieztatzeke ere berriro (eta Jainkoak daki beharrezkoa izango ote den gaur egungo larritasunean) historiak, berak bai gutxienez, bizirik eta jarrai dirauela, bera dela auzitan dagoen gaiari dagokionean ziurtasunaren, adiskidetzaren, lo lasituaren atsedenekua.

Puntu honetan zehazten da Histoire de la Folie, Naissance de la clinique, Les Mots et les Choses lanetan, modu oso inperfektu batean besterik ez bada ere, diseinatu den eginkizuna. Eginkizun honen bidez ahaleginak egiten dira historiaren eremuan oro har gauzatzen diren mutazioak neurtzeko; eginkizun honetan auzitan jartzen dira ideien historiari dagozkion

metodoak, mugak eta gaiak; eginkizun honen bidez ahaleginak egiten dira antropologiako azken loturak askatzeko; eginkizun honek, horren ordainean, agerrarazi nahiko du nola eratu ahal izango ziren lotura horiek. Lanok nolabaiteko desordena batean bururatuak izan dira eta euren artikulazio orokorra argi eta garbi definitu barik. Bazen garaia eurei koherentzia emateko, edo gutxienez horretarako ahaleginak egiteko. Ahalegin horren emaitza aurrean duzun liburu hau da.

Ohar batzuk, hasi aurretik eta edozein gaizki-ulertu saihesteko.

— Arazoa ez da izango historiaren eremura, eta bereziki ezagutzen historiaren era, metodo estrukturalista bat transferitzea, azterketaren beste alor batzuetan probatua izan dena. Kontua izango da jakite historikoaren eremuan burutzear dagoen eraldake ta autoktono baten hastapenak eta ondorioak zabaltzea. Nahikoa litekeena da eraldaketa hau, berak planteatzen dituen arazoak, darabiltzan tresnak, beraren bidez definitzen diren kontzeptuak, erdiesten dituen emaitzak, ez daitezela izan, neurri baterai no, azterketa estrukturala deritzon horrekiko arrotzak. Alabaina ez da azterketa hau jokoan dagoena bereziki.

— Arazoa ez da (are gutxiago oraindik) kultur totalitateen (mundu ikuskerak direla, tipo idealak direla, garai ezberdinen espiritu berezia direla) kategoriak erabiltzea historiari ezartzeko azterketa kulturalaren formak. Deskribatutako sailak, finkatutako mugak, ezarritako alderaketak eta korrelazioak ez dira etzaten antzinako historiaren filosofietan, haatik, euren xedea teleologiak eta totalizazioak auzitan jartzea da.

— Arazoa antropologiako gaitik askea izango den metodo bat definitzea den neurrian, ikusiko da ondoan zirriborratuko dudak teoriak harreman bikoitza duela orain arte egin diren ikerketekin. Alde batetik, ahaleginduko da formulatzen modu orokorrean (eta zuzenketa ugariarekin eta asko landuaz) ikerketa horietan erabili diren tresnak, bai euren jardunean baliatutakoak bai euren helburuak ezarritako premiagatik mamitutakoak. Baina, bestalde, indartu egiten da edozein motatako antropologismotik garbia izango den metodoa definitzean lortu diren emaitzekin. Bera datzan lurzorua berak aurkitu duen berbera da. Eromenari buruzko ikerketak eta psikologia baten agerpena –gaixotasunari eta medikuntza klinikoaren sorrerari buruzkoa, bizitzaren zientziei buruzkoa, hizkuntzari eta ekonomiari buruzkoa–, neurri batean itsuak izan diren ahaleginak izan dira, baina argitzen joango dira, ez bakarrik euren metodoa pittinka-pittinka zehazten doalako, baizik eta –humanismoari eta antropologiari buruzko eztabaida horretan– aurkitzen dutelako euren ahalbide historikoaren puntua.

Hitz batean esanda, lan hau, bere aurrekoak bezala, ez da txertatzen –ez behintzat zuzenean eta ezta lehen asmoan ere– egiturari buruzko eztabaidan (bera genesiari, historiari edo bilakaerari kontrajarrita), haatik, txertatzen da gizakiari, kontzientziari, jatorriari eta subjektuari buruzko galderak agertzen diren, hazten diren, gurutzatzen diren eta zehazten diren arloan. Alabaina, zalantzarik gabe, ez da zentzugabea izango esatea egituraren arazoa ere planteatzen dela bertan.

Lan hau ez da Histoire de la folie, Naissance de la Clinique edo Les Mots et les Choses lanetan irakur daitekeenaren birmoldaketa eta deskripzio zehatza. Makinatxo bat puntutan ezberdina da. Aldi berean, zenbait zuzenketa eta barruko kritika biltzen du. Modu orokorrean esanda, histoire de la folie lanean zati handiegia –eta benetan enigmatikoa gainera– ematen zitzaion bertan «esperientzia» modura izendatua aurki zitekeenari, honela erakusten zelarik zer hurrean nengoen historiaren subjektu anonimo eta orokorra onartzetik; Naissance de la clinique lanean behin eta berriz azterketa estrukturalera jotzeak bazekarren berarekin planteatutako arazoa eta arkeologiari dagokion maila alde batera geratzeko arriskua; eta, azkenik, Les mots et les Choses lanean mugarritze metodologikoaren faltak eraman ahal izan du pentsatzera nire analisiak totalitate kulturalak balira bezala bururatu ditudala. Tristatzen nau ez naizela gai izan arrisku hauek saihesteko, eta nire burua kontsolatzen dut neuri esanaz eurak nire eginkizunean bertan txertatuta daudela, izan ere, eginkizun honek, bere neurketak egin ahal izateko, baztertu behar izan ditu bai metodo ezberdin horiek eta baita historiaren forma ezberdin horiek ere; eta gainera, planteatu dizkidaten galderarik gabe³, aurkeztutako zailtasunik gabe, eragozpenik gabe, inolako zalantza barik ez nukeen hain modu argi eta garbian diseinatzen ikusiko ordutik aurrera, gogoz edo gogoz kontra, lotuta naukan eginkizuna. Hortik dator testu honen kontu handiko eta duda-mudako estiloa: uneoro urruntasuna hartzen du, alderdi guztiekiko neurritasuna erakusten du, haztamuka doa hauen mugetaraino, talka egiten du esan nahi ez duenarekin, lubakiak egiten ditu bere bidea definitzeko. Uneoro salatzen du gerta daitekeen edozein nahasmendu. Uko egiten dio bere identitateari, baina ez alde aurretik zera esan gabe: ni ez naiz ez hau eta ez bestea. Ez da kritikoa, gehienetan; ez dago esaterik denak, alde batekoak nahiz bestekoak, oker daudela. Hemengo hau, bere ingurukoetatik kanpoan, kokagune propioa definitzeko lana da; gainerakoak isiltasunera murrizteko ahalegina baino gehiago (euren asmoa alferrikakoa dela aldarrikatuz) aipatu dudakun gune zuria definitzeko lana, eta gune honek tankera hartzen du astiro-astiro nik oraindik hain prekariora eta ez ziurra deritzodan diskurtso batean.

— Ez al zaude diozunaz seguru? Aldatu behar al duzu atzera ere, planteatu dizkizuten galderetatik aldendu, esan behar al duzu kontrako arrazoiek ez diotela benetan begiratzen zure ikuspuntuen jatorriari? Gertatzen ari al zara berriro ere esateko ez zarela sekula izan aurpegiratu dizuten hori? Irtenbidea atontzen diharduzu zure hurrengo liburuan, orain dagizun moduan, beste nonbaiten berragertzeko eta zirikatzekeo esanaz: ez, ez nago niri zelatan zauden lekuan, haatik, hemen nago, zuri begira eta barrezka?

— Zer ba? Irudikatzen al duzu hartuko nukeela nik hainbesteko oinazea eta hainbesteko plazera, uste al duzu hain tematia, hain itsua izango nintzatekeela idaztean, prestatuko ez banu –esku bero samar batekin– menturatuko naizen labirintoa, nire asmoa bertan higiarazteko, berarentzat lurpeko bideak irekitzeko, bere buruaz urruntzera behartzeko, bertan irtenak aurkitzeko bere ibilbidea murrizten eta desitxuratzen dutenak edo nire burua galtzeko eta azkenean berriro inoiz ikusi beharra izango ez dudan begien aurrean agertzeko. Batek baino gehiagok, neuk bezala zalantzarik gabe, aurpegirik ez izateko idazten du. Ez galdegin niri nor naizen ni eta ez eskatu niri beti bat irauteko: nortasun egoeraren moralari dagokio hau: gure paperez arduratzen da bera. Askatasuna ematen digu tokatzen dena idaztea denean.

II.
ERREGULARTASUN
DISKURTSIBOAK

I.

Diskurtsoaren batasunak

Jarraitasun-ezaren, hausturaren, atalasearen, mugaren, sailaren, eraldaketaren kontzeptuak jokoan sartzeak prozedurari buruzko galdera ez ezik arazo teorikoak ere planteatzen dizkio azterketa historikoari. Arazo teorikook izango dira hemen landu nahi direnak (prozedurari buruzko galderak geroago burutuko diren ikerketetan aztertuko dira; bai behintzat halako lan bati ekiteko aukera, gogoa eta adorea badut noizbait). Arlo berezi batean baino ez dira aztertuko gainera arazo teorikoak: hots, ideien, pentsamenduaren, zientzien edo ezagutzen historia deritzen diziplinetan, euren mugez hain ez-segurua eta euren edukietan hain zalantziatik diren diziplinetan alegia.

Aldez aurretik badago lan negatibo bat bete beharra: gure burua adigai-joko oso batez aske utzi behar dugu, hain zuzen jarraitasunaren gaia bakoitzak bere erara dibertsifikatzen duten adigaien jokoaz. Hauek ez dute egitura kontzeptual zorrotz-zorrotza osatzen, ez dago honetaz zalantzarik, baina euren eginbeharra zehatza da. Tradizioaren adigaia esaterako: fenomeno-multzo bati –guztiak aldi berean jarraituak eta berberak direnak (edo analogoak gutxienez)– denborazko estatus berezia ematen ahalegintzen da; berak baimenduko du historiaren sakabanaketa berriro pentsatzea berberaren formaren baitan; hasiera orori berezkoa zaion diferentzia murrizteko aukera emango du, gelditu barik atzeraka joaz jatorria etenik gabe zehazten joateko; berari esker berritasunak banandu daitezke atzealde iraunkor baten gainean eta meritua gizabanakoei dagokien orijinaltasunari, jenioari eta erabakiari atxiki dakioko. Esaterako, halaber, eraginaren adigaia, transmisiozko eta komunikaziozko gertaerei euskarria ematen diena, magikoezia behar den moduan aztertua izan ahal izateko; berak antzekotasun eta errepikapen-fenomenoak prozesu bati lotzen dizkio, itxuran kausala dena (baina mugatze zorrotzik gabekoa eta definizio teorikorik gabekoa), eta gizabanako, lan, adigai, edo teoria modura definitzen diren batasunak uztartzen ditu urrutetik eta denboraren barrena –hedapen-ingurune batez baliatuko balitz bezala–. Esaterako, bestalde, garapenaren eta bilakaeraren adigaiak: hauek uzten digute sakabanatutako gertaera batzuen segida berriro elkarlotzen, hastapen antolatzaile bakar eta berberarekin erlazionatzen, bera bizitzaren ahalmen eredugarriaren menpean ipintzen (bere joko moldatzaileekin, bere berritzeko gaitasunarekin, elementu ezberdinen arteko etengabeko korrelazioarekin, bere asimilazio eta aldaketa sistemekin), eta uzten digute deskubritzen, baita ere, koherentzia-hastapen bat, hasiera guztietan jardunean egongo dena, eta etorriko den batasun baten zirriborroa, eta uzten digute, halaber, denbora menderatzen (honetarako baliatuko da itzulgarriak diren abiapuntu eta xedearen arteko harremanez, sekula emanak ez eta beti jardunean daudenak). Eta esaterako, era berean, «pentsamonde» edo «gogoaren» adigaiak, hauek baimentzen dute garai jakin bateko aldi bereko edo segidako fenomenoaren artean zentzu batasuna ezartzea, hala nola lotura sinbolikoak eta antzekotasun eta ispilu-jokoak, edo azalpen-hastapen modura sorraraztea kontzientzia kolektibo baten subiranotasuna. Auzitan jarri behar dira, atzera, aldez aurretik zertutako sintesi horiek, inolako azterketarik egin aurretik onartu ohi diren multzokatzeak, jokoan sartu ahala euren baliagarritasuna onartzen zaien loturak; bazterreratu behar dira gizakien diskurtsoak elkarren artean lotzeko erabili ohi ditugun forma eta indar ilunak; bazterreratu behar dira nagusi diren gerizpe horretatik. Eta eurei berezko balioa eman baino lehenago hobe da onartzea, metodoak horrela eskatzen duelako eta hasteko, eurek dihardutela gertaera sakabanatu pila bati buruz eta ez beste ezeri buruz.

Kezka izan behar dugu, halaber, zatiketa eta multzokatzeekin, euretara ohituta gauzkatena. Onar al litezke, diren horretantxe, diskurtso-mota handien arteko bereizketak? Onar al litezke zientzia, literatura, filosofia, erlijioa, historia, fikzioa, etab, elkarren artean kontrajartzen dituzten formen edo generoen arteko bereizketak? Gu geu ere ez gaude seguru bereizketa hauen erabilpenaz geurea den diskurtsoaren munduan, eta arrazoi gehiagorekin, oraindik, aztertu beharrekoa enuntziatu-multzo batzuk direnean, zeintzuk formulatu ziren garaian oso modu ezberdinean banatuak, zatikatuak eta ezaugarrituak zeuden: azken baten, «literatura» eta «politika» orain dela gutxiko kategoriak dira eta ezin zaizkio aplikatu erdi aroko kulturari ez eta kultura klasikoari ere, ez bada atzera begirako hipotesi baten bidez eta analogia formalen joko edo antzekotasun semantikoaren bidez; baina ez literaturak, ez politikak eta ezta filosofiak edo zientziak ere artikulatzen dute diskurtsoaren eremua XVII. edo XVIII. Mendeetan, XIX. mendean artikulatu duten bezala. Edozein modutan zatiketok –geuk onartutakoak direla, edo aztertutako diskurtsoen garaikideak direla– hausnarketako kategoriak izango dira berez eta beti, sailkatzeko hastapenak, erregela arau-emaileak, instituzionalizatutako motak: hauek, aldi berean, diskurtsoaren egiteak izango dira, beste batzuen ondoan aztertu beharrekoak; hauekin, jakina, harreman konplexuak dituzte, baina ez dira berezko ezaugarri, ez autoktonoak ez eta unibertsalki antzeman daitezkeenak ere.

Baina modu zuzenagoan ezartzen zaizkigunak izango dira guztien gainetik esekita jarri behar direnak: hots, liburuarenak eta obrarenak. Ezabatu al daitezke ez bada gehiegizko artificio batez baliatuz? Ez al dira eurak emanak modurik ziurrenean? Liburuaren indibidualizazio materiala: leku jakin bat betetzen du, balio ekonomiko bat du eta berez bere hasieraren eta bukaeraren mugak adierazten ditu zeinu kopuru zehatz baten bidez; lan oso baten finkapena da, egile bati testu kopuru jakin bat atxikiz ezagutu eta mugatzen dena. Eta, hala ere, pittin bat hurrerotik begiratzen zaionean zailtasunak datoz. Liburuaren batasun unibertsala? Gauza bera al dira poema antologia bat, hil osteko testu-zati batzuen bilduma, *Traité des coniques* lana edo Micheleten *Histoire de France*-ren liburuki bat? Gauza bera al dira *Un Coup de dés*, Gilles de Raisen epaiketa, Butoren San Marco edo meza-liburu katoliko bat? Beste hitz batzuetan esanda, liburukiaren batasun materiala –berak euskarria ematen dion batasun diskurtsiboari dagokionez– ez al da batasun ahula, batasun osagarria? Baina batasun diskurtsibo hau, bestalde, homogeneoa eta modu uniformearen aplikagarria al da? Stendahlen eleberri bat edo Dostoievskiren eleberri bat ez al dira indibidualizatzen Balzacen *La Comédie humaine*-ren bi liburukiak indibidualizatzen diren bezala? Eta azken biok ez al dira bereizten elkarren artean Joyceren *Ulysses* eta Homeroren *Odissea* bereizten diren modura? Liburu baten mugak ez dira sekula garbiak eta modu zorrotz batean marraztuak: izenburuaren gainetik, lehen lerroez eta puntu eta amaieraz gainetik, bere barne konfigurazioaz eta autonomia ematen dion formaren gainetik harrapatua dago beste liburu, testu eta esaerekiko erreferentzia-sistema batean: sare bateko korapilo bat da. Eta erreferentzien joko hau ez da homologoa matematika-tratatu batez dihardugunean edo testu-iruzkin batez, kondaira historiko batez edo eleberri ziklo bateko pasarte batez ari garenean; liburuaren batasuna, baita bera harreman-multzo lege zehatz ulertuta ere, ezin da berbera izan ez batean eta ez besteetan ere. Liburu eskuetan dugun gai bat dela baderitzogu ere, bera biltzen duen paralelepipedoan ostentzen bada ere, bere batasuna aldakorra eta erlatiboa da. Galdatzen zaionean bere ebidentzia galtzen du; berak adieraziko du eta eraikiko du bere burua bakarrik diskurtsoen eremu konplexu baten bidez.

Obra bati dagokionean, berak planteatzen dituen arazoak zailagoak dira oraindik. Baina, itxuran behintzat, ba al dago ezer samurragorik? Testu-multzo bat dugu, izen berezi baten zeinuarekin adierazi ahal izango direnak. Alabaina, adierazte hori (alde batera utzita atribuzioaren arazoak) ez da funtzio homogeneo bat: egile baten izenak berdinduz adierazten al du bere izenarekin argitaratu duen testu bat edo goititzen batekin aurkeztu duena edo bera hil ondoren aurkitu dena, zirriborro modura edo ohar nahaskila besterik ez den ohar-liburua? Obra baten edo opus baten eraketak zenbait hautaketa biltzen ditu, errazak ez direnak ez justifikatzeko eta ezta formulatzeko ere: nahikoa al da egileak argitaratutako testuei gehitzea inprimatzeko asmotan zituenak eta bere heriotza zela-eta bukatu gabe geratu direnak? Sartu behar al da, halaber, nahasgarria den guztia, lehen asmoa, nola liburuaren zuzenketa eta ezabaketa dena? Gaineratu behar al dira baztertutako zirriborroak? Zer estatus aitortu behar zaie gutunei, oharrei, beste norbaitek kontatutako elkarrizketei, entzuleek idatziz jasotako hitzaldiei, laburbilduz, gizabanako batek hiltzean bere inguruan uzten duen hitzezko arrasto jarri eskerga horri, zeinak hizkuntza ezberdinen zehaztugabeko gurutzaketa batean berba egiten duen? «Mallarmé» izenak ez ditu modu berean aipatzen berak jorratutako gai ingelesak, Edgar Poeren lanen egin zituen itzulpenak, beraren olerkiak, edo galdeketei erantzunak; Nietzscheren izenak, halaber, ez du harreman bera gaztetako autobiografiekin, eskolan emandako jardunaldiekin, idazki filologikoekin, Zarathoustra eta Ecce Homorekin, gutunekin, «Dionysos» edo «Kaiser Nietzsche» modura sinatutako postalekin, edo garbitegiko oharrek eta aforismoetarako zirriborroek ehuntzen duten fitxa

kontaezinekin. Izan ere, hitz egiten bada halako naturaltasunarekin eta gehiago galdetu gabe egile baten obraz, izango da suposatzen delako adierazpen-funtzio batek definitzen duela bera. Onartzen da egon behar duela maila bat (hain sakonekoa ezen irudikatu beharra dagoen) non lana errebelatzen den bere zatiki guztietan, baita txikienetan eta inesentzialenetan ere, egilearen pentsamenduaren adierazpen modura, bere esperientziarena, bere irudimenarena, bere inkontzientearena, edo, are gehiago, egilea harrapatuta zegoen determinazio historikoena. Baina ikusten da, era batera, tankera horretako batasuna ez dela berez ematen baizik eta eragiketa baten bidez osatzen dela, eta eragiketa hau interpretaziozkoa dela (izan ere, berak argitzen du testuak ezkututzen duen eta aldi berean adierazten duen zerbaiten transkripzioa), eta ikusten da, azkenik, opusa mugatzen duen eragiketa, bere batasunean, eta ondorioz lana bera, ez dela bat izango bera Le théâtre et son double (Artaud) lanaren egilea bada edo Tractatusaren egilea bada eta, ondorioz, ez dela bi kasutan modu berean hitz egingo «lan» batetaz. Lana ezingo da kontuan hartu ez berezko batasun modura, ez benetako batasun modura, ez batasun homogeen modura.

Kontu izan behar da, azkenik, eta baztertu behar dira aztertu nahi ei den diskurtsoa alde aurretik antolatzen duten hausnartu gabeko jarraitasunak: uko egin behar zaie elkarrekin lotuta eta kontrajarrita dauden ondoko bi gaiak. Batak eskatzen du ez dadila ahalezkoa izan, diskurtsoaren ordenan, egiaztagarria den gertaerarik tartekatzea, eta eskatzen du, halaber, itxurazko abiapuntu guztien gainetik egon dadila ezkutuko jatorri bat, hain ezkutukoa eta hain jatorrizkoa ezen ezingo den inoiz atzeman guztiz bera den moduan. Halabeharrez, kronologiaren inozotasunaren bidetik, beti atzerago dagoen puntu bateraino zuzentzen bagara ere, inongo historiari aurkituko ez den punturantz hain zuzen, puntu hori bera bere buruaren hutsa baino ez da izango, eta hortik aurrerako hasiera guztiak atzera ekitea edo ezkutaketa baino ezingo dira izan (egia esanda, keinu bat eta berebete, bai bata eta bai bestea izango dira). Gai honi beste bat gehitzen zaio, honen arabera diskurtso oro «dagoeneko-esanda» dagoen zerbaitetan letzake ezkutuan; eta «dagoeneko esandako» hori ez litzateke bakarrik izango honezkero ahoak enuntziatu bat, idatzitako testu bat, baizik eta «inoiz esan gabekoa», gorputzik gabeko diskurtsoa izango litzateke, putz egite bat haina isila den ahotsa, bere trazatuaren hutsunea. Suposatzen da horrela diskurtsoan formulatua izatera heltzen den guztia beraren aurreko den erdi-isiltasunean artikulatuta dagoela eta erdi-isiltasun honek temati jarraituko duela diskurtsoa baino areago, azken hau bera estaltzen eta isilarazten ahalegin duen. Ageriko diskurtsoa, azken baten, berak esaten ez duenaren presentzia zapaltzailea izango da, besterik ez; eta «ez-esandako» hori hutsune bat izango da, esaten den guztia azpitik jaten duena. Lehenengo gaiak ikusten du diskurtsoaren analisi historikoa jatorri baten bilakuntza eta errepikapena biltzen, determinazio historiko orori ihes egiten dion jatorriaren modura, hain zuzen: besteak ikusten du «dagoeneko-esanda» dagoen zerbaiten interpretazioa edo entzuketa modura, zeina aldi berean «ez-esandako» zerbait izango litzatekeen. Uko egin behar zaie funtzio bezala zera izango duten gai horiei guztiei: hots, bermatzea bai diskurtsoaren amaigabeko jarraitasuna, bai bere buruarekiko bere ezkutuko presentzia ere, zeina behin eta berriz luzatzen den absentzia baten jokoan. Gertu egon behar dugu diskurtsoaren bat-bateko edozein agerpeni arreta jartzeko, agertzen den puntualtasunean eta denborazko sakabanaketan; honek baimentzen dio errepikatua, ezaguna, ahaztua, eraldatua izatea eta baita azken arrastoraino ezabatua izatea ere eta ezkutatua izatea liburuen hautsen artean edozein begiradatik urrun. Ez da nahitaezkoa diskurtsoa atzera uztartzea jatorrizkoaren urruneko presentziarekin, haatik bere gertatzearen jokoan tratatu behar da.

Jarraitasunaren aurreko forma hauek, problematizatu gabe onartzen diren sintesi horiek guztiak, esekita utzi behar dira. Egia esan, ez dira eurak arbuatu behar betiko, baina astindu behar da eurak onartzeko ematen den lasaitasuna; erakutsi behar da ez datozela berez, eraiketa baten ondorioa direla beti eta kontua izango dela eraiketa horren arauak ezagutzea, justifikazioak egiaztatzea, definitzea zein baldintzatan eta benetako zein azterketen arabera diren legitimoak, eta adieraztea zein diren aurrerantzean inolaz ere onartu ezin direnak. Litekeena da, esaterako, «eragin» eta «bilakaera» adigaiak kritika batean biltzea –denbora luzeago edo motzagoarako– ezertarako baliorik gabeko bihurtzen dituen. Baina gaitzitu behar al ditugu betiko «obra», «liburua», hala nola «zientzia» eta «literaturaren» gisako batasunak ere? Jo behar al dira irudipentzat, legitimitate gabeko eraikintzat edo gaizki zertutako emaitzat? Uko egin behar al zaio eurak oinarritzat hartzeari erabat, baita aldi baterako ere, eta eurei buruzko definizioa sekula santan emateari? Kontua benetan zera da: euren ia-ebidentzia euren baitatik bereiztea, planteatzen dituzten arazoak askatzea; onartzea ez direla beste zenbait galdera planteatzeko gune lasaia (euren egiturari buruz, euren koherentziaz, euren sistematizitateaz, euren eraldaketaz), baizik eta eurek berez galdera-sorta bat planteatzen dutela? (Zer dira eurak? Nola defini edo muga daitezke? Zer motatoko lege ezberdinen esana bete dezakete? Zer artikulazio-mota har dezakete? Zer azpimultzo eragin dezakete? Zer fenomeno berezi agerrarazten dute diskurtsoaren eremuan?). Kontua da onartzea beharbada eurak, azken baten, ez direla lehen begirada

batean uste izan zena; laburbilduz, teoria bat eskatzen dutela, eta teoria hori ezin dela mamitu agertu gabe –bere araztasun sintetikoan– eurak eraikitze behar den diskurtso-egiteen eremua.

Eta nik neuk ere ez dut besterik ezer egingo: egia esan, emanak diren batasunak hartuko ditut abiapuntu bezala (hala nola psikopatologia, medikuntza, edo ekonomia politikoa), baina ez dut nire burua batasun zalantzarri horien baitan kokatuko euren barruko konfigurazioa edo ezkutuko kontraesanak aztertzeko. Eurretan etzango naiz nahikoa denbora bakarrik nire buruari galdegiteko zer batasun eratzen duten, zer eskubiderekin aldarrika dezaketen badela esparru bat espazioan eurak bereizten dituen eta denboran banakotzen dituen, zer legeren arabera eratzen diren, gertaera diskurtsiboz osatutako zer atzealderen kontra taxutzen diren, eta, azkenean, ez ote diren eurak izango (onartutakoa eta ia instituzionala den euren banakotasunean) batasun sendoagoen azaleko ondorioa. Historiak proposatzen dizkidan multzoak bakarrik onartuko ditut eurak berehala auzitan jartzeko baldin bada; euren korapiloak desegiteko eta jakin ahal izateko ea berriz osa daitezkeen zilegitasunez; jakin ahal izateko, halaber, ea beste batzuk birsortu behar diren; eurak espazio orokorrango batean kokatzeko, beraien itxurazko etxekotasuna desagerraraziz eurei buruzko teoria mamitzen utziko digun espazioan, alegia.

Behin esekita jare ditugula jarraitasunaren berehalako forma hauek eremu oso bat askatua geratu da, neurrigabekoa izango dena, baina defini daitekeena. Eremu hau enuntziatu efektibo guztien multzoaz osatuta dago (ahozkoez nahiz idatzizkoez), eurak gertatzen diren sakabanaketan eta bakoitzari dagokion mailan. Zientzia bati, eleberriei, diskurtso politikoei, egile baten obrari, edo baita liburu bakar bati, benetan arreta jarri aurretik joratu behar den materiala –bere jatorrizko neutraltasunean joratu ere– diskurtso orokor baten espazioan ematen den gertaeren populazioa da. Horrela gertaera diskurtsiboen deskripzio baten egitasmoa agertzen da hodeiertz modura diskurtsoan bertan eratzen diren batasunak ikertzeko orduan. Deskripzio hau hizkuntzaren analisisaz bereizten da oso samur. Egia da ezin dela sistema linguistiko bat finkatu (bera artifizialki eraiki ezean), baliatuz ez bada enuntziatu-corpus batetaz edo diskurtso-egiteen bilduma batetaz; baina orain kontua da, lagin baten balioa duen multzo honetatik abiatuz arauak definitzea, baimenduko dutenak noiz edo noiz horietaz gain beste enuntziatu batzuk sortzea. Hizkuntza batek, beti ere, ahalezko enuntziatuentzat sistema bat osatzen du, bera aspaldi desagertuta egon arren edo inork hitz egin ez arren hizkuntza horretan: bera arau-multzo mugatua da, amaigabeko performance kopurua baimentzen duena. Gertaera diskurtsiboen esparrua, berriz, formulatuak izan diren sekuentzia linguistiko hutsen multzoa da, beti burututakoa eta orainean mugatutako multzoa da hain zuzen; hauek kontaezinak izan daitezke, euren kopuruagatik erregistratuak izateko ahalmen osoa ere gaindi dezakete, eta baita eurak gogoratze edo irakurtze ere, eta askotik gainditu gainera; baina, hala ere, multzo mugatu bat osatzen dute. Hizkuntzaren azterketak edozein diskurtso-egiteri buruz planteatzen duen galdera honakoa izango da beti: zer arauen arabera izan da taxutua enuntziatu bat eta, ondorioz, zer arauen arabera taxutu ahal izango lirarteke antzeko beste enuntziatu batzuk? Diskurtsoko gertaeren deskribapenak beste galdera bat planteatzen du: nola agertu da enuntziatu jakin horixe eta ez da agertu beste inolako enuntziaturik bere lekuan?

Ikusten da, halaber, diskurtsoaren deskribapen hau pentsamenduaren historiari kontrajartzen zaiola. Hemen ere ezin da pentsamenduaren sistema bat birsortu, ez bada diskurtso-multzo definitu batetik abiatuz. Alabaina, multzo hau tratatzen da eginahalak eginaz aurkitzeko, enuntziatu hutsez gaindi, subjektu mintzatzailearen asmoa, beraren jardura kontzientea, esan gura izan ei duena, edo, are gehiago, aurkitzeko subjektu mintzatzaile horrek esan duen horretan, edo adierazitako hitzetan ia hautemanezina den hausturan, berak horrelakorik gura ez izanda ere agerikoa egiten den joko inkontzientea. Edozein modutan kontua da beste diskurtso bat birsortzea, eta aurkitzea honela hitz mutua, marmar egiten duena, agortezina, entzuten den ahotsari barrutik bihotza ematen diona; kontua da testu xehea eta ikusiezina berrezartzea, idatzitako lerroetako irriztoak zeharkatu eta noizbehinka astintzen dituen. Pentsamenduaren azterketa beti da alegorikoa berak darabilen diskurtsoarekiko. Haren galdera, ezinbestean, honakoa da: zer esaten zen, beraz, esanda zegoen horretan? Eremu diskurtsiboaren azterketa oso bestela dago orientatua; kontua da enuntziatua atzematea bere gertatzearen estutasunean eta singularitasunean; zehaztea bere existentziaren baldintzak, bere mugak finkatzea; berarekin lotuta egon daitezkeen beste enuntziatu batzuekin izan ditzakeen korrelazioak ezartzea; eta erakustea zein beste enuntziatu-formak bazterten dituen berak. Ez da hemen bilatzen, agerikoa denaz gaindi, beste diskurtso baten erdi-isileko berriketa; erakutsi behar da zer dela eta ezin zen izan bera zena baino, zertan bereizten den beste edozeinez, nolatan hartzen duen berak beste inolako diskurtsorik bete ezin duen lekua, beste batzuen artean eta eurekin harremanean. Era honetako azterketa bati dagokion galdera honela formula daiteke: zein da, orduan, esaten den horretan, eta ez beste inon, loratzen den existentzia berezi hori?

Galdetu behar diogu gure buruari zer azken helburu duen onartutako batasun horiek guztiak esekita uzteak, azkenean kontua baldin bada itxuran eta hasieran auzitan jarri diren batasunak berriro aurkitzea. Izan ere, emanak izan zaizkigun batasun guztien ezabapen sistematikoak bidea ematen digu, lehenik, enuntziatua berrezartzeko bere gertatzearen singularitasunean, eta erakusteko jarraitasun-eza akzidente handi horietako bat dela, faila bat eragiten duena historiaren geologian eta baita enuntziatuaren akto sinplean ere; bera aterarazten da bere oldartze historikoan; berak osatzen duen ebakidura hori da begiradapean jarri nahi dena, menderaezina –eta oso sarritan xumea– den azaleratze hori. Enuntziatu bat beti izango da hizkuntzak eta zentzuak inondik ere agortu ezingo duten gertaera, berdin da zenbateraino den hutsala enuntziatu hori, berdin da zer garrantzi gutxiko ondorioak izango dituen gure irudimenaren arabera, berdin da zer agudo ahazten den bera agertu ondoren, edo berdin da zer gutxi ulertu den edo gure ustez zer gaizki dezifratua izan den. Gertaera arraroa da benetan: hasteko lotuta dagoelako idazketa keinu bati edo hitz baten artikulazioari, baina, bestalde, bere buruarentzat irekitzen duelako hondar moduko existentzia bat oroimen baten esparruan edo eskuizkribuen, liburuen eta berdin da beste zein edozein motatako erregistroren materialtasunean; gainera, bera bakarra delako, edozein gertaera den moduan, baina gertu dagoelako errepikapenerako, eraldaketarako, suspertzerako; eta, azkenik, bera lotuta dagoelako bera eragiten duten egoerei eta berak bultzatzen dituen ondorioei, baina baita, aldi berean, eta modalitate guztiz ezberdin baten arabera, bere aurrekoak diren eta bere ondotik datozen enuntziatuei ere.

Baina gertaera enuntziatiboen gauzatzea hizkuntzatik eta pentsamendutik bakartzen bada, ez da egiten horrela egiteen hautsa barreiatzeko, baizik eta seguru izateko gauzatze hori ez dela uztartzen psikologiko hutsak diren sintesi-eragileekin (hala nola egilearen asmoa, bere espirituaren era, bere pentsamenduaren zorrotasuna, aztoratzen duten gaiak, bere existentzia zeharkatu eta berari zentzu ematen dion egitasmoa) eta atzeman ahal izateko beste era batzuetako erregulartasunak, beste era batzuetako harremanak: enuntziatuen euren arteko harremanak (direla egilearen kontzientziari ihes egiten diotenak, direla egile ezberdinen lana diren enuntziatuak, edo direla elkar ezagutzen ez duten egileak), era horretara ezarritako enuntziatu-multzoen arteko harremanak (multzo hauek ez izan arren zerikusirik eremu berdinekin, ezta gertuko eremuekin ere, edo ez izan arren maila formal berekoak, edo ez izan arren euren esleitzeko moduko aldaketetarako gunea), enuntziatuen edo enuntziatu-multzoen eta guztiz beste era bateko gertaeren arteko harremanak (gertaera teknikoak, ekonomikoak, gizartekoak, politikoak). Gertaera diskurtsiboak euren araztasunean barreiatzen diren espazioa agerraraztea, ez da izango bera inork gaintu ezingo duen bakartze batean berrezartzen ahalegintzea; ez da izango bera bere baitan ixtea; haatik, izango da norberari askatasuna ematea harreman-jokoak deskribatzeko bere baitan eta bere baitatik kanpo.

Diskurtsoko egiteen era horretako deskribapenak hirugarren interes bat badu: eurak askatuz gero batasun naturalizat, berehalakotzat eta unibertsaltzat jotzen diren taldekatze guztiez, badago aukera beste batasun batzuk deskribatzeko, baina oraingoan kontrolpean dauden erabaki pila baten bidez. Onartuta baldintzak argi eta garbi definitzen direla, zilegi izan liteke diskurtsoko multzoak eratzea zuzen deskribatutako harremanetan oinarrituta, arbitrarioak izango ez diren diskurtsoko multzoak, baina, hala ere, ikusezinak iraungo dutenak. Jakina, harremanok ez lirateke sekula berez formulatuak izango aipaturiko enuntziatu horietan (hau ez da horrela gertatzen diskurtsok berak proposatzen eta adierazten dituen harreman esplizituetan, esaterako, diskurso horrek eleberri forma hartzen duenean edo teorema matematikoen sail batean inskribatzen denean). Alabaina, euren ez dute inolaz ere osatuko nolabaiteko diskurso sekretu bat, ageriko diskurtsok barrutik animatuko dituen; ez da, beraz egite enuntziatiboak argitu ahal izango lituzkeen interpretazioa, gehiago da euren aldi bereko existentziaren azterketa, euren jarraitasunena, euren elkarrekiko funtzionamenduarena, batak bestea mugatzearena, euren transformazio bakarkakoarena edo korrelatiboarena. Dena dela, ez da pentsatu behar era horretara ager daitezkeen harreman guztiak deskribatu ahal izango direnik erreferentzia bat gabe. Lehen hurbilketa batean onartu beharko da behin-behineko zatiketa bat, hasierako eskualde bat, azterketak desegin eta berrantolatuko duena beharrezkoa den hainbat alditan. Nola zedarritu eskualde hau? Alde batetik, enpirikoki, aukeratu behar da esparru bat non arriskua dagoen harremanak ugariak, dentsuak eta neurri batean deskribatzeko samurrak izan daitezkeen: eta zein beste eskualdetan ematen dute gertaera diskurtsiboek elkarren artean hobeto lotuak, eta hobeto argi daitezkeen harremanekin gainera, oro har zientzia terminoarekin deritzon eskualde horretan baino? Baina, bestalde, nola izan aukera gehiago enuntziatu batean jasotzeko bere existentziaren momentua eta bera agertzeko arauen momentua ere, – eta ez bere egitura formalarena eta bera eraikitzeke legeena–, baldin eta ez baditugu kontuan hartzen gutxi formalizatutako diskurso-multzoak, zeinetan itxuraz enuntziatuak ez diren sortzen derrigor sintaxi hutsaren legeen arabera? Nola egon seguru saihestuko ditugula obraren moduko ebakidurak, hala nola eraginaren moduko kategoriak, baldin eta ez bada

kontuan hartuz hasiera-hasieratik eremu nahikoa luzeak eta eskala kronologiko nahikoa zabalak? Hitz batez, nola seguru egon ez garela harrapatuak geratuko gutxi hausnartutako batasun edo sintesi horietan guztietan, zeintzuk zerikusia duten gizabanakoarekin, diskurtsoaren subjektuarekin, testuaren egilearekin eta, laburbilduz, antropologi kategoria horiekin guztiekin? Nola, ez bada kontuan hartuz kategoria horiek gauzatzeko oinarria izan diren enuntziatuen osotasuna; kontuan hartuz diskurtsoaren subjektua (euren subjektua bera) «objektu»-tzat aukeratu duten enuntziatuen osotasuna eta ezagutzen arloa bailitza zabaltzen ahaleginduz.

Honela azaltzen da diskurtso hauei «de facto» aitortu diedan pribilegioa, era honetara esan ahal izango delarik, oso eskematikoki, eurek definitzen dituztela «giza zientziak». Baina hau hasiera bateko pribilegioa besterik ez da. Oso gogoan izan behar ditugu bi egite: alde batetik, gertaera diskurtsiboen azterketa ez dela tankera horretako eremu batera mugatzen inolako gaitan; eta, beste alde batetik, eremu horretan zatiketa ezin dela kontsideratu definitibo edo balio absolutukoa; lehen hurbilketa bat da, baimendu behar diguna lehen zirriborro honen mugak ezaba dezaketen harremanak agerrarazten.

II. Eraketa diskurtsiboak

Enuntziatuen arteko harremanak deskribatzen ahalegindu naiz beraz. Kontuz ibili naiz alde zurretik proposatutako batasunetatik, hau da, ohiturak eskura jarritako batasunetatik, bat ere ez jotzeko baliagarritzat. Erabakia hartuta nengoen kontuan hartuko nituela jarraitasun-ezaren forma guztiak eta baita ebakidurarenak, atalasearenak eta mugarenak ere. Erabakia hartuta nuen enuntziatuak deskribatuko nituela diskurtsoaren eremuan eta baita eurentzat litezkeenak ziren harremanen eremuan ere. Arazoak berehala agertu ziren eta nire ustez bi sailetan agertu gainera: bata dagokio nik enuntziatu, gertaera eta diskurtso hitzez egin dudana erabilpenari –sail hau alde batera utziko dut oraingoz eta geroago lotuko natzaio berari atzera–; besteak zerikusia du legitimoki deskriba daitezkeen harremanekin, zehatz esanda euren behin-behineko eta ageriko taldekatzean utzi diren enuntziatuen artean deskriba daitezkeen harremanekin.

Badira, esaterako, enuntziatu batzuk ekonomia politikoaren adierazletzat jotzen direnak –erraz zehatz daitezkeen data batetik aurrera jo ere–, beste batzuk, halaber, biologiaren adierazletzat joko dira, beste batzuk psikopatologiarenak; badira, gainera, gramatika eta medikuntza deritzen jarraitasunei omen dagozkienak, milaka urtetatik datozenak eta ia jaiotze datarik ez duten jarraitasun horiei dagozkienak, alegia. Alabaina, zer dira batasun horiek? Zer dela eta esan daiteke Willisek egin zuen buruko gaitzen azterketa eta Charcotena diskurtsoaren ordena beraren zatiak direla? Zer dela eta esan Pettyren asmaketak Neumannen ekonometriaren jarraipen zuzena direla? Zer dela eta esan eremu berekoak direla bai Port-Royaleko gramatikarien judizioari buruzko azterketa, bai indoeuropar hizkuntzetan ematen den bokalen arteko alternantziak jabetzea? Zer dira, orduan, medikuntza, gramatika, eta ekonomia politikoa? Ez al dira izango atzera begirako berriz biltze bat, horrela zientzia garaikideek euren iraganaz ilusio bat izateko? Izango al dira eurak behin eta betiko ezarri diren formak, gero denboran barrena modu subiranoan garatuko direnak? Estaltzen al dituzte eurek beste batasun batzuk? Eta zer nolako loturak bereizten dira, modu baliagarri batean, masa enigmatiko bat –aldi berean modu familiar eta tematian– eratzen duten enuntziatu horien guztien artean?

Lehen hipotesia: hasteko egiantzekoena eta frogatzeko errazena iruditu zaidana: forma ezberdineko eta denboran barreiatutako enuntziatuek multzo bat osatuko dute baldin eta objektu bat eta berberari badagozkio. Honela, psikopatologiari dagozkion enuntziatuek ematen dute guztiak lotuta daudela objektu batekin, bera zoramen hitzarekin izenda daiteke eta era ezberdinetan nabarmentzen da gizabanakoaren esperientzian edo gizarte esperientzian. Alabaina, berehala jabetu naiz «zoramena» deritzon objektuaren batasunak ez duela enuntziatuen multzo bat bereizten uzten eta ez duela enuntziatu horien artean ezartzen uzten aldi berean adierazgarria eta konstantea izango den harremana. Eta hau honela da bi arrazoiengatik. Huts egingo genuke, ez dago zalantzarik, garai jakin batean zoramenari buruz esan dena jakiteko orduan, galdera egingo bagenio zoramenaren izate berari, bere eduki sekretuari, bere egia mutuari, bere baitan itxitako egitari. Buruko gaitza osatu du bera izendatu duten enuntziatuen multzoan esandako guztiak, bera ebaki, deskribatu eta azaldu duten esakuneen multzoan esan den guztiak, bere garapenak adierazi, bere korrelazio ezberdinak erakutsi, bera juzgatu duten enuntziatuetan esan denak, eta, buruko gaitzaren izenean, berari hitza eman dioten enuntziatuetan esan den guztiak bereak balira bezala agertuko diren diskurtsoak artikulatzeko. Baina bada gehiago oraindik: enuntziatu-multzo honek ez du adierazten, ezta hurretik ere, objektu bakarra, behingoan eta betiko eratutako objektua, eta ez du, ezta hurretik ere, objektu bakar hori iraurarazten mugarik gabe bere agortezineko idealtasunaren hodeiertz bezala. XVII. edo XVIII. mendeetako

medikuntzaren enuntziatuen korrelatu modura jartzen den objektua ez da epai juridikoetan edo poliziak hartutako neurrietan izendatzen den berbera; era berean, psikopatologiaren diskurtsoaren objektu guztiak aldatu dira Pinel edo Esquirolengandik Bleulerenganaino: ez dituzte gaixotasun berberak kontuan hartzen batak eta besteak; ez dira zoro berberak kontuan hartzen.

Objektuen ugaritasun honetan oinarrituta litekeena da, beharbada baita beharrezkoa ere, zera ondorioztatzea: alegia, ezinezkoa dela onartzea «zoramenari buruzko diskurtsoa» izan daitekeenik batasun baliagarria enuntziatuen multzo bat osatzeko. Beharbada, kontuan hartu beharko lirakekeen enuntziatu-multzo bakarrak izango lirakeke objektu bat eta berbera dutenak, esaterako, malenkoniari buruzko diskurtsoa edo neurosiari buruzkoa. Baina berehala jabetuko gara diskurtso hauetako bakoitzak ere bere objektua osatu duela eta bera landu egin duela guztiz eraldatzeraino. Arazoa, orduan, izango da jakitea ea diskurtsoaren batasuna zertzen den gehienbat objektu ezberdinak taxutzen diren eta etengabe eraldatzen diren espazioan, eta ez hainbeste objektu baten iraupenean eta singularitasunean. Zoramenari buruzko enuntziatu-multzo bat banakotzea baimentzen duen harreman berezia ez al da izango, orduan, arau bat, bete beharrezkoa dena aldi berean eta segidan azaleratzeko enuntziatu-multzo horretan izendatzen, deskribatzen, aztertzen, estimatzen edo juzgatzen diren objektu ezberdinak? Zoramenari deritzon objektuari buruzko diskurtsoen batasuna ez litzateke oinarrituko «zoramenari» objektuaren existentzian, edo objektibotasun hodeiertz bakar baten eraketan; batasun horren oinarria izango litzateke arau-joko bat, zeinak ahalezkoa egingo duen objektuak denbora tarte jakin batean agertzea: zokoraketa eta errepresio neurrien bidez ebakitzen diren objektuak, eguneroko jardunean bereizten diren objektuak, jurisprudentzian bereizten direnak, kasuistika erlijiosoan, sendagileen diagnostikoan, deskribapen patologikoetan agertzen diren objektuak, medikatze, tratamenduetarako, zainketarako kode edo errezetek zedarrizten duten objektuak. Bestalde, zoramenari buruzko diskurtsoen batasuna izango litzateke objektu ezberdinen eraldaketak definitzen dituen arauen jokoa, denboran zehar ematen diren objektu horien ez-identitatea, euren artean ematen den haustura, euren iraupena eteten duen barruko jarraitasun-eza. Modu paradoxiko batean, enuntziatu-multzo bat bere indibidualtasunean definitzea objektu horien sakabanaketa deskribatzea izango da, eurak banatzen dituen zirrikitu guztiak atzematea, euren arteko distantziak neurtzea, beste hitz batzuetan esanda, euren banaketa-legea formulatzea.

Enuntziatuen arteko harremanen multzo bat definitzeko bigarren hipotesia: euren forma eta eurak kateatzeko modua. Iruditu zitzaidan, esaterako, medikuntza-zientzia XIX. mendetik aurrera gehienbat ezaugarritzen zela nolabaiteko estilo bategatik, enuntziatuaren nolabaiteko izaera iraunkor bategatik, eta ez hainbeste bere objektu edo kontzeptuengatik. Lehenengoz, medikuntza ez zuen osatuko tradizioen, behaketen eta era askotako errezeten multzo batek, baizik eta ezagutzen corpus bakar batek osatuko zuen; corpus honek suposatuko zuen gauzei modu berean so egingo zitzaiela: pertzepzio-arloaren zatikatze bera, gertaera patologikoaren azterketa bera (gorputzaren azalera ikusgarriaren arabera), hautematen dena adierazteko transkripzio-sistema bera (hiztegi bera, metafora berberak); laburbilduz, iruditzen zitzaidan medikuntza antolatzen zela enuntziatu deskriptibo batzuen modura. Baina hor ere beharrezkoa izan zen hasierako hipotesi hori alde batera uztea, eta aitortu behar izan da diskurtso klinikoa, deskribapen-multzo bat izateaz gain, bizitza eta heriotzari buruzko hipotesi-multzo bat ere izango dela, aukeraketa etikoen multzo bat, erabaki terapeutikoena, araudi instituzionalena eta irakaspen ereduaren multzo bat; aitortu behar izan da, halaber, deskribapen-multzo hori ezingo zela edozein modutan beste multzo hauetatik guztietatik atera abstrakzioa eginez, eta enuntziazio deskriptiboa izango litzatekeela medikuntza-diskurtsoan agertzen diren formulazioetako bat, besterik ez. Aitortu beharko da, gainera, deskripzio hau lekualdatzen joan dela etengabe: dela Bichatengandik hasita eta patologia zelularreraino eskalak eta erreferentziak lekualdatu direlako, dela informazio-sistema aldatua izan delako ikuskatzetik, auskultatzetik eta haztapenetik mikroskopioaren eta biologia-testen erabilerraino; dela, halaber, korrelazio anatomo-kliniko sinpletik prozesu fisiopatologikoen azterketa fineraino zeinuen lexikoa eta eurak deszifratzeko modua berriz eratu delako oso-osorik; dela, azkenik, medikuak berak utzi diolako pittinka-pittinka informazioa erregistratzeko eta interpretatzeko gunea izateari eta bere alboan, berarengandik kanpo, osatu direlako dokumentu masak, korrelazio tresnak, eta azterketa teknikak, berak, jakina, horiek erabiliko ditu, baina aldatuko dute gaixoaren aurrean duen jarrera bera subjektu behatzailea den neurrian.

Aldaketa hauek guztiak, beharbada gaur egun medikuntza berri baten atarira garamatzatenak, motel-motel joan dira ezartzen medikuntzaren diskurtsoan XIX. mendean zehar. Definitu nahi izango balitz diskurtso hori adierazpen-sistema kodifikatu eta normatibo baten bidez, onartu beharko litzateke medikuntza hau deuseztatu egin zela agertu ahala eta bakarrik Bichatengan eta Laennecengan formulatu ahal izan zela. Batasunik baldin badago, honen hastapena ez da izango

enunziatu-mota zehatz bat; ez ote litzateke izango, hobe esanda, arauen multzo bat, ahalezkoak bihurtu dituztenak pertzepzio hutsezko deskripzioak batera edo hurrenez hurren, ahalezkoak bihurtu dituztenak lanabesen bidezko behaketak, laborategietako esperimentuen protokoloak, kalkulu estatistikoak, egiaztapen epidemiologikoak edo demografikoak, araudi instituzionalak, preskripzio terapeutikoak? Enunziatu sakabanatu eta heterogeneo horien arteko koexistentzia da ezaugarritu eta bereizi beharko litzatekeena; hots, ezaugarritu eta bereizi beharko litzateke euren banaketan agintzen duen sistema, enunziatu horiek elkarri ematen dioten sostengua, zer modutan nahasten diren edo bazterreratzen diren, eurek jasotzen duten eraldaketa, euren txandakatzearen, banaketaren eta ordezkatzearen jokoak.

Ikerketarako beste norabide bat, beste hipotesi bat: ezin ote lirateke finkatu enunziatuen multzoak, jokoan jarri diren kontzeptu iraunkor eta koherenteen sistema zehaztuz? Esaterako, hizkuntzaren eta gramatika-egiteen azterketa ez datza klasikoentzat (Lanceloten ondotik XVIII. mendearen bukaera arte) kontzeptu kopuru definitu batean, edukia eta erabilpena behin eta betiko ezarria izango zuten kontzeptu kopuru batean alegia: judizioaren kontzeptua edozein esaldiren forma orokor eta arau-emaile modura definitua, subjektuaren eta atributuaren kontzeptuak izenaren kategoria orokorra bilduta, aditzaren kontzeptua kopula logikoaren kontzeptuaren balio bidez erabilia, hitzaren kontzeptua errepresentazio baten zeinu modura definitua, etab.? Horrela gramatika klasikoaren arkitektura kontzeptuala eratu ahal izango litzateke atzera. Baina hor ere, oraindik, mugak aurkituko genituzke berehala: ia zalantzarik gabe Port-Royaleko egileek burututako azterketak deskribatu ahal izango lirateke osagai horiekin, baina berehala onartu beharko litzateke zenbait kontzeptu berriren agerpena; hauen artean batzuk lehen horietatik eratorritakoak izango dira beharbada, baina gainontzekoak haiekiko heterogeneoak izango dira, eta batzuk eurekin bateraezinak. Ordena sintaktiko naturala edo alderantzikatuaren adigaiak, osagarriaren adigaiak (Beauzée'ek sartutakoa XVIII. mendean zehar) integratu daitezke oraindik Port-Royaleko gramatikaren sistema kontzeptualean, ez dago zalantzarik honetaz. Baina zenbait ideia ez dira bateragarriak Lancelotek edo Duclosek erabili ahal izan zuten kontzeptuen multzoarekin: ez da bateragarria kontzeptu-multzo horrekin hizketa-hotsek zerbait adierazteko berezko balioa dutela adierazten duen ideia edo hitzetan jatorriz jakinduria bat bilduta dagoela eta hitz horiek jakinduria hori modu iluntsu batean transmititzen dutela adierazten duen ideia ezta ere bururatzea kontsonanteen mutazioan erregularitasun bat dagoela edo aditza ekintza bat edo eragiketa bat adierazteko aukera ematen duen izen hutsa dela. Baldintza hauetan onartu beharko al da gramatikak ez duela osatzen irudi koherente bat itxuran ez bada, eta batasun faltua dela izen horren pean mende bat baino denbora luzeagoz betikotu den enunziatuen, azterketen, deskribapenen, hastapen eta ondorioen eta dedukzioen multzoa? Baliteke, hala ere, batasun diskurtsibo bat aurkitzea, baldin eta ez bada bera bilatzen kontzeptuen koherentiaren inguruan, eta bilatzen bada, ordea, kontzeptuak aldi berean edo jarraian sortzen diren gunean, euren elkarren arteko urruntasunean, banatzen dituen tartean eta, beharbada, euren bateraezintasunean. Ez litzateke bilatuko, orduan, nahikoa orokorrak eta abstraktuak izango diren kontzeptuen arkitektura bat gainerako guztiak biltzeko eta eraikuntza deduktibo berean sartzeko; euren agerpenen eta sakabanaketan jokoak aztertzeko ahalegina egingo litzateke.

Azkenean, laugarren hipotesia enunziatuak berriz elkartzeko, euren arteko kateatzea deskribatzeko eta eurak agertzen diren forma bateratuak azaltzeko: gaien identitatea eta iraunkortasuna. Ekonomia eta biologiaren gisako «zientzietan», polemikari emanak direnak, aukera filosofikoetara eta moraletara irekiak, kasu batzuetan politikoki erabiltzeko aukera ematen dutenak, bidezkoa da suposatzea hasteko badela gai-multzo bat gauza dena diskurtsu zati bat lotzeko eta bera organismo bat bailitzan animatzeko, bere premiekin, bere barruko indarrekarekin eta bizirauteko bere gaitasunekin. Esaterako, ezingo ote litzateke batasun modura eratu Buffonengandik Darwinenganaino arazo eboluzionista osatu duen guztia? Gaia filosofikoagoa da zientifikoa baino, gertuago dago kosmologiatik biologiatik baino; gai honek ikerketak urrunetik zuzendu egin ditu, bere emaitzak izendatu, estali eta azaldu baino gehiago; beti berari buruz badakiguna baino gehiago suposatzen du eta hipotesi eta exijentzia modura zirriborratuta zegoena jakite diskurtsiboa bihurtzen du oinarrizko hautaketa horretatik abiatuta. Ezingo ote litzateke modu berean hitz egin gai fisiokratikoari buruz? Ideia honek edozein frogapen aurretik eta azterketa guztien aurretik, hiru funts-errenten izaera naturala postulatu zuten; suposatzen zuten, ondorioz, nekazaritza-jabetzaren lehentasun ekonomikoa eta politikoa; baztertzeko zituen industria-ekoizpen mekanismoen azterketa guztiak; bestalde, estatu baten barruko diruaren zirkulazioaren deskribapena biltzen zuten, baita gizarte kategoria ezberdinen arteko diruaren banaketarena ere eta ekoizpenera itzultzeko darabiltzan bideena; eta, azkenean, Ricardo eraman zuten hausnarketa egitera errenta hirukoitz hau agertzen ez den kasuei buruz, bera sortu ahal izango litzatekeen egoerari buruz eta, ondorioz, gai fisiokratikoaren arbitrariotasunari buruz.

Baina, era honetako ahalegin batetik abiatuta bi egiaztapen egitera behartuta gaude, elkarren kontrakoak eta elkarren osagarriak. Kasu baten, gai-multzo bera artikulatzen da bi kontzeptu-jokotatik hasita, bi azterketa motatatik, zeharo ezberdinak diren bi objektu eremutatik: ideia eboluzionista, bere formulazio orokorrean, beharbada berbera izango da Benoit de Mailletengan, Bordeurengan, Diderotengan eta Darwinengan, baina, egitez, ahalezkoa eta koherentea bihurtzen duena ez da gauza bera haiengan eta honengan. XVIII. mendean ideia eboluzionista espezieen arteko ahaidego baten bidez formulatzen zen, hasieratik ezarritako continuum bat eratzten zuena (bakarrik naturaren hondamendiek moztutakoa) edo mailaka eratuko zena denboraren joanarekin. XIX. mendean gai eboluzionistak zerikusi handiagoa du jarraitasunik gabeko taldeen deskribapenarekin eta organismo baten (bere elementu guztiak solidarioak izango dituen) eta ingurune (organismo horri bizitzeko benetako baldintzak eskaintzen dizkiona) baten arteko interakzio moduen azterketarekin, espezieen taula jarraitu baten osaketarekin baino. Gai bakarra, baina bi diskurtso-motatan oinarritua. Fisiokraziari dagokionean, aitzitik, Quesnayren aukera eta honen aurkako iritzia, utilitaristak deituko genituzkeenek defendatzen zutena, oinarritzen da zehatz-mehatz kontzeptu-sistema bat eta berberean. Garai horretan aberastasunen azterketak neurri bateraino mugatua izango litzatekeen joko kontzeptuala biltzen zuen, denek onartutakoa (diruari buruz definizio bera ematen zen; salneurriaz azalpen bera ematen zen; lan baten kostua modu berean zehazten zen). Alabaina, kontzeptu-joko bakar honetatik abiatuz, baziren bi modu balioaren eraketa azaltzeko, truketik abiatuta aztertuz, edo lanaldiaren ordainketatik aztertuz. Teoria ekonomikoan eta bere joko kontzeptualaren arauetan inskribatutako bi posibilitateok, bi aukera ezberdinetarako bidea ireki dute, elementu beretatik hasten direnak.

Hutsegitea litzateke, inolako zalantzarik gabe, diskurtso baten bereizte-hastapenak gai horien existentzian bilatzea. Ez ote lirateke bilatu beharko diskurtso horrek aske uzten dituen hautatze-puntuen sakabanaketa? Ez ote lirateke bilatu beharko berak irekitzen dituen posibilitate ezberdinetan dagoeneko existitzen diren gaiak berpizteko, kontrajarritako estrategiak sorrarazteko, bateraezinak diren interesei lekua egiteko, kontzeptu-joko jakin batekin partida ezberdinak jokatzen uzteko? Gaien iraupena eta denboran zeharkako irudiak eta iritzia ikertu beharrean, adierazpen-multzoak bereizteko gaien arteko gatazken dialektika atzera trazatu beharrean, ezingo ote litzateke nabarmenarazi hautatze-puntuen sakabanaketa eta ezingo ote litzateke definitu posibilitate estrategikoen arlo bat aukeraketa guztien aurretik, gaien lehentasunaren aurretik?

Lau ahaleginen, lau hutsegiteen, aurrean nago orduan, –eta elkar ordezkatzeko duten lau hipotesiren aurrean–. Orain beharrezkoa izango da eurak frogatzea. Gure ohiturei ezartzen zaizkien enuntziatu-familia handi hauei dagokienez –medikuntza, ekonomia, edo gramatika deritzegunak– nire buruari galdegin diot zeren gainean oinarri dezaketen euren batasuna. Osoa, estua, jarraitua eta geografikoki ondo mugatua den objektu-eremu baten gainean? Niri agertu zaidana izan da hutsuneak dituzten sailak, mordoilotutakoak, diferentzien jokoak, urruntasunenak, ordezkapenenak, eraldaketenak. Oinarritu dezaket batasun hori enuntziatu-mota definitu eta normatibo baten gainean? Baina nik aurkitu ditut maila ezberdinegietako formulazioak eta heterogeneoegiak diren funtzioak eurak figura bakarrean lotzeko eta –denboran barrena eta lan individualen gainetik– eurekin etenik gabeko testu handi baten itxurako bat egiteko. Ondo definitutako adigaien alfabeto baten gainean? Baina egituraren eta erabiltzeko arauetan bereizten diren kontzeptuen aurrean aurkituko gara, elkar kontuan hartzen ez dutenak, elkar baztertzen dutenak eta sartu ezin direnak arkitektura logiko baten batasunean. Gaien iraupenean? Alabaina, zenbait posibilitate estrategiko ezberdin aurkituko dira, bidea ematen dutenak bateraezinak diren gaiak aktibatzeko edo gai bera zenbait multzo ezberdinetan txertatzeko. Hortik dator sakabanaketa hauek beren baitan deskribatzeko ideia; eta baita bilatzeko ere ea elementu horien artean (zeintzuk antolatzen ez diren erakuntza deduktibo-progresibo baten modura, ez denboran zehar pittinka-pittinka idatzitako sekulako liburu batean legetxe, ez subjektu kolektibo baten lanaren gisara) aurki daitekeen erregulartasun bat: ordena bat euren agertze jarraituan, korrelazioak eurak aldeberekoak diren neurrian, eurak espazio komun batean kokatzeko esleipenak, elkarrekiko funtzionamendua, eraldaketa uztartuak eta hierarkikoak. Era honetako azterketa bat ez litzateke ahaleginduko koherentzia uhartetxoak bakartzen euren barruko egitura deskribatzeko; ez luke hartuko bere eginbehar modura ezkutuko gatazkei susmoa hartzea eta eurak argitan ipintzea; banaketa moduak ikertuko lituzke. Edo, inferentzia kateak berriz osatu beharrean (zientzien eta filosofiaren historian sarritan egiten den legez), diferentzien taulak ezarri beharrean (hizkuntzalariek egiten duten bezala), sakabanaketa-sistemak deskribatuko lituzke.

Enuntziatu kopuru jakin baten baitan era horretako sakabanaketa-sistema bat deskribatu ahal izango litzatekeen kasuan; objektuen, enuntziatu-moten, kontzeptuen, hautaketa tematikoen artean erregulartasun bat definitu ahal izango litzatekeen kasuetan (ordena bat, korrelazioak, kokapenak eta funtzionamenduak, eraldaketak definitu ahal izango liratekeen kasuetan) konbentzioz esango dugu formazio diskurtsibo batez dihardugula –saihestuko dira horrela zenbait baldintzez eta ondorioz

zamatutako hitzak, zeintzuk desegokiak izango diren sakabanaketa hori «zientzia», «ideologia», teoria edo «objektibotasun eremu» modura izendatzeko. Eraketa-arauak izena emango zaie banaketa honen osagaiak menpean hartzen dituzten baldintzei (objektuak, adierazpen modalitateak, kontzeptuak, hautaketa tematikoak). Eraketa-arauak banaketa diskurtsibo batean ematen diren existentzia-baldintzak dira (baita koexistentziako baldintzak, iraupenekoak, aldaketakoak eta desagertuenekoak ere).

Hori da orain zeharkatu behar den esparrua; adigai horiexek dira jorratu behar direnak ekin behar diren azterketetan eta frogatze lanetan. Arriskuak ez dira hutsalak, badakit nik hori. Lehen erreferentzia modura erabili ditut nahikoa malguak eta gertukoak diren multzokatzeak: ez dit ezerk frogatzen azterketaren bukaeran eurak berriro aurkituko ditudanik, ezta ere eurak mugatzeko eta bereizteko hastapena aurkituko dudarik; isolatuko ditudan formazio diskurtsiboak dagokienez, ez nago seguru eurek definituko ote duten medikuntza bere batasun globalean edo definituko ote duten ekonomia eta gramatika euren patu historikoaren osoko kurban; beharbada ustekabeko hausturak sartuko dituzte. Era berean, ekiteko puntu bezala hartu ditudan multzo diskurtsiboak dagokienez –zeintzuk aldeztu aurretik emanak diren eta arrazionaltasun zientifikoa suposatzen zaien– ez dit ezerk frogatzen era horretako deskribapen batek argitasunik eman ahal izango duenik multzo horien zientifikotasunaz (edo ez-zientifikotasunaz); ez dit ezerk frogatzen nire azterketa kokatuko ez denik maila guztiz ezberdin batean, epistemologiara edo zientzien historiara murriztu ezingo den deskribapen bat osatuz. Baliteke, gainera, era honetako eginkizun bat burutzean, ez berreskuratzea metodoak horrela eskatuta esekita utzi diren batasunak: baliteke behartua izatea lanak bereizteko, eraginak eta tradizioak kontuan ez hartzerako, jatorriaren arazoa behin betiko alde batera uzteko, egileen ezinbesteko presentzia ezabarazteko, ideien historiaren mamia desagerrarazteko horrela. Arriskua, azken batean, honako hau da: dagoeneko existitzen denari oinarria eman beharrean, aurretik zirriborro modura markatutako erroak berriro eta behin betiko moduan marraztu beharrean, itzulera eta azken baiesten horrekin lasaitu beharrean, azkenean, makina bat amarruren eta makina bat gauren ondoren, dena salbatuta dagoela iragartzen duen zorioneko zirkulu hori osatu beharrean, gertukoak zaizkigun paisaietatik kanpo joatera behartuak izatea, guretzat ohikoak diren bermeetatik urrun, oraindik laukitua izan ez den lur baten gainetik eta aurrez ikusteko zaila den helmuga baterantz. Ordura arte historialariari so egiten zion guztia, ilunabarrera arte laguntzen zuena (arrazionaltasunaren xedea eta zientzien teleologia, pentsamenduaren lan jarraitu eta luzea denboran barrena, kontzientziaren iratzartzea eta garapena eta bere buruaz jabetzea etengabe, totalizazioen mugimendu bukatuezinekora baina etengabea, beti zabalik dagoen jatorri batera itzultzea eta, azken baten, tematika historiko-transzendental), ez al dago hau guztia desagertzeko arriskua azterketarako espazio zuri bat utziz, aiherga, barnetasunik eta promesik gabekoa?

III.

Objektuen eraketa

Orain inbentariatu egin behar dira irekitako norabideak, eta jakin behar da edukirik eman ahal zaion «eraketa-arauak» deritzogun adigai honi –ozta-ozta zirriborrotuta utzi duguna–. Hasteko kontuan hartuko dugu lehenik objektuen eraketa. Eta bera errazago aztertzeko adibide legez hartuko dugu psikopatologiaren diskurtsoa XIX. mendetik hona, erraz onar bailiteke hau etenune kronologiko egoki bezala lehen hurbilketa bat egin gura izanez gero. Seinaleak ugariak dira hori adierazten dutenak. Har ditzagun kontuan seinale horietako bi besterik ez: mende hasieran zoroa baztertzeko eta erietxe psikiatrikoan sartzeko eman zen modu berria bata, eta gaur egun darabiltzagun zenbait adigairen aurrekoak bilatzean Esquirolenganaino, Heinrothenganaino, edo Pinelenganaino jotzeko aukera bestea (paranoiatic monomaniaraino hel gaitzke, adimen-kozientetik ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zorotasuneraino); bitartean, XIX. mendetik atzeraka zenbat eta gehiago jo gura dugun denboraren harian, arrastoa galdu egiten da, bideak endredatzen hasten dira, eta Du Laurensen edo Van Swietenen lanak proiektatzen baditugu Kraepelinen eta Bleuleren patologiaren eremura, emango diren kointzidentziak aleatorioak izango dira. Alabaina, eten horren ondotik psikopatologia gai oso askotaz arduratu da, neurri handi batean oso berriak, baina oso prekarioak ere, aldakorrak eta euren artean batzuk berehala desagertzeko halabeharreakin. Mugikortasunaren asaldurez, haluzinazioez eta hizketaren nahasmenez gain (zeintzuk kontsideratzen ziren zorotasunaren manifestazio bezala, nahiz eta beste modu batean ezagutzen, mugatzen, deskribatzen eta aztertzen ziren) ikusi dira agertzen beste zenbait gai, orain arte baliorik gabekoak ziren erregistroak nabarmentzen zituztenak: portaeraren nahasmendu arinak, sexu arazoak eta aberrazioak, sugestio eta hipnosi kontuak, nerbio-sistema zentrala, mugimenduzko moldaeran eta moldaera intelektualean defizitak, kriminalitatea. Eta erregistro hauetako bakoitzean zenbait objektu izendatu dira, zedarritu, aztertu, eta horren ondoren zuzendu, atzera definitu, ihardetsi eta ezabatu egin dira. Zehaztu al daiteke zer arau direla-eta agertu diren eurak? Jakin al daiteke zer sistema ez-deduktiboren arabera ipini ahal izan diren objektuok bata bestearen ondoan eta jarraian psikopatologiaren esparru zatikatu hori eratzeke (puntu batzuetan hutsuneak dituen, beste batzuetan osatua dena)? Zein izan dira eurak existitzeko baldintzak diskurtsoaren gaiak diren neurrian?

a) Hasteko adierazi behar ditugu eurak azaleratu diren lehen guneak: erakutsi behar dugu non sor daitezkeen ezberdintasun indibidual horiek, ondoren eurak izendatu eta aztertu ahal izateko eta arrazionalizatzeko mailaren, kode kontzeptualen eta teoria moten arabera euren atxikitzeko gaixotasunaren estatusa, alienazioarena, anomaliarena, dementziarena, neurosi edo psikosiarena, endekapenarena eta abar. Azalerrate gune horiek ez dira berdinarik gizarte ezberdinetan, garai ezberdinetan eta diskurtso forma ezberdinetan. XIX. mendeko psikopatologiari dagokionez, baliteke sendia, gertuko gizarte taldea, lan giroa, erlijio erkidegoa izatea bera osatzen dutenak (denak normatiboak izango dira, desbidera daitezkeenak, denek tolerantziarako lekua dute, baina badute baita atalase bat ere bertatik aurrera bazterketa beharrezkoa egiten dena; denek dute zoramena izendatzeko eta arbuiaitzeko modua, denek medikuntzaren esku uzten dute gutxienez bera azaltzeko ardura, ez bada zaintzekoa eta sendatzeko ere); azalerrate gune hauek ez dira berriak izango XIX. mendean, modu berezi batean antolatutakoak diren arren. Bestalde, ez dago zalantzarik garai honetan azalerrate gune berriak hasten direla funtzionatzen: artea bere araudiarekin, sexualitatea (bere desbideraketak ohikoak diren debekuei dagokienez, lehenengoz bihurtzen dira psikiatriaren diskurtsoaren arretea gune eta deskribatzeko eta aztertzeko gaia) zigortzea (aurreko garaietan zoramena jokaera kriminaletik kontu handiz bereizten zen artean,

aitzakiaz hartzen zen artean, kriminalitatea bera —«monomania gizahiltzaile» ospetsuen ondotik— desbideraketa modu bat bihurtzen da, nola edo hala zoramenarekin lotua). Hortxe, lehen bereizketaren eremu horietan, hor agertzen diren distantzietan, etenuneetan eta atalaseetan diskurtso psikiatrikoak aurkituko du bere esparrua mugatzeko aukera, zertaz hitz egiten duen definitzekoa, berari objektuaren estatutua ematekoa —hau da, bera agerrarazteko eta izendagarria eta deskribagarria bihurtzeko—.

b) Bestalde, zedarritze instantziak deskribatu beharko lirateke: XIX. mendean medikuntza (araulutako erakunde gisara, jakite eta jardute gisara, iritzi arruntak, justiziak eta administrazioak berari agintea onartzen dion neurrian) gizarteko instantzia nagusia bihurtu zen zoramena mugatzeko, bera izendatzeko eta objektu modura finkatzeko; baina bera ez zen bakarria izan paper hori jokatzeko orduan: justizia eta bereziki justizia penala (bere definizioekin: aitzakiarena, arduragabetasunarena, zirkunstantzia aringarriena, eta zenbait adigai erabiliz, hala nola, pasio-hilketa, herentzia, arrisku soziala) aginte erlijiosoa (aginte bezala ezartzen den neurrian bereizteko mistikoaren eta patologikoaren artean, espiritualaren eta korporalaren artean, naturaz gaindikoaren eta anormalaren artean, eta kontzientzien norabideak zuzentzen dituzenez, ekintzen eta zirkunstantzien sailkapen kasuistiko bati begira baino gehiago gizabanakoak ezagutzeko) kritika literarioa eta artistikoa (honek XIX. mendean zehar obra tratatu zuen gero eta gutxiago epaitu behar zen objektu gozagarri bezala eta gero eta gehiago hizkuntza bezala, interpretatu beharrekoa eta egilearen adierazpen-jokoak bereiztea eskatzen zuena).

c) Bukatzeko aztertuko ditugu zehaztapen saretak: hauek sistemak dira, horien bidez zoramen ezberdinak, psikiatriaren gai diren neurrian, banatzen dira, kontrajartzen, elkarrekin lotzen, multzokatzen, sailkatzen eta bata bestetik eratoritzen dira (bereizte saretak hauek XIX. mendean honako hauek izan ziren: arima, hierarkizatutako ahalmen-multzo modura ulertuta, ahalmen hauek elkarren ondokoak dira eta bata bestean txerta daitezke; gorputza, organoz osaturiko hiru dimentsioko bolumen modura ulertua, organo hauek mendetasun eta komunikazio-eskemen bidez uztartuta daude; banakoen bizitza eta historia, bera ulertuko da faseen jarraitasun modura, arrastoen gurutzatze modura, berraktibatze birtualen multzo modura, errepikapen zikliko modura; korrelazio neuro-psikologikoen jokoak, proiektzio-sistema elkarkari eta kausaltasun-arlo zirkular legez ulertuta).

Era honetako deskribapen bat berez ez da nahikoa oraindik bi arrazoirengatik. Seinalatu berriak izan diren azalera planek, instantzia mugatzaile horiek edo zehazteko forma horiek, ez dituzte eskaintzen objektuak guztiz eratuak eta muntatuak, horren ondoren psikopatologiaren diskurtsoak egin beharko lukeen gauza bakarria izango litzateke eurak inbentariatzea, sailkatzea, izendatzea, aukeratzea, hitzen eta esaldien sare batekin estaltzea; ez dira izango familiak —euren arauekin, debekuekin, sentikortasun atalaseekin— erabakiko dutenak zein den zoroa eta proposatuko dutenak gaixoa aztertu behar dela eta psikiatraren esku jarri behar dela; ez da jurisprudentzia izango buruko medikuntzari seinalatuko diona bere kabuz hilketa baten ostean eldarnio paranoiko bat dagoela edo delitu sexual batean neurosi bat dagoela suposatuko duena. Diskurtsoa ez da, inondik ere ez, leku bat non alde zuzenetik finkatutako objektuak ipintzen diren, inprimatzeko gune soil batean bezala. Gainera, goiko zerrendatzea ez da nahikoa bigarren arazoi bategatik. Berak zehaztu ditu, bata bestearen ondoren, zenbait bereizte plano ezberdin diskurtsoaren objektuak horietan azalera ahal izateko. Baina zein dira plano horien arteko erlazioak? Zergatik zerrendatze hau eta ez beste bat? Modu honetan zein multzo definitua eta itxia zedarritu dela uste da? Eta nola hitz egin daiteke «formazio-sistema» bati buruz, ezagutzen bada bakarrik determinazio ezberdinen eta heterogeneoen sail bat, zeintzuk ez duten elkarren artean loturarik eta harreman garbirik?

Berez, galdera sail bi hauek puntu berera daramate. Puntu hau antzemateko azter dezagun atzera aurreko adibidea. XIX. mendean psikopatologia arduratu den eremuan oso goiz ikusi dugu agertzen (Esquirolengandik aurrera) delinkuentziaren erregistroari dagozkion objektuen sail bat: gizahilketa (eta buru-hilketa) pasio-hilketak, sexu delituak, lapurreta-mota batzuk, erromestasuna —eta ondoren euren bidez jaraunspena, inguru neurogenoa, eraso edo autozigortze jokaerak, perbertsioak, bulkada hiltzaileak, sugestibilitatea, etab.— . Ez litzateke egokia izango esatea aurkikuntza baten ondorioez dihardugula hemen: esaterako jokaera hiltzaileen eta portaera patologikoen arteko antzekotasunaz psikiatra batek egin zuen aurkikuntzaz, edo, beste era batera esanda, gaizkile batzuegan aurkituko liratekeen alienazioaren sintoma klasikoaren aurkikuntzaz. Era hauetako egiteak gaur egungo ikerketatik kanpo daude: arazoa da jakitea zer dela eta izan diren ahalezkoak, eta nolatan «aurkikuntza» horiek izan ahal izan duten jarraipena beste aurkikuntza batzuetan, eurak hartu eta zuzendu, aldatu edo, halabeharrez, deuseztatu dutenak. Era berean, ez litzateke egokia izango objektu berri hauen agerpena XIX. mendeko gizarte burgesaren arau propioei leporatzea, polizia eta zigor-egitura indartu bati, justizia kriminal kode berri baten ezarpenari, zirkunstantzia aringarriak sartu eta erabiltzeari, kriminalitatearen hazkunderari. Zalantzarik gabe, prozesu hauek guztiak hain zuzen indarrean zeuden, baina berez ezin izan dute diskurtso psikiatrikoaren objekturik eratu; deskribapenaren bila maila honetan ibiltzean bilatzen denetik gertu jardungo genuke.

Gure gizartean, garai jakin batean, gaizkilea psikologizatua eta patologizatua izan bada, jokaera hausleak jakitearen objektuen sail oso bat sorrarazteko bidea eman badu, izan da diskurtso psikiatrikoa harreman zehatzen multzo bat erabiltzen hasi delako. Harremana, alde batetik, kategorian penalen eta erantzukizun maila gutxituen gisako zehaztapen planoen eta, bestetik, ezaugarritze psikologikoen planoen artean (ahalmenak, trebetasunak, garapen edo inboluzio mailak, inguruneari erantzuteko erak, izaera-motak, eskuratutakoak, jaiotzeak edo herentziazkoak). Harremana, alde batetik, medikuntza-erabakitze instantziaren eta, bestetik, epai-erabakitze instantziaren artean (harreman konplexua egia esan, krimena definitzeko orduan medikuntza-erabakiak erabat onartzen baitu epai-instantzia, eta baita krimenaren zirkunstantziak eta merezi duen zigorra finkatzerakoan ere, baina bere jatorriaren azterketa eta erantzukizun maila neurtzeko aukera bere esku gordetzen du). Harremana, alde batetik, epai-galdeketa, polizia-txostenek, ikerketak eta argibide juridikorako aparatu osoak osatzen duten iragazkiaren eta, bestetik, mediku-galdekete, azterketa klinikoek, aurrekari ikerketek eta bibliografia-erreferentziek osatzen duten iragazkiaren artean. Harremana, alde batetik, banakoen jokaeraren famili, sexu eta zigor arauen eta eurek adierazten duten sintoma patologikoen eta, bestetik, gaixotasunen sintomen taularen artean. Harremana, alde batetik, erietxe inguruko murrizketa terapeutikoaren (bere atalasekin, sendatzeko bere irizpideekin, normala eta patologikoa dena zedarrizteko bere moduarekin) eta, bestetik, kartzelako murrizketa zigortzailearen artean (azken hau zigortzeko eta irakasteko bere sistemarekin, eta bere irizpideekin jokaera zuzenari buruz, hobetzei buruz eta askatzei buruz). Psikiatriaren diskurtsoan indarrean dauden harreman hauek, hain zuzen, zenbait objektuz osatutako multzo bat eratzea zilegi dute.

Oro har esan dezakegu: psikiatriaren diskurtsoa XIX. mendean ezaugarritu zen ez objektu pribilegiatu batzuegatik, baizik eta oso sakabanatuak zeuden objektuak eratzeko bere moduegatik. Eraketa hau bermatzen da azalerrate, mugarrizte eta zehaztapen instantzia batzuen arteko harreman-multzo baten bidez. Esango dugu, beraz, eraketa diskurtsibo bat definitzen dela (gutxienez bere objektuei dagokienez) modu horretako multzo bat finkatu ahal bada; erakutsi ahal bada nola aurki dezakeen diskurtso horren edozein objektu bere lekua eta bere azalerrate-legea; erakutsi ahal bada diskurtso horretatik jairo daitezkeela objektu batzuk euren burua aldatu gabe batera edo jarraian bata bestea baztertzeko dutenak.

Hemendik zenbait ohar eta ondorio atera daitezke.

1. Diskurtsoaren objektu bat agertzeko baldintzak, «zerbait esan» ahal izateko baldintza historikoak eta pertsona ezberdinek gauza ezberdinak esan ahal izatekoak, objektu hori beste objektu batzuekin batera ahaidego esparru batean txertatzeko baldintzak, beste objektu horiekin antzekotasun, auzotasun, urruntasun, ezberdintasun eta transformazio-harremanak eduki ahal izatekoak –agerikoa den moduan baldintza hauek ugariak eta pisuzkoak dira. Honek esan nahi du ezin dela edozein garaitan edozein gauzari buruz berba egin; ez da erraza ezer berririk esatea; ez da nahikoa begiak irekitzea, arreta jartzea edo zer edo zertaz jabetzea, objektu berriak izio daitezen bat-batean eta lurraren mailan jar dezaten euren lehen argitasuna. Alabaina, zailtasun hau ez da bakarrik negatiboa; ez da lotu behar traba batekin, bere ahalmen bakarra izango duena itsutzea, ezkatzea, aurkikuntza eragozte, ebidentziaren garbitasuna edo gauzen berezko egoskortasun mozorrotzea; objektua ez dago linboan bera askatuko duen ordenaren zain, bere burua objektibotasun ikusgarri eta jarduntsu batean gorpuztea baimenduko dion ordenaren zain; ez da existitzen bere buruaren aurretik, trabaren batek argitasunaren lehen ertzetan atxikia. Harreman-sorta konplexu baten baldintza positiboen pean existitzen da.

2. Harreman hauek ezartzen dira erakundearen artean, ekonomia eta gizarte prozesuaren artean, jokaeraren artean, arau-sistemen artean, sailkapen moten tekniken artean, ezaugarritze moduen artean, eta harreman hauek ez dira objektuan presente izango; ez dira eurak hedatzen azterketa egiten denean; ez dute eurek diseinatzen bilbea, azpian datzan arrazionaltasuna, bere kontzeptuaren egiazkotasunean pentsatzen denean osorik edo zati batean berriz agertzen den nerbiozko ideala. Eurek ez dute definitzen bere barne eraketa, baizik eta agertzea baimentzen diona, beste objektu batzuen ondoan ipintzea baimentzen diona, euren arabera lekua hartzea, bere diferentzia, bere mendera- ezintasuna, eta behin edo behin bere heterogeneotasuna definitzea baimentzen diona, laburbilduz, berehala kanpokotasun-arlo batean ipintzeko moduan egotea baimentzen diona.

3. Harreman hauek bereiziko dira, lehenik, «primarioak» dei ditzakegun harremanez eta, alde batera utzita edozein diskurtso eta diskurtsoaren edozein objektu, eurak deskriba daitezke erakundearen artean, tekniken artean, gizarte formen artean, etab. Jakin ere, badakigu badirela berez azter daitezkeen harremanak sendi burgesaren eta epai-instantzien eta epai-kategorien funtzionamenduaren artean. Alabaina, ezin zaizkie gainjarri beti objektuak eratzen dituzten harremanei: maila primario honi esleai dakizkiokeen mendetasun-harremanak ez dira adierazten nahitaez diskurtsoaren objektuak

ahalezkoak egiten dituen harremanak gauzatzean. Hala ere, diskurtsoan bertan aurki daitezkeen bigarren mailako harremanak bereizi behar dira: esaterako, XIX. mendeko psikiatreek esan ahal izan dutenak sendia eta kriminalitatearen arteko harremanez ez du erreproduzitzen, gauza jakina da hori, mendekotasunen benetako jokia, baina ez du erreproduzitzen, ezta ere, psikiatriaren diskurtsoaren objektua ahalezkoa egiten eta eusten duten harremanen jokia. Horrela, ahalezko deskribapenen espazio artikulatu bat irekitzen da: harreman primarioen edo benetakoen sistema, bigarren mailako harremanen edo harreman bihurkarien sistema, eta zehatz-mehatz diskurtsiboak dei daitezkeen harremanen sistema. Arazoa da azkenon berezitasuna eta hauen besteekiko jokia agerraraztea.

4. Harreman diskurtsiboak, ikusten denez, ez dira diskurtsoaren barrukoak; ez dituzte elkarren artean lotzen kontzeptuak eta hitzak; ez dute ezartzen esaldi edo proposizioen artean arkitektura deduktibo edo erretoriko bat. Baina ez dira, hala ere, diskurtsotik kanpoko harremanak, diskurtsoa bera mugatuko luketenak edo forma batzuk ezarriko lizkioketenak edo, egoera zehatz batzuetan, behartuko luketenak gauza jakin batzuk adieraztera. Eurak nolabait diskurtsoaren mugan daude: berari eskaintzen dizkiote objektuak eurretaz hitz egin ahal izateko, edo, are gehiago, (eskaintakoaren irudi honek suposatzen duenez objektuak alde batetik eratzen direla eta diskurtsoa beste batetik) eurek mugatzen dute diskurtsoak zertu behar duen harremanen multzoa objektu honetaz edo besteaz hitz egin ahal izateko, eurekin tratuan jarduteko, izendatzeko, aztertzeke, sailkatzeko, azaltzeko, etab. Harremanok ezaugarritzen dute diskurtsoa bera jardute den neurrian eta ez diskurtsoan erabilitako hizkuntza, edo zer baldintzatan hedatzen den diskurtsoa.

Azterketa itxi daiteke orain eta azter daiteke zer neurritan bete den hasierako egitasmoa eta, era berean, zer neurritan aldatu den bera.

Multzozko figura hauei dagokienez –zeintzuk psikopatologiak, ekonomiak, gramatikak, medikuntzak bereganatzen dituzten modu setati baina nahasi batean– galdetu da zein motatako batasunetan dauden oinarrituta: ez al ziren izango geroagoko berregite bat, lan berezietan oinarriturikoa, bata bestearen ondoko zenbait teoriatan, zenbait adigai eta gaitan, batzuk alde batera utzita, beste batzuk tradizioak iraunarazi dituenak eta beste batzuk aldizka ahaztu eta aldizka berriro eguneratuak izan direnak? Ez al ziren izango elkarri loturiko eginkizunen sail bat?

Diskurtsoaren batasuna bilatu genuen objektuen baitan, euren banaketan, euren ezberdintasunen arteko jokoan, euren arteko hurbiltasunean eta urruntasunean –hitz gutxitan, berbadun subjektuari emana zaionean– : eta, azkenean, itzuli gara jardute diskurtsiboa bera ezaugarritzen duen harreman modura; eta horrela aurkitu dugu ez konfigurazio bat edo forma bat, baizik eta arau-multzo bat, jardute bati inmanenteak zaizkion eta bera bere espezifikotasunean definitzen duten arauen multzoa alegia. Bestalde, erreferentzia modura psikopatologiaren gisako «batusun» bat erabili dugu: jaiotze data eta eremu zehatz bat atxiki nahi izan balitzaio, beharrezkoa izango zatekeen hitzaren sorrera aurkitzea eta definitzea zein azterketa estilotan erabili ahal izango litzatekeen eta nola banatu ahal izango litzatekeen alde batetik neurologiaren eta bestetik psikologiaren artean. Azaleratu dena beste mota bateko batasun bat izan da; dirudenez berak ez ditu data berdinak, ezta azalera berdina edo artikulazio berdina ere, baina objektu-multzo batez argibidea eman dezake, eta objektu horientzat psikopatologia hitza errubrika erreflexiboa, bigarren mailakoa eta sailkapenezkoa da. Azkenean, psikopatologia agertzen zen beti berritze bidean zegoen diziplina bat bezala, beti aurkikuntzek, kritikek eta zuzendutako hutsek markatuko luketena; definitu den formazio-sistemak egonkorra dirau. Baina uler dezagun: konstante dirautenak ez dira objektuak izango, ezta eurek taxutzen duten eremua ere, konstante dirautenak ez dira, ezta ere, euren azaleratze puntuak edo ezaugarritzeko moduak izango; konstante dirauena, haatik, ahalegin bat izango da azalera harremanean jartzeko, hain zuzen objektu horiek non ager daitezkeen azalera, objektu horiek muga ditzaketenak edo eurak non azertuak eta zehaztuak izan daitezkeenak.

Bistan da: deskribapen hauetan (zeintzuei buruzko teoria ematen ahaleginu naizen) kontua ez da diskurtsoa interpretatzea, honen bidez erreferentearen historia bat egiteko. Aukeraturako adibidean ez da bilatzen garai batean zein zegoen zoroa eta zein zen bere zorotasuna jakitea, ezta jakitea ere ea bere arazoak gaur egun gertukoak zaizkigun arazoen berdin-berdinak ziren ala ez. Ez da galdegiten ea sorginak zoroak ote ziren, baztertuak eta jazarriak zirenak, ez da galdegiten ea beste garai batean medikatua izango ote zen esperientzia mistiko edo estetiko bat beharrik izan gabe. Helburua ez da zorotasuna zer izango litzatekeen birsortzea lehen esperientzia primitibo, funtsezko, gor, nekez artikulatutako⁴ bati agertuko litzaiokeen moduan, ezta ere birsortzea zer izango litzatekeen bera ondoren bere eragiketen diskurtsoak eta joko zeharrik, askotan bihurriak, antolatuko (itzuliko, desitxuratuko, mozorrotuko, beharbada erreprimutuko) zukeen moduan. Ez dago zalantzarik era horretako erreferentearen historia bat ahalezkoa dela; ez da

baztertzen hasiera-hasieratik esperientzia «aurrediskurtsibo» hauek testutik ateratzeko eta askatzeko ahalegina. Baina, orain kontua ez da diskurtsoa neutralizatzea, bera beste zerbaiten zeinu bihurtzea, bere lodiera zeharkatzea isili-isilik bere aurretik dagoena erdiesteko; haatik, kontua da bera bere sendotasunean iraunaraztea, berari dagokion konplexutasunean azaleratzea. Hitz batez, benetan gura dena da «gauzak» alde batera uztea. Eurak «despresentifikatzea». Euren berehalako betetasun aberats eta astuna uxatzea. Betetasun hau diskurtso baten lege primitibotzat jo ohi da, eta bakarrik aldenduko da sinesmenen eta tradizioen hutsegiteagatik, ahanzturagatik, irudipenagatik, ezjakintasunagatik edo inertziagatik edo ez ikusteko eta ez esateko nahiagatik, beharbada inkontzientea izango dena. Halaber, benetan gura dena da diskurtsoaren aurreko «gauzen» altxor enigmatikoaren ordezkari diskurtsoan bakarrik diseinatzen diren objektuen eraketa erregularrak ipintzea. Objektuok definitzea gauzen mamiari erreferentzia egin gabe, baizik eta eurak lotuz diskurtso baten objektu modura taxutzea baimenduko duten arau-multzoarekin, objektu horiek historikoki agertzeko baldintzak osatzeko. Objektu diskurtsiboen historia bat egitea eurak jatorrizko zoru baten sakontasun komunean ondoratuko ez dituen, baizik eta euren sakabanaketa arautzen duten erregulartasunen lokarria hedatuko duena.

Dena dela, «gauzen euren» momentua saihestea ez da nahitaez esanahiaren azterketa linguistikoa egitea. Diskurtso baten objektuen eraketa deskribatzean, ahalegintzen gara praktika diskurtsibo bat ezaugarritzen duten harremanak kokatzen, ez da zehazten antolaera lexikal bat eta ezta eremu semantiko baten etendurak ere: ez da itauntzen «malenkonia» edo «deliriorik gabeko zorotasuna» hitzei garai batean eman zaion zentzuari buruz, ezta «neurosi» eta «psikosiaren» edukien artean dagoen oposizioari buruz ere. Era horretako azterketak ez dira ez-legitimoak edo ezinezkoak kontsideratuko; alabaina, azterketa horiek ez dira egokiak izango jakin beharrekoa denean, esaterako, nola bihurtu ahal izan den kriminaltasuna mediku-azterlanen objektua, edo nola agertu ahal izan den sexu desbideratzea diskurtso psikiatrikoaren ahalezko objektu legez. Eduki lexikalen azterketak definitzen ditu garai jakin batean subjektu berbadunek euren eskura dituzten adierazpen elementuak eta definitzen du, halaber, dagoeneko ebakiak izan diren diskurtsoen azalean agertzen den egitura semantikoa; berak ez du kontuan hartzen jardute diskurtsiboa bera izango bailitzan objektuen aniztasun nahaspilatu bat –aldi berean gainjarritakoa eta osatugabea– eratzen eta desitxuratzen den lekua.

Iruzingileen erretasunak ez du hutsik egin: nik ekin dudana moduko azterketa batean hitzak gurata egongo dira absente gauzak eurak absente egongo diren beste; ez da hiztegi baten deskribapenik egongo, esperientziaren betetasun biziaren erreferentzia egongo ez den moduan. Ez gara itzultzen diskurtsoaren aurreko egoerara –ezer esan ez den egoerara eta gauzak, nekez, argitasun gris batean azaleratzen diren lekura–; ez dugu diskurtsoaz gaindiko egoerara jotzen, berak taxutu eta bere atzean jare dituen formak berraurkitzeko. Diskurtsoaren beraren mailari eutsi diogu edo eusten ahalegindu gara. Batzuetan absentziarik nabarmenenei dagokienean ere gauzak garbi utzi behar dira, eta horregatik esango dut hain gutxi aurreratuta dudana ikerketa hauetan guztietan nire asmoa izan dela erakustea «diskurtsoak» –eurak entzun ahal diren eta testu gisara irakurriak izan daitezkeen neurrian– ez direla, itxaron zitezkeen legez, gauzen eta hitzen arteko gurutzatze huts eta soila: gauzen bilbe iluna, ageriko katea, ikusgarria eta hitzek koloreztatua; erakutsi gura nuen diskurtsoa ez dela kontaktu edo aurkakotasunerako azalera mehe bat, errealitate baten eta hizkuntza baten artean emango litzatekeena, ez dela lexiko baten eta esperientzia baten elkarren arteko nahasketa; erakutsi nahi nuen, adibide zehatzetan oinarriturik, diskurtsoak aztertzean ikusten dela itxuran hain sendoa den hitzen eta gauzen arteko uztarketa ahultzen dela eta askatzen dela jardun diskurtsiboari hain berezkoa zaion arau-multzo bat. Arau hauek objektuen erregimena definitzen dute, eta ez errealitate baten existentzia mutua eta, ezta ere, hiztegi baten erabilera kanonikoa. «Les mots et les choses», hauxe da arazo baten izenburu serioa; hauxe da bere forma aldatzen duen, datuak alboratzen dituen eta, azkenerako, oso eginbehar ezberdin bat ezagutarazten duen lanaren izenburu ironikoa. Lan honen zeregina da diskurtsoa ez tratatzea (gehiago) zeinuen multzo bat bailitzan (ez tratatzea edukiei edo adierazpenei dagozkien osagai adierazleen multzo bat bailitzan), baizik eta tratatzea eurek adierazten dituzten objektuak sistematikoki eratzen dituzten jarduteak bezala. Egia da diskurtsoak zeinuen bidez osatzen direla; baina diskurtso hauek egiten dutena hitzak gauzak adierazteko erabiltzea baino zerbait gehiago da. Zerbait gehiago horrek bihurtzen ditu hizkuntzara eta hitzera murriztezinak. Zerbait gehiago hori da agerrarazi behar dena eta deskribatu behar dena.

IV. Modalitate enuntziatiboen eraketa

Deskribapen kualitatiboak, kontraera biografikoak, kokapenak, zeinuen interpretazioa eta erkaketa, arrazoiketa analogikoa, dedukzioa, kalkulu estatistikoa, egiaztapen esperimentalak, eta enuntziatu modu askoz ere gehiago, hori da aurki daitekeena, XIX. mendean, sendagileen diskurtsoan. Zer kateaketa, zer beharrezko lotura dago elkarren artean? Zergatik hauek eta ez beste batzuk? Enuntziatio ezberdin horien guztien legea eta jatorria aurkitu beharko litzateke.

a) Lehen galdera: nor ekiten du hitz? Gizabanako hitzuzen guztien artean zeinek du era honetako hitzuzentzen hitz egiteko eskubidea? Zein da horretan tituluduna? Zeinek hartzen du hitzuzentza horretatik bereiztasuna, izen ona, eta norengandik, osterak, hartzen du hitzuzentza horrek bermea edo gutxienez egia-presuntzioa? Zer estatutu dute tankera horretako diskurtsoa ebakitzeko eskubidea duten gizabanakoek –eurek bakarrik duten eskubidea izango dena, arauzkoa, tradizionala, juridikoki definitua edo berez onartutakoa–? Sendagile estatutuak gaitasun eta jakinduria-irizpideak biltzen ditu; biltzen ditu, halaber, erakundeak, sistemak, arau pedagogikoak; baldintza legalak ere biltzen ditu, jakitearen praktikarako eta esperimentaziorako eskubidea ematen dutenak –hori bai, beti ere muga batzuen barruan–. Beste banako edo talde batzueganako bereizte eta harreman-sistema bat ere biltzen du (eskuduntzen banaketa, mendetasun hierarkikoa, osagarritasun funtzionala, informazio eskaera, transmisioa eta elkartrukea) banako edo talde horiek euren estatutu propioa izango dutelarik (botere politikoarekin eta bere ordezkariekin, botere juridikoarekin, kidego profesional ezberdinekin, talde erlijiosoekin eta, behar izanez gero, apaizekin). Biltzen ditu, halaber, trazu batzuk, zeintzuek definitzen duten haren jardura gizartearen osotasunarekiko (definitzen dute medikuntzari aitortzen zaion papera norbanako batek deitzen dionean edo bere zerbitzuak gizarteak eskatzen dituenean –derrigorrean edo ez hain derrigorrean– eta baita bere lana betetzen diharduenean edo funtzio bat betetzen duenean ere; kasu ezberdin horietan aitortzen zaizkion esku hartzeko eskubidea eta erabakiak hartzeko eskubidea; biztanleria baten, talde baten, sendi baten, banako baten osasunaren zaintzailea eta bermatzailea den neurrian eskatzen zaiona; banakoen ondasunetatik edo ondasun publikotik berak hartzen duen zatia; adosten duen kontratu-mota, esplizitua edo inplizitua, lanean diharduen taldearekin, eginbeharra eman dion boterearekin, edo aholkua, terapia edo osatzeko eskatzen dion bezeroarekin). Sendagileen estatus hau nahikoa berezia da oro har gizarte eta zibilizazio forma ezberdinetan: bera ez da ia inoiz pertsonaia bereiztezina edo ordezkagarria. Medikua –berbaldia ezin da etorri edozeinengandik; jardun horren balioa, eraginkortasuna, ahalmen terapeutikoak eta, modu orokor batean esanda, bere existentzia medikuaren hitza den neurrian, ezin da banandu berba hori artikulatzeko eskubidea duen pertsonaz (estatutuz definiturikoa), aldarrikatuz sufrimendua eta heriotza uxatzeko ahalmena. Baina gauza jakina da, halaber, estatutu hori sakon-sakonetik aldatua izan dela sartaldeko zibilizazioan XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, biztanleriaren osasuna gizarte industrialek eskatzen zuten arau ekonomikoetako bat bihurtu zenean.

b) Deskribatu behar da, era berean, sendagilearen diskurtsoaren jatorria den esparru instituzionala eta diskurtso honek bere jatorri legitimoa eta aplikazio-puntua aurkituko duen gunea (bere objektu espezifikoak eta bere egiaztatze tresnak). Kokapenok gure gizartearen honakoak izango dira: erietxea, etengabeko behaketarako lekua dena, kodifikatua, sistematikoa, sendagintzako langile-multzoo bereiztu eta hierarkizatu batek bermatua, horrela maiztasunen arlo kuantifikagarri bat osatu ahal izango dela; jardute pribatua, honek eskaintzen du behaketa-eremu aleatorioagoa, eskaintzen ditu hutsune gehiago duten behaketak, hauek kopuruz gutxiago izanik, batzuetan aukera ematen dute denboran luzeago joango diren egiaztapenak egiteko, horrela aurrekariak eta ingurunea hobeto ezagutzuz; laborategia, hau leku autonomoa da, luzarotik erietxeaz berezia, bertan maila orokorreko egia batzuk zehazten dira giza gorputzari buruz, bizitzari buruz, gaixotasunei eta lesioei buruz, eta diagnostikorako elementu batzuk eskaintzen ditu, bilakaeraren adierazle batzuk, osatzearen irizpide batzuk, esperimentu terapeutikoak baimenduz; azkenik «biblioteka» edo dokumentu-eremua deitu ahal izango genukeena, honek biltzen ditu ez bakarrik tradizionalki baliagarritzat jo daitezkeen liburuak eta tratatuak, baizik eta baita administrazioak, beste sendagile batzuk, soziologoek eta geografok

sendagileari eman diezaioketen informazio estatistikoaren multzoa ere (gizarte inguruneari buruz, klimari buruz, izurritei buruz, heriotza tasari buruz, gaixotasunen maiztasunari buruz, kutsatze-fokuei buruz, lanbide-gaixotasunei buruz). Hemen ere, mediku-diskurtsoaren «kokapen» ezberdinak sakon-sakonetik aldatuak izan dira XIX. mendean: dokumentuaren garrantzia handitzen doa etengabe (neurri berean liburuaren eta tradizioaren agintea gutxitzen doalarik); erietxea gaixotasunei buruzko diskurtsoan leku osagarria besterik ez zen eta bere balioa eta garrantzia jardun pribatuaren garrantziaren atzetik zegoen, (XVIII. mendean eritasunak euren ingurumen naturalean utzita jardun pribatu horretan agertzen ziren euren egiazkotasun begetalean), baina XIX. mendean behaketa sistematiko eta homogeneoen kokapena bihurtu zen, maila zabaleko alderaketena, maiztasunen eta probabilitateen ezarpenena, aldaera indibidualen deuseztapenena, laburbilduz, eritasunaren agerpenaren kokapena bihurtu zen erietxea, ez eritasuna hartuta espezie berezi bezala –zeinak bere ezaugarri esentzialak zabaltzen dituen sendagilearen begiradapean– baizik eta batez besteko prozesu modura bere erreferentzia adierazgarriekin, bere mugekin eta garatzeko aukerekin. Era berean, laborategia XIX. mendean integratuko da eguneroko mediku-jardunaren fisikak, kimikak edo geologiak duten arau esperimental beraiekin.

c) Subjektuaren kokapenak definitzen dira era berean eremu edo objektu-multzo ezberdinetan bete ahal dituen egoeren arabera: galdera esplizituen multzo baten arabera subjektu galdetzailea da, eta informazio egitarau baten arabera subjektu entzulea da; subjektu begiralea da trazu berezien taula bati dagokionean, eta ohar-hartzailea tipo deskribatzaile bati dagokionean; hautemate urruntasun ezin hobea batean dago kokatuta, bere mugek informazio egokiaren aleak zedarrizten dituztelarik; bitarteko instrumentalak erabiltzen ditu, zeintzuek informazioaren eskala aldatzen duten, subjektua lekualdatzen dute erdi mailako edo gertuko pertzepzioarekiko, azaleko maila batetik sakoneko maila baterako iragaitea bermatzen dute, gorputzaren barruko aldean zirkularazten dute –sintoma nabarmenetatik organoetara, organoetatik ehunetara eta ehunetatik, azkanean, zeluletara–. Hautemate egoera hauei gehitu behar zaizkie subjektuak informazioaren sarean bete ditzakeen posizioak (irakaskuntza teorikoan edo erietxeeko pedagogian, ahozko komunikazio-sisteman edo idatzizko dokumentazioan: behaketen, txostenen, datu estatistikoaren, proposapen teoriko orokorren, egitasmoen edo erabakien igoerle eta hartzaile modura). Medikudiskurtsoaren subjektuak bete ditzakeen egoera ezberdinak berriro definituak izan ziren XIX. mendearen hasieran hautemate-eremu guztiz ezberdina antolatuz (sakontasunean jarrita, aldaketa instrumentalaren bidez adierazia, kirurgia-tekniken eta autopsia-metodoen bidez gararazia, lesio guneen inguruan zentratua), eta sistema berriak ezarri erregistratzeko, oharrak hartzeko, deskribatzeko, sailkatzeko, sail numerikoetan eta estatistiketan txertatzeko, eta irakasteko modu berriak finkatuz, baita eta informazioak zabaltzeko beste eremu teorikoekin (zientziekin edo filosofiarekin) eta beste erakundeekin harremanak izateko (administratiboak, politikoak edo ekonomikoak) modu berriak finkatuz ere.

Diskurtso klinikoan sendagilea baldin bada aldizka galdetzaile subirano eta zuzena, bera bada so egiten dagoen begia, ukitzen duen behatza, zeinuak dezifartzeko organoa, aurretik egin diren deskribapenen integrazio-puntua, laborategiko teknikoak, harreman-multzo oso bat jokoan dagoelako izango da. Harremanak erietxe-espazioaren (aldi berean sorospen tokia, behaketa purifikatu eta sistematikorako tokia eta hori terapeutikoa den heinean, neurri batean probatutako terapeutika, neurri batean terapeutika esperimentalak) eta giza gorputza hautemateko teknika eta kode-multzo oso baten artean (giza gorputza anatomia patologikoak definitzen duen moduan kontuan hartuta); harremanak berehalako behaketen esparruaren eta dagoeneko eskuratutako informazioaren eremuaren artean; harremanak sendagilearen eginkizunen artean, terapeuta modura, pedagogio modura, medikuntza jakitearen zabalkundearen bitartekari modura eta gizarte-espazioan herri osasunaren arduradun modura. Medikuntza klinikoak berritze modura ulertuta, alegia ikuspuntuaren berritze modura, edukiena, deskribapenaren formen eta estilo beraren berritze modura, arrazoibide induktiboaren eta probabilitateko erabilpenaren, kausaltasuna esleitzeko modua, laburbilduz, enuntziatio-modalitateen berritze modura ulertuta, ez da jo behar behaketa teknika berri baten emaitzatzat –hots, ez da jo behar autopsiaren emaitzatzat, XIX. mendea baino askoz ere lehenago erabiltzen baitzen– ez eta kausa patogenoak organismoaren sakontasunean ikertu izanaren emaitzatzat ere – Morgagnik baziharduen honetan XVIII. mendearen erdi aldera–; ez eta erietxe-klinika deritzon erakunde berriaren emaitzatzat ere –badira era honetako erakundeak, urteak direla, Italian eta Austrian–; ezta ehun kontzeptua Bichaten Traité des Membranes-en sartua izan zelako emaitza bezala ere. Medikuntza klinikoak, haatik, ulertu behar da medikuntza-diskurtsoan osagai ezberdin batzuk harremanean jartzea bezala, osagai horietatik batzuek lotura dute sendagilearen estatusarekin, beste batzuek euren nondik hitz egiten zuten leku instituzional eta teknikoarekin, beste batzuk sendagileek betetzen duten lekuarekin subjektu hautemaile, behatzaile, deskribatzaile, irakasle, etab., diren neurrian. Esan daiteke diskurtso klinikoak gauzatu duela osagai ezberdinak (berriak batzuk, aurretik badirenak beste batzuk) harremanean jartze hau: berak, praktika den neurrian, ezartzen du osagai horien artean harreman-sistema oso bat, alde aurretik «benetan» emana izan ez dena, ezta eratua ere; eta batasuna baldin badago eta berak darabiltzan enuntziatio-modalitateak –edo berak eragindakoak– ez baldin badira bata bestearen ondoan ipintzen kontingentzia historiko batzuk direla-eta, harreman-sorta horretaz etengabe baliatzen delako izango da.

Beste ohar bat gehiago. Diskurtso klinikoko enuntziatu-moten ezberdintasuna egiaztatu ondoren, ez naiz bera murrizten ahaleginu agerraraziz diskurtso batean lanean jarri ahal izan diren egitura formalak, kategoriak, kateatze logikoaren moduak, arrazoitze eta indukzio-motak, azterketa eta sintesi erak; ez dut argitu gura izan zer antolamendu arrazional eman diezaiekeen medikuntzaren tankerako enuntziatuei, beraiekin behar intrintsekoa dakarten enuntziatuei alegia. Ez dut, halaber, ekintza fundatzaile batera edo kontzientzia eratzaille batera murriztu nahi izan arrazionaltasunaren ostertz orokorra, arrazionaltasun orokor honetatik askatzen direlarik pittinka-pittinka medikuntzaren aurrerabidea, zientzia zehatzekin bat egiteko bere ahalegina, bere behaketa-metodoen gero eta zorrotzagoak egitea, bere baitan dauden irudien edo mamuen kanporatze geldoa eta zaila, bere arrazoitze-sistemaren arazketa. Azkenik, ez naiz ahaleginu medikuntza-pentsamoldearen genesi enpirikoa eta osagai ezberdinak deskribatzen: nola mugitu den sendagileen interesa, zer eredu teoriko edo esperimentalek izan duen eragina horretan, zer filosofiak edo moral gaiek definitu duen euren hausnarketaren klima, zer galderei, zer eskaerari erantzun dieten, zer ahalegin egin behar izan duten aurreiritzi tradizionalak askatzeko euren burua, zein bidetatik zuzendu diren euren jakitearen batasunerantz eta koherentziarantz (sekula burutu ez dena, sekula eskuratu ez dena). Laburbilduz, enuntziazioaren modalitate ezberdinak ez dira lotzen subjektuaren batasunarekin –subjektua hartzen dela arrazionaltasunaren instantzia fundatzaile modura, edo hartzen dela sintesiaren funtzio enpiriko bezala–. Ez «ezagutzea», ezta «ezagupenak» ere.

Proposaturiko azterketan enuntziatio-modalitate ezberdinek eraman beharrean subjektu baten sintesira edo funtzio bateratzaileira, subjektu horren sakabanaketa adierazten dute⁵. Subjektu horrek diskurtso bat luzatzen diharduenean bete edo jaso ditzakeen estatutu ezberdinei dagokienez, kokapen ezberdinei dagokienez, posizio ezberdinei dagokienez. Hitz egiten duen planoen jarraitasun-ezari. Eta plano hauek uztartuta badaude harreman-sistema baten bidez, harreman-sistema hau ez du ezartzen kontzientzia baten jardute sintetiko batek –bere buruaren berdin-berdina, mutua eta edozein berbaren aurrekoa den jardute sintetiko batek– baizik eta jardun diskurtsiboaren berezitasunak ezarriko du. Uko egingo zaio, beraz, diskurtsoan adierazpen-fenomeno bat ikusteari –hots, beste nonbait gauzatutako sintesi baten hitzezko itzulpena ikusteari–; gehiago bilatuko da subjektibotasun-posizio ezberdinentzako erregulartasun-arlo bat. Diskurtsoa, horrela bururatua, ez da pentsatzen duen, ezagutzen duen eta esaten duen subjektu baten handikero garatutako agerpena: haatik, multzo bat da, non mugatu ahal izango diren subjektuaren sakabanaketa eta bere buruarekiko jarraitasun-eza. Kanpokotasun-espazio bat da, non hedatzen den kokapen ezberdinen sare bat. Oraintxe bertan erakutsi da ez dela beharrezkoa definitzea formazio diskurtsibo bati dagozkion objektuak ez «hitzen» bidez ez eta «gauzen» bidez ere; era berean, aitortu behar da orain enuntziatioen erregimena ez dela definitu behar ez subjektu transzendental batengana jota eta ezta subjektibotasun psikologiko batengana jota ere.

V.

Kontzeptuen eraketa

Beharbada Linnaeusen lanean taxutzen den kontzeptu familia (baina baita Ricardoren lanean aurkitzen dena ere, edo Port-Royaleko gramatikan) multzo koherente batean antola liteke. Beharbada berak eratzen duen arkitektura deduktiboa berreskura liteke. Edozein modutan esperientziak merezi du ahalegina egitea, eta zenbait alditan egin izan da ahalegin hori. Bestalde, eskala zabalago bat hartzen bada eta aukeratzen badira erreferentzia modura gramatika, ekonomia, bizidunen azterketa edo modu horietako diziplinak, agertuko den kontzeptuen jokoak ez da hain baldintza zorrotzen ondorioa izango: euren historia ez da harriz harri jasotako eraikin baten eraikuntza. Utzi behar al da sakabanatze hau bere itxurazko desordena horretan? Ikusi behar al da bertan kontzeptu-sistema baten jarraipena, bakoitza bere antolakuntzarekin, eta bakoitza artikulatuko delarik arazoan iraupenean soilik edo tradizioen jarraipenean edo eraginean mekanismoetan? Ezin aurkituko al da legerik bat ez datozen kontzeptuak argituko dituen? Ezin aurkituko al da euren artean gertatze-sistema bat sistematikotasun logiko bat izango ez dena? Kontzeptuak eraikuntza deduktibo birtual batean kokatzeko nahia izan beharrean, deskribatu beharko litzateke eurak agertzen diren eta zirkulatzen duten enuntziatuen eremuaren antolakuntza.

a) Antolakuntza honek ondorengotzaren erak biltzen ditu lehenik. Eta euren artean, enuntziatio-sailen ordenaketa ezberdinak (dela inferentzien, ondoz ondoko inplikazioen eta arrazoiketa demostratiboen ordena; dela deskribapenen ordena, deskribapen horiek mugatzen duten orokortze-eskemak edo zehaztapen progresiboen eskemak, eurek zeharkatzen dituzten banaketa espazialak; dela kontakizunen ordena eta denboraren gertaerak banatzen diren modua enuntziatuen jarraitasun linealean) enuntziatuen mendetasun-mota ezberdinak (hauek ez dira beti berberak, eta ezin zaizkie enuntziatio-sailean agerikoak diren jarraitasunei gainezarri: horrela da hipotesi-egiaztapen mendetasunean; asertzio-kritika mendetasunean; lege orokorra-aplikazio zehatza menpetasunean); eskema erretoriko ezberdinak, enuntziatuen multzoak konbinatzea zilegitzen dutenak (nola kateatzen diren elkarren artean deskribapenak, dedukzioak, definizioak, hauen jarraipenak testu baten arkitektura ezaugarritzen duelarik). Har dezagun, esate baterako, Historia naturalaren kasua garai klasikoan: berak ez darabiltza XVI. mendeko kontzeptu berberak; zaharrak diren batzuk (generoa, espeziea, ikurra) beste erabilera bat dute orain; beste batzuk agertzen dira (hala nola, egiturarena); beste batzuk geroago sortuko dira (hala nola, organismoarena). Baina XVII. mendean aldatu dena eta Historia natural osorako kontzeptuen agerpena eta errepikapena zuzenduko duena izango da enuntziatuen banaketa orokorra eta eurak multzo zehatzetan sailkatuak izatea; aldatu da behatzen dena transkribatzeko modua eta, enuntziatuen haritik, pertzepzio ibilbide bat berrezartzeko modua; deskribatzearen, trazu bereizgarrietan eratzearen, ezaugarritzearen eta sailkatzearen artean dagoen harremana eta menpetasun-jokoa; behaketa zehatzen eta hastapen orokorren arteko elkarrekiko posizioa; menpetasun-sistema ikasitakoaren, ikusitakoaren, deduzitutakoaren, gertakortzat jotzen denaren eta aldarrikatzen denaren artean. Historia naturala, XVII. eta XVIII. mendean, ez da ezagutzeko era soil bat, definizio berria eman diona «genero» edo «karaktere» kontzeptuei, eta «sailkapen natural» eta «ugaztunen» moduko kontzeptu berriak sartu dituen; batez ere, arau-multzo bat da, enuntziatuak sailetan taxutzeko, nahitaezko eskema multzo bat da, mendetasunena, ordenarena, jarraitasunena, hor banatuko direlarik kontzeptu modura balio ahal izango duten osagai errepikiariak.

b) Enuntziatio-eremuaren konfigurazioak aldi bereko existentzia erak dakartza berarekin. Hauek presentzia-eremu bat diseinatzen dute (eta honekin ulertu behar da beste inon formulatutako enuntziatu guztiak, zeintzuk diskurtso batean errepikatzen diren onarturiko egia modura, deskribapen zehatz modura, oinarrituriko arrazonomendu modura, edo beharrezko premisa bezala; eta ulertu behar da, halaber, bai kritikatu, eztabaidatu eta epaitu diren enuntziatuak, bai eta arbuatuak edo baztertuak direnak ere); presentzia-eremu honetan ezarritako harremanak egiaztapen esperimentalaren motakoak izan daitezke, baliozkotze

logikoaren motakoak, errepikapen huts eta soilaren motakoak, tradizioaren eta agintearen bidez justifikatutako onespenen motakoak, iruzkinekoak, ezkutuko esanahien bilakuntzakoak, hutsegitearen azterketakoak; harreman hauek esplizituak izan daitezke (eta noizean behin, gainera, enuntziatu-mota espezialduetan adieraziak: erreferentziak, eztabaida kritikoak) edo implizituak eta enuntziatu arruntetan bilduak. Erraza da egiaztatzea Historia naturalaren presentzia-eremua garai klasikoan ez datorrela bat bere formetan, aukeratzeko irizpideetan eta bazterte-irizpideetan, Aldrovandiren garaikoarekin, zeinek testu bakarrean eta berean bildu zuen poetek munstroei buruz ikusi, behatu, kontatu, makina bat bider ahoz aho aipatu eta baita irudikatu zutena ere. Presentzia-eremu honetaz berezita, bestalde konkomitantzia-eremu bat ere deskriba daiteke (guztiz bestelakoa den objektuen eremu batekin zerikusia duten enuntziatuak dira, diskurtso-mota erabat ezberdinei dagozkienak, enuntziatu hauek euren jarduna ikertutako enuntziatuen artean garatzen dute, bai baieztapen analogikoaren balioarekin, bai arrazonamendu batean onarturiko hastapen orokor eta premisaren balioarekin, beste eduki batzuetara transferi daitezkeen ereduen balioarekin, bai maila goreneko instantzia modura funtzionatuz, baieztatzen diren proposizioetatik gutxienez batzuk instantzia horrekin alderatu edo berari menderatu behar zaizkiolarik); horrela Historia naturalaren konkomitantzia-eremua Linnaeusen eta Buffonen garaian definituko zen zenbait harremanen bidez kosmologiarekiko, lurraren historiarekiko, filosofiarekiko, teologiarekiko, idazketa eta exegesi biblikoarekiko, matematikekiko (ordenari buruzko zientzia oso orokor baten formaren pean); eta harreman hauek guztiek Historia naturala kontrajartzen dute hala XVI. mendeko naturalisten diskurtsoarekin nola XIX. mendeko biologistenarekin. Azkenean, enuntziatio-eremuak biltzen du oroimen-arloa deitu ahal izango genukeena (hauek enuntziatuak dira onartzen ez direnak eta auzitan jartzen ez direnak eta, ondorioz, definitzen ez dutenak ez egien gorputzik ez baliotasun-arlorik, haatik, euren arabera ezartzen dira kidetza, genesi, eraldaketa, historiaren jarraitasuna eta jarraitasun-eza): honela, Historia naturalaren oroimen-eremua, Tourneforten ondotik, bereziki estua eta bere formetan behartsua agertzen da, alderatzen bada XIX. mendetik aurrera biologiak berea egin zuen oroimen-eremu hain luze, hain metatzaille eta hain ondoto zehaztutakoarekin; bestalde agertzen da askoz ere hobeto definitua eta artikulatua errenazimentuan landareen eta animalien historia inguratzen duen oroimen-eremua baino: izan ere, orduan nekez bereizten zen presentzia-eremutik; hedapen berbera zuen eta forma berbera eta harreman berberak inplikatzeko zituen.

c) Azkenik, enuntziatuei legitimoki aplika dakizkiekeen esku-hartze prozedurak defini daitezke. Prozedurok, izan ere, ez dira berdinak formazio diskurtsibo guztientzako; formazio diskurtsibo hauek darabiltzaten prozedurek (gainerako guztiak baztertuz), bata bestea lotzen duten harremanek eta era honetara osatzen duten multzoak prozedura bakoitza zehaztea baimentzen dute. Prozedurok ager daitezke: berridazketa tekniketari (esaterako, aro klasikoko naturalistei deskribapen linealak sailkatze-tauletan berridaztea baimendu dien teknikak, taula hauek ez dituzte erdi aroan edo errenazimenduan zehar ezarri ziren ahaidetasun zerrenda eta taldeen lege berdinak ezta konfigurazio bera ere); enuntziatuak transkribatzeko metodoetan (hizkuntza naturalean artikulatuak) gehiago edo gutxiago formalizatutako hizkuntza artifizial batean (era honetako hizkuntza baten egitasmoa eta, neurri bateraino, bere gauzaketa Linnaeusengan eta Adansonengan aurki daitezke); enuntziatu kuantitatiboak formulazio kualitatibo eta alderantziz itzultzeko moduak (hautematezko hutsak diren neurri eta deskribapenak harremanean jartzea); enuntziatuen hurbilketa areagotzeko erabilitako baliabideak, baita euren zehaztasuna zorrozteko ere (formaren araberrako egiturazko azterketak, zenbakiak, osagaien kokapenak eta handitasunak baimendu du, Tournefortengandik aurrera, enuntziatu deskriptiboan gero eta hurbilketa handiagoa eta konstanteagoa); enuntziatuen baliotasun-eremua berriro mugatzen den modua – hedapenagatik edo murrizketagatik– (egiturazko ezaugarrien enuntziatio mugatu egin zen Tournefortengandik Linnaeusengaino doan garaian, Buffon eta Jussieuren artekoan, ondoren, handitu egin zen); enuntziatu-mota bat erabilpen-eremu batetik bestera transferitzeko modua (hala nola, landare ezaugarrietatik animalia taxonomiara transferitzea; edo azaleko ezaugarrien deskribapenetik organismoaren barruko osagarrietara); dagoeneko existitzen diren proposizioak sistematizatzeko metodoak, aurretik formulatuak izan direlako, baina egoera bereizi batean; edo halaber dagoeneko elkarren artean lotuta dauden enuntziatuak birbanatzeko metodoak, multzo sistematiko berri batean (Adansonetik egin zuen modura bere aurrekoek edo berak egindako ezaugarritze naturalak berriro jasoz deskribapen artifizialen multzo batean, honen eskema aldeztetik emanaz konbinatoria abstraktu baten bidez).

Aztertze proposatzen diren osagarri hauek nahikoa heterogeneoak dira. Batzuek eraikitze formalaren arauak osatzen dituzte, beste batzuek ohitura erretorikoak; batzuek testu baten barruko konfigurazioa definitzen dute, beste batzuek testu ezberdinen arteko harreman eta interferentzia moduak; batzuk garai jakin baten ezaugarriak dira, beste batzuek urrun dute jatorria eta iraupen kronologiko oso luzekoak dira. Alabaina, osagai ezberdin horiek elkarren artean harremanean jartzeko moduak baimenduko du formazio diskurtsibo bati berez dagozkion eta berariazkoak zaizkion kontzeptuen multzoa zedarritzea, kontzeptuok ezberdinak izan arren: esaterako, deskribapenen edo kontakizunen ordena berridazketa teknikekin uztartzeko modua; oroimen-eremua eta testu baten enuntziatuak arautzen dituzten hierarkia eta mendekotasun moduak uztartzeko era; enuntziatuak hurbiltzeko eta garatzeko moduak eta kritika, iruzkina eta dagoeneko formulaturiko enuntziatuen interpretazio moduak uztartzeko era, etab. Harreman-sorta honek osatuko du kontzeptu eraketa-sistema bat.

Honelako sistema baten deskribapena ezingo litzateke baliagarria izan kontzeptuen euren deskribapen zuzen eta berehalako baterako. Kontua ez da zehaztapen osoa egitea, denak batu ditzakeen bereizgarria finkatzea, euren sailkapenari ekitea, barne koherentzia neurtzea edo elkarren arteko bateragarritasuna egiaztatzea; ez da azterketaren objektutzat hartzen testu bakartu baten, banako baten lanaren edo une jakin bateko zientzia baten arkitektura kontzeptuala; ageriko joko kontzeptual honen ostean jarri behar du batek bere burua; ahaleginu behar da zehazten zein eskemen arabera (seriean jarri, aldi bereko taldekatzeak, aldaketa lineal edo elkarrekikoak) lotu daitezkeen enuntziatuak elkarren artean diskurtso-mota batean; ahalegina egin behar da ohartarazten enuntziatuen osagai errepikariak nola ager daitezkeen berriro, nola banan daitezkeen, nola birmolda daitezkeen, nola handiago daitekeen euren hedadura edo mugatasuna, nola izan daitekeen harrapatua, atzera ere, egitura logiko berrien barruan, eduki semantiko berriak eskuratu, euren artean antolamendu berriak sortu. Eskemok aukera ematen dute deskribatzeko, ez kontzeptuak eraikitzeke barruko legeak, ez euren aurrerakako eta banakako genesia giza espirituari, baizik eta euren sakabanatze anonimoa testuetan, liburutetan eta obretan zehar. Sakabanatze honek diskurtso-mota bat ezaugarrituko du eta kontzeptuen artean definituko ditu dedukzio erak, deribatzeak, koherentziak, baina baita bateraezintasunekoak, gurutzaketak, ordezkapenekoak, bazterketak, elkarrekiko aldaketak, lekualdaketa, etab. Antzeko azterketa nola edo hala kontzeptuurreko maila bati dagokio, kontzeptuak batera existi daitezkeen eremuari eta eremua hau mendearen duten arauari.

«Kontzeptuurreko»-ekin zer ulertu behar den zehazteko, les mots et les choses lanean landu duen «lau eskema teorikoen» adibidea hartuko dut, zeintzuk XVII. eta XVIII. mendearen ezaugarritzen duten Gramatika orokorra. Lau eskema hauek –atribuzioa, artikulazioa, adieraztea eta deribazioa– ez dituzte adierazten gramatikari klasikoek benetan erabiliko dituzten kontzeptuak; ez dute baimentzen, ez eta, berriro osatzea, gramatika lan ezberdinez gaindi, nolabaiteko sistema orokorrako bat, abstraktuagoa eta behartsuagoa ere, baina, horrexegatik, hain zuzen, deskubrituko du itxuran aurkakoak diren sistema horien bateragarritasun sakona. Euren baimentzen dute deskribatzea:

1. Nola jar daitezkeen ordenan eta nola gara daitezkeen gramatika-azterketa ezberdinak; zer eratako jarraipenak diren ahalezkoak izenaren, aditzaren, eta adjektiboaren azterketen artean, fonetikari dagozkien eta sintaxiari dagozkien artean, jatorrizko hizkuntzari dagozkien eta hizkuntza artifizial bat proiektatzen dutenen artean. Ahalezko ordena ezberdin hauek atribuzioaren, artikulazioaren, izendapenaren eta deribazioaren teorietan beha daitezkeen mendetasun harremanek mugarrizten dituzte.

2. Nola definitzen duen gramatika orokorrak baliotasun-eremu bat (zer irizpideren arabera eztabaida daiteke proposizio baten egiazkotasunaz edo faltsutasunaz); nola osatzen duen araukotasun-eremu bat (zer irizpideren arabera baztertzen diren zenbait enuntziatu diskurtsoarentzat ez egokitzat hartuta edo ez-esentzialtzat eta marjinaltzat edo ez zientifikotzat hartuta); nola osatzen den gaurkotasun-eremu bat (eskuratutako irtenbideak bilduta, aurrean dauden arazoak definituz, erabilpena galdu duten kontzeptuak eta baieztatzen kokatuz).

3. Zer harreman duen gramatika orokorrak Mathesisarekin (algebra cartesiarrarekin eta ondorengo cartesiarekin, ordenaren zientzia orokor baten egitasmoarekin), azterketa filosofikoarekin, errepresentazioaren eta zeinuen teoriaren azterketarekin, Historia naturalarekin, ezaugarritzearen eta taxinomiaren arazoekin, aberastasunen azterketarekin eta baita neurtzeko eta aldaketarako zeinu arbitrarioen aberastasunen eta arazoaren azterketarekin ere: harreman hauek markatuz muga daitezke eremu batetik besterako zirkulazioa aseguratzen duten bideak, eta baita aseguratzen dutenak ere lekualdatzea, kontzeptuen aldaketak, euren formaren edo aldaketaren erabilpen-arloa. Lau segmentu teorikoek osatzen duten sareak ez du definitzen gramatikariak erabilitako kontzeptu guztien arkitektura logikoa. Berak marrazten du euren eraketaren espazio erregularra.

4. Nola izan diren ahalezkoak aldi berean edo hurrenez hurren (hautaketa alternatiboaren, aldaketaren edo ordezkapenaren forman) izan aditzaren adiera ezberdinak, kopularenak, aditz erroarenak eta hondarkiarenak (hau atribuzioaren eskema teorikoari dagokionean); osagai fonetikoaren, alfabetoaren, izenaren, substantiboaren eta adjektiboaren (hau artikulazioaren eskema teorikoari dagokionean); izen bereziaren eta izen arruntaren, erakuslearen, izen erroaren, silabaren edo sonoritate adierazkorraren kontzeptu ezberdinak (hau izendapenaren segmentu teorikoari dagokionean); jatorrizko hizkuntzaren eta hizkuntza deribatuen, metaforaren eta irudiaren eta hizkuntza poetikoaren kontzeptu ezberdinak (hau deribazioaren segmentu teorikoari dagokionean).

Honela askatu den kontzeptuaurreko mailak ez darama ez idealtasun ostertz batera, ez abstrakzioen genesi enpiriko batera. Alde batetik, ez da idealtasun ostertz bat, keinu fundatzaile batek jarritakoa, aurkitutakoa edo ezarritakoa –eta hain jatorrizkoa ezen denboran txertatua izateari uko egingo liokeen zeharo–; ez da, historiaren mugetan, agortezineko a prioria, aldi berean atzeraka doana, abiapuntu orori, lehengoratze genetiko orori, ihes egingo liokeelako, eta ezingo lukeelako sekula izan bere buruaren garaikidea osotasun esplizitu batean. Berez, galdera planteatzen da diskurtsoaren beraren mailan, eta hau ez da kanpotiko itzulpena, baizik eta kontzeptuen sorrerarako gunea; diskurtsoaren konstanteak ez zaizkio lotzen kontzeptuaren egitura idealei, haatik sare kontzeptuala deskribatzen da diskurtsoaren erregulartasun intrintsekoetatik irtenda; enuntziatuen askotarikotasuna ez zaio menderatzen kontzeptuen koherentziari, ezta koherentzia hau ere idealtasun meta-historiko baten barnera biltze isilari; alderantzizko saila ezartzen da: kontraesan-ezaren asmo hutsak jartzen dira bateragarritasun eta bateraezintasun kontzeptual sare oso nahasi batean; eta nahasmendu hori jardun diskurtsiboa ezaugarritzen duten arauekin lotzen da. Horrexegatik, ez da beharrezkoa jotzea mugagabeki gibelatutako jatorriaren eta agortezineko ostertzaren gaietara: diskurtsoaren jardunean arau-multzo baten antolaketa historiaren osagaien muga daiteke, antolaketa horrek osatu arren kokatzeko formulazio bat edo aurkikuntza bat haina erraza den gertaera bat; eta agortezina bada, honako arrazoiagatik da: berak deskribatzen duen sistemak, erabat deskribagarria dena, adierazten du kontzeptuen joko oso handi bat eta eraldaketen kopuru oso garrantzitsu bat, eta hauek aldi berean kontzeptuetan eta euren arteko harremanetan eragiten dute. «Kontzeptuaurrekoak», horrela deskribatua, ez du ostertz bat diseinatzen, historiaren sakonetik letorkeena eta bere bidean zehar iraungo lukeena, haatik mailarik «azalekoenean» (diskurtsoaren mailan) benetan erabiliak diren arauen multzoa izango da.

Hau ez da, halaber, abstrakzioen genesi bat, ahalegintzen dena hauek osatzea baimendu duten eragiketen saila berraurkitzen: hots, erakunde globalak, kasu zehatzen aurkikundeak, irudimenezko gaien alboraketa, oztopo teorikoak edo teknikoak topatzea, eredu tradizionaletatik maileguak hartzea behin eta berriz, egitura formal egokiaren definizioa, etab. Hemen proposatzen den azterketan, eraketa-
-arauak euren lekua dute ez «pentsaeran» edo banakoen kontzientzian baizik eta diskurtsoan bertan; eurak, ondorioz, ezartzen zaizkie diskurtso-eremu honetan hitz egiteari ekiten dioten banako guztiei, anonimotasun tankerako baten arabera. Bestalde, ez dira jotzen unibertsalki baliagarritzat eremu guztietan; beti deskribatzen dira diskurtso-eremu mugatuetan, eta ez zaizkie aitortzen hasieran hedapenerako ahalbide mugagabeak. Gehien jota kontzeptuak eratzeko arauak alderaketa sistematiko baten bidez erka daitezke eskualde batoren eta bestearen artean: honela ahaleginak egin dira agerian jartzeko arau-multzo horiek aurkez ditzaketan identitateak eta ezberdintasunak, aro klasikoan, Gramatika orokorrean, Historia naturalean, eta Aberastasunen azterketan. Arau-multzo hauek nahikoa espezifikoak dira esparru hauetako bakoitzean eta eurentan formazio diskurtsibo bereziak eta banakakoak ezaugarritzen dituzte; alabaina, nahikoa analogia erakusten dute guk ikusi ahal izateko formazio hauek eratzen duten multzo diskurtsibo zabalagoa eta maila goienagokoa. Era guztietara, kontzeptuak eratzeko arauak, edozein dela euren orokortasuna, ez dira gizabanakoek burututako eragiketen emaitza, historian ipinitakoa eta ohikuntza kolektiboen sakontasunean jalkitakoa; ez dute osatzen lan ilun baten eskema gordina, lan horretan zehar kontzeptuak azaleratuko liratekeelarik ilusioen bidez, aurreiritzien bidez, hutsegiteen bidez, tradizioen bidez.

Kontzeptuaurreko eremuak agerrarazten ditu diskurtsoaren erregulartasunak eta betebeharrak, zeintzuek ahalezkoa egin duten kontzeptuen ugaritasun heterogeneoa, eta, are gehiago, ideien historia egiten denean gurata gogoan ditugun gaien, sinesmenen eta errepresentazioen ugaritasuna.

Objektuen eraketaren arauak aztertzeko ikusi dugu ez zela beharrezkoa eurak gauzetan sustraitzea, ez eta hitzen eremuari lotzea ere; enuntziatu-moten eraketa aztertzeko ez zen beharrezkoa ez lotzea subjektu ezagutzaileari, ez banakotasun psikologiko bati. Era berean, kontzeptuen eraketa aztertzeko, ez da beharrezkoa eurak lotzea idealtasun ostertzari, ez eta ideien bilakaera enpirikoari ere.

VI. Estrategien eraketa

Ekonomia, medikuntza, gramatika, izaki bizidunen zientzia eta tankera horretako diskurtsoek bidea ematen dute kontzeptuen antolaera batzuk, objektuen multzokatze batzuk, enuntziatio-mota batzuk sortzeko, eta hauek gaiak edo teoriak eratzen dituzte euren koherentzia, zorrotasun eta egonkortasun mailaren arabera: gaia, XVIII. mendeko gramatikan jatorrizko hizkuntza bat izango zen, eta honetatik eratorriko lirakeke gainerako hizkuntza guztiak eta hauek euren baitan eroango lukete haren oroitzapena, noizbehinka dezifratu ahal izango litzatekeena; teoria, XIX. mendeko filologian, hizkuntza indoeuropar guztien senidetza –seme-alabatasuna edo lehengusu izatea– eta euren abiapuntu komuna izango litzatekeen hizkuntza arkaiko bat; gaia, XVIII. mendean espezieen bilakaera, zeinak denboran gararazten duen naturaren jarraipena eta taula taxonomikoaren egungo hutsuneak azaltzen dituen; teoria, fisiokratengan, nekazaritza ekoizpenean oinarritutako aberastasunen zirkulazioari buruz. Edozein dela euren maila formala gai hauek eta teoria hauek, konbentzionalki, «estrategiak» deituko dira. Arazoa da jakitea nola banatzen diren eurak historian. Beharra al da kateatzen dituen, saihestezinak bihurtzen dituen, bata bestearen ondoren euren lekura deitzen dituen zehaztasunez, eta arazo bat eta berberaren ondoz ondoko irtenbidea bihurtzen dituen? Edo ahal iritzira elkartzen al dira, jatorri ezberdineko ideiak, eraginak, aurkikuntzak, espekulazio giroak, gizabanakoen eroapenak edo jenioak hobeto edo okerrago osatutako multzoetan banatuko litzuzkeen eredu teorikoak? Beti ere, ezinezkoa ez bada euren artean erregulartasun bat aurkitzea eta euren eraketaren sistema komuna definitzea.

Estrategia hauen azterketari dagokionean, nekez sar naiteke ni xehetasun handietan. Arrazoia sinplea da: diskurtso esparru ezberdinetan (neuk inbentariatu ditudanak, benetan itsumustuka eta nahikoa kontrol metodikorik gabe, hasieran bereziki) kontua zen, aldi bakoitzean, eraketa diskurtsiboa deskribatzea bere dimentsio guztietan eta bere ezaugarriak kontuan izanda: horregatik beharrezkoa zen aldi bakoitzean definitzea objektuen eraketa-legeak, enuntziatu-modalitateak, kontzeptuak, aukeraketa teorikoak. Alabaina, aurkitu da ez zela beti berdina azterketaren puntu zailena, arreta gehiena eskatzen zuena. Histoire de la Folie lanean eraketa diskurtsiboaren mota batez arduratu nintzen, bertan aukeraketa-puntu teorikoak nahikoa samurrak ziren finkatzeko, sistema kontzeptualak kopuruz gutxi samar ziren eta konplexutasunik gabekoak eta bere erregimen enuntziatiboa nahikoa homogenea eta monotonoa zen; haatik, arazo sortzen zen objektuen multzo baten azaleratzearekin, nahiko nahaspilatuak eta konplexuak; nagusiki objektu hauen eraketa deskribatu behar zen, diskurtso psikiatrikoaren osotasuna mugatzeko bere espezifikotasunean. Naissance de la clinique lanean ikerketaren muina zen mediku-diskurtsoaren enuntziatio-formen aldaketak XVIII. mendean bukaeran eta XIX. mendean hasieran; azterketak gutxiago eraman zuen kontzeptu sistemen edo aukeraketa teorikoen eraketara, eta gehiago eraman zuen subjektu diskurtso egilearen estatutura, kokapen instituzionalera, egoerara eta txertatze modura. Azkenik, Les mots et les choses lanean ikerketak, bere zatirik nagusienean, kontzeptuen sarera eta euren eraketa-arauetara eraman zuen (berberak edo ezberdinak), Gramatika orokorrean, Historia naturalean eta Aberastasunen azterketan mugatu ahal izango lirakekeen modukoak. Aukeraketa estrategikoei dagokienean, euren lekua eta inplikazioak adierazi dira (esaterako, Linnaeus eta Buffonen kasuan edo fisiokraten eta utilitaristenean); baina euren mugaketa azalekoa izan da eta azterketa ez da ia gelditu ere egin euren eraketan. Esan dezagun aukeraketa teorikoen azterketa lantzeke dagoela oraindik, geroagoko ikerketa bat heldu arte, berari arreta osoa eskaini ahal izango diona.

Oraingoz, egin daitekeen gauza bakarra ikerketaren norabideak adieraztea da. Hauek honela labur daitezke:

1. Diskurtsoaren ahalezko difrakzio-puntuak zehaztea. puntu hauek hasteko bateraezintasun-puntu modura ezaugarritzen dira: bi objektu edo enuntziatio bi mota edo bi kontzeptu ager daitezke eraketa diskurtsibo berean, baina ezingo dira enuntziatu sail berean sartu –osterantzean kontraesan nabaria edo inkontsekuentzia egongo da eta–. Ondoren, baliokidetasun-puntu modura ezaugarritzen dira: bateraezinak diren bi osagaiak modu berean eratzen dira eta arau berak abiapuntutzat hartuz; eurak agertzeko baldintzak berberak dira; maila berean kokatzen dira; eta ez dute osatzen koherentzia akats huts bat, haatik, alternatiba bat sortzen dute: eurak agertuko dira «nahiz... nahiz» formaren pean, nahiz eta kronologiaren arabera, batera agertu ez izan, edo garrantzi bera izan ez duten arren, edo enuntziatu eraginkorren populazioan modu berdinean ordezkatuak izan ez badira ere. Azkenik, eurak ezaugarritzen dira sistematizazio baten lotura-puntu modura: baliokideak eta bateraezinak diren osagai horietako bakoitzetik ondorioztatzen da objektuen sail koherente bat, forma enuntziatiboen sail bat eta kontzeptuen sail bat (eta sail bakoitzak bateraezintasun-puntu berriak izango ditu). Beste hitz batzuetan, maila horietan ikertu diren sakabanaketek ez dituzte osatzen bakarrik urrutzeak, ez-identitateak, jarraitasunik gabeko sailak, hutsuneak; azpimultzo diskurtsiboak eratzen dituzte –hain zuzen, normalean garrantzi handiagoa ematen zaizen horiek, eurak izango balira bezala multzo diskurtsibo zabalagoak osatzen duten lehen batasunak eta lehen gaia («teoriak», «kontzepzioak», «gaiak»)–. Esaterako, era honetako azterketa batean ez da kontsideratzen aberastasun azterketa, XVIII. mendean, diruari buruzko zenbait kontzepzio ezberdinen ondorioa denik (aldi bereko osaketek edo jarraipen kronologikoaren bidez ateratzen dena), ezta premiazko objektuen aldaketaren ondorioa ere edo balioaren eta prezioen eraketarena edo lurraldeko errentarena; ez da kontsideratzen Cantillon ideiez osatzen denik, Pettyrenak ordezkaturik, ezta osatzen denik ere Lawren esperientziaz, zenbait teoriarik txandaka hausnarturikoa, eta ezta sistema fisiokratiakoak, kontzepzio utilitaristei kontrajarriz. Gehiago deskribatzen da banaketa batasun baten modura, zeinak irekitze duen ahalezko aukeren eremu bat eta baimentzen dien ezberdinak eta bata bestearekiko baztertzailak diren arkitekturei bata bestearen ondoan edo txandaka agertzea.

2. Baina ahalezkoak diren joko guztiak ez dira benetan gauzatzen: badira multzo partzialak, eskualdeko bateragarritasunak, arkitektura koherenteak bistakoak ez direnak, agertu ahal izango ziratekeen arren. Eskura leudekeen aukera guztien arteko zeintzuk gauzatu ahal izan diren zehazteko (eta hauek bakarrik hauek), deskribatu behar dira erabakiak hartzeko instantzia espezifikoak. Hauen arteko lehen mailan dago ikertu den diskurtsoak jokatzeko duen papera bere garaikideekin eta bere gertukoekin harremanean. Hau dela eta, ikertu behar da diskurtso horri dagokion konstelazio diskurtsiboaren ekonomia. Izan ere, sistema formal baten papera joka dezake, eta beste diskurtso batzuk izango lirateke sistema horren aplikazioa eremu semantiko ezberdinetan; joka dezake, osteratzen, eredu zehatz baten papera, abstrakzio maila jasoagoko diskurtsioetan erabil daitekeena (XVII. eta XVIII. mendeko gramatika orokorra agertuko da eredu partikular bat bezala zeinuen eta errepresentazioaren teoria orokorarentzat). Landu den diskurtsoa, halaber, beste diskurtso batzuekin analogia-harreman batean egon daiteke, oposiziozko harremanean edo osagarritasunezkoan (garai klasikoan, esaterako, bada analogia-harremana aberastasun azterketaren eta Historia naturalaren artean, lehena premiaren eta nahiaren errepresentazioari dagokio bigarrena hautematearen eta judizioaren errepresentazioari dagokion neurri berean; oharraraz daiteke, gainera, Historia naturala eta Gramatika orokorra elkarren artean kontrajartzen direla karaktere naturalen teoria bat eta konbentziozko zeinuen teoria bat kontrajartzen diren legez; biak, era berean, aberastasun azterketari kontrajartzen zaizkie, zeinu kualitatiboen ikerketa neurketazko zeinu kuantitatiboei kontrajartzen zaizen bezala; bakoitzak, azkenik, zeinu adierazgarriaren hiru eginbehar osagarrietatik bat garatzen du: izendatzea, sailkatzea, trukitzea). Azkenik, diskurtso ugarien artean deskriba daitezke bata bestea mugatzen duten harremanak, bakoitzak bereak egiten dituelarik bere singularitasunaren seinale bereizgarriak, diferentziatuz bere eremua, bere metodoak, bere tresnak, bere erabilpen esparrua (horrela gertatzen da psikiatriaren eta medikuntza organikoaren kasuetan, hauek ez baitziren bereizten elkarren artean XVIII. mendeko bukaeraren aurretik eta une honetatik aurrera ezaugarritzen dituen aldea finkatu zen). Harremanen joko honek determinazio-hastapen bat osatzen du eta berak –emaniko diskurtso baten baitan– baimentzen ditu edo baztertzen ditu zenbait enuntziatu: badira sistematizazio kontzeptual batzuk, kateaketa enuntziatiboak, objektuen multzoak eta antoleraak, ahalezkoak izango ziratekeenak (eta ezker ezin du justifikatu eurak faltatzea eraketazko euren arau propioen mailan), baina eurak baztertzen ditu maila jasoagoko eta hedapen zabalagoko konstelazio diskurtsibo batek. Eraketa diskurtsibo batek ez du betetzen, orduan, ahalezkoa zaion bolumen osoa, bere objektuak, bere enuntziatioak, bere kontzeptuak eratzeko sistemak ireki diotena; berez hutsuneak ditu, aukeraketa estrategikoak eratzeko bere sistemagatik. Hori dela eta, eraketa diskurtsibo jakin batek, konstelazio berri batean berrartuta, kokatuta eta interpretatuta, aukera berriak agerraraz ditzake (horrela diskurtso zientifikoen egungo banaketan Port-Royalgo Gramatikak edo Linnaeusen taxonomiak aska ditzakete eurekiko intrintsekoak eta berriak diren osagaiak); baina kontua ez datza eduki isil batean, inplizitua iraungo lukeena, esan gabe esango litzatekeena, ageriko enuntziatu azpitik nolabaiteko azpi-diskurtso bat osatuko luketena, oinarritzokoagoa, azkenean orain agertuko litzatekeena egunaren argipean; baztertze-hastapenaren eta hautatzeko posibilitatearen hastapenaren aldaketa batez dihardugu; eta aldaketa hau konstelazio diskurtsibo berri baten ondorioa izango da.

3. Benetan gauzatu diren hautaketa teorikoen zehaztapenak zerikusia du beste instantzia batekin. Instantzia hau ezaugarritzen da, hasteko, landu den diskurtsoak bete behar duen funtzioarekin praktika ez diskurtsiboan eremu batean. Horrela, Gramatika

orokorrek praktika pedagogikoan paper bat jokatu du; aberastasunen azterketak ere paper bat jokatu du modu askoz agerikoago eta askoz ere garrantzitsuago batean, ez bakarrik agintarien erabaki politiko eta ekonomikoetan, baizik eta baita jaio berria den kapitalismoaren eguneroko jardunean ere (ia kontzeptualizatu gabea, ia teorizatu gabea) bai eta garai klasikoa ezaugarritu duten borroka sozial eta politikoan ere. Instantzia honek biltzen du bere baitan, orobat, diskurtsoaren jabe egiteko erregimena eta prozesua: izan ere, gure gizarteetan (eta beste askotan zalantzarik gabe) diskurtsoaren jabetza –aldi berean ulertuta hitz egiteko eskubide modura, ulertzeko gaitasun modura, orain arte formulatutako enuntziatuen corpuserako sarbide zilegi eta berehalako modura, erabakietan, erakundeetan edo praktiketan diskurtso hori txertatzeko gaitasun modura– berez gizabanako kopuru zehatz batera mugatuta dago (batzuetan baita modu arautuan ere); XVI. mendearen ondoren ezagutu diren gizarte burgesetan, diskurtso ekonomikoa ez da sekula izan diskurtso arrunta (ez mediku-diskurtsoa edo literatura-diskurtsoa baino gehiago, modu ezberdinean izan arren). Azkenik instantzia hau ezaugarritzen da nahiak diskurtsoarekiko bete ditzakeen ahalezko lekuen bidez; diskurtsoa izan daiteke antzezpen fantasmagorikoaren kokalekua, sinbolizatzeko osagaia, debekatuaren era, asetasun deribatuaren tresna (nahiarekin harremanean izateko aukera hau ez da bakarrik diskurtsoaren ariketa poetikoa, eleberrikoa edo irudimenezkoa: aberastasunari buruzko diskurtsoek, hizkuntzari, naturari, eromenari, bizitzari eta heriotzari buruzkoek eta askoz ere abstraktuagoak izan daitezkeen beste zenbaitek, nahiarekiko ondo zehaztutako lekuak bete ditzakete). Dena dela, instantzia honen azterketak erakutsi behar du diskurtsoak nahiarekin duen harremana, beretz jabetzeko prozesua eta jardute ez-diskurtsiboen artean berak jokaten duen papera ez direla estrintsekoak diskurtsoaren batasunarekiko, bere ezaugarritzearekiko eta bera eratzeko legeekiko. Horiek ez dira osagai aztoratzaileak, diskurtsoaren forma huts, neutro, interporal eta isilari gainjartzen zaizkionak, bera ezabatuko luketenak bere lekuan diskurtso trabesti bati hitza emanaz, haatik bere osagai eratzailak izango lirakete.

Eraketa diskurtsibo bat berezituko da bertan zabaltzen diren estrategia ezberdinak eratzeko sistema definitu ahal bada; beste hitz batzuetan esanda, erakutsi ahal bada nola deribatzen diren estrategia horiek denak harreman-joko beretik (batzuetan euren aniztasuna muturrekoa izan arren eta denboran barreiatuak izan arren). Esaterako, XVII. eta XVIII. mendeetako aberastasunen azterketa ezaugarrituko du Colberten merkantilismoak eta Cantillonen neomerkantilismoak, biek batera, eratu ahal izan duten sistemak; Lawren eta Paris-Duverneyren estrategiak; aukera fisiokratikoak eta utilitaristak. Eta sistema hau definitua izango da deskribatu ahal bada nola deribatzen diren bata bestetik diskurtso ekonomikoaren difrakzio-puntuak, nola arautzen duten bata bestea, nola inplikaten duten elkar (nola balioaren kontzeptuari buruzko erabaki batetik deribatzen den salneurriari buruz erabakitze puntua); nola hartutako erabakiak zerikusia duen diskurtso ekonomikoa agertzen den konstelazio orokorrenekin (nola ikur-monetaren aldeko erabakia lotuta dagoen aberastasunen azterketak hizkuntzaren teoriaren ondoan betetzen duen lekuarekin eta baita errepresentazioen azterketaren ondoan eta mathesisaren ondoan eta ordenaren zientziaren ondoan betetzen duen lekuarekin ere); nola aukeraketak lotuta dagozkion diskurtso ekonomikoak jaiotzen ari den kapitalismoaren jardutean betetzen duen funtzioari eta baita burgesia diskurtso horren jabe egiteko prozesuari ere eta interesen eta nahien gauzatzean diskurtso horrek joka dezakeen paperari. Diskurtso ekonomikoa garai klasikoan definitzen da harremanean jarriz modu konstante batean diskurtso baten barruko sistematizazio aukerak, bere kanpoko beste diskurtso batzuk eta eremu ez diskurtsibo bat, jardutez, jabetzez, interesez, eta gurariz osaturikoa.

Ohartarazi behar da horrela deskribaturiko strategiak ez direla sustraitzen, diskurtsoaurreko aldean, aurretiazko eta funtsezko aukeraketa baten sakontasun mutuan. Enuntziatuen multzokatze hauek guztiak, oraindik deskribatzeko daudenak, ez dira mundu ikuskera baten adierazpena, hitzen formarekin landutakoa, eta ez dira, halaber, teoria baten aitzakiaren pean mozorrotuko litzatekeen itzulpen hipokrita: Historia naturala garai klasikoan ez da liskar bat, nabarmena den historiaren aurrekoak dauden linboetan ematen dena eta kontrajartzen dituen, alde batetik, unibertsoari buruzko ikuspegi (Linnaeuszalea) estatiko, ordenatu, konpartimentatu eta jatorriz laukitze sailkatzaileari irekia eta, bestetik, denboraren oinardekoa den natura baten hautemate oraindik nahasi samarra, bere akzidenteen pisuarekin eta bilakaera bati irekia, beste zerbaiz da; era berean, aberastasunen azterketa ez da interesen arteko gatazka bat bi muturren artean, alde batetik burgesia bat, lurraren jabea bihurtu dena eta bere aldarrikapen ekonomikoak eta politikoak fisiokraten ahotsetik adierazten dituen eta, bestetik, burgesia merkataria utilitaristen bidez neurri protekzionistak edo liberalak eskatzen zituen, hau ere beste zerbaiz da. Aberastasunen analisia eta Historia naturala galdekatuak baldin badira euren existentziaren mailan, euren batasunarenean, euren iraupenarenean, euren eraldaketenean, ezin dira, ez bata eta ez bestea, kontsideratu aukera ezberdin horien guztien batuketa bezala. Aukera hauek, haatik, deskribatu behar dira diskurtsoaren objektuak jorratzeko modu sistematikoki ezberdinak bezala (hau da, objektu horiek mugatzeko, multzokatze edo banantzeko, kateatzeko eta bata bestetik deribatze), enuntziatio-erak banatzeko moduak bezala (eurak aukeratu, euren lekuan ipini, sailak osatu, batasun

erretoriko handiak konposatu) kontzeptuak manipulatzeko moduak bezala (erabilera-arauak eman, eskualdekako koherentzietan txertatu eurak, eta arkitektura kontzeptualak osatu horrela). Aukera hauek ez dira diskurtsoaren ernamuinak (hauek alde zuzenetik mugatuak eta irudikatuak leudeke era ia mikroskopiko batean); araututako moduak dira (eta neurri horretan deskribagarriak) diskurtsoaren posibilitateak lanean jartzeko.

Baina estrategia hauek ez dira aztertu behar bigarren elementu bezala, arrazionaltasun diskurtsibo bati gainjarriko litzazkiokeenak, arrazionaltasun hori, eskubidez, euren askezia izango bailitzateke. Ez dago (edo gutxienez, hemen ahalbidetzen den deskribapen historikoaren arabera, ezin da onetsi) diskurtso-mota ideal bat, aldi berean azkena eta intertemporal, jatorriz kanpotikoak diren aukeraketek, beharbada oso urrun legokeen etorkizun baterantz, perbertituko jaurtik, zapalduko, bultzatuko zuketena; esaterako, ez da suposatzen behar naturari buruz edo ekonomiari buruz bi diskurtso daudenik elkarri gainjarritakoak eta nahaspilatutakoak: bata soseguz aurreratzen duena, bere lorpenak metatzen dituen eta poliki-poliki osatzen dena (benetako diskurtsoa, baina existitzen ez dena bere garbitasunean, historiaren muga teleologikoetan ez bada); bestea, beti suntsitzeko hondamendietan, beti berreraikitzen hasita, beti bere buruarekin hausturan, zatiki heterogeneoz osatuta (iritzizko diskurtsoa, historiak, denboraren harian, iraganean baztertzeko duena). Ez dago zehatza izan den taxonomia naturalik, fijasak izan ez bada; ez dago elkartrukearen eta erabilgarritasunaren ekonomiarik egia izango litzatekeena, burgesia merkatariaren lehentasunik eta ilusiorik gabe. Taxonomia klasikoak edo aberastasunen azterketak, berez existitu izan diren moduan eta figura historikoak sortu dituzten neurrian, euren dakartzate objektuak, enuntziatioak, kontzeptuak eta aukeraketa teorikoak, sistema artikulatu eta banaezin batean. Eta objektuen eraketa hitzei eta gauzei egokitu behar ez zaien moduan, enuntziatuen eraketa ezagueraren forma hutsari edo subjektu psikologikoari egokitu behar ez zaien moduan, kontzeptuena idealtasunaren egiturari edo ideien jarraipenari egokitu behar ez zaien moduan, aukeraketa teorikoen eraketa ez zaio egokitu behar ez oinarritzko egitasmo bati ezta iritzien bigarren mailako jokoa.

VII.

Oharra eta ondorioak

Orain beharrezkoa da aurretiko azterketetan sakabanatutako oharpen batzuk atzera harira ekartzea, eurek etengabe planteatzen dituzten galderetatik batzuk erantzutea, eta batez ere kontuan hartzea eragozpen batek agertzeko mehatxua egiten duela, egin beharreko lanaren paradoxa berehala agertzen da-eta.

Hasteko, zalantzan jarri ditut diskurtsoaren esparru zehaztugabe, monotono eta oparoa tradizionalki zatikatzen duten aurrezarritako batasunak. Kontua ez zen batasun horiei euren balio osoa ukatzea edo euren erabilpena alboratzea; baizik eta erakustea, zehazki definituak izateko, elaborazio teoriko bat eskatzen dutela. Hala eta guztiz ere –eta hemen bihurtzen dira benetan problematikoak aurreko azterketa guztiak– beharrezkoa al zen, batasun beharbada ez oso ziur hauei, gainjartzea batasunen beste kategoria batzuk ez hain ikusgarriak, abstraktuagoak eta seguruenik askoz ere problematikoagoak? Euren muga historikoak eta euren antolaeraren espezifikotasuna hautemateko nahikoa errazak izanda ere (Gramatika orokorra edo Historia naturala lekuko) eraketa diskurtsibo hauek liburuak eta obrak baino kokapen arazo askoz ere zailagoak planteatzen dituzte. Zergatik hasi, orduan, halako multzokatze zalantzagarririk egiten auzitan jartzen direnean agerikoak diruditenak? Zer eremu berri espero da aurkitzea? Orain arte ilun eta inplizitu izan diren zein harreman? Zer eraldatze oraindik historialarien eskura ez daudenak? Laburbilduz, zer eraginkortasun deskriptibo atxiki ahal zaie azterketa berri hauei? Arazo hauei guztiei erantzuna ematen ahaleginduko naiz geroago. Baina honezkeroko beharrezkoa da erantzuna ematea galdera bati, zeina lehena den bere ondokoak diren azterketa horiekiko eta bukaerakoa bere aurrekoekiko: definitzen ahalegindu naizen eraketa diskurtsibo hauei dagokienez benetan bidezkoa al da batasunez hitz egitea? Proposatzen den ebakidura-multzoak banakatzeko gai al da? Zein da horrela aurkitutako edo eraikitako batasunaren izaera?

Abiapuntua egiaztapen bat izan zen: medikuntza klinikoaren edo ekonomia politikoaren edo historia naturalaren moduko diskurtso baten batasunarekin osagaien sakabanatze baten aurrean gaude. Hala ere, sakabanaketa hauxe bera –bere hutsuneekin, bere urratuekin, bere nahaspilatzeekin, bere gainjartzeekin, bere bateraezintasunekin, bere ordezkatzekin eta bere aldatzeekin– deskriba daiteke bere singularitasunean gauza bagara zehazteko zer arau berezien arabera eratu diren objektuak, enuntziatuak, kontzeptuak eta aukeraketa teorikoak: batasunik baldin badago, bera ez dago eraturako osagaien koherentzia ikusgarri eta horizontalean; bera dago, hor baino lehenago, euren eraketa ahalezkoa egiten duen eta arautzen duen sisteman. Baina zer zentzutan hitz egin dezakegu batasunez eta sistemez? Nola baieztatu multzo diskurtsiboak ondo banakatu direla? Objektuen, enuntziatuen, kontzeptuen, aukeraketen itxurazko askotarikotasun murriztezinaren ondotik jokoan jarri denean modu nahikoa arriskutsuan elementuen masa bat kopuruz gutxiago izango ez zirenak ezta gutxiago sakabanatuak ere, baina elkarren artean heterogeneoak izango zirenak? Elementu hauek guztiak lau multzo ezberdinetan banatu direnean eurak artikulatzeko modua ia definitu gabe dagoenean? Eta zer zentzutan esan daiteke elementu hauek guztiak –argitara atera direnak objektuen, enuntziatuen, kontzeptuen eta diskurtsoen estrategien ondoren– ziurtatzen dutela obrak eta liburuak haina banaka daitezkeen multzoen existentzia.

1. Ikusi dugu da eta ez da, beraz, beharrezkoa atzera itzultzea: eraketa-sistema bati buruz hitz egiten denean ez da ulertzen bakarrik osagai heterogeneoen arteko justapozizioa, koexistentzia edo elkarreragitea (erakundeak, teknikak, gizarte taldeak, hautemate erakundeak, diskurtso ezberdinen arteko harremanak), horrez gain ulertzen da jardute diskurtsiboren

bidez eurak elkarren artean harremanean jartzea, ondo zehaztutako forma batean. Baina zer gertatzen da bestalde lau sistemokin edo, hobe esanda, harreman-sorta hauekin? Nola defini dezakete euren guztien artean eraketa-sistema bakarra?

Horrela definitutako maila ezberdinak ez dira bata bestearekiko askeak. Erakutsi da aukeraketa estrategikoak ez direla zuzenean sortzen mundu ikuskera batetik edo berez subjektu hiztun jakin bati legezkiokoen interes batzuen gailentasunetik; baina euren ahalatasuna bera kontzeptuen jokoan baitako dibergentzia-puntuak mugatzen dute; erakutsi da, halaber, kontzeptuak ez zirela zuzenean eratu oinarrituta ideien barren gutxi gorabeherako, nahasi eta bizian, baizik eta enuntziatuen arteko koexistentzia eretatik abiatuta; enuntziatio-modalitateei dagokienez, ikusi da deskribatu zirela oinarritzat hartuta subjektuak hitz egitean betetzen duen posizioa bere gaia den objektuen eremuarekiko. Era honetara, bada mendetasun-sistema bertikal bat: subjektuaren posizio guztiak, enuntziatuen arteko koexistentzia-mota guztiak, estrategia diskurtsibo guztiak ez dira modu berean ahalezkoak, bakarrik aurreko mailetakoe baimendutakoak izango dira; esaterako, XVIII. mendean Historia naturalaren objektuak eratzeko indarrean zegoen sistema emanda (objektuak ulertuta karaktereen eramaileak eta horregatik sailkagarriak diren banakotasunen modura; alda daitezkeen osagai estrukturalen modura; ikus eta azter daitezkeen azalaren modura; ezberdintasun jarraitu eta erregularren eremu modura) enuntziatio-era batzuk baztertuak izaten dira (esaterako, zeinuen deszifratzea) beste batzuk inplikatur daude (kode zehatz baten arabera deskribapena); era berean, diskurtso-egilea den subjektuak bete ditzakeen posizio guztiak emanda (tresnen bitartekorik gabe behatzen duen subjektu bezala, hautemate aniztasunean bakarrik egituraren osagaiak ateratzen dituen subjektu bezala, osagai horiek hiztegi kodifikatu batean transkribatzen dituen subjektu bezala, etab.) enuntziatuen artean badira koexistentzia batzuk alboratzen direnak (esaterako, dagoneko-esandakoaren berraktibatze eruditua, edo sakratu egindako testu baten iruzkin exegetikoa), beste batzuk, ostera, ahalezkoak edo beharrezkoak dira (esaterako, erabat edo neurri batean analogoak diren enuntziatuak sailkapen-koadro batean integratzea). Mailak, beraz, ez dira batzuk besteekiko askeak, eta ez dira zabaltzen mugarik gabeko autonomia baten arabera: objektuen lehen mailako bereiztetik estrategia diskurtsiboak eratu arte bada harremanen hierarkia oso bat.

Baina harremanak alderantzizko norabide batean ere ezartzen dira. Beheko mailak ez dira euren gainekoak diren mailekiko askeak. Aukeraketa teorikoe, eurak mamitzen diren enuntziatuetan, baztertzen edo inpliketzen dute kontzeptu batzuen eraketa, hau da, enuntziatuen arteko koexistentzia forma batzuk: horrela, Fisiokraten testuetan, ez dira aurkituko Utilitaristek egindako azterketetan aurkitzen diren integrazio modu berak, datu kuantitatibo eta neurri berak. Kontua ez da aukera fisiokratikoa XVIII. mendeko kontzeptu ekonomikoen eraketa bermatzen duten arauen multzoa alda ditzakeela; baizik eta jokoan jarri edo bazter ditzakeela arau hauetatik batzuk edo beste batzuk eta ondorioz beste inon agertzen ez diren kontzeptu batzuk agerraraz ditzakeela (esaterako, produktu garbia). Kontzeptuen eraketa ez du aukeraketa teorikoak arautu, haatik, bera ekoizti du kontzeptuak eratzeko arau espezifiko bidez, eta maila honekin duen harreman-jokoan bidez.

2. Eraketa-sistema hauek ez dira hartu behar mugiezintasun blokeztat, diskurtsotik kanpo ezarriko liratekeen forma estatikotzat, karaktereak eta ahaltsunak behin eta betiko definituko lituzketenak. Eurak ez dira betebeharrekoak, euren jatorria giza pentsamenduetan edo euren errepresentazioen jokoan dutenak; baina ez dira, ezta ere, determinazioak, erakunde eta gizarte edo ekonomia harremanen mailan eratuta, nahitaez diskurtsoaren azalera transkribatzen direnak. Sistema hauek –esan dago behin eta berriz– diskurtsoan bertan dautza, edo gehiago oraindik (ez dihardugunez bere barrukotasunaz edo bere edukiaz eta bere izate bereziaz eta bere baldintzez) bere mugan, bera den moduan existiarazten duten arau bereziak definitzen diren limitean. Eraketa-sistemarekin ulertu behar da, beraz, arau modura jotzen duten harreman-sorta konplexua: berak agintzen du, jardun diskurtsibo batean, harremanean jarri behar izan dena objektu honetaz edo besteaz jarduteko, enuntziatu hau edo besteaz baliatzeko, kontzeptu hau edo bestea erabiltzeko, estrategia hau edo bestea antolatzeko. Eraketa-sistema bat definitzea bere banakotasun singularrean izango da, beraz, diskurtso bat edo enuntziatu-multzo bat ezaugarritzea jardute baten erregulartasunaz baliatuz.

Jardute diskurtsibo baterako arau multzoa denez, eraketa sistema ez da denborarekiko arrotza izango. Berak ez du batzen mendeetako enuntziatuen sail batean ager daitezkeen guztia hasierako puntu batean, aldi berean abiapuntua, jatorria, oinarria, axioma sistema izango dena, bertatik abiatuta guztiz beharrezkoa litzatekeen modu batean garatuko liratekeelarik benetako historiaren gertaerak. Berak marrazten du arau sistema bat lanean jarri behar izan dena halako objektu bat eraldatzeko, halako enuntziatu berri bat agertzeko, halako kontzeptua landua izateko, bai itxuraldatua bai inportatua, halako estrategia aldatzeko –diskurtso honen beraren zati izateari utzi gabe–; eta halaber berak marrazten du arau sistema

bat lanean jarri behar izan dena beste diskurtso batzuetan jazo den aldaketa bat (gainerako jardunetan, erakundeetan, gizarte harremanetan, prozesu ekonomikoetan) transkribatu ahal izateko emana den diskurtso baten baitan, horrela objektu berria osatuz, strategi berria piztuz, enuntziatu berriak edo kontzeptu berriak sorraraziz. Eraketa diskurtsibo batek, beraz, ez du jokutzen irudi baten papera, denbora geldiarazten eta izozten duena hamarka edo ehunka urtez; berak denbora prozesuei dagokien erregulartasun bat zehazten du; berak gertaera diskurtsibo sail batzuen eta beste gertaera eraldaketa, mutazio eta prozesu sail batzuen arteko artikulazio hastapena planteatzen du. Ez da denboraz kanpoko forma izango, baizik eta denborazko sail askoren arteko elkarrekotasun eskema.

Eraketa-sistemaren mugikortasun hau bi eratarata ematen da. Lehenik, harremanean jarri diren osagaien mailan: hauek, hain zuzen, zenbait aldaketa intrintseko jasan dezakete, jardute diskurtsiboan integratzen direnak euren erregulartasun era orokorra aldatu gabe; honela, XIX. mendean zehar jurisprudentzia kriminala, presio demografikoa, eskulana, gizarte-laguntza erak eta barruratzearen estatutua eta baldintza juridikoak aldatu egin dira eten gabe; hala ere, psikiatriaren jardute diskurtsiboak jarraitu du osagai horien artean harreman-multzo bera ezartzen; horrela sistemak bere banakotasunaren ezaugarriak gorde ditu; eraketa-lege berdinen bidez objektu berriak agertzen dira (banako-mota berriak, portaera-mota berriak patologia modura ezaugarritzen dira), enuntziazio-modu berriak lanean jartzen dira (oharketa kuantitatiboak eta kalkulu estatistikoak) kontzeptu berriak marrazten dira (degenerazioa, perbertsioa, neurosia) eta, jakina, eraikuntza teoriko berriak eraiki daitezke. Baina alderantziz, jardute diskurtsiboek harremanean jartzen dituzten alorrak aldatzen dituzte. Euren mailan soilik azter daitezkeen harreman bereziak ezartzen badituzte ere, harreman horiek ez dute eragina bakarrik diskurtsoan: bata bestearen gainean artikulatzen dituzten osagaietan ere irartzen dira. Erietxe-eremuak, esaterako, ez du aldagaitza iraun, diskurtso klinikoak bera laborategiarekin harremanean jarri ostean: bere ordenamendua, sendagileak jasotzen duen estatusa, bere behaketaren funtzioa, buru daitezkeen azterketaren maila, nahitaez aldatu egin dira.

3. «Eraketa-sistema» modura deskribatzen denak ez du osatzen diskurtsoaren azken solairua, baldin eta hitz horrekin ulertzen badira euren hiztegia eta guzti eta euren sintaxia, euren egitura logikoa edo euren antolaera erretorikoa eta guzti ematen diren testuak (edo hitzak). Azterketa ageriko maila honen aurretik dago, bukatutako eraikuntzaren mailaren aurretik, alegia: objektuak diskurtso baten baitan banatzeko hastapena definitzean ez du lotura guztien kontu ematen, ezta bere egitura finarena edo bere barruko zatiketena ere; kontzeptuen sakabanatze-legea bilatzean ez du elaborazio-prozesu guztien kontu ematen, ezta aurak ager daitezkeen kate deduktibo guztiena ere; enuntziatio-modalitate guztiak lantzen baditu ez du auzitan jartzen esaldien ez estiloa ez kateaketa; laburbilduz, berak testuaren azken kokatzea ondo argitu gabe uzten du. Baina gauzak garbi utzi behar dira: azken eraiketa honekiko azterketa bere ostean geratzen bada, ez da diskurtsoetik aldentzeko eta pentsamenduaren lan isilera jotzeko; ez da, ezta ere, sistematikatik aldentzeko eta entseguen, saialdien, hutsegiteen eta berriz hastearen desordena «bizia» eguneratzeko.

Honetan, eraketa diskurtsiboan azterketa ohiko deskribapen ugariri kontrajartzen zaio. Izan ere, ohikoa denez kontsideratzen da diskurtsoak eta euren ordenazio sistematikoa, askotan bihurria den elaborazio baten azken egoera besterik ez direla, bertan jokoan egongo dira hizkuntza eta pentsamendua, esperientzia enpirikoa eta kategoriak, bizi izandakoa eta behar idealak, gertaeren kontingentzia eta eginbehar formalen jokoak. Sistemaren ageriko aurrealdearen ostean, desordenaren ziurgabetasun aberatsa suposatzen da; eta diskurtsoaren azalera mehearen azpian, neurri batean isila den bilakaera baten masa guztia: sistemaren ordenakoa ez den «auresistematika»; berezko mututasunari dagokion «diskurtso-aurrekoa». Diskurtsoa eta sistema ez lirateke ekoitziko –eta elkarrekin– erreserba itzel honen gorenean baino. Baina hemen aztertzen dena ez dira, benetan, diskurtsoaren bukaerako egoerak; haatik eurak dira azken forma sistematikoak ahalezkoak bihurtzen dituzten sistemak; eurak dira *bukaera-aurreko erregulartasunak*, hauen arabera azken egoera bere aldaerengatik definitzen da, sistemaren jaiotze lekua osatu gabe. Burututako sistemaren ostean eraketen azterketak aurkitzen duena ez da bizitza bera, borborka, oraindik atzeman gabeko bizitza; sistematikotasunen sendotasun itzela da, era askotako harremanen multzo estua. Eta gainera, harremanok testuaren bilbea ez diren arren, ez dira berez diskurtsoarekiko arrutzak. «Diskurtso-aurrekotzat» jo daitezke, baina diskurtso-aurreko hori diskurtsiboa dela onartzen bada, hau da, onartzen bada ez dutela zehazten pentsamendu bat, edo kontzientzia bat edo errepresentazioen multzo bat (zeintzuk geroago diskurtso batean transkribatuak izango liratekeen beharrezkoa ez den modu batean), haatik ezaugarritzen dituztela diskurtsoaren maila batzuk, zeintzuk diskurtsoak oraingotzen dituen bera jardute singularra den neurrian. Ez da bilatzen, orduan, testutik pentsamendura pasatzea, berrikeratik isiltasunera, kanpokotasunetik barrukotasunera, sakabanaketa espazialek instantearen barnera biltzera, azaleko anizkoiztasunetik batasun sakonera. Diskurtsoaren dimentsioan irauten dugu.

III.
ENUNTZIATUA
ETA ARTXIBOA

I.

Enuntziatua definitzea

Orain suposatzen dut arriskua onartu egin dela; diskurtsoaren azalera handia artikulatzeko suposatu nahi izan direla eraketa diskurtsiboak deitu ditudan irudi berezi samar horiek, urrun samar horiek; liburuaren eta obraren batasun tradizionalak alde batera utzi direla, ez behin eta betiko baizik eta aldi baterako eta metodo kontu bategatik; ez direla gehiago hartzen batasunaren hastapen bezala diskurtsoa eraikitzeke legeak (hortik datorren antolaera formalarekin) edo hiztunaren egoera (bera ezaugarritzen duten testuinguruarekin eta nukleo psikologikoarekin); ez dela diskurtsoa uztartzen esperientzia baten lehen oinarriarekin, ezta ezagupen baten a priorizko mailarekin ere; haatik, diskurtsoari berari galdekatzen zaiola bere eraketa-arauei buruz. Suposatzen dut onartu dela objektuak azaleratzeko sistemari buruz, bere modu enuntziatiboak agertzeko eta banatzeko sistemari buruz, kontzeptuak kokatzeko eta sakabanatzeko sistemari buruz, aukeraketa estrategikoak zabaltzeko sistemari buruz ikerketa luze horiei ekitea. Suposatzen dut hain abstraktuak eta problematikoak diren batasunak eraiki nahi direla, kontuan hartu gabe ia hauteman daitekeen gertutasunean ematen direnak, hauek guztiz nabarmenak ez izan arren.

Baina zertaz egin dut hitz benetan orain arte? Zein izan da nire ikerketaren objektua? Zer deskribatzeko asmoarekin nengoen? Enuntziatuak –bai jarraitasun-ezean (eurak atzeman ahal izango liratekeen formez askatuko lituzkeena) bai diskurtsoaren eremu orokorrean, mugagabea eta itxuran eragabea–. Hala ere, uko egin diot enuntziatuaren aurretiazko definizioa emateari. Ez naiz ahalegindu aurrera egiten nuen neurrian definizio bat taxutzen, horrela nire abiapuntuaren inozotasunari justifikazioa emateko. Are gehiago –eta hau da arduragabetasun horren arrazoia– nire buruari galdegiten diot ea ez ote dudan orientazioz aldatu bidean nindoala; ez ote dudan lehen ostertza beste ikerketa batez ordezkatu; «objektuak» edo «kontzeptuak» aztertzean, gehiago oraindik, «estrategiak» aztertzean, enuntziatuei buruz hitz egiten ote nuen oraindik; eraketa diskurtsibo bat ezaugarritzeko nerabiltzan arauen lau multzoek ondo definitzen ote zituzten enuntziatuen multzoak. Azken batean, «diskurtsio» hitzaren esanahi higikorra pitinka estutzen aritu beharrean, nik uste dut bere zentzua zabaldu egin dudala: batzuetan enuntziatu guztien eremutzat hartuta, beste batzuetan enuntziatuz osatutako multzo bereizgarritzat hartuta, beste batzuetan zenbait enuntziatu argitzen dituen araututako jarduntzat; eta «diskurtsio» hitz hauxe bera, balio beharko lukeena «enuntziatu» hitzaren muga eta bilgarri bezala, ez al dut nik aldarazi nire azterketa edo bere erabilpen-puntua lekuz aldatzen nuen neurrian, enuntziatu bera begien bistatik ezkututzen zitzaidan neurrian?

Hona hemen orain eginbeharrekoa: enuntziatuaren definizioa errotik hartu. Eta begiratu beharko dut ea orain arte egingako deskribapenetan benetan izan dudan bera kontuan; begiratu beharko dut ea eraketa diskurtsiboen azterketan enuntziatuaz dihardudan.

«Enuntziatu» hitza erabili dut zenbait alditan «enuntziatuen populazio» bati buruz berba egiteko (banakoez edo gertaera berezietz arituko banintz bezala), edo bera kontrajartzeko «diskurtsioak» izango liratekeen multzo horiekin (zatia osotasunetik bereizten den legez). Lehen begirada batez enuntziatua agertzen da azken osagai baten gisara, zatiezina, bere baitan bakartu daitekeena eta bere antzeko beste osagai batzuekin harreman-joko batean sar daitekeena. Azalerrarik gabeko puntua, baina koka daitekeena banaketa-puntuetan eta multzokatze forma berezietan. Ehun baten azalera agertzen den alea, bertan osagai eratzailea izango delarik. Diskurtsoaren atomoa.

Eta arazoa berehala agertzen da: enuntziatua diskurtsoaren oinarritzko batasuna baldin bada, zertan datza bera? Zein dira haren trazu bereizgarriak? Zer muga aitortu behar zaizkio? Batasun hau logikoek «proposizio» hitzarekin izendatu dutenaren berdina al da? Gramatikariak «esaldi» izendatu zutenaren berdina? Edo «analistek» speech act izenburupean sartzen saiatu ziren berdina? Zer leku betetzen du berak hizkuntzaren ikerketak azalarazi dituen batasun horien guztien artean (batasun horiei buruzko teoria gehienetan oraindik burutu gabe dagoenean, agertzen dituzten arazoak zailak direlako eta kasu askotan eurak modu zorrotzean mugatzea zaila delako)?

Ez dut uste enuntziatua egon dadin beharrezkoa eta nahikoa den baldintza izango denik proposizio-egitura definitu bat izatea, ez dut uste enuntziatu bati buruz hitz egin ahal izango denik proposizioa dagoen guztietan eta kasu horretan. Bi enuntziatu erabat ezberdinak ukan daitezke, multzo diskurtsibo oso ezberdinak adierazten dutenak, proposizio bakarra aurkitzen den lekuan, balio bat eta bakarra izan dezakeena, bera sortzeko lege-multzo bat eta berari jarraitzen diona, eta erabiltzeko aukera berberak eskaintzen dituena. «Inork ez du entzun» eta «egia da inork ez duela entzun» bereiztezinak dira ikuspegi logikotik eta ezin dira kontuan hartu bi proposizio ezberdin bezala. Hala ere, enuntziatuak diren neurrian, formulazio bi horiek ez dira balio berekoak eta elkarren artean trukagarriak. Ezin dira leku berean aurkitu diskurtsoaren planoan, eta ez dagozkio, ez eta enuntziatu-multzo berari ere. «Inork ez du entzun» formulazioa aurkitzen bada eleberri baten lehen lerroan, badakigu, agindu berri bat etorri arte, egileak edo pertsonaia batek egindako egiaztapena dela (ozenki esanda edo barruko bakarriketa modura); bigarren formulazioa aurkitzen bada, «egia da inork ez duela entzun», bakarrik izan daiteke barruko bakarriketa, eztabaida mutua, nork bere buruari ematen dion erantzuna osatzen duten enuntziatu-joko batean edo, bestela, elkarriketa baten zatia edo galdera eta erantzunen multzoa. Han eta hemen proposizio-egitura bera, baina enuntziatu-karaktere arras ezberdinak. Haatik, egon daitezke proposizio era konplexu eta bikoiztuak edo, osterantzean, zatikatuak eta bukatugabeak, arazoa denean, argi eta garbi, enuntziatu bakun, oso eta autonomo bat (baita beste zenbait enuntziaturen multzo baten zatia denean ere): esaterako, «egungo Frantziako erregea burusoila da» (hau ezin da ikuspuntu logikotik aztertu, ez badira onartzen, enuntziatu bakar baten baitan, bi enuntziatu ezberdin, bakoitza bere aldetik egia edo faltsua izan daitezkeenak) edo, are gehiago, «nik gezurra diot» proposizioaren tankerako adibidea, bera ezin da egia izan maila beheagoko baieztapen batekiko harremanean ez bada. Proposizio baten identitatea definitzen uzten duten irizpideek, euren artetik batzuk bereiztea formulazio baten batasunaren pean, euren autonomia edo betetasuna ezaugarritzea, ez dute balio enuntziatuaren batasun berezia deskribatzeko.

Eta esaldia? Ez al da onartu behar baliokidetasuna esaldiaren eta enuntziatuaren artean? Gramatikalki bakar daitezkeen esaldi bat dagoen guztietan enuntziatu aske baten existentzia onar daiteke; baina, alderantziz, ezin da hitz egin enuntziatuaz esaldiaren beraren azpitik bere osagarrien mailara heltzen garenean. Ez luke ezertarako ere balioko baliokidetasun honen aurka, eragozpen modura esatea enuntziatu batzuk konposatuak izan daitezkeela subjektu-kopula-predikatu era kanonikotik at, hots, izen sintagma soil batez («gizon hau!») adberbio batez («perfektuki») edo izenordain batez (zuek!). Izan ere, gramatikariak eurek antzerako formulazioetan esaldi askeak onartzen dituzte, baita lortu badira ere subjektu-predikatu eskema batetik ateratako eraldaketa batzuen bidez. Gainera, esaldi «onargarrien» estatusa ematen diete zuzen sortuak izan ez diren osagai linguistikoz osatutako multzoei; bestalde, esaldi gramatikalen estatusa ematen diete interpretagarriak diren multzoei, baldin eta zuzen eratuak izan diren. Esaldiaren halako definizio zabalarekin –eta halako zentzu laxoan– zaila da ikustea nola ezagut daitezkeen enuntziatuak ez diren esaldiak eta esaldiak ez diren enuntziatuak.

Hala eta guztiz ere, baliokidetasuna erabatekoa izatetik urrun dago; eta nahikoa erraza da esaldien egiturari ez dagozkion enuntziatuak aipatzea. Latin-gramatika batean zutabeen jarraitako hitz-sorta bat aurkitzen denean: amo, amas, amat, ez dugu aurrean esaldi bat, baizik eta amare aditzaren indikatiboko orainaldiaren flexio pertsonal ezberdinen enuntziatua. Litekeena da adibidea eztabaidagarria iruditzea; litekeena da esatea aurkezteko artifizio bat besterik ez dela, enuntziatu hau esaldi eliptiko bat dela, laburtua, ezohiko samarra den era batean espazializatua, eta irakurri behar dela honako esaldiaren gisara: «amare aditzaren indikatiboko orainaldiaren lehen pertsona amo da», etab. Edozein modutan, beste adibide batzuk ez dira hain anbiguoak: espezie botanikoen taula sailkatzaile bat enuntziatuak osatzen dute, ez da esaldiekin osatua (Linnaeusen Genera Plantarum oso osorik enuntziatuz osaturiko liburua da, bertan ezin da aurkitu esaldien kopuru mugatu bat baino); zuhaitz genealogikoa, kontabilitate-liburua, balantze komertzial baten balioztapenak enuntziatuak dira: non daude hor esaldiak? Urrunago ere joan gaitezke: n. mailako ekuazio bat edo errefrakzio-legearen formula algebraikoak enuntziatutzat jo daitezke: eurek gramatikaltasun oso zorrotza baldin badute (sinboloz osatuta daudela-eta, hauen zentzua erabilpen-arau batzuk eta eraikitzeke legeak eskatzen duen jarraitasunak zehazten dutelarik),

hemen ez gara ari hizkuntza natural batean esaldi bat onargarritzat edo interpretagarritzat hartzea baimentzen duten irizpide berberetaz. Azkenik, grafiko bat, hazkunde-kurba bat, adin-piramide bat, banaketa-hodei bat enuntziatuak dira: laguntzen dieten esaldiei dagokienez, euren interpretazioa edo iruzkina dira; ez dira euren baliokideak: froga kasu askotan dago, esaldi kopuru amaigabe bat bakarrik izan liteke enuntziatu-sorta horretan formulatzen diren osagai guztien baliokidea. Ez du ematen ahalezkoa denik enuntziatu bat definitzea esaldiaren ezaugarri gramatikalen bitartez.

Azken aukera bat geratzen da: lehen begirada batean egiantzekoena. Ezin al da esan enuntziatu bat badela formulazio-ekintza bat antzeman eta bakar daitekeen alde guztietan –«speech act» delakoaren antzerako zerbait, analista ingelesek ekintza «ilokutorioa» deitu duten antzerakoa?-. Honekin ez da adierazten hitz egitean datzan ekintza materiala (ahots ozen ala isilez) ezta idaztean datzana ere (eskuz edo makinaz); ez da adierazten, ez eta hitz egiten diharduen banakoaren asmoa ere (beste inor konbentzitzeko bere nahia, besteek bere esana betetzeko nahia, arazo baten irtenbidea aurkitzeko ahalegina, bere berriak jakinarazteko nahia); ez da adierazten, era berean, berak esan duenaren emaitza izan daitekeena (konbentzitu ote duen, mesfidantza iratzarri ote duen; inork arreta jarri ote dion eta bere aginduak beteak izan ote diren; bere erregua entzun ote den); deskribatzen da formulak berak, bere azaleratzean, burutu duen eragiketa: agintzaria, agindua, dekretua, hitzarmena, egiaztapena. Ekintza ilokutorioa, ez da enuntziatuaren une beraren aurretik garatu dena (egilearen pentsamenduan edo bere asmoen jokoan); ez da enuntziatuaren ondoren gertatu ahal izan dena, bere ostean utzi duen larratzean, ezta berak eragin dituen ondorioak ere; aitzitik, bera da enuntziatua izan denaren ondorioz gertatu dena –enuntziatu horixe, gainera, (bera ez besterik) baldintza zehatzetan-. Beraz, suposa daiteke enuntziatuaren banakatzeak zerikusia duela formulazio-ekintzak kokatzeko erabiltzen diren irizpide berberekin: ekintza bakoitza enuntziatu batean gorpuztuko litzateke eta enuntziatu bakoitzaren baitan ekintza horietako bat legoke. Bata besteari eskerrak existituko liriateke eta elkarrekikotasun perfektu batean.

Hala ere, horrelako elkarrekikotasun batek ezin du azterketa jasan. «Speech act» bat egiteko sarritan enuntziatu bat baino gehiago behar da: zin-egiteak, erreguak, kontratuak, frogapenak, gehienetan zenbait formula ezberdin edo esaldi banandu eskatzen dute: zaila litzateke eurentako bakoitzaren enuntziatu-estatusa auzitan jartzea aitzakia modura hartuz ekintza ilokutorio berberak zeharkatzen dituela denak. Kasu honetan esango da, beharbada, ekintzak berak ez dirauela bakarria enuntziatuaren sail osoan zehar; erregu batean dauden erregutzeko ekintza mugatuak, segidakoak eta ondoan jarritakoak, enuntziatu ezberdinek formulatutako eskaerak hainbat direla; eta agintzari batean dauden engaiamenduak, sekuentzia bereizgarriak eta enuntziatu bananduak hainbat direla. Erantzun hau, halatan ere, ez da asegarria: hasteko formulazio-ekintzak ez lukeelako balioko enuntziatua definitzeko, alderantziz, berak definituko luke formulazio-ekintza – enuntziatuak, hain zuzen, sortzen du arazoa eta eskatzen ditu banakatze-irizpideak-. Bestalde, ekintza ilokutorio batzuk ezin dira euren batasun berezian bukatutzat jo zenbait enuntziatu artikulatu izan ez badira, bakoitza dagokion lekuan. Ekintza hauek, beraz, enuntziatuaren sailek edo batuketek osatzen dituzte, euren beharrezko justaposizioek; ezin da pentsatu eurak euren arteko txikienean presente daudela oso osorik eta horietako bakoitzarekin berritatzatzen direla. Hemen ere ezin ezarriko litzateke harreman biunibokorik enuntziatuaren multzoaren eta ekintza ilokutorioen multzoaren artean.

Enuntziatuak banakatu nahi direnean, ezin da onartu eragozpenik gabe gramatikatik, logikatik edo «Analisitik» mailegatutako inongo eredurik. Hiru kasuetan jabetzen gara eskainitako irizpideak gehiegi eta astunegiak direla, ez diotela enuntziatuari bere hedadura osoa hartzen uzten, eta batzuetan enuntziatuak hartzen baditu deskribatutako formak eta zehatz-mehatz doitzen bazaie, gertatzen da, halaber, ez diela obeditzen: proposizio-egitura legitimorik gabeko enuntziatuak aurkitzen dira; enuntziatuak aurkitzen dira esaldia antzeman ezin den lekuan; enuntziatu gehiago aurkitzen dira isola daitezkeen «speech acts» direlakoak baino. Enuntziatua bere figura guztiak baino finagoa bailitzan, determinazio gutxiagorekin, egitura ez hain indartsuarekin, nonahikoagoa; karaktereak kopuruz gutxiago eta batzeko zailagoak balira bezala; baina, arrazoi beragatik, deskribatzeko aukera guztiak arbuatuko balitu bezala. Eta hau, gainera, ez da garbi ikusten zein mailatan jarri behar den eta zein metodo erabili: aipatu diren azterketa guztiei dagokienez, bera ez da euskarria edo substantzia akzidentala baino: azterketa logikoan izango da proposizioaren egitura atera eta definitu denean «geratzen» dena; azterketa gramatikalean izango da hizkuntzako osagaien sail bat, non esaldi baten forma antzeman ahal izango den ala ez; hizkuntzako ekintzen azterketari dagokionez, gorpuztuz ikusgai legez agertzen da, eta bertan azaleratzen dira hizkuntzako ekintza hauek agertzen dira. Hurbilketa deskribatzaile hauei guztiei dagokienez, hondarreko osagai baten papera jokatzen du, egite huts eta soilarena, material ez berezkoarena.

Onartu behar al da, azkenik, enuntziatuak ezin duela berezko izaera izan eta ezin zaiola definizio egokia eman, hizkuntzaren azterketa guztietarako materia estrintsekoa den neurrian, beraren bidez eurei dagozkien objektua zehazten dutelarik? Onartu behar al da zeinuen, irudien, grafismoen edo trazuen edozein zail –berdin da zein den euren antolaera edo gertakortasuna– nahikoa dela enuntziatu bat osatzeko; eta gramatikari dagokiola esatea ea esaldi bat den, logikari esatea ea era proposizional batean jokatzeko duen, Analisiari zehaztea zein den eurak zeharka ditzakeen hizkuntza-ekintza? Kasu honetan, onartu beharko litzateke badela enuntziatu bat zenbait zeinu elkarren ondoan jarrita daudenean, edo –zergatik ez?– bat bakarria dagoenean. Enuntziatuaren atalasea zeinuen existentziaren atalasea izango litzateke. Alabaina, hemen ere gauzak ez dira hain sinpleak eta argitu egin behar da «zeinuen existentzia» tankerako esapideari eman behar zaion zentzua. Zer esan nahi da esaten denean zeinuak badirela eta nahikoa dela zeinuak izatea enuntziatua izateko? Zer estatus eman behar zaio «bada» honi?

Izan ere, nabarmena da enuntziatuak ez direla existitzen hizkuntza existitzen den zentzu berean, eta hizkuntzarekin batera zeinu multzo bat existitzen den zentzu berean, zeina definituko den kontrajarritako trazuen eta eurak erabiltzeko arauen bidez; hizkuntza ez da sekula ematen berez eta bere osotasunean; hori bakarrik gertatuko litzateke bigarren mailako modu batean eta saiheska bakarrik, bera objektu gisara hartuko lukeen deskribapenaren bidez; bere osagaiak osatzen dituzten zeinuak enuntziatuei ezartzen zaizkien formak dira, bera bere barrutik antolatuko dutenak. Enuntziaturik ez balego hizkuntza ez litzateke existituko; baina ez dago inolako enuntziaturik beharrezkoa denik hizkuntza existi dadin (eta beti burura daiteke, edozein enuntziaturen ordean, beste edozein hizkuntza aldatuko ez lukeena). Hizkuntza existitzen da bakarrik ahalezko enuntziatuak sortzeko sistema bezala; baina, bestalde, bera bakarrik existitzen da deskribapen modura (sakona edo ez hain sakona) benetako enuntziatuen multzo batetik ateratakoa. Hizkuntza eta enuntziatua ez dira maila berean existitzen. Eta ezin da esan badirela enuntziatuak, hizkuntzak badirela esaten den moduan. Baina nahikoa al da hizkuntza baten zeinuen enuntziatu bat osa dezatela, eurak ekoitziak (artikulatuak, diseinatuak, fabrikatuak, marraztuak) izan badira modu batera edo bestera, denboran une batean eta espazioan puntu batean agertu badira, ahoskatu dituen ahotsak edo eratu dituen keinuak existentzia materialaren dimentsioak eman badizkie? Enuntziatutzat jo al daitezke, zentzuz, nik, enuntziatua ez denaren adibide modura, paperezko horri batean ahal iritzira idatzi ditudan alfabetoko hizkiak, liburuak inprimatzeko berunezko karaktereak –ezin da ukatu euren materialtasuna, espazioa eta bolumenta duena–, edo erakutsitakoak, begi-bistakoak eta manipulagarriak diren zeinu horiek?

Apur bat gertuagotik begiratuta, adibide bi horiek (berunezko karaktereak eta neuk marraztutako zeinuak) ezin dira guztiz bata bestearen gainean jarri. Inprimategiko karaktereen eskukada hau, eskuan euts dezakedana, edo idazteko makina baten teklaturan adierazten diren hizkiak ez dira enuntziatuak: asko jota enuntziatuak idatzi ahal izateko tresnak izango dira. Bestalde, neuk paperezko horri batean marrazten ditudan hizki hauek –gogora datozkidan moduan eta euren desordenan– erakusteko ezin dutela enuntziaturik osatu, zer dira? zer irudi eraten dute, ez bada ahal iritzira aukeratutako hizki taula bat, sail alfabetiko baten saila, halabeharrena baino beste legerik ez duena? Era berean, batzuetan estatistikoek darabiltzaten zenbakien taula aleatorioa zenbaki-sinboloen sail bat da, zeintzuk ez diren lotzen elkarren artean inolako egitura sintaktikoren bidez; baina, hala ere, taula hori enuntziatu bat da: zifra-multzo batena, hauek lortzen direlarik alde batera utziz segidako emaitzen gertakortasuna gehitzea eragingo duen guztia. Hel diezaiogun atzera ere adibideari: idazteko makinaren teklatura ez da enuntziatu bat; baina A, Z, E, R, T, hizkien saila daktilografiako eskuliburu batean zehaztuta, makina frantsesen ordena alfabetikoaren enuntziatua da. Ondorio negatibo batzuen aurrean gaude hemen beraz: enuntziatu bat eratzeko ez da beharrezkoa hizkuntza-eraikuntza erregularra (bera gertakortasun minimoko sail batek osa dezake); baina enuntziatu bat ager dadin eta existitzeari ekin diezaion ez da nahikoa, ez eta hizkuntza osagaien edozein gauzate material ere, ez zeinuen edozein azalera denboran eta espazioan. Enuntziatua, beraz, ez da existitzen, ez hizkuntzaren modu berean (nahiz eta bera osatzen duten zeinuen ezin diren definitu euren banakotasunean, ez bada hizkuntza-sistema batean, naturala edo artifiziala) ez hautemateari emanak zaizkion edozein modutako objektuetan (nahiz eta beti nolabaiteko materialtasunaz osatuta egon bera eta beti espazio-denborazko koordenaden arabera esan ahal izango den non den).

Ez da oraindik garaia enuntziatuari buruzko galdera orokorrari erantzuna emateko, baina dagoeneko arazoa muga daiteke: enuntziatua ez da esaldiaren, proposizioaren, hizkuntza ekintzaren genero bereko batasuna, ez die erantzuten, beraz, irizpide berdinei, baina ez da objektu material baten gisako batasuna, bere mugak eta askatasuna eta guzti. Bera, bere izateko era berezian (ez erabat hizkuntzazkoa, ez material hutsa) ezinbestekoa da esan ahal izateko esaldirik, proposiziorik, hizkuntza ekintzarik badagoen; eta ea esaldia zuzena den esan ahal izateko ere (edo onargarria, edo interpretagarria),

ezinbestekoa da ea proposizioa legitimoa eta ondo eratutakoa den esateko, ekintza betekizunen araberakoa den eta eder eta zuzen egin den esan ahal izateko. Ez da bilatu behar enuntziatuan batasun luzea edo laburra, sendotasunez edo ahultasunez egituratutakoa, baizik eta besteak bezala lokailu logiko, gramatikal edo lokuziozko batean hartua. Ez da beste batzuen artean dagoen osagaia izango, ezta azterketaren maila jakin batean aurki daitekeen zatiketa ere, gehiago izango da funtzio bat, bertikalki baliatzen dena batasun ezberdin horiekiko eta, zeinu sail bati dagokionean, baimentzen duena esatea ea aurrean dauden edo ez. Enuntziatua ez da egitura bat (hots, osagai aldakorren arteko harremana, zeinak baimentzen duen eredu mugatuen kopuru beharbada amaigabea); existentzia funtzio bat da, berez zeinuei dagokiena, bere baitan oinarrituta erabaki ahal izango delarik, azterketaren edo intuizioaren bidez, «zentzurik duten» edo ez, kontuan izanda zer arau datorren bata bestearen atzetik edo jartzen diren elkarren ondoan, erabaki ahal izango da zeren zeinu diren, eta zer motatako ekintza (ahozkoa edo idatzizkoa) burutzen den eurak eratzeko. Ez da harritzekoa ezin izan badira aurkitu enuntziatuarentzako batasun-irizpide estrukturalak; arrazoia da berez ez dela batasun bat, funtzio bat baino, egituren eremu bat, ahalezko batasunak zeharkatzen dituen eta agerrarazten dituen eduki mugatuekin denboran eta espazioan.

Funtzio hori da orain bere baitan deskribatu behar dena, hau da, bere baldintzetan, bera mendean duten arauetan eta bera gauzatzen den alorrean.

II. Enuntziazio-funtzioa

Alferrik bilatuko dugu, beraz, enuntziatua zeinuen taldekatze bateratuetatik at. Bera ez da ez sintagma, ez eraikitze araua, ez segizio eta trukatzeko era kanonikoa, enuntziatua da zeinu-multzo horiek existiarazten dituen eta arau horiei edo era horiei eguneratzea baimentzen diena. Baina existiarazten baditu modu berezi batean izango da, eta modu hori ezin da nahastu zeinuen existentziarekin eurak hizkuntza baten osagaiak diren neurrian, eta, ezta ere, marka batzuen existentzia materialarekin, zeintzuek zatiki bat betetzen duten eta denbora tarte batez irauten duten, luzeagoa edo motzagoa. Existitzeko modu berezi hau da, enuntziatua diren zeinu sail guztien ezaugarria, orain aztertu behar dena.

a) Har ditzagun atzera adibide modura definitutako materialtasun batean eraturako edo marraztutako zeinuak, multzokatuta daudenak gramatikala ez den modu batean, arbitrarioa nahiz ez. Esaterako idazteko makina baten teklatura edo inprimategiko karaktereen eskukada bat. Nahikoa da horrela emandako zeinuak paperezko horri batean kopiatzea (eta hitzik ekoitzi gabe eurek elkarri jarraitzen dioten ordena berean) enuntziatu bat osa dezaten: tekla jotzea errazten duen alfabetoko hizkien ordena baten enuntziatua osa dezaten, hizkien ahal iritzirako multzo baten enuntziatua. Zer gertatu da, orduan, enuntziatua egon dadin? Zer izan dezake berria bigarren multzo honek lehenengoarekiko? Bikoiztea? Kopia izatea? Inondik ere ez, izan ere, idazteko makinaren teklaturek denek eredu jakin bat kopiatzen baitute eta ez dira, horregatik, enuntziatuak. Subjektuaren esku hartzea? Erantzuna desegokia izango litzateke bi alderditatik: sail bat, berez, enuntziatu bihurtzeko ez delako nahikoa sail horren emendatzea banako baten ekimenaren ondorioa izan dadila; eta, edozein modutan, arazoa ez dagoelako emendatzearen zergatian edo jatorrian, baizik eta bi sail berdin-berdinen arteko harreman berezian. Izan ere, bigarren saila ez da enuntziatua bakarrik harreman biunibokoa ezarri daitekeelako lehen saileko bere osagai bakoitzarekiko (harreman honek ezaugarritzen du bikoizketa, bera kopia hutsa eta bakuna bada eta, baita enuntziatuaren zehaztasuna ere, hain zuzen enuntziazioaren atalasea zeharkatu bada; baina berak ez du baimentzen atalase hau eta enuntziatuaren gertatze bera definitzea). Zeinu sail bat enuntziatu bihurtuko da baldin eta «beste gauza bat» badauka (harrigarria bada ere berarekiko antzekotasuna izan dezakeena, eta aukeratutako adibidean bezala ia berdin-berdina izan daitekeena) berari dagokion harreman espezifiko —eta ez bere zergatia, ez bere osagaiak—.

Esango da, zalantzarik gabe ez dagoela ezer enigmatikoa harreman horretan; haatik, oso gertukoa dela, bera etengabe aztertua izan dela: adierazlearen eta adierazitakoaren arteko harremana dela, izenaren eta berak izendatzen duenaren artekoa; esaldia eta bere zentzuaren arteko harremana; proposizioaren eta bere erreferentearen artekoa. Hala ere, nik uste dut erakuts daitekeela enuntziatuaren eta enuntziatzen denaren arteko harremana ezin zaiola gainjarri harreman horietatik bakarrari ere.

Enuntziatuak, baita bera izen sintagmara murrizten bada ere («itsasontzia!»), edo izen berezi batera («Kepa!») murrizten bada ere, berak enuntziatzen duenarekiko duen harremana ez da izenak berak izendatzen duenarekiko edo esan nahi duenarekiko duen harreman bera. Izena hizkuntz osagai bat da leku ezberdinak bete ditzakeena gramatika-multzoetan: bere zentzua definitzen da bere erabilpen-arauen bidez (bai berak modu baliagarrian izenda ditzakeen banakoez ari garela, bai bera zuzentasunez sar daitekeen egitura sintaktikoez ari garela); izen bat definitzen da bere burua errepikatze duen ahalbideagatik. Enuntziatu bat existitzen da bera atzera berragertzeko ahalbideetik at; eta berak enuntziatzen duenarekin duen harremana ez da erabilpen arau-multzo baten berdin-berdina. Harreman berezi batez dihardugu: eta baldintzotan

berriro agertzen bada formulazio berbera, hitz berdinak erabiliko dira, funtsean izen berdinak izango dira, azken baten esaldi bera izango da, baina ez da derrigor enuntziatu bera izango.

Ez da, halaber, nahastu behar enuntziatu baten eta enuntziatzen duenaren arteko harremana, proposizio baten eta bere erreferentearen arteko harremanarekin. Gauza jakina denez, logikariek diote «urrezko mendia Kalifornian dago» moduko proposizio bat ezin dela egiaztatu erreferenterik ez duelako: bere ukazioa ez da bere baieztapena baino egiazkoagoa eta ezta gezurrezkoagoa ere. Esan beharko al da modu berean enuntziatu bat ez dagokiola ezeri, berak existentzia ematen dion proposizioak ez badu erreferenterik? Kontrakoa baieztatu beharko litzateke. Esan beharko litzateke enuntziatuaren korrelatuak –berak aipatzen duena, berak jokoan jartzen duena, ez berak esaten duena bakarrik, baizik eta bere «gaia», berak zertaz hitz egiten duen– baimentzen duela esatea proposizioak erreferenterik duen ala ez, eta ez, ostera, erreferentearen faltak berarekin biltzen duela enuntziatuak korrelaturik ez izatea: enuntziatuaren korrelatuak baimentzen du behin betiko erabakitzea. Demagun «urrezko mendia Kalifornian dago» formulazioa ez dagoela geografia eskuliburu batean, ezta bidaia baten kontaketa ere, baizik eta eleberririk batean edo edozein motatako fikzio batean, egia edo errore-balioa aitortu ahal izango zaio (kontuan izanda berak gogoan duen irudimenezko munduak baimentzen duen era horretako fantasi geologikoa eta geografikoa ala ez). Proposizio batek erreferenterik duen ala ez esan ahal izateko, jakin beharra dago zeri dagokion enuntziatua, zein den bere korrelazio-eremua. «Oraingo Frantziako erregea burusoila da»-ri erreferentea falta zaio baldin suposatzen bada enuntziatuak zerikusia duela gaur egungo informazio historikoaren munduarekin. Proposizioak erreferentearekin duen harremana ezin da eredu eta legea izan enuntziatuak berak enuntziatzen duenarekin duen harremanarentzat. Azken harreman hau ez da lehenaren maila berekoa, baina, gainera, bere aurreko bezala agertzen da.

Halaber ezin zaio gainjarri esaldi baten eta bere zentzuaren artean egon daitekeen harremanari. Harreman bi mota hauen arteko aldea argi eta garbi agertzen da zentzurik ez duten esaldi ezagun horietan, euren gramatika-egitura erabat zuzena izan arren (esaterako: «kolorerik gabeko ideia orlegiak lotan daude amorratuta»). Berez, horrelako esaldi batek ez duela zentzurik esateak suposatzen du zenbait aukera baztertu direla: onartzen da ez dela amets baten kontra, ez dela poesia-testu bat, ez dela kodetutako mezua, ezta drogak hartuta dagoen baten hitza ere, baizik eta enuntziatu-mota bat, harremana izan behar duena, era definitu batean, errealtate ikusgai batekin. Ondo egonkortutako enuntziatu-harreman jakin baten barruan esleitu ahal izango da esaldi batek bere zentzuarekin duen harremana. Gainera, esaldiok, baita hartzen badira enuntziatu-mailan ere (non zentzurik ez duten) enuntziatuak diren neurrian, ez daude korrelazio faltan: hasteko, adibidez, korrelazio batzuek baimentzen dute esatea ideiak ez direla ez koloredunak ez koloregabeak eta, beraz, esaldiak ez duela zentzurik (eta korrelazio hauek zerikusia dute errealtatearen plano batekin, bertan ideiak ikusezinak izango baitira, koloreak begiradarako ikusgai, etab.); beste korrelazio batzuek, berriz, esaldia antolakuntza mota sintaktiko zuzen bat bezala baliatzen dute, zentzu faltan dagoena (korrelazio hauek zerikusia dute hizkuntzaren planoarekin, bere legeekin eta bere jabegoekin). Esaldi batek esanahirik ez izan arren, enuntziatua den neurrian, zerbaiti dagokio.

Enuntziatua berez ezaugarrituko lukeen harremanari dagokionean –dirudienez esaldian edo proposizioan inplizituki suposatuta dagoen harremana, euren aurreko bezala agertzen zaiena– nola definitu bera? Nola askatu berez sarritan nahasten den zentzu-harreman horietaz edo egia-balio horietaz? Enuntziatu batek, berdin da zein den eta zenbaterainoko sinplea irudikatzen den, ez du korrelatu bezala banako bat edo objektu berezi bat, esaldiko hitz jakin batekin adieraziko litzatekeena: «urrezko mendia Kalifornian dago»-ren moduko enuntziatu batean korrelatua ez da gauzen egoera bat edo proposizioa egiazta dezakeen harremana (aukeratutako adibidean harreman hori izango litzateke mendi jakin bat eskualde zehatz batean sartzea). Bestalde, enuntziatuaren korrelatu modura defini daitekeena eremuen multzo bat da, non objektu horiek ager daitezkeen eta harreman horiek esleiri daitezkeen: honen adibidea izan daiteke objektu materialen eremu bat, zenbait ezaugarri fisiko egiaztagarri dituztenak eta baita hautemangarriak diren handitasun-harremanak ere –edo alderantziz fikziozko objektuen multzo bat izango da, ezaugarri arbitrarioak izango dituztenak (baita nolabaiteko iraupena eta koherentzia ere) eduki gabe esperimentu edo hautemate-egiaztatze-instantziarik; espazio eta geografia kokapenen eremu bat izango da, koordenada, distantzia, auzo-harremanak eta inklusio-harremanak eta guzti –edo, ostera, partaide izate sinbolikoen eta ezkutuko ahaidetasunen eremu bat; izango da objektuen eremu bat, enuntziatua formulatzen den une horretantxe eta denbora-eskala horretantxe existitzen direnak edo, bestela, erabat bestelako orain baten partaide den objektu-eremu bat izango da –enuntziatuak berak adierazi eta osatzen duena eta ez enuntziatua partaide den eremua. Enuntziatu batek ez du bere aurrean (eta bekoz beko moduko batean) korrelatu bat –edo korrelatu falta bat– proposizio batek erreferentea duen (edo ez duen) bezala, izen berezi batek gizabanako bat (edo pertsona bat) adierazten duen bezala.

Gehiago dago «erreferentzial» bati lotuta, eta hau ez dago gauzez, egitez, errealitatez edo «izakiz» osatuta, baizik eta ahalbide-legeez eta existentzia-arauez, izendatzen edo deskribatzen diren objektuentzako baieztatzen edo ukatzen diren harremanetarako. Enuntziatuaren erreferentzialak eratzen du lekua, baldintza, azaleratze-eremua, bereizte-instantzia banakoentzako edo objektuentzako, gauzen egoerentzako eta enuntziatuak berak jokoan jartzen dituen harremanentzako; berak agertze eta mugatze-aukera definitzen ditu esaldiari zentzua ematen dionarentzat, proposizioari egia-balioa ematen dionarentzat. Multzo hau da formulazioaren maila enuntziatiboa ezaugarritzen duena, bere gramatika mailari eta logika mailari kontrajarriz: enuntziatuak sintagma bat edo sinbolo sail bat esaldi bihurtzen du, eta berari zentzua izendatu ahal (edo ezin) izango zaio, edo proposizio bihurtzen du, egia-balioa jaso ahal (edo ezin) izango duena.

Edozein modutan, ikusten da enuntziatio-maila honetako deskribapena ezin dela egin ez azterketa formal baten bidez, ez ikerketa semantiko baten bidez, ez egiaztapen baten bidez, baizik eta enuntziatuaren eta bereizte-espazioen arteko harremanen azterketaren bidez, horrela enuntziatuak berak ezberdintasunak agerraraziko lituzke.

b) Enuntziatu bat, bestalde, hizkuntz osagaiez osaturiko edozein sailez bereizten da subjektu batekin duen harreman zehatzean. Beharrezkoa da harreman honen izaera zehaztea eta berarekin nahas daitezkeen harreman guztiez bereiztea.

Ez da beharrezkoa enuntziatuaren subjektua murriztea esaldiaren baitan agerian dauden lehen pertsonako gramatika-osagaietara. Lehenik, enuntziatuaren subjektua ez dagoelako hizkuntza sintagmaren barruan; bigarrenik, lehen pertsonarik biltzen ez duen enuntziatuak, hala ere, subjektua baduelako; azkenik, eta nagusiki, gramatika-forma finkoa duten enuntziatu guztiek (berdin da lehen pertsonakoa izan edo bigarren pertsonakoa izan) ez dute enuntziatuaren subjektuarekin harreman-mota bat eta bera. Erraz bururatzen da harreman hau ez dela berbera «gaua erortzear dago» motako enuntziatu batean eta «ondorio orok bere zergatia du» motako enuntziatu batean; «denbora luzez goiz oheratu izan naiz» motako enuntziatu bati dagokionez, enuntziatzen duen subjektuarekiko duen harremana ez da berdina ulertzen bada elkarrizketa baten harian artikulatua edo irakurtzen bada *A la recherche du temps perdu* deritzon liburu baten lehen leerroan.

Esalditik kanpoko subjektu hau ez al da, besterik gabe, bera artikulatu duen edo idatzi duen benetako subjektua? Badakigunez, ez dago zeinurik bera ahoskatuko duen norbait ez badago, edo, edozein kasutan, igorriko duen osagai baten gisako zerbait gabe. Zeinuen sail bat egon dadin beharrezkoa da –kausaltasun-sistemaren arabera– «egile» bat edo instantzia ekoizle bat. Baina «egile» hau ez da enuntziatuaren subjektu berbera; eta berak formulazioarekin duen ekoizpen-harremana ezin zaio gainjarri subjektu enuntziatzaileari eta berak enuntziatzen duena batzen duen harremanari. Ez diezaiozun begiratu materialki eraturako edo marraztutako zeinu-multzo bati, errazegia izango litzateke-eta: euren ekoizpenak egile bat biltzen du, ez dago, beraz, ez enuntziaturik ez enuntziatuaren subjekturik. Zeinuaren igorlearen eta enuntziatuaren subjektuaren arteko bereizketa erakusteko gogoratu daiteke, halaber, hirugarren batek irakurritako testu baten kasua, edo bere papera ozen irakurtzen duen antzezlearena. Baina hauek kasu mugatuak dira. Modu orokor batean badirudi –gutxienez lehen begirada batean– enuntziatuaren subjektua dela, hain zuzen, osagai ezberdinak ekoitzi dituen, esanahia emateko asmoz. Alabaina, gauzak ez dira hain sinpleak. Eleberri batean badakigu formulazioaren egilea dela bere izena liburuaren azalean agertzen den benetako gizabanakoa (oraindik elkarrizketaren osagaien eta pertsonaia baten pentsamenduari egokitutako esaldien arazoa planteatzen zaigu; oraindik goituzen baten pean argitaratutako testuen arazoa planteatzen zaigu: eta badakigu bitan banatze hauek zer zailtasun sorrarazten dizkieten azterketa interpretatzailean dihardutenei, eurek formulazio hauek, denak batuta, lotu nahi dituztenean testuaren egilearekin, berak esan nahi zuenarekin, berak pentsatzen zuenarekin, laburbilduz, mutua den diskurtso handi horrekin, ez agerikoa eta uniforme, zeinaren gainean maila ezberdinetako piramide oso hau jasotzen duten); baina formulatze instantzia hauetatik at, zeintzuk ez diren gizabanako-egilearen berdin-berdinak, eleberriaren enuntziatuek ez dute subjektu bera eurek eskaintzen badituzte, kanpotik bezala, kontatutako historiaren erreferentzia historikoak eta espazialak, edo gauzak deskribatzen badituzte gizabanako anonimo, ikusezin eta neutro batek –magikoki nahasturikoa fikzioaren pertsonaiekin– ikusiko lituzkeen moduan, edo ematen badute, barruko eta berehalako deziframendu batean bezala, pertsonaia batek isilean bizi duenaren hitzeko bertsioa. Guztien egilea bat izanda ere, ez badizkio beste inori leporatzen bere buruari baino, asmatzen ez badu ere inolako harreman osagarri bere buruaren eta irakurtzen den testuaren artean, enuntziatu hauek subjektu enuntziatzailearentzat ez dituzte suposatzen ezaugarri berberak; ez dute biltzen harreman berdina subjektu honen eta bera enuntziatzera doanaren artean.

Esango da, beharbada, hain sarritan aipatu den eleberri-testuaren adibideak ez duela baliorik froga modura; edo, gehiago oraindik, auzitan jartzen duela literaturaren esentzia bera, eta ez enuntziatuaren subjektuaren estatusarena oro har. Literaturaren berezkoa izango litzateke egilea aldentzea, bere burua ezkutatzea, beste norbaiti esku ematea edo bere burua zatitzea; eta bereizte honetatik ez da ondorioztatu behar era unibertsal batean enuntziatuaren subjektua formulazioaren egileaz guztiz ezberdina dela –bere izaeran, estatusan, funtzioan, identitatean–. Hala ere, desdoitze hau ez dago literaturara mugatuta bakarrik. Guztiz orokorra da enuntziatuaren subjektua funtzio zehatza den neurrian, eta hau ez da nahitaz berdina enuntziatu batetik bestera; funtzio hutsa den neurrian, gizabanako –neurri bateraino– ezaxolek bete ahal izango dutena enuntziatua formulatzen dutenean; gizabanako bat eta berberak enuntziatu-sail batean txandaka leku ezberdinak bete ditzakeenean, subjektu ezberdinen papera hartuz. Har dezagun adibide modura matematika-tratatu bat. Hitzaurreko esaldian (non azaltzen den zergatik idatzi den tratatu hori, zer baldintzatan, irtenbiderik aurkitu ez zaion zer arazori edo zer kezka pedagogikori erantzuteko, zer metodo erabiliz, zer ahaleginen eta zer porroten ondoren) subjektu enuntziatzailearen kokapena bete dezakete, bakarrik, formulazioaren egileak edo egileek: subjektuaren banakotze-baldintzak benetan oso zorrotzak dira, oso ugariak eta kasu honetan bakarrik ahalezko subjektu bat baimentzen dute. Alderantziz, tratatu baten gorputzean bertan aurkitzen bada era honetako proposizio bat: «hirugarren kopuru baten berdinak diren bi kopuru elkarren artean berdinak dira», enuntziatuaren subjektua izango da horrelako proposizio bat formulatzeko edozein gizabanakok bete dezakeen posizio guztiz neutroa, denborarekiko, espazioarekiko eta zirkunstantziekiko ezaxola, berdin-berdina edozein hizkuntza-sistematan eta idazteko eta sinbolizatzeo edozein kodetan. Bestalde «dagoeneko frogatu da...» tankerako esaldiak enuntziatu ahal izateko testuinguruko baldintza zehatzak dakartzate eurekin, bilduko ez liratekeenak aurreko formulazioan: kokapena enuntziatuaren multzo finitu batek osatutako eremu baten barruan finkatzen da; dagoeneko gertatu diren gertaera enuntziatiboaren sail batean aurkitzen da; denbora demostratibo batean ezartzen da, bertan aurreko uneak ez dira sekula galtzen, eta, beraz, ez dute behar berriro ekitea eta berdin-berdinak errepikatuak izatea atzera presenteak egiteko (nahikoa da eurak aipatzea euren jatorrizko baliotasunean berpiztuak izateko); aldeaz aurretiko eragiketa eraginkor batzuen existentziak mugatzen ditu, eragiketa hauek ezin egin izan dituelarik gizabanako bakar batek (orain berbetan ari dena), baizik eta subjektu enuntziatzaileari dagozkiolarik eskubide osoz, bere esku daude eta jokoan sartu ditzake berriz beharrezkoa duenean. Era honetako enuntziatu baten subjektua definituko da betekizun eta aukera horien multzoaren bidez; eta ez da deskribatuko eragiketak benetan egingo litzatekeen banakoa bezala, ahanzturarik eta etendurarik gabeko denbora batean biziko litzatekeena, egiazko proposizioen multzo oso bat barneratuko lukeena bere kontzientziaren ostertzean, eta atxikiko lukeena, pentsamenduaren orainaldi bizian, berragertze birtuala (hau gizabanakoen kasuan zera besterik ez da: subjektu enuntziatzailearen diren neurrian euren kokapenaren alderdi psikologikoa eta bizia).

Era berean, deskribatu ahal izango litzateke zein den subjektu enuntziatzailearen kokapen berezia ondokoen gisako esaldietan: «nik zuzena deritzot edozein puntu-multzori zeinak...» edo «demagun edozein motatako osagaien multzo finitua»; hemen eta han subjektuaren kokapena aldi berean mugatua eta oraineko den eragiketa baten existentziari lotuta dago; hemen eta han enuntziatuaren subjektua eragiketaren subjektua da (definizioa zehazten duena enuntziatzen duen bera da; existentzia suposatzen duena, aldi berean, enuntziatua suposatzen duen bera da); hemen eta han, azkenik, subjektuak lotzen ditu, eragiketa honen eta bera hezurramitzen den enuntziatuaren bidez, bere enuntziatuak eta etorkizuneko bere eragiketak (subjektu enuntziatzailea den neurrian, berak onartzen du enuntziatu hau bere lege propioa bezala). Bada, hala ere, ezberdintasunik: lehen kasuan, enuntziatzen dena hizkuntzaren konbentzioa da, –subjektu enuntziatzaileak erabili behar duen hizkuntzarena, zeinaren baitan definitzen den: subjektu enuntziatzailea eta enuntziatua dena maila berekoak dira beraz (nahiz eta azterketa formal baterako honen moduko enuntziatu batek inplikatzeko duen meta-hizkuntzari dagokion desberdintzea); bigarren kasuan, aitzitik, subjektu enuntziatzaileak objektu bat izanarazten du bere baitatik kanpo, hau dagoeneko definitutako eremu bati dagokio, non ahalbide-legeak artikulatuak izan diren honezkero eta bere ezaugarriak eremu hori sortu duten enuntziatuaren aurrekoak diren. Ikusi berria dugu subjektu enuntziatzailearen kokapena ez dela beti berbera, egiazko proposizio bat baieztatzen behar denean; orain dakusagu ez dela berbera enuntziatuan bertan eragiketa bat egin behar denean.

Beraz, ez da bururatu behar enuntziatuaren subjektua formulazioaren egilearen berbera bezala. Ez substantzialki, ez funtzionalki. Izan ere, bera ez da esaldi baten artikulazio idatzia edo ahozkoa den fenomenoaren zergatia, jatorria edo abiapuntua; ez da asmo esanguratsua ere, hitzak, eurei isili-isilik aurrea hartuz, ordenatzen dituen bere intuizioaren

gorputz ikusgarria balira bezala; ez da eragiketa sail baten foku konstantea, mugiezina, bere buruaren berbera, enuntziatuek, txandaka, diskurtsoaren azalean aditzera emango luketena. Leku zehatza eta hutsa da banako ezberdinek bete dezaketena; baina leku hau, behingoan eta betiko definitua izan beharrean eta horrelaxe iraun beharrean testu oso batean, liburu oso batean obra oso batean zehar, aldatzen da –edo, hobe esanda, nahikoa aldakorra da, bai bere buruaren berbera iraun ahal izateko zenbait esalditan zehar, bai esaldi bakoitzean aldatu ahal izateko–. Dimentsio bat da edozein formulazio enuntziatu gisara ezaugarritzen duena. Funtzio enuntziatzaileari berez dagokion trazuetakoa bat da, bera deskribatzea baimentzen duena. Proposizio bat, esaldi bat, zeinu-multzo bat «enuntziatua» esan ahal badira, ez da noizbait izan delako ahoskatu dituen norbait edo lekuren batean euren behin-behineko arrastoa utzi duen norbait; haatik, subjektuaren kokapena zehaztu ahal delako izango da. Formulazio bat enuntziatu gisara deskribatzea ez da egilearen eta esan duenaren arteko (edo esan nahi izan duenaren edo nahi gabe esan duenaren arteko) harremanak aztertzea, baizik eta zehaztea zer leku bete behar edo ahal duen banako batek subjektua izateko.

c) Enuntziatu-funtzioaren hirugarren ezaugarria: bera ezin da gauzatu berari lotutako eremu bat gabe. Honek bihurtzen du enuntziatua beste gauza bat, zeinuen metatze hutsa (existitzeko bakarrik euskarri materiala beharko duena – inskribatzeko azalera, akastun substantzia, itxura eman dakiokkeen materia, trazu baten ebaki sakona) baino zerbait gehiago. Baina honek bereizten du, halaber eta bereziki, esalditik eta proposiziotik.

Demagun hitzen edo sinboloen multzo bat. Erabakitzeke ea osatzen duten esaldiaren moduko batasun gramatikala edo proposizioaren moduko batasun logikoa beharrezkoa eta nahikoa da zehaztea zer arauri jarraiki eraiki diren. «Kepa atzo heldu zen» esaldi bat da, baina «heldu zen Kepa atzo» ez da esaldi bat; $A + B = C + D$ proposizio bat da baina $ABC = D$ ez. Osagaien eta euren banaketaren miaketa hutsak, hizkuntzaren sistemaren arabera –naturala nahiz artifiziale– baimentzen du proposizioaren eta proposizioa ez denaren artean bereiztea, esaldiaren eta hitzen metatze hutsaren artean. Are gehiago, miaketa hau nahikoa da zehazteko zer gramatika-egitura motatakoa den aipatutako esaldia (baiezko esaldia, iraganekoa, subjektu nominala daroana, etab.) edo zer proposizio-motatakoa den kontuan hartu den zeinuen saila (bi batuketan arteko baliokidetasuna). Muturrera eramanda, burura daiteke bera bakarrik mugatzen den esaldi bat edo proposizio bat, bere testuinguru modura balioko dion beste esaldirik edo proposiziorik gabe, berari lotutako esaldi edo proposizio-multzorik gabe: baldintza hauetan eurak alferrikakoak eta ezin erabilizkoak izateak ez du eragozten eurak atzeman ahal izatea, baita euren singularitasunean ere.

Zalantzarik gabe, zenbait eragozpen jar daitezke. Adibidez, esan daiteke ezin dela proposizio bat berez ezarri eta banakatu, ez bada berak obeditzen duen axioma-sistema ezagututa: definizio hauek, arau hauek, idazketa-konbentzio hauek ez al dute eratzen proposiziotik bana daitekeen berari lotutako arlo bat (era berean, gramatikaren arauak, subjektuaren kompetentzian inplizituki indarrean daudenak, beharrezkoak dira esaldi bat atzeman ahal izateko, mota jakin bateko esaldia gainera)? Hala ere, ohartaraz daiteke multzo hau –gauzatua ala birtuala– ez dela proposizioaren edo esaldiaren maila berekoa, baizik eta hauen osagaietan, kateatzeetan eta ahalezko banatzeetan datzala. Multzoa ez dago eurekin uztartuta: proposizioek edo esaldiek suposatzen dute bera. Esan ahal izango da, gainera, proposizioak (ez tautologikoak) ezin direla egiaztatu euren eraikitze-arauetan oinarrituta, eta beharrezkoa dela erreferentera jotzea egiak edo faltsuak diren erabakitzeke: dena dela, egia edo faltsua izan proposizio batek proposizio iraungo du eta erreferentera jotzeak ez du ebatziko bera proposizioa den edo ez. Era berean esaldiei dagokionean: zenbait kasutan ezin dute euren zentzua ekoitzi ez bada testuinguruaren arabera (bai egoera jakin batera daramaten osagai «deiktikoak» biltzen badituzte; bai subjektu hitzuna eta bere solaskideak izendatzen dituzten izenordainak erabiltzen badituzte lehen edo bigarren pertsonan; bai osagai pronominalak edo loturako partikulak erabiltzen badituzte, lehenagoko edo etorkizuneko esaldiei dagozkienak); baina bere zentzua ezin bukatu izanak ez du eragozten esaldia gramatikalki osoa eta autonomoa izatea. Egia esan, ez dakigu seguru zer esan nahi duen «hori bihar esango dizut» tankerako hitz-multzo batek; edozein modutan ezin da «bihar» hori datatu, ezin dira solaskideak izendatu eta ezin da asmatu zer esan beharko den. Hala ere, guztiz mugatutako esaldia da, frantsesaren eraikitze moduen arabera. Esan ahal izango da, azkenik, testuingururik gabe batzuetan zaila dela esaldi baten egitura definitzea («Hilda baldin badago» honela idatz daiteke: «bere heriotza gertatu bada, ez dut horrelakorik sekula jakingo»; edo bestela «ez dut sekula bere heriotzaren berri izango»). Baina anbiguotasun hau erabat definigarria da, bere aldi bereko aukerak zenba daitezke eta esaldiaren egitura propioaren zatia dira. Modu orokor batean, esan daiteke esaldi batek edo proposizio batek –bai bakartua, bai bera argitzen duen testuinguru naturalek banandua, bai berak, inplizituki edo ez, igor dezakeen osagaietatik askatua edo ebakia– beti esaldi edo proposizio irauten duela eta beti antzeman daitekeela bere horretan.

Aitzitik, enuntziatio-funtzioa –garbi utzita honela bera ez dela alde aurreko osagaietan oinarrituriko eraikuntza hutsa eta soila– ezin da gauzatu egoera askean dagoen esaldi edo proposizio baten gainean. Ez da nahikoa esaldi bat esatea –ez da nahikoa bera esatea objektu-eremu batekiko harreman jakin batean edo subjektu batekiko harreman batean– enuntziatua egon dadin, bera enuntziatua izan dadin: inguruko arlo batekin jarri behar da. Edo hobeto esanda, ez denez beste batzuen gainean inprimatu den harreman gehigarria, ezin zaio esaldi esan, ezin da bera enuntziatuaren existentziara ekarri, baldin eta aurkitzen ez bada alboko espazio bat jardunean. Enuntziatu batek beti ditu bere ertzak beste enuntziatu batzuek beteta. Ertz hauek bereizten dira arrunki «testuingurutzat» jotzen denaz –benetakoa edo hitzekoa– hau da, bereizten dira formulazio bat eragiten duten eta bere zentzua zehazten duten egoera edo hizkuntza osagaien multzoak. «Testuinguru» honetat bereizten dira ahalezkoa egiten duten neurrian: esaldi baten eta bera inguratzen dutenen arteko harremana, testuinguru-harremana, ez da berdina eleberri batetat dihardugunean edo fisika-tratatu batetat badihardugu; formulazio baten eta bere inguruaren arteko harremana ez da berdina izango solasaldi batetat badihardugu edo esperimendu baten kontu ematen ari bagara. Testuinguruaren eragina muga daiteke formulazioen arteko harreman orokorrako baten atzealdearen gainean, berbako sare baten atzealdearen gainean. Ertz hauek ez dira berdintzen subjektuak hitz egitean gogoan izan ditzakeen testu ezberdinekin, esaldi ezberdinekin; hemen ere inguru psikologiko hau baino hedakorragoak dira; eta puntu bateraino bera mugatzen dute, izan ere formulazio batek gainerako artean zer kokapen, estatus, eta paper hartzen duen –literaturaren arloan inskribatzen den edo hitz ezaxola baten gisara desagertu behar den, kontraera baten zatia den edo frogapen bat zuzentzen duen– horren arabera ezberdina izango da gainerako enuntziatuak subjektuaren kontzientzian agertzeko era. Hemen eta han ez dira jartzen lanean ez maila bera, ez hizkuntza esperientzia era bera, ez hitzeko oroimenaren edo dagoeneko esandakoa oroitzeko era bera. Formulazio baten halo psikologiko arlo enuntziatiboaren kokapenak zuzentzen du urrunetik.

Esaldi bati edo zeinuen sail bati uztartutako arloak –zeinak enuntziatu bihurtzen dituen eta testuinguru jakin bat eta eduki adierazgarri zehaztua izatea baimentzen dien– bilbe konplexua eratzen du. Hasteko gainerako formulazioen sailak osatzen du uztartutako arlo hori, formulazio hauen barruan inskribatzen delarik enuntziatua eta bere osagai bat eratuz (erantzunen joko bat, solasaldi bat eratzen duena, frogapen baten arkitektura –zeina mugatuko duten alde batetik bere premisek, ondorioak bestetik– kontakizun bat osatzen duten baieztapenen saila). Gainera, enuntziatuak (implizituki edo ez) kontuan dituen formulazioen multzoak osatuko du uztartutako arlo hori, bai formulazio horiek errepikatzeke, bai eurak aldatzeke, bai egokitzeko, bai eurei kontrajartzeke, bai eurei buruz hitz egiteko; enuntziatu guztiek, era batera edo bestera, beste enuntziatu batzuk gaurkotzen dituzte (kontakizun bateko errituzko osagaiak, frogapen batean dagoeneko onartutako proposizioak, solasaldi bateko esaldi konbentzionalak). Uztartutako arlo hori, gainera, formulazio-multzo batek osatuko du, zeintzuen enuntziatuak bere ondoko posibilitateak prestatzen dituen, bere, enuntziatuaren, ondoren etor daitezkeelarik bere ondorio gisara, bere jarraipen natural gisara, edo berari emandako erantzun gisara (ordena batek ez ditu irekitzen proposizio axiomatiko batek edo kontakizun baten hasierak irekitzen dituzten enuntziatu-aukera berberak). Azkenik, uztartutako arloa formulazio-multzo batek osatzen du, formulazio horiek eurei dagokien enuntziatuaren estatus berekoak dira eta euren artean lekua hartzen du enuntziatuak kontuan hartu gabe ordena lineala, eurekin ezabatuko da, edo, aitzitik, eurekin balioztatuko, sakratu egingo eta ahalezko objektu bezala eskainiko da etorkizuneko diskurtso baterako (enuntziatu bat ezin da bereizi jaso dezakeen estatusetik «literatura» modura, edo oinarritzeko ez den eta ahaztea dagoen esaldi modura, edo betiko erdietsitako egia zientifiko modura, edo profeta hitz modura, etab.). Era orokor batean esan daiteke hizkuntza osagaien sekuentzia-enuntziatua dela, bakarrik enuntziatio-arlo batean murgilduta badago eta bertan bera osagai berezi bezala agertzen bada.

Enuntziatua ez da egoera jakin baten edo errepresentazio-multzo baten proiektzio zuzena hizkuntzaren mailara. Ez da subjektu batek zenbait hizkuntza osagai eta arau lanean jartzea bakarrik. Hasiera-hasieratik, bere sustraietatik, enuntziatio-arlo batean nabarmentzen da eta bertan lekua eta estatua ditu; arlo horrek iraganarekin ahalezko harremanak eskaintzen dizkio eta balizko etorkizuna irekitzen dio. Enuntziatu oro honela dago zehaztua: ez dago enuntziatu orokorrik, enuntziatu askerik, neutro eta burujaberik; baina enuntziatu bat beti sail baten edo multzo baten zati da, beste enuntziatu batzuen artean paper bat jokatzen du, eurretan oinarritzen da eta eurretaz bereizten da: horrela enuntziatio-joko batean integratzen da beti eta bertan bere zatia du, oso arina, oso txikia izan arren. Eraiketa gramatikalak gauzatzeko osagaiak eta arauak besterik behar ez duen artean, esaldi bakarra eraikitzeke balioko lukeen hizkuntza bat (artifiziala, jakina) bururatu ahal izango litzatekeen artean, alfabetoa eta sistema formal bat eraikitzeke eta eraldatzeko arauak emanda hizkuntza horren

lehen proposizioa inolako arazorik gabe definitu ahal izango den artean, ez da gauza bera gertatzen enuntziatuarekin. Ez dago gainerako guztiak suposatzen ez dituen enuntziaturik; ez dago enuntziaturik bere inguruan ez duenik koexistentzia-arlo bat, sail eta jarraipeneko ondorioak, funtzioen eta paperen banaketa. Enuntziatu batez hitz egin ahal bada, izango da esaldi bat (proposizio bat) puntu jakin batean agertzen delako, kokapen jakin bat betetzen duelako, bera gainditzen duen enuntziatio-joko batean.

Enuntziatio-koexistentzia atzealde honen gainean askatzen dira, maila autonomo eta deskribagarri batean, esaldien arteko harreman gramatikalak, proposizioen arteko harreman logikoak, hizkuntza objektu baten eta bere arauak definitzen duen hizkuntzaren arteko harreman metalinguistikoak, esaldien multzoen (edo osagaien) harreman erretorikoak. Litekeena da, noski, harreman hauek guztiak aztertzea gai modura hartu gabe enuntziatio-arloa bera, hau da, enuntziatio-funtzioa gauzatzen den koexistentzia-eremua. Baina bakarrik existi daitezke eta bakarrik azter daitezke esaldi horiek enuntziatuak izan diren neurrian; beste hitz batzuetan esanda enuntziatio-arlo batean hedatzen diren neurrian, arlo horrek baimentzen dielarik bata bestearen ondoren etortzea, ordenatzea, koexistitzea eta elkarrekiko harremanean paper bat jokatzeko. Enuntziatua multzo esanguratsuen banakatze-hastapena izan beharrean («atomo» esanguratsua, zentzua egoteko beharrezko minimuma), batasun esanguratsu horiek espazioan kokatzen duena da, bertan biderkatu eta metatu ahal izango direlarik.

d) Azkenik, hizkuntza osagaien sekuentzia bat enuntziatutzat jo eta aztertua izan ahal izateko beharrezkoa da laugarren baldintza bat bete dezala: existentzia materiala izan behar du. Hitz egin ahal izango al litzateke ahots batek ahoskatu izan ez balu, azalera batek eramango ez balitu bere zeinuak, osagai sentigarri batean gorpuztu izan ez balitz eta arrastoa utzi izan ez balu –une batez besterik ez bada– oroimen batean edo espazio batean? Hitz egin ahal izango al litzateke enuntziatu batez irudi ideial eta isil batez bezala? Enuntziatua beti ematen da bitarteko material baten bidez, bai bitarteko hori disimulatuta egon arren, bai ia agertu gabe ere desagertzera kondenatuta egonda. Eta ez da enuntziatua bakarrik materialtasun hori behar duena; baina berari ez zaio ematen gehigarri modura, behin bere mugapen guztiak ondo zehaztu ondoren: alde batetik, materialtasun hori berezko zatia zaio enuntziatuari. Hitz berberak osatuta, zentzu berberaz hornituta, sintaxi eta semantikaren aldetik berbera iraunda, esaldi batek ez du enuntziatu bera osatuko baten batek solasaldi batean ahoskatzen badu edo eleberri batean inprimatuta baldin badago; egun batean idatzi bazen, mendeak direla edo orain agertzen bada berriz ahazko formulazio batean. Enuntziatuaren koordenadak eta estatus materiala bere berezko ezaugarrien artekoak dira. Hori nabarmena da. Edo ia. Izan ere, arreta apur bat jartzen bazaio, gauzak nahasten dira eta arazoak ugaritzen dira.

Jakina, tentazioa dago esateko enuntziatua ezaugarritzen bada bere estatus materialaren bidez, zati batean behintzat, eta bere identitatea alda badaiteke estatus horren aldaketarekin, gauza bera gertatzen dela esaldietan eta proposizioetan; zeinuen materialtasuna, izan ere, ez da guztiz aiherga gramatikarekiko edo logikarekiko. Gauza jakina da erabilitako zeinuen iraunkortasunak logikari agertzen dizkion arazoak (nola definitu sinbolo bat bera gauza daitekeen substantzia ezberdinez eta berak onartzen dituen forma aldaketez baliatuz? Nola antzeman eta segurtatu berbera dela, definitu behar bada «gorputz fisiko zehatz bat» bezala?) Gauza jakina da, halaber, zer arazo agertzen dizkion logikari sinboloen sailaren nozioak (zer esan nahi du aurreko izateak eta ondokoak izateak? «Aurretik» eta «ondoren» etortzeak? Zer espaziotan kokatzen da tankera horretako ordena?). Askoz hobeto ezagutzen dira oraindik materialtasunaren eta hizkuntzaren harremanak –hobeto ezagutzen dira idazketaren eta alfabetoaren paperak, hobeto ezagutzen da idatzizko testu batean eta solasaldi batean, egunkari batean eta liburu batean, eskutitz batean eta horma-irudi batean lanean jartzen diren sintaxia eta hiztegia ez direla berdin-berdinak–; badira, gainera, hitz sailak esaldiak eratzen dituztenak ondo banandutakoak eta guztiz onargarriak izango direnak baldin eta agertzen badira egunkari baten izenburuetan, eta, haatik, zentzua duen esaldi baten balioa izango ez dutenak, sekula ere ez, solasaldi baten harian. Hala ere, materialtasunak askoz ere paper garrantzitsuagoa jokatzen du enuntziatuan: bera ez da bakarrik aldaketa-hastapena, antzemateko irizpideen aldaketa edo hizkuntza azpimultzoen zehaztapena. Enuntziatuaren beraren osatzailea da: beharrezkoa da enuntziatu batek substantzia bat, euskarri bat, leku bat eta data bat izatea. Betebehar hauek aldatzen direnean identitatea bera aldatzen da. Berehala sortzen da galdera pila bat: esaldi bat, ozenki eta isilik errepikatutako esaldi bat, enuntziatu bakarra al da edo enuntziatu ugari al dira? Testu bat buruz ikasten bada, bere errezitazio bakoitza enuntziatu bat al da ala enuntziatu beraren errepikapena dela kontsideratu behar da? Esaldi bat fidelki itzulita atzerriko hizkuntza batera: bi enuntziatu ezberdinak al dira ala bakarra da? Eta talde errezitazio batean –otoitza ala irakaspena–, zenbait esaldi kontatu behar dira? Nola finkatu enuntziatuaren identitatea era askotako gertatze hauen bidez, errepikapen eta transkribapen hauen bidez?

Arazoa iluntzen da, zalantzarik gabe, sarritan maila ezberdinak nahasten direla-eta. Hasteko, alde batera utzi behar da enuntziatuen ugaritasuna. Esango da badela enuntziatu bat zeinu-multzo bat adierazi denean. Artikulazio hauetako bakoitzak espazio-denborazko bere banakotasuna du. Bi pertsonak gauza bera esan dezakete denbora berean; eurak bi direnez bi enuntziatio ezberdin izango dira. Subjektu bat eta bakar batek esaldi bera errepika dezake zenbait alditan; beste horrenbeste enuntziatio izango dira denboran barrena. Enuntziatioa errepikatzen ez den gertaera da; kokatutako eta datatutako berezitasun bat dauka eta hau ezin da murriztu. Berezitasun honek, hala ere, konstante batzuk pasatzen uzten ditu: gramatikalak, semantikoak, logikoak, eta hauen bidez esaldi baten, esanahi baten, proposizio baten, forma orokorra atzeman daiteke, enuntziatioaren unea eta bera banakotzen duten koordenadak neutralizatuz. Enuntziatioaren denbora eta lekua, berak darabilen oinarri materiala, aiherga bihurtzen dira neurri handi batean behintzat: eta nabarmentzen dena forma bat da, errepika daitekeena amaiera gabe eta enuntziatu hedatuenak sorraraz ditzakeena. Alabaina, enuntziatua bera ezin da murriztu enuntziatioaren gertatze hutsera, izan ere, bere materialtasunagatik ere, errepika daiteke: ez dago arazorik esateko esaldi berak, bi pertsona ezberdinek ahoskatuta eta egoera ezberdin samarretan, enuntziatu bakarria osatzen duela. Eta, hala ere, enuntziatua ez da murrizten gramatika edo logika-forma batera, materia, substantzia, denbora eta lekuzko ezberdintasunek eragina baitute bere baitan, forma horrek baino eragin handiagoa eta beste modu batekoa. Zein da, orduan, enuntziatuari dagokion materialtasun hau, errepikapen modu berezi batzuk baimentzen dituena? Zer dela-eta hitz egin daiteke enuntziatu beretz enuntziatu ugari ezberdin dauden lekuan –forma, egitura, eraiketa-arau eta asmo berdin-berdinak antzeman ahal direnean enuntziatu ugari hitz egin behar denean? Zein da, hortaz, enuntziatua ezaugarritzen duen materialtasun errepikagarriaren erregimen hori?

Zalantzarik gabe hori ez da materialtasun sentigarria, kualitatiboa, ematen dena kolorearen, hotsaren edo sendotasunaren formaren pean, hautemate-espazioaren kokapen espazio-denboral berak zatitzen duena. Har dezagun adibide oso erraza: zenbait alditan errepikatutako testuak, liburu baten ondoz ondoko argitarapenak, hobe oraindik, tirada baten liburuki ezberdinek, ez dakartzate beste horrenbeste enuntziatu ezberdin: Les Fleurs du Malen argitarapen guztietan (alde batera utzita arbuatutako aldaketak eta testuak) enuntziatuen joko bera aurkitzen da; hala eta guztiz ere, ez dira berdina ez karaktereak, ez tinta, ez papera eta ezta testuaren kokapena eta zeiniek betetzen duten lekua ere: materialtasunaren egituraketa osoa aldatu egin da. Baina hemen ezberdintasun «txiki» hauek ez dira eraginkorrek enuntziatuaren identitatea aldatzeko eta beste bat sorrarazteko orduan: denak neutralizatuta geratzen dira «liburuak» osatzen duen elementu orokorrean –materiala, zalantzarik gabe, baina, halaber, instituzionala eta ekonomikoa–: liburu bat, berdina da zenbait liburuki eta zenbait argitarapen izan dituen, eta zeintzuk diren berak erabili ahal izan dituen substantzia ezberdinak, enuntziatuentzako baliokidetasun doia den lekua da, identitatea aldatu gabe enuntziatua errepikatzen den instantzia da. Lehen adibide honekin ikusten da enuntziatuaren materialtasuna ez dela definitzen betetzen duen espazioarekin edo bera formulatu den datarekin, baizik eta gauza edo objektu estatusagatik. Estatus hori ez da sekula ere ez behin betikoa, alda daiteke, erlatiboa da eta beti jar daiteke berriro zalantzan: gauza jakina da, esaterako, literaturaren historialarientzat ez dutela estatus bera egilearen begiradapean argitaratutako liburuak eta bera hil osteko argitarapenak, hartan enuntziatuek balio berezia dute, eurak ez dira multzo beraren adierazpenak, horrela dira errepikapena dagoen eta egon behar den neurrian. Modu berean ezin da esan baliokidetasunik dagoenik konstituzio baten edo testamentu baten edo errebelazio erlijioso baten testuaren eta eurak zehaztasunez (idazketa berarekin, karaktere berdinekin, substantzia analogoekin) erreproduzitzen dituzten eskuizkribu edo inprimakien artean: alde batetik enuntziatuak eurak daude eta bestetik euren erreproduktzioa. Enuntziatua ez da identifikatzen materia pusketara batekin; baina bere identitatea aldatzen da erakunde materialen erregimen konplexu batekin.

Izan ere, enuntziatu bat berdina izan daiteke bai eskuz idatzita paperezko horri batean, bai liburu batean argitaratua; enuntziatu bat berdina izan daiteke ahoskatua, txartel batean inprimatua edo magnetofono batean erreproduzitua; bestalde, eleberrigile batek eguneroko bizitzan edozein esaldi ahoskatzen badu eta ondoren bera idazten ari den eskuizkribu batean ipintzen badu bere horretan, pertsonaia baten ahoan jarritik, edo egilearentzat jotzen den ahots anonimoari ahoskaratzen badio, ezin da esan bi kasuetan enuntziatu bera denik. Enuntziatuak derrigorrean mendean dituen materialtasunen erregimena erakundeen mailakoa da, kokapen espazio-denboralaren mailakoa baino gehiago; erregimen horrek definitzen ditu berrirartzeko eta transkribatzeko aukerak (baita atalaseak eta mugak), banakotasun mugatu eta iragankorrek baino gehiago.

Enuntziatu baten identitatea baldintzen eta mugapenen bigarren multzo baten mendean ere badago: bera tartean dagoen gainerako enuntziatuen multzoak ezartzen dizkion baldintzen eta mugapenen mendean, bera erabili eta aplikatu ahal den

eremuak ezartzen dizkionak, berak jokatu behar dituen paperak eta funtzioek ezartzen dizkietenak. Lurra borobila dela edo espezieek eboluzionatzen dutela baieztatzea ez da enuntziatu bera Copernicoren aurretik eta ondoren, Darwinen aurretik eta ondoren; formulazio hain sinple horietan aldatu dena ez da hitzen zentzua izan; aldatu da baieztapen horien eta beste proposizio batzuen arteko harremana, aldatu dira eurak erabiltzeko eta berriz txertatzeko baldintzak, esperientzia-arloa, ahalezko egiaztapenak, eurei dagozkien konpondu beharreko arazoak. «Ametsek nahiak betetzen dituzte» esaldia behin eta berriz esan daiteke mendeetan zehar; bera ez da enuntziatu bera Platonengan eta Freudengan. Erabilera-eskemek, eurentzat baliatzeko arauak, eurek paper bat jokatu ahal izango duten konstelazioek, euren birtualtasun estrategikoek enuntziatuentzako egonkortze-arlo bat osatzen dute, honek baimentzen duelarik eurak errepikatzea euren identitatean, alde batera utzita enuntziatio ezberdintasun guztiak: baina arlo honek berak, era berean, identitate semantiko, gramatikal edo formal agerikoenen azpitik, atalase bat defini dezake, eta atalase honetatik aurrera ez da egongo baliokidetasun gehiagorik, eta beharrezkoa izango da onartzea enuntziatu berri bat agertu dela. Baina, zalantzarik gabe, ahalezkoa da urrunago joatea: kontsidera daiteke enuntziatu bakarra dagoela, hitzak, sintaxia, hizkuntza bera berberak ez diren lekuan. Demagun diskurtso bat eta bere aldi bereko itzulpena; demagun testu zientifiko bat ingelesez eta bere itzulpena frantsesera; demagun iritzi bat hiru zutabetan eta hiru hizkuntza ezberdinetan idatzita: ez dago hor hizkuntzak hainbat esaldi ezberdin, haatik, enuntziatu-multzo bakarra dago hizkuntza era ezberdinetan. Are gehiago: informazio jakin bat beste hitz batzuekin jakinaraz daiteke, sintaxi sinplifikatu batekin edo adostutako kode baten bidez; eduki informatiboa eta erabiltzeko aukerak berdinak badira, esan ahal izango da hura eta hau enuntziatu bera direla.

Hemen ez dihardugu enuntziatua banakatzeko irizpide bati buruz, baizik eta bere aldaketa-hastapenari buruz: batzuetan esaldiaren egitura baino askotarikoagoa da (eta bere identitatea finagoa da, hauskorragoa, errazago alda daitekeena, multzo semantiko edo gramatikal batena baino), beste batzuetan egitura hori baino konstanteagoa da (eta orduan bere identitatea izango da luzeagoa, egonkorragoa, aldaketarako aukera gutxiagokoa). Gehiago oraindik: enuntziatuaren identitate hau ezin da esaldiaren identitatearekin lotu behin eta betiko, baina honetaz gain identitate hori erlatiboa da eta enuntziatua nola erabiltzen den eta nola manipulatu den, horren arabera gorabeherak ditu. Enuntziatu bat erabiltzen denean agerian jartzeko egitura gramatikala, konfigurazio erretorikoa edo berak berarekin daramatzen konnotazioak, garbi dago ezin dela berdintzat jo bere jatorrizko hizkuntzan eta bere itzulpenean. Aitzitik, bera egiaztapen experimental prozedura batean sartu nahi bada, testuak eta itzulpenak enuntziatu-multzo bera osatzen dute. Edo, gehiago oraindik, makro-historiaren maila jakin batean kontsidera daiteke «espezieek eboluzionatzen dute» moduko baieztapen batek enuntziatu bera eratzen duela Darwinengan eta Simpsonengan; maila finago batean eta erabilpen-eremu mugatuagoa kontuan hartuz («neo-darwinismoa» Darwinen benetako sistemari kontrajarrita) bi enuntziatu ezberdinez dihardugu. Enuntziatuaren iraupena, bere identitatea gordetzea gertaera berezien bidez, enuntziatioen bidez, eurak bitan banatzearen bidez formen identitateaz baliatuta, hau guztia erabilera-arloaren lana da, non bera txertatua dagoen.

Ikusten da enuntziatua ezin dela tratatu gertaera bat bailitzan, denbora eta leku jakin batean ekoizitakoa, ozta-ozta gogoratu (eta urrunetik ospatu) ahal izango litzatekeena oroitzapen-ekintza batean. Baina ikusten da bera ez dela forma ideala, beti gaurko daitekeena edozein gorputzetan, berdina da zein multzotan eta axolarik ez duten baldintza materialetan. Errepikarria bere jaiotzeko espazio-denborazko koordenadekin guztiz bateragarria izateko (bere agerpenaren data eta lekua baino zerbait gehiago da), bere inguruari eta bera eusten duenari lotuegia (osagaien multzo bati aplikatutako eraikitze lege bat baino zerbait gehiago da), alda daitekeen astuntasun batez hornitua dago, pisu erlatibo batez bera kokatuta dagoen arloaren araberkia den pisu batez, erabilpen ezberdinak baimentzen dituen jarraitasun batez, denborazko iraunkortasun batez hornitua ere (zeinak ez duen marra baten inertzia, zeinak ez duen lorik egiten bere iraganaren gainean). Enuntziatio bat berriz-ekin, berriz-oroitu ahal denean, forma bat (hizkuntzazkoa edo logikoa) berriz-gaurkotu ahal denean, enuntziatua berez errepika daiteke, baina beti baldintza zorrotzen pean.

Funtzio enuntziatzailea ezaugarritzen duen materialtasun errepikagarri honek enuntziatua agerrarazten du objektu zehatz eta paradoxiko modura, baina baita gizakiek ekoizten dituzten objektu guztien arteko bat bezala ere, edo, halaber, gizakiek manipulatu, erabiltzen, eraldatzen, trukatu, konbinatu, deskonposatu eta berririko konposatu eta, behar bada, suntsitzen dituzten objektuen arteko modura. Behin eta betiko esandako zerbait izan beharrean –iraganen galdurikoa, bataila baten emaitza, hondamendi geologiko bat edo errege baten heriotza bezala– enuntziatua, bere materialtasunean sortzen den aldi berean, estatus batekin agertzen da, sareetan sartzen da, erabilera-arloetan kokatzen da, transferentziak eta ahalezkoak diren aldaketak jaso ditzake, txertatu da bere identitatea gordetzen edo ezabatzen den eragiketetan eta estrategietan. Horrela enuntziatuak zirkulatzen du, balio du, saihesten du, gurari bat gauzatzea baimentzen edo eragozten

du, interesen aurrean apala edo bihurria da, erantzunen eta borroken ordenan sartzen da, jabetzerako edo lehiarako gaia bilakatzen da.

III.

Enuntziatuen deskribapena

Azterketaren frontea nabarmen aldatu da lekuz; hasieran eskegita geratu zen enuntziatuaren definizioari berrekin nahi izan nion. Dena gertatu zen eta dena adierazi zen enuntziatua erraz finka zitekeen batasuna izango balitz bezala, kontua izango bailitzan multzokatzearen legeak eta aukerak deskribatzea. Hala ere, nik emandako urratsetara itzuliz, jabetu nintzen ezin nuela enuntziatua definitu batasun linguistiko bat bezala (fenomenoaren eta hitzaren gainetik legokeena, testuaren azpitik legokeena); jabetu nintzen gehiago niharduela funtzio enuntziatibo bati buruz, batasun ezberdinak jokoan jarriz (eurak bat etor daitezke batzuetan esaldiekin, beste batzuetan proposizioekin; baina batzuetan osatzen dira esaldien zatiekin, zeinuen sailekin edo taulekin, proposizio-jokoekin edo baliokideak diren formulazioekin); eta funtzio honek, batasun horiei «zentzua» eman beharrean, objektu-arlo batekin harremanean jartzen ditu; eurei subjektu bat eman beharrean, ahalezkoak diren posizio subjektibo-multzo bat irekitzen die; euren mugak zehaztu beharrean, koordinaketa eta koexistentzia-eremu batean kokatzen ditu; euren identitatea mugatu beharrean, espazio batean sartzen ditu, bertan txertatuak, erabiliak eta errepikatuak izango direlarik. Laburbilduz, aurkitu dena ez da enuntziatu atomikoa –berak eragiten duen zentzuarekin, bere jatorriarekin, bere banakotasunarekin–, aurkitu dena funtzio enuntziatiboa jarduteko arloa da eta berak batasun ezberdinak agerrarazteko behar dituen baldintzak (izan daitezkeenak, baina ez derrigorrean, gramatikaren edo logikaren ordenakoak). Baina orain nire burua aurkitzen dut bi galderari erantzun beharrean: zer ulertu behar da aurrerantzean enuntziatua deskribatzeko zereginaz, hasieran proposatua izan dena? nola doitu daiteke enuntziatuaren teoria hau bera gabe zirriboratu diren eraketa diskurtsiboen azterketarekin?

A

1. Lehen eginbeharra: hiztegia finkatu. Hizkuntza natural batetik (edo artifizial batetik) sortzen den edozein zeinu-multzori hitzezko performantzia deitzen badiogu, edo hobe, beharbada, hizkuntza performantzia, zeinu-multzo hori (edozein materialen bidez eta forma mugatu baten bidez) agerrarazten duen banako ekintza formulazio deitu ahal izango dugu: formulazioa gertaera bat da, aurrez behintzat, beti ere koka daitekeena espazio-denborazko koordinaden arabera, beti ere egile batekin lotu daitekeena, eta, behar izanez gero, ekintza berezi bat osa dezakeena berez (ekintza «performatiboa», analista ingelesek diotenez); gramatikak edo logikak zeinu-multzo batean antzeman ditzaketen batasunak esaldi edo proposizio deituko dira: batasun horiek ezaugarritu ahal izango dira beti bertan agertzen diren osagaien bidez eta hauek batzen dituzten eraiketa-arauen bidez; esaldiari eta proposizioari dagokienez, jatorriaren, denboraren, lekuaren eta testuinguruaren arazoak bigarren mailakoak dira; erabakigarria den arazoa euren zulentasunarena da («onargarritasuna»-ren eran besterik ez bada). Zeinu-multzo honi dagokion existitzeko modu bereziari deituko zaio enuntziatu: modu honek baimentzen dio marra-sail batez ezberdina izatea, substantzia baten gaineko arrasto-segida batez ezberdina, gizaki batek egindako objektu batez ezberdina; modu honek baimentzen dio objektu-eremu batekin harremanean izatea, ahalezkoa den edozein subjekturi kokapen zehatza izendatzea, hizketazko beste performantzia batzuen artean jartzea, azken baten, materialtasun errepikagarri batez hornitua izatea. Diskurtso hitzari dagokionean, hemen bera gehiegikeriaz erabili delarik zentzu oso ezberdinekin, orain uler daiteke bere adiera ekibokoa: modurik orokorrean eta

ezabatuenean hitzezko performantzia-multzo bat adierazten du; diskurtso hitzarekin ulertuko da zeinu-multzoen bidez ekoitzi den zerbait (beharbada horrela ekoitzi den guztia). Baina berarekin ulertzen da, halaber, formulazio ekintzen multzoa, esaldien edo proposizioen saila. Azkenik –eta hau da azkenean hobetsi den zentzua (lehengoarekin batera, ostertz modura balio izan diona)– diskurtsoa zeinu segiden multzo batek osatzen du, hauek enuntziatuak diren neurrian, hau da, existitzeko modu partikularrak izendatu ahal zaizkien neurrian. Eta frogatzea lortzen badut, segidan ahaleginduko naizen moduan, tankera horretako sail bati dagokion legea nik orain arte eraketa diskurtsiboa deitu dudana dela hain zuzen, frogatzea lortzen badut eraketa diskurtsibo hau sakabanaketa eta banaketa-hastapena dela, ez esaldiena, ez proposizioena, enuntziatuena baino (nik hitz honi eman diodan zentzuan), diskurtso hitza honela zehaztu ahal izango da: eraketa-sistema berari dagokion enuntziatuen multzoa; horrela hitz egin ahal izango dut nik diskurtso klinikoari buruz, diskurtso ekonomikoari buruz, historia naturalaren diskurtsoari buruz, diskurtso psikiatrikoari buruz.

Ondo dakit nik jakin definizio hauek ez datozela bat hitzaren eguneroko erabilerekin: hizkuntzalariek diskurtso hitzari zentzu erabat ezberdina eman ohi diote; logikoek eta analistek beste modu batean darabilte. Baina nire asmoa ez da honelako argitasun baten zain dagoen eremu bati transferitzea kontzeptu-joko bat, azterketa era bat, teoria bat, beste inon eratu direnak; nire asmoa ez da eredu bat, bere eraginkortasun osoarekin, eduki berriei aplikatzea. Ez dut, inondik ere, zalantzan jarri nahi horrelako eredu baten balioa; ez dut nora hel daitekeen mugatu gura ere, bera probatu aurretik, eta ez dut gura gainditu behar ez lukeen atalasea adierazi ere. Baina aukera deskriptibo bat agerrarazi nahi nuke, berarentzat ahalezkoa den eremua zirriborratzea, bere autonomiaren mugak definitzea. Aukera deskriptibo hau beste batzuen gainean artikulatzen da, ez da euretatik eratortzen.

Bereziki ikusten da enuntziatuen azterketak ez duela izan nahi «hizkuntzaren» edo «esandakoaren» deskribapen oso eta sakona. Hitzezko performantzian bilduta dagoen sendotasun osoan, azterketa hori maila partikular batean jartzen da, berau besteetatik askatu behar delarik, euren arabera ezaugarritua eta abstraktua izanik. Berak, bereziki, ez du hartzen proposizioen azterketa logikoaren lekua, ezta esaldien azterketa gramatikarena eta formulazioen azterketa psikologikoaren edo testuingurukoarena ere: berak hitzezko performantziei ekiteko beste era bat osatzen du, euren konplexutasuna aletzeko, euren baitan gurutzatzen diren hitzak bakartzeko, eurak mendean dituzten erregularitasun ezberdinak seinatzeko. Enuntziatua esaldiarekin edo proposizioarekin aurrez aurre ipintzean, ez naiz saiatu osotasun galdu bat bilatzen, ezta berpizten ere hitzaren betetasun bizia, berbaren aberastasuna, logosaren batasunaren sakona, isildu gura ez duten hainbat eta hainbat nostalgikok honetara konbidatzen duten arren. Enuntziatuen azterketak deskribapen maila berezi bati dagokio.

2. Enuntziatua, hortaz, ez da funtsezko batasun bat, gramatikak eta logikak deskribatutako batasunei gehitu behar zaiena. Ezin da bakartu esaldia, proposizioa edo formulatzeko ekintza bakar daitekeen modu berean. Enuntziatu bat deskribatzea ez da segmentu horizontal bat bakartzea eta ezaugarritzea, haatik zeinu-sail bati existentzia, existentzia espezifikoak gainera, eman dion funtzioak lan egiten duen baldintzak definitzea da (zeinu-sail hori ez izan arren derrigor egituratuta ez gramatikalki ez logikoki). Existentzia horrek sail hori agerrarazten du ez arrasto hutsa bezala, baizik eta objektuen eremu batekiko harreman bezala; ez banako-ekintza edo eragiketa baten emaitza bezala, baizik eta subjektu batentzat ahalezkoak diren kokapen-joko bezala; ez osotasun organiko autonomo bezala, bere baitan itxia eta zentzua izateko gai dena, baizik eta koexistentzia-arlo baten osagai bezala; ez gertaera iragankor edo objektu bizigabe bezala, baizik eta materialtasun errepikagarri bezala. Enuntziatuen deskribapena zuzentzen zaie multzo adierazle ezberdinen existentzia-baldintzei, nola edo hala bertikala den dimentsio bati jarraiki. Hortik paradoxa bat dator: enuntziatuen deskribapena ez da saiatzen hitzezko jarduteak saihesten euren ostean edo euren itxurazko azaleraren azpian gordetako osagai bat aurkitzeko, ezkutuko zentzu bat aurkitzeko, zeina hitzezko jardute horien baitan giltzaperatzen den edo euren bidez azaleratzen den ezer ez esan gabe; eta, halatan ere, enuntziatua ez da ikusgai berehala, ez da ematen gramatika edo logika-egitura adinako modu nabarmenean (baita hau guztiz argia ez izan arren edo azaltzeko oso zaila izan arren ere). Enuntziatua aldi berean ez ikusgai eta ez ezkutukoa da.

Ez ezkutukoa, definizioz, berak ezaugarritzen dituelako benetan ekoizitako zeinu-multzo baten berezko existentzia-moduak. Enuntziatio-azterketak esandako gauzetara darama betik, benetan ahoskatuak edo idatziak izan diren esaldietara, marraztuak edo artikulatuak izan diren osagai adierazleetara –eta zehazkiago esanda existiarazten dituen singularitasun horretara– berak eskaintzen ditu ikusteko, irakurtzeko, balizko berraktibatze baterako, hamaikatxo erabilera eta eraldaketa ahalezkotarako, beste gauza batzuen artean, baina ez beste gauzak bezala. Bera bakarrik dagokie gauzatutako hitzezko jardutei, euren existentzia mailan aztertzen baititu: esandako gauzen azterketa, esanak izan diren neurrian hain

zuzen. Enuntziatio-azterketa, beraz, azterketa historikoa da, edozein interpretaziotik at dirauena: esan diren gauzei ez die galdegiten zer ezkututzen duten, zer den eurekin esan dena eta zer den, euren gogoz kontra, eurek ostentzen duten ez-esandakoa, euren baitan bizi diren pentsamenduen, irudien edo mamuen ugaritasuna; haatik berak galdegiten die eurak existitzeko moduari buruz, ea zer den eurentzat adieraziak izatea, zer den eurentzat arrastoak uztea eta hor irauan ahal izatea, beharbada atzera erabiliak izateko; zer den eurentzat agertzea, beste ezer agertu ezin delarik euren lekuan. Ikuspuntu honetatik ez da ezagutzen enuntziatu ezkuturik, gauzatutako hizkuntzari zuzentzen gatzazkio eta.

Eusteko zaila, tesia. Gauza jakina da –gizakiak hitz egiten duenetik beharbada– sarritan gauza bat esan beharrean bestea esaten dela; esaldi berak bi esanahi ezberdin dituela aldi berean; ageriko zentzu batek, mundu guztiak ulertzen duena zailtasunik gabe, bigarren bat ezkuta dezakeela, esoterikoa edo profetikoa, argitze lan burutsu batek edo denboraren higadurak agerraraz dezakeena; ikusgai den formulazioaren azpian egon daitekeela beste bat bere gainean agintzen duena, bera estutzen duena, asaldatzen duena, berari bakarrik dagokion artikulazioa ezartzen diona; laburbilduz, era batera edo bestera, esandako gauzek eurek diotena baino zerbait gehiago diotela. Baina, berez, bikoizte edo bitan banatzeko ondorio hauek, esanda aurkitzen den ez-esandako honek, hala eta guztiz ere, ez du enuntziatuan eragiten, ez behintzat hemen definitua izan den moduan. Polisemia –hermeneutika eta beste zentzu bat aurkitzea baimentzen duena– esaldiari dagokio, eta baita lanean ipintzen duen arlo semantikoari ere: hitzen multzo bakar batek zentzu asko eta ahalezko eraiketa ugari eragin dezake; berak, beraz, esanahi ezberdinak izan ditzake, elkarren artean gurutzatuak edo txandakatuak, baina berbera dirauen enuntziatio-oinalde baten gainean. Hitzeko jardute batek beste batetik jasotzen duen errepresioa, euren ordezkapena edo euren interferentzia, formulazioaren mailari dagozkion fenomenoak dira (baita eragina badute ere egitura logikoetan edo hizkuntzazkoetan); baina enuntziatuari berari ez dio eragiten bitan banatze horrek edo zapaltze horrek: hitzeko jardutearen existentzia modu bat da-eta, bera gauzatua izan den legez. Enuntziatua ezin da kontsideratu zenbait enuntziatu flotatzailereren metatze-emaizta edo zertzea, ia artikulatu gabeak eta elkar arbuizaten dutenak. Enuntziatuak ez du ez-esandakoaren, esanahi ezkutuen, errepresioen, presentziaren eraso jasotzen; haatik, osagai ezkutu hauek funtzionatzeko eta eurak berriz gauzatzeko modua modu enuntziatiboaren mendekoa da: gauza jakina da «ez-esandakoa», «erreprimutakoa», ez dela berbera –ez bere egituran ez bere ondorioan– enuntziatu matematiko batez edo enuntziatu ekonomiko batez dihardugunean, eta autobiografia batez edo amets baten kontra dihardugunean.

Halatan bere, ez-esandakoaren modu ezberdin hauei guztiei, zeintzuk aurki daitezkeen enuntziatu-arloaren atzealdean, gabezia bat gehitu behar zaie zalantzarik gabe, barrukoa izan beharrean eremu horrekiko korrelatiboa litzatekeena, eta eremu horren existentziaren zehaztapenean bere papera izango lukeena. Enuntziatuaren azaleratze-baldintzetan egon daitezke egon ere –eta zalantzarik gabe badaude beti– baztertzek, mugak edo hutsuneak, zeintzuek euren erreferentziala ebakitzen duten, moduen sail bakarra baliozkotzen duten, koexistentzia taldeak zedarritzen eta ixten dituzten eta erabilera batzuk eragozten dituzten. Baina ez dira nahastu behar, ez bere estatusen ez bere ondorioan, erregularitasun enuntziatibo baten gabezia berezia eta formulatuta dagoen horretan ezkutututa dauden esanahiak.

3. Baina enuntziatua ezkututua ez egon arren, ez da horregatik ikusgai; ez dago hautemateari irekia, honen muga eta ezaugarrien eramaile nabarmena bailitzan. Beharrezkoa da begirada eta jarrera aldatzea neurri batean, enuntziatua bere baitan ezagutu eta kontuan hartu ahal izateko. Beharbada ezagunegia denez bera etengabe saihesten da; beharbada oso gertukoak zaizkigun gardenkien gisakoa da, zeintzuk, euren sendotasunean ezer ezkututzen ez duten arren, ez diren agertzen euren argitasun osoan. Maila enuntziatiboa bere gertutasunean bertan zirriborratzen da.

Honetarako arrazoi ugari daude. Lehenengoa esan da degoeneko: enuntziatua ez da esaldiaren edo proposizioaren albo batera –gainetik edo azpitik– geratzen den batasuna; beti dago txertatua genero horretako batasunetan edo bestela euren legeei obeditzen ez dien zeinuen sekuentzietan (zerrendak, ahal iritzirako sailak, koadroak); berak ez du ezaugarritzen horietan ematen dena, edo nola diren eurak mugatuak, baizik eta emanak izatea, eta eurak emanak izateko era. «Badago» delakoaren ia-ikusezintasuna du, eta hau ezabatzen da hain zuzen esan ahal denean: «badago hau edo bestea».

Beste arrazoi bat: hizkuntzaren egitura adierazleak beti beste zerbaitera igortzen du; objektuak egitura horretan izendatuta daude; zentzua bertan seinalatuta dago; subjektua adierazten da zenbait zeinuren bidez, baita bertan ez badago ere. Beti ematen du hizkuntza beste zerbait jendeztatzen duela, beste nonbait delakoak, urrunekoak; gabeziak zulatuta dagoela. Ez al da bera ez beste zerbait agertzen den lekua? Eta funtzio honetan ez al du ematen bere existentzia bera ezabatzen dela? Baina enuntziatio-maila deskribatu nahi bada, existentzia horixe bera hartu behar da kontuan; hizkuntza galdekatu behar da, ez berak igortzen duen norabideari begira, baizik eta berari ematen dion dimentsioan; arreta kendu behar zaio

adierazteko, izendatzeko, erakusteko, agerrarazteko, zentzuaren eta egiaren lekua izateko duen ahalmenari eta, haatik, begiratu behar zaio bere existentzia berezi eta mugatua zehazten duen uneari –berehala solidotzen dena, berehala harrapatua geratzen dena adierazlearen eta adierazitakoaren jokoan. Kontua da, hizkuntzaren azterketan, eskegitzea ez bakarrik adieraziaren ikuspuntua (dagoeneko badaukagu horretarako ohitura), baizik eta adierazlearena, horrela agerrarazteko badela hizkuntza, han eta hemen, ahalezko objektuen eta subjektuen eremuekiko harremanean, beste formulazio batzuekiko eta balizko berrerabilpen batzuekiko harremanean.

Bukatzeko, azken arrazoiaren enuntziatuaren ia-ikusezintasun honetarako: hizkuntzari buruzko gainerako azterketa guztiek suposatu egin dute enuntziatua, baina ez dute sekula argitu. Hizkuntza maila ezberdinetan deskonposatutako objektutzat hartu, deskribatu eta aztertu ahal izateko beharrezkoa da «datu enuntziatiboa» egotea, beti mugatua eta ez amaigabea izango dena: hizkuntza baten azterketa beti gauzatzen da hitzen eta testuen corpus baten gainean; esanahi implizituen interpretazioa eta gaurkotzea oinarritzen da esaldi-multzo murrizt batean; sistema baten azterketa logikoak proposizioen multzo jakin bat biltzen du, berridazketan, hizkuntza formalean. Enuntziatio-mailari dagokionean aldi oro neutralizatua dago: bai bera definitzen bada bakarrik lagin esanguratsu modura, mugagabeki erabil daitezkeen egiturak askatzea baimentzen duena; bai bera ezarian badao itxura huts batean, honen atzetik beste hitz baten egia agertu behar delarik; bai substantzia aiherga baten balioa hartzen badu, zeinak harreman formalen oinarri bezala balioa duen. Azterketa gauzatu ahal izateko bera ezinbestekoa izateak desegokia bihurtzen du azterketarako. Honi gehitzen bazaio deskribapen horiek guztiak gauza daitezkeela enuntziatu-multzo mugatuak osatuz, ulertuko da aldi berean zer dela-eta enuntziatio-arloak inguratzen dituen alde guztietatik, zer dela-eta ezin diren askatu eta zer dela-eta ezin duten bera gai bezala hartu zuzenean. Enuntziatuak euren baitan kontuan hartzea ez da izango azterketa horiek guztiak alde batera uztea eta maila sakonago batean sekretu bat edo hizkuntzaren sustrai bat bilatzea, haiek aipatu ez dutena. Haatik, enuntziatuen posibilitatearen osagaia den gardentasun hurbil hori ikusgai eta aztergarria egiten ahalegintzea da.

Ez ezkutatua, ez ikusgai, enuntziatio maila hizkuntzaren muga dago: bera ez da, berez, berehalako esperientziari modu ez sistematikoa eskainitako karaktere-multzoa; baina ez da, ezta ere, bere ostean, berak itzultzen ez duen hondar enigmatikoa eta isila. Berak hizkuntza agertzeko modua definitzen du: bere periferia bere barne antolaera baino gehiago, bere azalera bere edukia baino gehiago. Baina enuntziatio-azalera hori deskribatu ahal izateak erakusten du hizkuntzaren «datu»-a ez dela funtsezko mututasun baten urraketa; hitzak, esaldiak, adierak, baieztapenak, proposizioen kateak ez zaizkiola zuzenean itsasten isiltasun baten lehen gauari; horrek erakusten du, haatik, esaldi baten bat-bateko agerpena, zentzuaren oinaztargia, izendapenaren keinu bortitza, beti sortzen direla enuntziatio-funtzio baten jardute-eremuan; hizkuntzaren (irakurria eta ulertua den neurrian, baina baita mintzatua den neurrian ere) eta edonolako formulazio faltaren artean, ez dagoela apenas esan diren gauza guztien algara, eskegitako esaldi guztiena, hitzez erdizka adierazitako pentsamendu guztiena, bakarrik zatiki batzuk azaleratzen dituen bakarriketa amaigabearena; baizik eta hor daudela ezer baino lehenago –edo edozein kasutan bere aurretik (bere mendekoa baita)– enuntziatio-funtzioak azaltzeko behar dituen baldintzak. Honek frogatzen du, gainera, alferrik dela, hizkuntzaren egiturazko, formazko edo interpretaziozko azterketen gainetik, bilatzea eremu bat azkenean positibotasun oroz libre izango dena, non hedatu ahal izango litzatekeen subjektuaren askatasuna, gizakiaren lana edo halabehar transzendental baten irekiera. Metodo linguistikoen eta azterketa logikoen aurka ez da honakoa objektatu behar: «Zer egiten duzu zuk –hainbeste esan ondoren beraren eraiketa-arauei buruz– hizkuntzarekin berarekin, beraren gorputz biziaren betetasunean? Zer egiten duzu zuk askatasunarekin, edo esanahi ororen aurretiko zentzuarekin, hauek gabe egongo ez litzatekeelarik inolako gizabanakorik elkar ulertuko luketenak beti berriro ekiten den hizkuntzaren lanaren bidez? Ez al duzu gogoan behin gaindituta diskurtsoaren amaiezintasuna ahalezkoa egiten duten sistema amaituak (ezgai direnak, hala eta guztiz ere, bera oinarritzeko eta azaltzeko) aurkitzen dela transzendentzia baten arrastoa, edo gizakiaren lana? Ba al dakizu deskribatu dituzula hizkuntza baten ezaugarriak bakarrik, zeinaren sorrera eta moduak, zure azterketen arabera, guztiz murriztezinak diren?». Objektzio hauek baztertu behar dira: izan ere, egia bada badela dimentsio bat ez dagokiona ez logikari ez hizkuntzalaritzari, bera ez da, hala ere, berrezarritako transzendentzia, ez da, ezta ere, helezina den jatorrirako bidea, berriz irekitakoa, eta ezta gizakiak gauzatzen dituen bere esanahi propioen eraketa ere. Hizkuntza, bere agerpenaren eta bere izaeraren mailan, enuntziatua da; neurri horretan bera deskribapen batetik sortzen da, ez dena ez transzendentala ez antropologikoa. Azterketa enuntziatioak ez die ezartzen hizkuntza azterketei eta azterketa logikoei muga bat, bertatik aurrera hauek euren izaerari uko egin beharko lioketelarik euren ezintasuna onartuz; berak ez du marratzen euren eremua ixten duen lerroa; eurak gurutzatzen dituen beste norabide batean hedatzen da. Finkatzen bada azterketa enuntziatioaren aukera, berak baimendu behar du muga transzendental bat jasotzea,

eta hau diskurtso filosofikoaren era jakin batek hizkuntzaren azterketa guztiei kontrajartzen die, hizkuntza horren izatearen eta bere oinarria izan beharko lukeen jatorriaren izenean.

B

Galderen bigarren multzoari begiratu behar diot orain: nola doitu ahal zaio horrela deskribatutako enuntziatua eraketa diskurtsiboen (honen hastapenak nik gorago zirriborratu ditudalarik) azterketari? Eta alderantziz, zer neurritan esan daiteke eraketa diskurtsiboen azterketa enuntziatuen (neuk hitz honi eman berri diodan zentzuan) deskribapena dela? Garrantzitsua da galdera honi erantzuna ematea; izan ere, puntu honetantxe itxi behar du bere zirkulua ni hainbat urtez arduratu nauen lanak, itsumustuka-edo garatu dudana eta orain modu orokor batez atzematen ahalegintzen naizena –berriro doitu beharra duelarik, bere hutsegiteak edo arinkeriak zuzendu beharra dutelarik–. Dagoeneko ikusi ahal izan da: ez dut hemen esan gura izan zer egin nahi izan dudana azterketa jakin honetan edo bestean, zer egitasmo nuen buruan, zer oztopo aurkitu dudana, zeri egin behar izan diodan uko, erdietsi ahal izan ditudan emaitzak asegarriak edo ez hain asegarriak izan diren; ez dut jardunbide eraginkor bat deskribatu adierazteko bera zer izan behar izango zatekeen eta aurrerantzean zer izango den: saiatu naiz argitzen bere baitan –bere neurriak hartzeko eta bere eskakizunak zehazteko– nik erabili dudana deskribatzeko aukera bat, ondo ezagutu gabe berak ezartzen dituen betebeharrak eta bere baliabideak; esan dudana eta esan nezakeena ikertzen baino gehiago ahalegintzen naiz agerrarazten nik esaten nuena ahalezkoa egiten zuena, berari dagokion eta nik oker menderatzen nuen erregulartasunean. Baina era berean ikusten da ez dudala hemen teoria bat garatzen, hitzaren zentzu estu eta gogorrean: alegia, axioma kopuru jakin batetik ateratako eredu abstraktu baten dedukzioa, aplikatutako dakioketena deskribapen empirikoen zehaztugabeko kopuru bati. Era horretako eraikin baten garaia, bera inoiz ahalezkoa izango bada, ez da oraindik heldu. Eraketa diskurtsiboen azterketa ez dut ateratzen enuntziatuen definizio batetik, oinarri gisara balioko lukeena; enuntziatuen izaera ez dut ateratzen, ez eta eraketa diskurtsiboen izaeratik ere, hau deskribapen honen edo bestearen abstrakzioetik ondorioztatua; haatik, ahalegintzen naiz erakusten nola antola daitekeen, hutsik gabe, kontraesanik gabe, barruko arbitrariotasunik gabe, eremu bat non auzitan jartzen diren enuntziatuak, eurak multzokatze hastapena, eurek osa ditzaketen batasun historiko handiak, eta eurak deskribatzea baimentzen duten metodoak. Ez dut dedukzio linealaren bidez jokutzen, zirkulu zentrokideen bidez baino, eta orain kanpokoetarantz orain barrukoetarantz jotzen dut: diskurtsoaren jarraitasun-ezaren eta enuntziatuaren singularitasunaren arazotik abiatuta (gai zentrala), periferian, multzokatze enigmatikoen forma batzuk aztertzen ahalegindu naiz; baina agertu zaizkidan bateratze-hastapenak ez dira ez gramatikalak, ez logikoak, ez psikologikoak, eta ondorioz ezin dute eraman ez esaldietara, ez proposizioetara, ez erreferentzioetara, eta behartu naute erdi-puntura itzultzera, enuntziatuaren arazora; enuntziatuaz zer ulertu behar den argitzen ahalegintzera. Eta «zirkulua itxi» ahal izan badut eta erakutsi ahal izan badut eraketa diskurtsiboen azterketa ondo zentratuta dagoela enuntziatuaren beraren deskribapen baten inguruan (laburbilduz, erakutsi ahal izan badut enuntziatuaren berezko dimentsioak direla jokoan daudenak eraketa diskurtsiboen kokapenean), orduan kontsideratuko dut ez eredu teoriko zorrotz bat eraiki dudala, baizik eta deskribapen-eremu koherente bat askatu dudala, eta honen eredu finkatu ez badut, gutxienez bere ahalbidea ireki eta egokitu dudala. Teoria bat bere eskubide osoan oinarritu beharrean –eta hori egin ahal izan aurretik (ez dut esango sentitzen ez dudala oraindik lortu ez izanak)– kontua da oraingoz bere ahalbidea finkatzea.

Enuntziatua aztertzean aurkitu dena izan da zeinu-multzoetara daraman funtzioa, zeina ez den identifikatzen ez «onargarritasun» gramatikalarekin, ez zuzentasun logikoarekin, eta zeinak gauzatzeko zera behar duen: erreferentzial bat (ez dena zehazki gertaera, ez gauzen egoera, ez objektua, baizik eta bereizte-hastapena); subjektua (ez hiztunaren kontzientzia, ez formulazioaren egilea, baizik eta posizioa, baldintza jakin batzuen pean bete dezakeena edozein gizabanako ezberdinek); berari lotutako arloa (formulazioaren benetako testuingurua ez dena, ezta bera artikulatua izan den egoera ere, baizik eta beste enuntziatuentzako izankidetasun-eremua); materialtasuna (ez dena substantzia bakarrik edo artikulazioaren euskarria, baizik eta estatutua, transkribatze-arauak, erabilpen eta berrerabilpen aukerak). Alabaina, eraketa diskurtsiboen izenaren pean deskribatu dena, zentzu estuan, enuntziatu-multzoak dira. Hots, hitzeko jardute-multzoak, elkarren artean uztartzen ez direnak esaldien mailan lotura gramatikalen bidez (sintaktikoak edo semantikoak); uztartzen ez direnak elkarren artean proposizioen mailan lotura logikoen bidez (koherentzia formalekoak edo kateaketa kontzeptualekoak); uztartzen ez direnak lotura psikologikoen bidez (bai kontzientzia formen berberatasuna, bai mentalitateen konstantzia edo egitasmo baten errepikapena); baizik eta uztartzen direnak enuntziatuen mailan. Honek inpliketzen du definitu ahal dela

bere objektuek obeditzen duten erregimen orokorra, sakabanaketa era bat, euren zertaz hitz egiten duten banatzen duena erregularki, eta euren erreferentzialen sistema; honek inplikitzen du enuntziatio-modu ezberdinek obeditzen duten erregimen orokorra definitzea, baita definitzea ere jarrera subjektiboen ahalezko banaketa eta eurak definitzen dituen eta derrigortzen dituen sistema; honek inplikitzen du definitzen dela berarekin uztarturiko eremu guztien erregimen komuna, eremu horiek guztiek har ditzaketen ondorengotza, aldiberekotasun eta errepikapen erak, eta izankidetasun-arlo hauek guztiak elkarren artean uztartzen dituen sistema; honek inplikitzen du, azkenik, definitu ahal dela enuntziatu horien estatusa mendearen erregimen orokorra, eurak instituzionalizatzeko modua, eurak hartzeko, erabiltzeko, berrerabiltzeko, elkarren artean konbinatzeko modua, eurak jabetzeko objektuak bihurtzeko modua eta baita gurariaren edo interesaren tresnak estrategia baten osagaiak bihurtzeko modua ere. Enuntziatuak deskribatzea, euren daroaten enuntziatio-funtzioa deskribatzea, funtzio hau zer baldintzatan gauzatzen den aztertzea, berak suposatzen dituen eremu ezberdinak eta eurak artikulatzen diren moduak zeharkatzea izango da eraketa diskurtsibo modura banakotu ahal izango denari argitasuna ematen ahalegintzea. Edo gauza bera adierazteko, baina kontrako norabidean, zera esango dugu: eraketa diskurtsiboa izango da hitzeko jardute-multzo batek obeditzen duen enuntziatio-sistema orokorra –ez da sistema hau multzo horretan agintzen duen bakarra, beste batzuei ere obeditzen die-eta, bere beste dimentsioen arabera sistema logikoari, hizkuntzakoari eta psikologikoari–. «Eraketa diskurtsibo» modura definitu denak esandako gauzen plan orokorra zatikatzen du enuntziatuen maila espezifikoa. Bera aztertua den lau norabideak (objektuen eraketa, jarrera subjektiboen eraketa, kontzeptuen eraketa, hautaketa estrategikoen eraketa) enuntziatio-funtzioa gauzatzen den lau eremuei dagozkie. Eraketa diskurtsiboak testuaren edo liburuaren batasun erretoriko handiekiko askeak badira, ez badute lege modura arkitektura deduktiboaren zorrotasuna, ez badira identifikatzen egile baten obrarekin, zeragatik da: jokoan sartzen dutelako enuntziatio-maila bera ezaugarritzen duten erregulartasunekin, eta ez, ordea, esaldien gramatika maila, edo proposizioen maila logikoa, edo formulazioen maila psikologikoa.

Hortik abiatuz, aurrera daitezke azterketa hauen guztien bihotzean dauden proposizio batzuk.

1. Esan daiteke eraketa diskurtsiboen kokapenak, kontuan izan gabe litezkeen beste bateratze-hastapenak, argitasuna ematen diola enuntziatuaren berezko mailari; baina esan daiteke, halaber, enuntziatuen deskribapenak eta enuntziatio-maila antolatzen den moduak eraketa diskurtsiboak banakotzera daramatela. Bi ikuspegiak berdin dira justifikagarriak eta alderantzgarriak. Enuntziatuaren azterketa eta eraketarena biak elkarrekikotasunean gauzatzen dira. Azkenean, historia oinarritzeko eguna etorriko denean, ordena deduktibo bat definitu beharko da.

2. Enuntziatua eraketa diskurtsiboari dagokio, esaldia testuari dagokion bezalaxe, eta proposizioa osotasun deduktiboari dagokion bezalaxe. Baina esaldi baten erregulartasuna hizkuntzaren legeen bidez definitzen den artean, eta proposizioarena logikaren legeen bidez, enuntziatuen erregulartasuna eraketa diskurtsiboaren beraren bidez definitzen da. Bere parte-izatea eta bere legea gauza bera dira; hau ez da paradoxikoa, eraketa diskurtsiboa ez delako ezaugarritzen eraikitze-hastapenen bidez, baizik eta benetako sakabanaketa baten bidez, bera ez baita enuntziatuarentzat ahalbide-baldintza, baizik eta izankidetasun-legea, eta enuntziatuak, berriz, ez baitira elkar trukagarriak diren osagaiak, baizik eta euren izateko moduak ezaugarritzen duten multzoak.

3. Gorago iradoki den «diskurtsoaren» definizioari zentzu osoa eman ahal zaio orain. Diskurtso izena emango zaio enuntziatu-multzo bati eurak eraketa diskurtsibo berari dagozkion neurrian; berak ez du eratzen batasun erretoriko edo formal bat, amaigabe errepika daitekeena eta bere agerpena eta historian egiten den bere erabilpena zehaztu daitekeena (eta behar izanez gero azaldu daitekeena); bera enuntziatuen kopuru mugatu batek osatzen du, euren bidez izateko baldintza-multzo bat definitu ahal izango delarik. Diskurtsoa horrela ulertuta ez da era ideal eta intenporala, historia ere baduena; arazoa ez da nork bere buruari galdegitea nola eta zergatik azaleratu eta gorpuztu ahal izan den denboraren une honetantxe; bera hasi eta bukatu arte historikoa da –historiaren zatikia, historian bertan ematen den batasuna eta jarraitasun-eza, bere buruaren mugen arazoak planteatuz, bere zatiketen arazoa, bere eraldaketena, batik bat bere denboratasunaren modu bereziena eta ez hainbeste bere bat-bateko azaleratzearena denboraren konplizitatearen erdian.

4. Azkenik, «jardute diskurtsibo» deritzona zehatz daiteke orain. Ezin da nahastu ideia bat, nahi bat, irudi bat formulatzeko banako baten eragiketa adierazkorrarekin; ezin da nahastu ere inferentzia-sistema batean jardunean egon daitekeen ekimen arrazionalarekin; ezin da nahastu ere subjektu hitz baten «gaitasunarekin»; arauen sistema bat da, arau anonimoak, historikoak, garai jakin bat definitu duten denboran eta espazioan mugatutakoak beti, eta gizarte, ekonomia, geografia eta hizkuntza esparru baterako enuntziatio-funtzioaren jardute-baldintzak.

Azterketa iraultzea besterik ez zait geratzen eta, eraketa diskurtsiboak eurek deskribatzen duten enuntziatuei uztarturik, bilatzea beste norabide batean, kanporantz orain, adigai horien erabilera legitimoa: zer den hauen bidez aurki daitekeena, nolatan txerta daitezkeen deskribatzeko beste metodo batzuen artean, zer neurritan alda eta birbana dezaketen ideien historiaren eremua. Baina iraulketa hau zertu aurretik eta segurtasun handiagoz gauzatzeko bera, pittin bat luzatuko naiz ikertu berria dudan eremuan, eta ahaleginduko naiz zehazten enuntziazio-arloaren eta bera eteten duten eraketen azterketak zer eskatzen duen eta zer bazterten duen.

IV.

Bakantasuna, kanpokotasuna, metaketa

Azterketa enuntziatiboak bakantasan-efektua hartzen du kontuan.

Gehienetan, diskurtsoaren azterketa osotasunaren eta pletoraren zeinuen artean kokatzen da. Erakusten da kontuan hartzen diren testu ezberdinak nola dauden elkarren artean uztartuta, nola antolatzen diren irudi bakar batean, nola bateratzen diren erakundeekin eta jarduteekin, eta nola diren garai oso baten bereizgarriak izan daitezkeen esanahien eramaileak. Kontuan hartutako osagai bakoitza atzeman da osotasun baten adierazpen gisara, zeinaren zatia den eta gainditzen duen. Honela, esandako gauzen aniztasunaren ordeztu nolabaiteko testu uniforme handi bat ipintzen da, orain arte sekula artikulatu ez dena eta lehenengo aldiz daramana gizon-emakumeek «esan nahi» izan dutenera ez bakarrik euren hitzetan eta testuetan, euren diskurtsoetan eta idazkietan, baizik eta erakundeetan, jarduteetan, euren ekoizten dituzten teknikan eta objektuetan. «Zentzu» inplizitu, subirano eta komunitario honi dagokionean enuntziatuak modu oparoan ugaritzen dira, zentzu horretara bakarrik igortzen dute-eta guztiek, eta berak bakarrik osatzen du euren benetako esanahia: osagai esanguratsuen pletora esanahi bakar horrekin harremanean. Baina lehena eta azkena den zentzu hau ageriko formulazioen bidez sortzen denez, bera ezkututzen denez agertzen denaren ostean, sekretuki bera bitan banatzen duenaren ostean, honexegatik diskurtso orok esaten zuenaz beste zerbait esateko ahalmena gordetzen zuen bere baitan, zentzu askotasuna bilduz horrela: adieraziaren pletora adierazle bakarrarekiko. Ikuspegi honetatik jorratuta diskurtsoa aldi berean betetasun eta aberastasun mugagabea da.

Enuntziatuen eta eraketa diskurtsiboen azterketak norabide guztiz kontrakoa irekitzen du: berak zehaztu nahi du enuntziatu diren multzo adierazle bakarrak azaldu ahal izateko hastapena. Bakan-tasun-hastapena finkatzea bilatzen du. Eginbehar honek zenbait aspektu ezberdin biltzen ditu:

– Dena ez dela sekula ere esaten, hori da bere oinarrian dagoen hastapena; enuntziatuek (berdin da eurak asko izanda ere) beti defizita dute hizkuntza osagaien konbinatoria mugagabeari dagokionean; garai jakin baten esku dagoen gramatikatik eta hiztegiaren altxorretik abiatuta esaten diren gauzak gutxi samar dira guztira. Beraz, bakantasan-hastapena bilatuko da, edo gutxienez bilatuko da ahalezko formulazioen arloa osorik ez-betetzearen hastapena, arlo hori hizkuntzak irekitzen duen gisakoa izanik. Eraketa diskurtsiboa aldi berean agertzen da etendura-hastapen bezala diskurtsoen nahasketan, eta hustasan-hastapen bezala hizkuntzaren eremuan.

– Enuntziatuak jorratzen dira esaten ez denaz banantzen diren muga, eurak sorrarazten dituen instantzian gainerako enuntziatu guztiak baztertuz. Kontua ez da inguratzen dituen mututasunari hitz egin eraztea, ezta berreskuratzea ere euren edo euren inguruan isildu dena edo isilarazi dena. Kontua ez da aztertzea aurkikuntza hori eragotzi duten trabak, formulazio hori atxiki dutenak, enuntziazio-
-era jakin bat errefusatu dutenak, ezta adierazpen inkontziente jakin bat, edo bilakatzen den arrazionaltasun jakin bat aztertzea ere; kontua da, haatik, presentzien sistema mugatu bat definitzea. Eraketa diskurtsiboa ez da, hortaz, garatzen doan osotasuna, berezko dinamismoa eta inertzia duena, berarekin daramana (formulatu gabeko diskurtso batean) berak ez dioena, baita oraindik esan ez duena ere eta baita momentuan bertan berarekin kontraesanean dagoena ere; ez da ernetze aberatsa eta zaila, baizik eta hutsuneen, ez egoteen, muga, ebakiduren banaketa da.

– Hala eta guztiz ere, «bazterte» hauek ez dira lotzen arbuio batekin edo errepresio batekin; ez da suposatzen ageriko enuntziatuen azpitik badela zerbait ezkutuan dagoena eta azpian datzana. Enuntziatuak aztertu dira ez beste enuntziatu batzuen

ordez baleude bezala, azaleratze lerroaren azpitik, baizik eta beti eurei dagokien lekuan baleude bezala. Berriro jartzen dira guztiz zabalduko den espazio batean, berarekin inolako emendatzerik ekarriko ez duen espazioan. Ez dago testurik azpian. Beraz, ez dago pletorarik. Enuntziazio-eremua berari dagokion azaleran dago oso-osorik. Enuntziatu bakoitzak berari bakarrik dagokion lekua betetzen du. Enuntziatu baten deskribapena ez da, beraz, zein ez-esandakoren lekua betetzen duen aurkitzea; ezta aurkitzea ere nola murriz daitekeen bera testu isil eta komun batera; haatik, aurkitu behar da zer leku berezi betetzen duen, zer adarkadurak baimentzen duen eraketa-sisteman bere kokapena zehaztea, nola bakartzen den enuntziatuen sakabanatze orokorrean.

– Enuntziatuen bakantasunak, enuntziatio-arloaren era zatikatu eta xehatuak, denera gauza gutxi batzuk esan ahal izateak, horrek guztiak azaltzen du enuntziatuak ez direla, arnasten den airearen gisara, amaigabeko gardentasuna; baizik eta transmititzen eta gordetzen diren gauzak direla, balio bat dutenak eta gureak egin gura ditugunak; errepikatzen dira, erreproduzitzen dira, eta eraldatzen dira; aurrez ezarritako zirkuituak gertatzen dira gauza horientzat eta erakundean estatus bat atxikitzen zaie; bitan banatzen dira ez bakarrik kopiaren edo itzulpenaren bidez, baizik eta exegesiaren bidez, iruzkinaren bidez eta barruan zentzua ugarituz. Enuntziatuak bakanak direnez, batzen dituzten osotasunetan biltzen dira, eta bakoitzaren baitan dagoen zentzua biderkatu egiten da.

Enuntziatuen bakantasun efektiboan oinarriturik eraketa diskurtsiboen azterketak bakantasunari berari begiratzen dio bakarrik, existi daitezkeen interpretazioez bereiziz, interpretazio hauentzat bakantasun hori ezezaguna izan arren eta gai modura hartzen duten arren esandakoaren aberastasun trinkoa; bera sistema berezia mugatzen ahalegintzen da; eta aldi berean azalpena ematen dio berak interpretazioa eduki ahal izateari. Interpretatzea, enuntziatuaren pobrezia irazteko modua da, eta baita bera konpentsatzeko ere zentzuen biderketaren bidez; hitz egiteko modu bat pobrezia horretatik abiatuta eta baita berari aurre eginda ere. Baina eraketa diskurtsibo bat azterteza pobrezia horren legea bilatzea da, bera neurtzea eta bere berezko forma mugatzea. Horregatik, neurri batean, enuntziatuen «balioa» pisatzea da. Balio hori ez da definitzen enuntziatu horien egiazkotasunagatik, ez da juzgatzen ezkutuko eduki bat dagoelako; haatik, euren lekua ezaugarritzen du, euren zirkulatze eta aldatze gaitasuna, euren eraldatzeko ahalmena, ez bakarrik diskurtsuaren ekonomian, baizik eta, oro har, iturri bakanen kudeaketan. Horrela bururatua, diskurtsua ez da gehiago izango jarrera exegetikoarentzat dena: alegia, agortezineko altxorra, beti aberastasun berriak, beti ustekabekoak, eman ditzakeena; beti alde zurretik hitz egin duen probidentzia, atzera begirako orakuluak ulertarazten dituenak, berari entzuten baldi badakigu: ondasun baten modura agertzen da –amaitua, mugatua, nahigarria, erabilgarria– agertzeko bere arauak dituenak eta baita eskuratzeko eta erabiltzeko bere baldintzak ere; ondorioz bere izateak (eta ez bere «erabilpen praktikoetan» bakarrik) boterearen arazoa planteatzen duen ondasuna; berez borroka baten gaia, borroka politiko baten gaia, den ondasuna.

Beste ezaugarri berezi bat: enuntziatuen azterketak kanpokotasunaren forman jorratzen ditu eurak. Oro har, barrukotasunaren eta kanpokotasunaren kontrakotasunak esandako gauzen deskribapen historikoa zeharkatzen du oso-osorik; eta kanpokotasun horretatik –zeina izango litzatekeen kontingentzia edo premia materiala, gorputz ikusgaia edo egia ez den itzulpena, besterik ez– barrukotasun esentzialerantz itzultzeko eginbeharrari menderatuko zaio oso-osorik. Esan izan denaren historiari ekitea adierazpenaren lana berriro zeharkatzea da, baina kontrako norabidean: denboraren harian eta espazioan barreiatuta gordetako enuntziatuetatik bueltan itzultzea euren aurrekoa izan den barrukotasun ezkuturantz, eurentan txertatua izan den barrukotasunerantz, eurek traizionatu dutena (hitzaren zentzu osoan). Horrela askatua geratzen da subjektibotasun fundatzailearen korapiloa. Subjektibotasun honek beti bigarren mailan iraungo du ageriko historiarekiko; gertaeren azpian beste historia bat aurkitzen du, serioagoa, ezkutukoagoa, oinarritzekoagoa, jatorritik gertuago, bere azken ostertzari hobeto lotua (eta ondorioz, hobeto jabetuta bere mugapen guztiez). Beste historia hau, historiaren azpian lasterka doana, berari aurrea hartzen diona etengabe eta iragana biltzen duena mugagabeki, pentsamoldeen bilakaera modura deskriba daiteke –era soziologiko edo psikologiko batean–; estatus filosofikoa atxiki dakioke Logosaren bilketan edo arrazoiaren teleologian; ahaleginak egin daitezke, azkenik, bera arazteko arrasto baten problematikan, hau izango litzatekeelarik, batez ere, hitza, inskripzioaren irekidura eta denbora geroratuaren urrunketa; beti gai historiko-
-transzendental da jokoan dagoena.

Gai honetan azterketa enuntziatiboa bere burua askatzen ahalegintzen da. Enuntziatuak euren sakabanatze hutsera bihurtzeko. Eurak azterteko kanpokotasun batean, kanpokotasun hau zalantzarik gabe paradoxikoa izango da ez daramalako, inolaz ere ez, bere kontrako barrukotasun forma batera. Eurak kontsideratzeko euren jarraitasun-ezean, eurak lotu gabe (zirkuitutik kanpo uzten dituen eta funtsik gabeko bihurtzen dituen desdoitze bategatik) oinarritzekoagoa den

irekidura edo ezberdintasun bati. Eurak bat-batean sartzen direla antzemateko, gertatzen den lekuan eta unean bertan. Eurak gertatzeak zer eragin duen aurkitzeko berrir. Zalantzarik gabe, kanpokotasunaz baino hitz egin beharko litzateke «neutraltasunaz»; baina hitz horrek berak errazegi darama sinesmena eskegitzera, edozein existentzia posizio ezabatzen edo parentesi artean jartzera, berrir aurkitu behar denean nola banatzen diren gertaera enuntziatiboak hor kanpoan, euren bakantasan, euren hutsuneen arteko auzotasunean, hedatutako euren espazioan.

– Eginbehar honek suposatzen du enuntziatuen arloa ez dela deskribatu behar beste inon (gizakien pentsamenduan, konstituzio transzendentalen eremuan) garatzen diren eragiketen edo prozesuen «itzulpen» gisara; baizik eta onartu behar dela, bere apaltasun empirikoan, gertaeren, erregularitasunen, harremanen, aldaketa zehatz batzuen, eraldaketa sistematikoen gune legez; laburbilduz, tratatu behar dela ez beste zerbaiten emaitza edo arrasto bezala, baizik eta eremu praktiko bezala, autonomoa dena (mendekoa den arren) eta bere mailan deskriba daitekeena (nahiz eta bera ez den beste zerbaiten baitan artikulatu behar).

– Suposatzen du, gainera, enuntziatio-eremua ez dagokiola ez subjektu banako bati, ez kontzientzia kolektiboaren gisako zerbaiti, ez subjektibotasun transzendental bati; baizik eta deskribatzen dela eremu anonimo baten modura, non konfigurazioak definitzen duen subjektu hitzunen ahalezko lekua. Ez da beharrezkoa enuntziatua kokatzea subjektibotasun subirano batekin uztartua, haatik subjektibotasun hitzunen forma ezberdinetan ezagutu behar dira enuntziatio-eremuari berezkoak zaizkion ondorioak.

– Beraz, suposatzen du bere eraldaketetan, bere segidako sailetan, bere deribazioetan, enuntziatuen arloak ez diola obeditzen kontzientziaren denboratasunari bere beharrezko eredia bailitzan. Ez da itxaron behar –maila honetan eta deskribapen era honetan gutxienez– esandako gauzen historia bat idatzi ahal izango dela, eskubide osoz izango litzatekeena, bere forman, bere erregularitasunean eta bere naturan, kontzientzia banako edo anonimo baten historia, egitasmo batena, asmoen sistema batena, asmoen multzo batena. Diskurtsoen denbora ez da pentsamenduaren denbora ilunaren itzulpena, kronologia ikusgai batera.

Enuntziatuen azterketa, beraz, cogitoaren aipamenik gabe gauzatzen da. Ez du planteatzen hitz egiten duenari buruzko arazoa, zeina agertzen den edo ezkutatzen den esan duen horretan, bere askatasun subiranoa gauzatzen duena hitzaz baliatuz, jabetu gabe gaizki hautematen dituen eginbeharretara makurtzen dena. Berez «esaten da» delakoaren mailan jartzen du bere burua, eta horrekin ez da ulertu behar iritzi komun baten modura, banako orori ezartzen zaiona talde errepresentazio baten modura; ez da ulertu behar ahots handi anonimo baten gisara, nahitaez bakoitzaren diskurtsoaren bidez hitz egingo lukeena; haatik, berarekin ulertu behar da esandako gauzen multzoa, beha daitezkeen harremanak, erregularitasunak eta eraldaketak, eremu bat non irudi batzuek, gurutzatze batzuek, adierazten duten subjektu hitzunen leku berezia, egilearen izena jaso dezaketelarik. «Ez du axolarik zeinek hitz egiten duen», aitzitik garrantzitsua da ez duela axolarik nondik esaten duen esaten duen hori. Bera kanpokotasunaren jokoan dago harrapatua nahitaez.

Enuntziatio-azterketaren hirugarren ezaugarria: bera metatze forma berezi batzuei zuzenduta dago, eta hauek ezin diren identifikatu ez oroimenaren moduko barneratze batekin, ez agirien orohartze aiherga batekin. Ohikoa denez, dagoeneko zertu diren diskurtsoak aztertzean, euren inertzia esentzial baten eragina dutela kontsideratzen da: eurak gorde ditu halabeharrak edo gizon-emakumeen arretak eta euren hitzen balioaz eta duintasun hilezkorraz egin ahal izan dituzten ilusioek; baina aurrerantzean grafismoak baino ez dira izango, liburutegien hautsuen artean pilatutakoak, amets batean lo, etengabe amets horretarantz labaintzen joan direlarik ahoskatuak izan direnetik, ahaztuak izan direnetik eta euren eragin ikusgarria denboran galdu denetik. Asko jota, eta zorionez, berriz har daitezke kontuan irakurketan berrir aurkitzen direnean; asko jota, aurki daiteke euren baitan ikurrak daramatzatela eurak enuntziatu zireneko unera igortzen dutenak; asko jota, behin deszifratuta ikur hauek, denbora zeharkatzen duen oroimen moduko baten poderioz, aska ditzakete esanahiak, pentsamenduak, nahiak, lurperatutako mamuak. Lau hitz hauek: irakurketa, ikurra, desziframendua, oroimena (berdin da zein pribilegio ematen zaion hauekako batari edo besteari, berdin da zer hedadura metaforiko atxikitzen zaion, beste hirurak berriz kontuan hartzea baimentzen diona) sistema bat definitzen dute, zeinak baimentzen duen ohiturarekin iraganeko diskurtsoa bere inertziatik ateratzea eta une batez galdutako bere bizitasuna berraurkitzea.

Baina, azterketa enuntziatiboari dagokiona ez da testuak iratzartzea euren oraingo ametsetik, berriz aurkitzeko euren jaiotzaren argitasuna, euren azalera oraindik ikusgai diren arrastoak xarmatuz; kontua da, haatik, euren jarraitzea euren ametsean zehar, edo, are gehiago, ametsaren, ahanzturaren, galdutako jatorriaren gaiak batzea eta bilatzea zer existentzia moduk ezaugarritzen dituzten enuntziatuak, kontuan izan gabe euren enuntziatio denboraren sendotasunean, non euren irauten duten, non eurak gordetzen diren, non eurak suspertuak eta erabiliak diren, non eurak ahaztuak eta beharbada suntsituak diren, baina ez jatorrizko patu batengatik.

– Azterketa honek suposatzen du enuntziatuak kontuan hartzen direla eurei dagokien remanentzian (*rémanence*) eta remanentzia hau ez da beti egunera daitekeen iragandako formulazioaren gertaerara jotzea. Enuntziatuak remanenteak direla esatea ez da esatea oroimenaren eremuan geratzen direla edo berriro aurki daitekeela eurek zer esan gura duten; haatik, honek esan nahi du gordetzen direla euskarri eta teknika material batzuei esker (hauen artean liburua adibide bat besterik ez da) mota batzuetako erakundeen arabera (beste askoren artean liburutegia) eta zenbait eratako estatutuekin (hauek ez dira berdinak izango erlijio-testu batez dihardugunean edo zuzenbide-araudi batez edo egia zientifiko batez dihardugunean). Honek esan gura du, gainera, eurak hornituta daudela jardunean jartzen dituzten teknikez, euretatik eratorzen diren praktikez, eurek osatzen edo aldatzen dituzten gizarte-harremenez. Honek esan nahi du, azkenik, gauzek ez dutela guztiz existentzia modu berdina, ez dutela harreman-sistema bera euren inguruarekin, ez dituztela erabiltzeko eskema berdinak, ezta esanak izan ondoren eraldaketarako aukera berdinak ere. Remanentzia eskubide osoz enuntziatuari dagokio, denboran zehar iraute hori bakarrik une baterako egindako existentzia baten luzapen akzidentala edo zorionekoa izan arren; ahanztura eta suntsiketa zentzu batean remanentzia horren zero maila dira. Berak osatzen duen atzealdearen gainean barreia daitezke oroimenaren eta oroitzapenen jokoak.

– Azterketa honek suposatzen du, era berean, enuntziatuak berezkoa zaien eransketa (*additivité*) forman jorratzen direla. Izan ere, ondoz ondoko enuntziatuaren arteko multzokatze-motak ez dira beti berdinak eta ez dute jokutzen, sekula ere ez, segidako osagaien pilotze edo justaposizio hutsez. Enuntziatu matematikoak ez dira euren artean eransten erlijio-testuak edo jurisprudentzia-testuak bezala (batzuek eta besteek modu bereziak dituzte osatzeko, baliogabetzeko, baztertzeko, betetzeko, taldeak eratzeko, neurri handiagoan edo txikiagoan banaezinak dira eta ezaugarri berezietatik hornituak). Gainera, eransketa forma hauek ez dira ematen behingoan eta betiko eta enuntziatu-kategoria jakin baterako: gaur egungo medikuntza-behaketek corpus bat osatzen dute, eta ez dituzte obeditzen XVIII. mendean kasuak jasotzeko bete behar ziren lege berdinak; egungo matematiketik ez dituzte metatzen euren enuntziatuak Euklidesen geometriaren eredu berari jarraituz.

– Azkenik, azterketa enuntziatiboak suposatzen du kontuan hartzen direla errekurrentzia (*récurrence*) fenomenoak. Enuntziatu guztiek euren aurrekoak diren osagaien arlo bat dakarte beraiekin, arlo horren arabera kokatzen da bakoitza, baina bera berrantola eta birbana dezake harreman berriak kontuan hartuz. Bere iragana sortzen du, bere seme-alabatasuna definitzen du bere aurrekoak kontuan hartuz, bera ahalezkoa edo beharrezkoa bihurtzen duena birdiseinatzen du, baztertzen du berarekin bateragarria izan ezin dena. Eta iragan enuntziatibo hori eskuratutako egiaz hartzen du, jazo den gertaera baten modura, alda daitekeen forma modura, eraldatu behar den materia modura, edo hizketaren gaia izan daitekeen objektu modura, etab. Errekurrentzia-aukera hauei guztiei dagokienez, oroimena eta ahanztura, zentzua berriro aurkitzea edo bera zapaltzea irudi bereziak besterik ez dira, oinarrizko legeak izan barik.

Enuntziatuaren eta eraketa diskurtsiboen deskribapenak bere burua askatu behar du itzuleraren iruditik, hain ohikoa eta tematia den iruditik alegia. Bere nahia ez da une fundatzailerara itzultzea (erorketa, sortasuna, ahanztura, berreskurapena edo noraezean ibiltzea besterik ez den denbora batetik gaindi), non hitza oraindik edozein materialtasunekin uztartu gabe zegoen, non oraindik ez zegoen inolako iraunkortasunera zuzendua, non bera atxikita zegokion irekiduraren dimentsio zehaztu gabeari. Dagoeneko esandakoarentzat ez zen ahalegintzen bigarren jaiotzaren une paradoxikoa sortzen; ez zuen eskatzen itzulera punturako egunsentia. Haatik, enuntziatuak tratatzen ditu eurak harrapatuta dauden metaketaren sendotasunean, enuntziatuak metaketa hori etengabe aldatzen dutelarik, egonezina eragiten diotelarik, nahastarazten dutelarik eta tarteka suntsitzen dutelarik.

Enuntziatu-multzo bat deskribatzea irudi zatikatu eta xehatu bezala eta ez esanahi baten totaltasun itxi eta pletoriko bezala; enuntziatu-multzo bat deskribatzea kanpokotasun sakabanaketaren arabera eta ez asmo baten, pentsamendu baten, subjektu baten, barrukotasunarekin harremanean; enuntziatu-multzo bat deskribatzea metaketa baten forma bereziak aurkitzeko eta ez berraurkitzeko jatorriaren unea eta arrastoa; hau guztia ez da, egia esan, interprezio bat egunean jartzea, oinarri bat aurkitzea, egintza eratzailleak askatzea; ez da, ezta ere, arrazionaltasun bati buruz erabakitzea edo teleologia bat zeharkatzea. Gurata positibotasuna deituko nukeena ezartzea da. Eraketa diskurtsibo bat aztertzea izango da, beraz, hitzezko jardute-

-multzo bat jorratzea, enuntziatuaren mailan eta eurak ezaugarritzen dituen positibotasun erakoak; edo, laburrago esanda, eraketa diskurtsibo bat aztertzea diskurso baten positibotasun-mota definitzea da. Bakantasunaren azterketa totalitateen ikerketek ordezkatzean, kanpokotasun-harremanen deskribapena oinarri transzendentalaren gaiaz ordezkatzean, metaketan azterketa jatorriaren arazoaz ordezkatzean norbera positibista baldin bada, ni, orduan, zorioneko positibista nai z, ez dut arazorik hori onartzeko. Eta, gainera, ez da niretzat atsekabea izan, zenbait alditan (apur bat itsumustuka izan den arren), positibotasun hitza erabiltzea urrunetik adierazteko askatu nahi izan dudana mataza.

V.

A priori historikoa eta artxiboa

Diskurtso baten positibotasunak –hala nola historia naturalarenak, ekonomia politikoarenak edo medikuntza klinikoarenak– bere batasuna ezaugarritzen du denboran zehar eta banakoek ekintzez, liburuez eta testuez gaindi. Batasun honek, egia esan, ez du baimentzen erabakitzea zeinek zioen egia, zeinek arrazoitzen zuen zorroztasunez, zein lotzen zitzairen ondoen bere postulatuak, Linnæus ala Buffon, Quesnay ala Turgot, Broussais ala Bichat; ez du baimentzen, halaber, esatea euren lanetatik zein zegoen lehen xedetik, edo azkenetik, hurrena, zeinek formulatzen zuen modu errozkoean zientzia baten egitasmo orokorra. Baina baimentzen du agerraraztea zer neurritan Buffonek eta Linnæusek (edo Turgotek eta Quesnayekek edo Broussaisek eta Bichatek) hitz egiten zuten «gauza berari» buruz, euren buruak «maila berean» jarriz, edo «urruntasun berean», «kontzeptu-arlo bera» hedatuz, «gatazka-arlo berean» kontrajarriz elkarri; eta agerrarazten du, haatik, zergatik ezin den esan Darwinek eta Diderotek gauza berari buruz hitz egiten zutela, Laennecekek Van Swietenari jarraitu ziola, edo Jevonsek Fisiokratesi erantzuten ziola. Berak komunikazio-espazio mugatu bat definitzen du. Neurri bateraino murrizta den espazioa izango da, urrun dago-eta zientzia baten zabaltasuna izatetik, baldin eta zientzia hori bere bilakaera historikoan kontuan hartzen badugu, bere jatorri urrunetik hasita eta gaur egungo betetasun-puntura arte; baina espazio hori egileen arteko eraginaren jokoa baino zabalagoa izango da edo eztabaida esplizituen eremua baino zabalagoa ere. Obra ezberdinak, sakabanatutako liburuak, eraketa diskurtsibo berari dagokion testuen masa osoa –eta beste hainbat egile, elkarren artean ezagunak eta ezezagunak, elkar kritikatu, elkar baliogabetu, bata besteari zerbait kendu, elkar berriz aurkitu eta konturatu gabe euren diskurtso bereziak gurutzatzen dutenak bilbe batean (trebeak ez diren, osotasunaz jabetzen ez diren, bere luzera gaizki neurtzen duten bilbe batean)–, irudi horiek guztiek eta banakotasun ezberdin horiek ez dute zerbait komunikatzen bakarrik eurek aurreratzen duten proposizioen kateaketa logikoa dela-eta, ezta gaiak errepikatzen direlako ere edo transmititutako, ahaztutako, berriro aurkitutako esanahi baten temakeriarengatik; haatik, euren diskurtsoaren positibotasun eragatik transmititzen dute. Edo zehazkiago esanda positibotasun era honek (eta enuntziatio-funtzioa gauzatzeko baldintzek) arlo bat definitzen dute, non beharbada heda daitezkeen identitate formalak, jarraitasun tematikoak, kontzeptuen traslazioak, joko polemikoak. Horrela, positibotasunak a priori historikoa deitu ahal izango genukeenaren papera jokatzen du.

Hitz biok elkarren ondoan jarrita ondorio aztoragarri xamarra izaten dute; esamolde horrekin a priori bat adierazi gura dut izango dena ez irizpenen baliotasun-baldintza, baizik eta enuntziatuen errealitate-baldintza. Kontua ez da berriz aurkitzea zerk bihurtuko lukeen legitimoa baieztapen bat, baizik eta bakartzea enuntziatuak sortzeko baldintzak, eurak beste batzuekin existitzeko legea, euren izateko eraren modu berezia, eurak irauteko, transformatzeko eta desagertzeko hastapenak. A priori, baina ez beharbada sekula esan ezingo ziren egiena, esperientzian sekula emango ez zirena; baizik eta emana den historia batena, benetan esandako gauzen historia delako. Esamolde barbaro xamar hori erabiltzeko arrazoia zera da: a priori honek enuntziatuen kontua eman behar duela euren sakabanaketan, euren koherentzia ezagatik irekitako faila guztietan; euren elkarrekiko gainjartzean eta elkarren ordeztaritzean, euren aldiberekotasunean, bateragarria ez dena, eta euren jarraitasunean, deduzigarria ez dena; laburbilduz, ez du bakarrik argitu behar diskurtsoak ez duela zentzu bakarra edo egia bakarra, baizik eta historia bakarra duela, eta berezko historia bat, ez daramana arrotza zaion bilakaera baten legeetara. Erakutsi behar du, esaterako, gramatikaren historia ez dela orokorra izango den historia baten (arrazoien edo

pentsamolde baten historiaren) proiektzioa hizkuntzaren eta bere arazoan arlora, edozein kasutan medikuntzarekin, mekanikarekin edo teologiarekin partekatuko lukeen historia; haatik, erakutsi behar du berak historia-mota bat daramala berarekin –denboran barreiatzeko era bat, jarraitasun, egonkortasun eta berpizte era bat, garapen edo errotazio-abiadura bat– berezkoa zaiona, baita harremanik ez badu ere beste mota batzuetako historiekin. Gainera, a priori honek ez du saihesten historikotasuna: ez du egitura intenporal bat osatzen, gertaeren gainetik eta aldatzen ez den zeru batean; bera definitzen da jardute diskurtsibo bat ezaugarritzen duten arau-multzoa bezala; baina arau hauek ez zaizkie kanpotik ezartzen harremanean jartzen dituzten osagaiei; eurak nahastuta daude uztartzen duten horretantxe; eta ez badira aldatzen euren arteko txikienarekin, eurak aldatzen dituzte, eta eurekin batera atalase erabakigarria bihurtzen dira. Positibotasunen a priori ez da bakarrik denborazko sakabanaketa baten sistema; bera eraldagarria den multzo bat da.

A priori formal batzuen aurrean, hauen eskumena kontingentziarik gabe hedatzen delarik, bera irudi enpiriko hutsa da; baina bestalde, berak baimentzen duenez diskurtsuok euren benetako bilakaeraren legean antzematea, argitu ahal izan behar du nolatan era horretako diskurso batek, une jakin batean, abegi dezakeen eta jardunean ipini dezakeen, edo, alderantziz, alboratu, ahaztu, edo kontuan ez hartu, honako edo halako egitura formala. Ezin ditu argitu (genesi psikologiko edo kultural baten bidez edo) a priori formalak; baina aukera ematen du ulertzeko nolatan a priori formalek topo egiteko uneak izan ditzaketen historian, nola izan ditzaketen txertatze tokiak, oldarka sartzeko edo azaleratzeko tokiak, jardunean ekiteko eremuak edo aukerak, eta baita ulertzeko ere historia hau ezin dela izan erabat estrintsekoa den kontingentzia eta ezta bere dialektika hedatzen duen formaren beharra ere, baizik eta erregularitasun espezifiko delako. Ez litzateke ezer izango ez gozagarriagoa, baina ezta zehaztugabeagoa ere, a priori historiko hau a priori formal baten modura bururatzea baino, historia batez hornituta legokeena gainera: irudi handi, geldia eta hutsa, egun batean sortuko litzatekeena denboraren azaleran, gizakien pentsamenduan tirania bat ezarriko lukeena, inork ezingo lukeena saihestu eta ondoren bat-batean eklipse batean desagertuko litzatekeena bere aurretik inolako gertaerarik egon gabe; sinkope transzendentala, kliska egiten duten formen jokia. A priori formala eta a priori historikoa ez dira ez maila berekoak ez izaera berekoak: gurutzatzen badira, bi dimentsio ezberdin betetzen dutelako izango da.

A priori historikoen arabera artikulatutako enuntziatuak eremuak, positibotasun-mota ezberdinen arabera ezaugarritua, eta eraketa diskurtsibo ezberdinen arabera zatikatua, ez dauka lautada monotono eta mugarik gabe luzatutakoaren itxura, hasieran atxiki diodan itxura, hain zuzen «diskurtsuaren azaleraz» hitz egin dudanean; Era berean, bera ez da dagoeneko agertzen osagai inerte, lau, eta neutro bezala, non agertzen diren gaiak, ideiak, kontzeptuak, ezagupenak, bakoitza bere higiduraren arabera edo dinamika ilun batek bultzatua. Bolumen konplexu bat da orain gogoan duguna, bertan bereizten direlarik erresuma heterogeneoak, eta bertan hedatzen direlarik gainjarri ezin diren jarduteak, arau bereziei jarraiki. Ikusi beharrean, historiaren liburu mitikoan, lerrotatzen diren hitzak, zeintzuek euren aurretik eta beste leku batean sortutako pentsamenduak itzultzen dituzten ikur ikusgarrietara, jardute diskurtsiboen sendotasunean baditugu sistema batzuk enuntziatuak gertaera modura (euren baldintzak eta agertzeko eremua dutelarik) eta gauzen modura finkatzen dituztenak (euren ahalbidea eta erabilpen-arloa daramatelarik eurekin). Hauek guztiak enuntziatu-sistemak dira (gertaerak, alde batetik, eta gauzak, bestetik) eta eurak artxibo deitzea proposatzen dut.

Hitz honekin ez dut nik ulertzen kultura batek gorde dituen testu guztiak bere iraganaren agiri modura edo iraun duen bere identitatearen lekuko modura; ez dut horrekin adierazten, ez eta gizarte jakin batean dauden erakundeak ere, zeintzuek baimentzen duten erregistratzea eta gordetzea oroimenean gorde nahi diren eta askatasunez eskuragarri eduki nahi diren diskurtsuok. Hobeto esanda, haatik, berak eragiten du esandako hainbeste gauza, hainbeste gizon-emakumek hainbeste milurtekotik hona esandakoak, ez sortzea pentsamenduen lege hutsetatik edo zirkunstantzien joko hutsetik, berak eragiten du hauek ez izatea, hitzezko jardutearen mailan, espirituaren edo gauzen ordenan garatu ahal izan den seinalez tapen soila; haatik, eurak agertu dira maila diskurtsiboa berez ezaugarritzen duten harreman-joko oso bati eskerrak; irudi arrotzak izan beharrean, prozesu mutuetan pittin bat ahal iritzira txertatutakoak edo, berariazko erregularitasunen arabera sortzen dira; laburbilduz, esandako gauzak baldin badaude –eta bakarrik hauek– euren arrazoi zuzena ez da bilatu behar esandako gauzetan edo eurak esan dituzten gizon-emakumeengan, baizik eta diskurtsibotasun-sisteman, berak gertatzen duen ahaltsun edo ezintasun enuntziatiboetan. Artxiboa, hasteko, esan daitekeenaren legea da, sistema bat da enuntziatuak gertaera berezi modura agertzea arautzen duena. Baina artxiboa da, halaber, eragiten duena esandako gauza horiek guztiak ez daitezen metatu mordo amorfo batean, ez daitezen inskribatu etendurarik gabeko linealtasun batean, eta ez daitezen desagertu kanpotiko akzidente batzuen zori hutsaz; eta multzoka daitezen, oster, irudi ezberdinetan, era askotako harremanen bidez osa daitezen elkarren artean, iraun dezaten edo ezaba daitezen berariazko erregularitasunen

arabera; berak eragiten du denborarekin eurek ez dezaten atzera egin, eta distira egin dezaten batzuk oso biziki, gertuko izarrak balira bezala, berez oso urrunetik datozen arren, eta beste batzuk, garaikideak izanda ere, oso argitasun eskasarekin. Artxiboa ez da enuntziatuaren gertaera babesten duena (nahiz eta berak berehala ihes egin) eta gordetzen duena (etorkizuneko oroimenezko) bere iheslari-egoera zibila; bera da, enuntziatu-gertaeraren sustraian bertan eta ematen den gorputzean, definitzen duena hasieran bere enuntziagarritasun-sistema. Artxiboa ez da, ezta ere, berriz inerteak bilakatutako enuntziatuaren hautsa jasotzen duena, beharbada euren berpiztea ere baimentzen duena; bera da enuntziatu-gauzaren gaurkotasuna baimentzen duena; bere funtzionamenduaren sistema da; bera da diskurtsoak ezberdintzen dituen euren existentzia anizkunean eta euren berezko iraupenean zehazten dituen eta ez diskurtso baten zurrumurru nahasi handian esan den guztia batzen duena, ezta zertutako diskurtsoaren erdian izatea bermatzen diguna besterik ez.

Ahalezkoak diren esaldien eraiketa-sistema definitzen duen hizkuntzaren eta ahoskatutako hitzak modu pairakorrean jasotzen dituen corpusaren artean, artxiboak maila berezi bat definitzen du: enuntziatuaren aniztasuna sorrarazten duen jardute baten maila alegia, beste horrenbeste gertaera erregular balira bezala, tratatzeko eta manipulatzeko eskaintzen diren beste horrenbeste enuntziatu balira bezala. Berak ez dauka tradizioaren astuntasuna; eta berak ez du osatzen denborarik gabeko liburutegia, ezta liburutegi guztien lekua ere; baina bera ez da, ezta ere, ahanztura abegitsua, hitz berri guztiei bere askatasunaren jardute-eremua irekitzen diena; tradizioaren eta ahanzturaren artean jardute baten arauak agerrarazten ditu eta jardute honek baimenduko die enuntziatuei, aldi berean, irautea eta erregularri aldatzea. Bera enuntziatuak eratzeko eta eraldatzeko sistema orokorra da.

Agerikoa da ezin dela oso-osorik deskribatu gizarte baten, kultura baten edo zibilizazio baten artxiboa; ezta, ez dago zalantzarik, garai oso baten artxiboa ere. Bestalde, ezinezkoa zaigu geure artxiboa deskribatzea, arau horien baitan hitz egiten dugu-eta guk, bera da-eta esan dezakegunari –eta berari, gure diskurtsoaren objektuari– agertzeko bere moduak ematen dizkiona, bere existentzia eta koexistentzia erak ematen dizkiona, bere metatze-sistema, historikotasunarena eta desagertzearen sistema. Bere osotasunean artxiboa ez da deskribagarria, eta saihestezina da bere gaurkotasunean. Bera ematen da zatika, eskualdeka eta mailaka, zenbat eta gehiago urruntzen gaituen denborak artxibotik, orduan eta hobeto eta zehaztasun handiagoz emango da, ez dago horretaz zalantzarik: gauza muturrera eramanda, agirien bakantasunagatik izango ez balitz, bera aztertzeko beharrezkoa izango litzateke denboran al baita eta gehiena atzeraka jotzea. Eta, hala ere, nola justifikatu ahal izango litzateke artxiboaren deskribapen hau, nola argitu zerk egiten duen bera ahalezkoa, nola zehaztu berak zer lekutatik egiten duen hitz, nola kontrolatu bere eginbeharrak eta eskubideak, nola ahalegindu bere kontzeptuak mamitzen –gutxienez ikerketaren estadio batean non berak bere ahalbideak definitu ahal dituen bakarrik euren ekiteko unean–, tematzen bada eta deskribatzen baditu urrunen dauden ostertzak? Ez al zaio beharrezkoa al baita eta gehien hurreratzea berak obeditzen dion positibotasun horri eta gaur egun artxiboaz orokorki hitz egitea baimentzen duen artxibo-sistemari? Ez al zaio beharrezkoa izango, zeharka besterik ez bada, argitzea berak partekatzen duen enutziazio-arlo hori? Artxiboaren azterketak, beraz, pribilegio eskualde bat dakar berarekin. Aldi berean guregandik gertu, baina gure gaurkotasunaz ezberdina, gure oraina inguratzen duen denboraren ertzak da, bera menderatzen duena eta bera bere bestetasunean adierazten duena; bera da, guregandik at, gu mugatzen gaituena. Artxiboaren deskribapenak bere ahalbideak hedatzen ditu (baita bere ahalbideen gaineko nagusitasuna ere), hain zuzen gureak izateari utzi berri dioten diskurtsoetatik abiatuta; bere existentziaren atalasea ezartzen du esan ezin dugunaz bereizten gaituen ebakidurak, eta ezartzen du, baita ere, gure jardute diskurtsibotik at jausten denaz bereizten gaituen ebakidurak; geure hizkuntzaren kanpokotasunean ekiten da; bere lekua gure jardute diskurtsiboen arteko tartea da. Zentzu honetan baliagarria da gure diagnostikorako. Ez baimenduko digulako gure ezaugarri bereizleen taula egitea eta etorkizunean izango dugun irudia zirriborratzea. Haatik, berak gure jarraitasunetatik banantzen gaitu, berak ezabatzen du denborazko identitatea, non gustukoa dugun gure buruari begiratzea historiaren hausturak aientzeko; berak teleologia transzendentalean haria apurtzen du; eta pentsamendu antropologikoak gizakiaren izateaz edo bere subjektibotasunaz galdegiten duenean, bortizki irekitzen du bestea eta kanpoa. Horrela ulertuta diagnostikoak ez du ezartzen gure identitatearen konstatazioa bereizketen jokoen bidez. Berak finkatzen du gu ezberdintasuna garela, gure arrazoa diskurtsoen bereizketa dela, gure historia denboren bereizketa, gure nia mozorroen bereizketa. Ezberdintasuna, ahaztutako eta berriz estalitako jatorria izatetik urrun, gu garen eta guk egiten dugun sakabanaketa dela.

Artxiboaren gaurkotzeak, sekula bukatu gabekoa, sekula guztiz eskuratutakoa, ostertz orokorra osatzen du, zeinari dagozkion eraketa diskurtsiboen deskribapena, positibotasunen azterketa, enuntziatio-arloaren kokapena. Hitz eskubideak –bat ez datorrena filologoenarekin–, beraz, baimentzen du ikerketa hauei guztiei arkeologia izena ematea. Hitz honek ez du bultzatzen inolako hasieraren bilakuntzara; ez du azterketa ahaidetzen inolako indusketarekin edo inolako zundaketa geologikorekin. Deskribapen baten gai orokorra izendatzen du, dagoeneko esan denari galdekatzen diona bere existentziaren mailan: bere baitan gauzatzen den enuntziatio-funtzioan, berak partekatzen duen eraketa diskurtsiboarenean, berari dagokion artxibo-sistema orokorrarenean. Arkeologiak diskurtsoak deskribatzen ditu artxiboaren ingurunean ematen diren jardute bereziak bezala.

IV.
DESKRIBAPEN
ARKEOLOGIKOA

I.

Ideen arkeologia eta historia

Orain ikuspuntua alderantzika daiteke; errekan behera joan gaitzke atzera, eta behin eraketa diskurtsiboen eta enuntziatuen eremua zeharkatuta, behin zirriborratua euren teoria orokorra, eurak erabiltzeko ahalezko eremuetara zuzen dezakegu gure burua. Begira dezakegu pittin bat zer erabilpen atera dezakegun azterketa honetatik, beharbada modu handiki samar batean «arkeologia» deitu dudana. Bestalde, beharrezkoa da horrela deitzea: izan ere, benetan esateko gauzak oraingo nahikoa kezkarriak dira. Arazo sinple samar batetik abiatu nintzen: diskurtoaren batasun handien araberrako etendurak, baina ez obren, egileen, liburuen edo gaien araberrakoak. Eta hara non eurak finkatzeko asmo hutsarekin, harira ekarri behar izan ditudan zenbait adigai (eraketa diskurtsiboak, positibotasuna, artxiboa), eremu bat definitu dut (enuntziatuak, enuntziazio-arloa, diskurto-jarduteak), metodo baten berezitasuna sorrarazten ahalegindu naiz, izango ez dena ez formalizatzailea, ez interpretatzailea; laburbilduz, gogora ekarri dut aparatu oso bat, bere astuntasuna eta, zalantzarik gabe, bere makineria bitxia trabagarriak izango direlarik. Bi edo hiru arrazoi direla-eta: badira nahikoa metodo hizkuntza deskribatzeko eta aztertzeko gai direnak, beste bat gaineratu nahi izatea handikeriatzat jo beharra egon ez dadin. Eta, bestalde, susmagarriak egiten zitzaizkidan «liburua» edo «obraren» moduko diskurtoaren batasunak, izan ere, suposatzen nuen ez zirela ematen zuten haina berehalakoak eta nabarmenak: arrazoizkoa al da eurei kontrajartzea halako ahalegin handiarekin ezarri diren batasunak, halako kontuarekin, eta hain hastapen ilunekin, ehunka orrialde behar izan dutenak argitzeko? Eta tresna hauek guztiek azkenean mugatzen dutena, euren identitatea zehazten duten «diskurto» ospetsu horiek, nire abiapuntu empirikoa izan diren irudien berdinak al dira («psikiatria», «ekonomia politikoa» edo «historia naturala» deituak), hau da, mordo xeble haur puntuan jartzeko aitzakia modura erabili ditudan irudien berdinak? Behar-beharrezkoa da orain definitzen ahalegindu naizen adigaien eraginkortasun deskriptiboa neurtzea. Jakin behar dut ea makina dabilen, eta zer ekoitz dezakeen. Zer eskain dezake, beraz, «arkeologia» honek beste deskribapen batzuek eman ezingo luketena? Zein da halako astuna den eginbehar baten saria?

Eta berehala lehen susmo bat datorkit. Eremu berri bat aurkituko banu bezala egin dut itxura, eta, bere inbentarioa egiteko, neurtzea eta erreferentzia berriak beharko banitu bezala. Baina berez ez al naiz egon aspalditik «ideien historiaren» izenarekin ondo ezaguna den espazioan? Ez al dut berari buruz hitz egin inplizituki, baita bi edo hiru bider horretatik urruntzen ahalegindu naizenean ere? Benetan saiatu izan banantz begirada ez urruntzen, ez al nuen bere baitan aurkituko honezkero gertatua, honezkero aztertuta, bilatzen niharduen guztia? Azken batean, ideien historialari bat besterik ez naiz. Baina herabea batzuentzat, handiustea besteentzat. Bere diziplina goitik hasi eta beheraino eraberritu nahi izan duen historialaria; nahikoa antzeko zenbait deskribapenek erdietsi duten zorrotasuna eman gura izan diona; baina azterketa-mota zahar hau aldatzeko ezindurik, zientifikotasunaren atalasea gairatzen eramateko ezindurik (bai horrelako metamorfosia guztiz ezinezkoa delako, bai ez duelako izan eraldaketa hau gauzatzeko indarra), adierazten duena, irudipen huts baten modura, beti egin duela eta egin nahi izan duela beste zerbait. Laino berri oso hau paisaia berean iraun dugula ezkutatzeko, agortzeraino landutako lur-sail zahar bati lotuta. Ez nuke lasai egoteko eskubiderik izango «ideien historiatik» banantzen ez naizen artean, erakusten ez dudana artean zertan bereizten den azterketa arkeologikoa «ideien historiaren» deskribapenetatik.

Ez da erraza ideien historiaren moduko diziplina bat ezaugarritzea: segurua ez den objektua, gaizki marraztutako mugak, alde batetik eta bestetik mailegatutako metodoak, zuzenik eta finkotasunik gabeko bidea. Badirudi bi eginkizun aitortu ahal zaizkiola. Alde batetik oharren eta ertzen historia kontatzen du. Ez zientzien historia, baizik eta ezagupen inperfektuena, gaizki oinarritutakoena, sekula lortu ez dutenak bizitza temati batean barrena zientifikotasunaren forma (alkimiaren historia kimikarena baino gehiago, arimadun espirituena edo frenologiaren historia fisiologiarena baino gehiago, gai atomistikoen historia eta ez fisikarena). Gerizpeko filosofia horien historia. Literaturari, arteari, zientziei, zuzenbideari, moralari eta baita gizakiaren eguneroko bizitzari ere erasotzen diona. Mendeetako gaien historia, sekula sistema zorrotz eta banakako batean zertzen ez diren gaiak, baizik eta filosofatzen ez dutenen berezko filosofia eratu dutenak. Ez literaturaren historia, baizik eta alboko zurrumurruarena, eguneroko idazketarena, hain arin iraungitzen dena, ezen obraren estatusa ez duen sekula bereganatzen edo berehala galtzen duen; azpiliteraturen azterketa, almanakaena, aldizkari eta egunkaria, arrakasta iheskorrena, egile aitorrezinena. Horrela definituta –baina berehala ikusten da zer zaila den bere muga zehatzak finkatzea– ideien historiak kontuan du gizakien artean anonimoki mugitzen den pentsamendu amarrutsu osoa, errepresentazio-joko osoa; berak monumentu diskurtsibo galanten zirrituan eurak oinarrituta dauden zoru xehagarria agerrarazten du. Flotatzen duten hizkuntzen diziplina da, eratu gabeko lanena, lotu gabeko gaiena. Iritzien azterketa jakitearena baino gehiago, hutsegiteena egiarena baino, ez pentsatzeko moduen, baizik eta pentsamoldeen motena.

Baina, bestalde, ideien historiak dagoeneko existitzen diren diziplinak zeharkatzeko lana hartzen du, eurak jorratzeko eta berriz interpretatzeko. Berak orduan osatzen du, eremu marjinal bat baino gehiago, aztertze estilo bat, perspektiban jartze bat. Zientzien, literaturen eta filosofien arlo historikoak hartuko ditu gogoan: baina berak deskribatzen ditu ondorengo formalizazioen oinarri enpiriko eta hausnartu gabeko modura balio izan duten ezagupenak; diskurtsua transkribatzen duen berehalako esperientzia berraurkitzen ahalegintzen da; jasotako edo eskuratutako errepresentazioetatik abiatuta sistemei eta obrei jaiotza emango dien genesiari jarraitzen dio. Berak erakusten du, bestalde, nola desegiten diren pittinka-pittinka horrela osatutako irudi handi horiek: nola banatzen diren gaiak, nola bilatzen duten euren bizitza bakartua, nola eurak erabiltzeari uzten zaion edo nola osatzen diren atzera ere modu berri batean. Ideien historia, orduan, hasieren eta bukaeren diziplina da, jarraitasun ilunen eta itzuleren deskribapena, garapenen birsortzea historiaren forma linealean. Baina berak halaber, eta aldi berean, deskriba dezake, eremu batetik bestera, aldaketen eta bitartekarien joko osoa: berak erakusten du nola hedatzen den jakite zientifikoa, nola sorrarazten dituen kontzeptu filosofikoak eta literatur lanetan aldi baterako forma hartzen duen; berak erakusten du nola joan daitezkeen zenbait arazo eta adigai, filosofiaren arlotik –eurak formulatu diren arlotik, alegia– diskurtsu zientifiko eta politikoetarantz; harremanean jartzen ditu lanak erakundeekin, ohitura edo gizarte jokaerekin, teknikekin, premiekin eta jardute mutuekin. Bera saiatzzen da diskurtsuaren formarik landuenak berpizten paisaia zehatzean, jaiotzen ikusi dituen handitze eta garatze ingurunean. Bera orduan bihurtzen da interferentzien diziplina, obrak inguratzen dituzten zirkulu zentrokideen deskribapena, hauek obra horiek azpimarratzen dituztelarik, elkarren artean uztartu eta eurak ez diren guztian txertatzen dituztelarik.

Ondo ikusten da nola ideien historiaren bi paper hauek artikulatzen diren bata bestearen gainean. Bere formarik orokorrean esan daiteke ideien historiak etengabe –eta bera gauzatzen den norabide guztietan– deskribatzen duela ez-filosofiatik filosofiarako iragaitea, ez-zientifikotasunetik zientziara, ez-literaturatik obrara. Bera da jaiotza gorren azterketa, urrutiko elkarrekikotasunena, itxurazko aldaketen azpitik tematzen diren iraupenena, hamaika konplizitate itsuez aprobeztatzen diren eraketa geldoak, pittinka-pittinka korapilatzen diren eta bat-batean lanaren punta finean kondentsatzen diren irudi globalena. Genesisia, jarraitasuna, orohartzea: hauek dira ideien historiaren gai handiak, eta honegatik lotzen zai o azterketa historikoaren era jakin bati, gaur tradizionala dena. Baldintza hauetan ohikoa da historia, bere metodoak, bere eskakizunak eta bere ahalbideak horrela bururatzen dituenak –honezkero ideia zimel samarra dena– ezin burura dezala bertan behera uzten dela ideien historiaren moduko diziplina bat; edo, hobeto esanda, kontsidera dezala diskurtsuaren beste edozein azterketa-mota historiari berari traizioa egitea dela. Hala ere, deskribapen arkeologikoa ideien historia alde batera uztea da, bere postulatuak eta prozedurei uko egitea modu sistematikoan, gizakiek esan dutenari buruz guztiz beste den historia bat egitea. Batzuek ez badute antzematen eginkizun honetan euren haurtzaroaren historia, negar egiten badute haurtzaro honegatik, gogora badakarte beste garai bateko gerizpe hori, berarentzat eginga ez dagoen garai batean, honek frogatzen du benetan euren muturrerainoko fideltasuna. Baina grina kontserbatzaile honek nire asmoa indartzen du eta segurtasuna ematen dit egin nahi izan dudanari buruz.

Azterketa arkeologikoaren eta ideien historiaren artean lotuneak ugariak dira. Orain ahaleginduko naiz funtsezkoak deritzedan lau ezberdintasun zehazten: zerikusia dute berritasuna aitortzearekin; kontraesanen azterketarekin; deskribapen konparatiboekin; eta, azkenik, transformazioen kokapenekin. Itxaropena daukat puntu ezberdin hauetan antzeman ahal izango direla azterketa arkeologikoaren berezitasunak eta, beharbada, neurtu ahal izango dela bere ahalmen deskribatzailea. Oraingoz hastapen batzuk zehaztu besterik ez dut egingo.

1. Arkeologiak ez du bilatzen definitzea diskurtsoan ezkututzen edo agertzen diren pentsamenduak, errepresentazioak, irudiak, gaiak, obsesioak; baizik eta diskurtsoak eurak, diskurtso horiek araei obeditzen dien jarduteak diren neurrian. Berak ez du diskurtsoa jorratzen agiri bat bailitzan, beste zerbaiten zeinu modura, gardena izan beharko lukeen osagai modura, zeharkatu beharko litzatekeena bere zoritxarreko opakutasunean esentzialaren sakontasunarekin bat egiteko, bera gordeta dagoen leku horretan; diskurtsoa gogoan hartzen du bere berezko bolumenean, monumentu gisara. Ez da diziplina interpretatzailea: ez du bilatzen ezkutuagoan dagoen «beste diskurtso» bat. Uko egiten dio «alegorikoa» izateari.

2. Arkeologiak ez du bilatzen diskurtsoa bere aurrekoarekin, ingurukoarekin eta bere ondokoarekin, aldats samurrean, harremanetan jartzen duen trantsizio jarraitu eta sumaezina. Ez du begiratzen zer unetan bihurtu diren eurak orain direna, oraindik ez zirenetik abiatuta; ezta ere zer unetan galduko duten pittinka-pittinka euren identitatea, euren irudiaren sendotasuna deseginaz. Bere arazoa, haatik, diskurtsoa bere berezitasunean definitzea da; erakustea zer neurritan ezin zaion murriztu beste edozeini lanean jartzen dituen arauen jokia; arau horiei jarraitzea euren kanpoko muga guztietatik hauek hobeto azpimarratzeko. Bera ez doa, aurrerapen geldo batean, iritziaren arlo nahasitik berezitasunera edo zientziaren behin betiko egonkortasunera; bera ez da «doxologia» bat; baizik eta diskurtsoaren modalitateen azterketa diferentziala.

3. Arkeologia ez dago taxututa obraren irudi subiranoaren arabera; berak ez du bilatzen antzematea obra ostertz izengabetik erauzia den unea. Berak ez du aurkitu nahi puntu enigmatiko bat, non indibidualak eta sozialak bata bestea ordezkatzeko duten. Bera ez da ez psikologia, ez soziologia, eta ezta oro har sorketaren antropologia ere. Obra ez da arkeologiarentzat zatiketa egoki bat, ezta bere testuinguru orokorrean jarri behar bada ere edo berari eusten dioten kausaltasunen sarean jarri behar bada ere. Berak definitzen ditu banakoen obrak zeharkatzen dituzten jardute diskurtsiboen arauak eta motak, noizbehinka euren gainean agintzen duelarik erabat eta menderatzen dituelarik bata ere ihes egin gabe, nahiz eta batzuetan zati baten gainean agintzen duen bakarrik. Arrotza zaio subjektu sortzailearen maila, obra baten izateko arrazoiak eta bere batasunaren hastapena den neurrian.

4. Azkenik, arkeologiak ez du bilatzen atzera harira ekartzea gizakiek pentsatu, nahi, kontuan izan, egiaztatu, gogokoa izan ahal izan dutena diskurtsoa ahoskatu duten unean bertan; ez da bere asmoa biltzea korapilo iheslari bat, non egileak eta obrak identitatea aldatzen duten; non pentsamenduak bere buruaz albait eta gertuen dirauen, berberaren forma ez aldatuan, eta non hizkuntza ez den oraindik diskurtsoaren sakabanaketa espazial eta jarraituan zabaldua. Beste hitz batzuetan esanda, ez da ahalegintzen errepikatzen bere identitatean bertan bilduz esan dena. Ez da bere asmoa bere burua ezabatzea irakurketa baten apaltasun anbiguoan, zeinak etorraraziko lukeen, bere gardentasunean, jatorriaren argitasun urruna, behin-behinekoa, ia ezabatua. Bera ez da berridazketa bat baino gehiago ezta ezer ezberdina ere: alegia, ez da kanpokotasunaren forma iraunarazia, dagoeneko idatzitakoaren araututako eraldaketa. Ez da jatorriaren beraren sekreturako itzulera; diskurtso-objektu baten deskribapen sistematikoa da.

5. II.

Orijinala eta erregularra

Oro har ideien historiak diskurtsoaren arloa jorratzen du bi balio dituen eremua bailitzan; bertan kokatutako edozein osagai ezaugarri daiteke zahar edo berri modura, ezezaguna edo errepikatu modura, tradizional edo original modura; mota ertaineko edo desbideratu modura. Bereiz daitezke, beraz, formulazio bi kategoria; alde batetik, lehenengo aldiz agertzen direnak, asko balioztatutakoak eta gutxi samar direnak, euren antzeko aurrekaririk gabekoak, besteentzat behin-behineko eredu izango direnak, eta neurri horretan sorkaritzat jotzea merezi dutenak; eta, bestetik, euren buruaren jabe ez direnak, hutsalak, egunerokoak, masiboak, dagoeneko esan denetik eratortzen direnak, batzuetan bera errepikatuz hitzez hitz. Multzo bi hauetako bakoitzari ideien historiak estatus bat ematen die; eta ez du biez azterketa bera egiten: lehenengoa deskribatzean asmaketen, aldaketen, metamorfosien, historia kontatzen du atzera ere, berak erakusten du nola erauzten den egia erroretik, nola iratzartzen den kontzientzia bata bestearen ondoko bere ametsetatik, nola jasotzen diren forma berriak, bata bestearen ondoren, gaur egun gurea den paisaia emateko guri; historialariari dagokio aurkitzea eboluzio baten lerro jarraitua, puntu bakartu horietatik eta bata bestearen ondoko haustura hauetatik abiatuz. Beste multzoak, aitzitik, historia agerrarazten du inertzia eta astuntasun modura, iraganaren metaketa geldo modura eta esandako gauzen sedimentazio isil modura; enuntziatuak tratatu behar dira masa modura eta eurak bat egiten dituenaren arabera; gertaera singularra diren neurrian neutraliza daitezke; euren garrantzia galtzen dute, baita euren egilearen nortasuna ere eta agertzen diren uea eta lekua; haatik, euren hedadura neurtu egin behar da: noraino eta noiz arte errepikatzen diren, zer bidetatik hedatzen diren, zer ostertz orokor marrazten duten gizakien pentsamenduarentzat, zer muga ezartzen dioten; eta nola baimentzen duten garai bat besteen artean bereiztea bera ezaugarrituz: ondoren irudi globalen sail bat deskribatzen da. Lehen kasuan, ideien historiak pentsamenduzko gertaeren jarraitasun bat deskribatzen du; bigarrenean, ondorioen etengabeko geruzak daude; lehenengo kasuan, egien edo formen azaleratzea birsortzen da; bigarrenean, ahaztutako elkertasunak berrezartzen dira, eta diskurtsoak euren erlatibotasunera itzularazten dira atzera ere.

Egia da bi instantzia hauen artean ideien historiak harremanak mugatzen dituela etengabe; ez da sekula azterketa horietatik bata ere ez aurkitzen bere egoera garbian: berak zaharraren eta berriaren arteko gatazkak deskribatzen ditu, erdietsitakoaren erresistentzia, oraindik sekula esan ez denaren gainean ezartzen duen errepresioa, bera ezkutatzeko darabiltzan estaldurak, bera batzuetan baztertuta utzi ahal duen ahanztura; baina berak deskribatzen ditu, halaber, etorkizuneko diskurtsoak iluntzen eta, urrunetik, gertatzen dituzten baldintzak; berak deskribatzen du aurkikuntzen oihartzuna, euren hedapenaren abiadura eta zabalkundea, ordezkatzeko-prozesu geldoak edo etxeko hizkuntza ikarazten duten bat-bateko astinduak; berak deskribatzen du nola integratzen den berria dagoeneko egituratutako erdietsitakoaren arloan, berak deskribatzen du orijinalaren erorketa tradizionalaren esparrura, edo, berritua, dagoeneko-esandakoaren berragerpena, eta jatorrizkoaren eguneraketa. Baina gurutzaketa honek ez du eragozten zaharraren eta berriaren azterketa bipolarrari eustea beti. Azterketa honek jatorriaren problematika txertatzen du berriz historiaren osagai empirikoan, eta bere une guztietan: obra bakoitzean, liburu bakoitzean, testurik txikienean arazoa da, orduan, etendura-puntua berraurkitzea, ahalik eta zehaztasun handienarekin finkatzea dagoeneko-hor dagoenaren sendotasun inplizitoari dagokiona, finkatzea, halaber, bereganatutako iritziarekiko fideltasun agian nahigabekoa, halabehar diskurtsiboen legea, eta sorketaren bizitasuna, ezberdintasun murriztezinaren gaineko jauzian. Orijinaltasunen deskribapen honek, nabarmena dirudien arren, bi arazo metodologiko oso

korapilatsu planteatzen ditu: antzekotasunarena eta prozesioarena. Berak suposatzen du, hain zuzen, finka daitekeela nolabaiteko sail handi bakarra, non formulazio bakoitzak data bat hartuko lukeen erreferentzia kronologiko homogeneous arabera. Baina apur bat gertuagotik begiratuta, gertatzen al da hau Grimm, bere bokal-mutazioen legearekin, Boppen aurrekoa den modu berean eta denborazko lerro berean (honek Grimm aipatu, beraz baliatu, erabilpen berriak eman eta doikuntzak ezarri dizkiolarik)? eta Coeudoux eta Anquetil-Duperronek (grezieraren eta sanskritoaren arteko analogiak egiaztatzean) indoeuropar hizkuntzen definizioa aurreratu duten legez eta gramatika konparatzailearen sortzaileen aurrekoak diren bezala? Ez al dira Saussuren aurrekoak Pierce eta bere semiotika, Arnauld eta Lancelot eta euren zeinuari buruzko azterketa klasikoa, estoikoak eta adierazlearen teoria-sail berean eta aurrekotasun modu berean? Aurrekotasuna ez da murriztezia eta lehena den datua; berak ezin du jokatu neurri absolutuaren papera, diskurtso oro epaitzea eta orijinalaren eta errepikatzen denaren artean bereiztea baimenduko duena. Aurrekarien kokapena ez da nahikoa, berez, ordena diskurtsibo bat mugatzeko: haatik, aztertzen den diskurtoaren mendean dago, aukeratutako mailaren mendean, ezarritako eskalaren mendean. Diskurtsoa egutegi batean gararaziz, eta bere osagai bakoitzari data bat emanaz, ez da lortzen aurrekotasunen eta orijinaltasunen behin betiko hierarkia; hierarkia hau balioztatzen ahalegintzen den diskurtso sistemen araberkoa izango da beti.

Elkarren ondokoak diren bi formulazio edo gehiagoren antzekotasunari dagokionean ere zenbait arazo planteatzen ditu. Zer zentzutan eta zer irizpideren arabera baieztatu daiteke zera: «hori dagoeneko esanda dago»; «gauza bera aurkitzen da delako testu honetan»; «proposizio hau beste horren oso antzekoa da», etab.? Diskurtoaren ordenan, zer da identitatea, partziala edo osoa? Bi enuntziario guztiz berberak izateak, zentzu berberean erabilitako hitz berberetz eginak izateak, ez du baimentzen, jakina denez, eurak erabat identifikatzea. Diderotengan eta Lamarckengan, edo Benoît de Mailletengan eta Darwinengan hastapen ebolutiboaren formulazio berbera aurkitzen, ez da bururatu behar batzuegan eta besteengan gertaera diskurtsibo berberak ari garenik, denboran zehar zenbait bider errepikatuko litzatekeena. Sakona izanik, identitatea ez da, hala ere, irizpide bat; eta arrazoi gehiagorekin, oraindik, bera partziala bada, hitzak erabiltzen ez badira beti zentzu berean, edo nukleo adierazkor bera hitz ezberdinen bidez atzematen denean: zer neurritan baieztatu daiteke gai organizista bera dela argitara ateratzen dena Buffonen, Jussieuren eta Cuvieren diskurtso eta hiztegi hain ezberdinen bidez? Eta, alderantziz, esan al daiteke antolara modu berak zentzu bera duela Daubentonengan, Blumenbachengan eta Geoffroy Saint-Hilairengan? Modu orokor batean, antzekotasun bera al da Cuvierengan eta Darwinengan aurkitzen dena eta Cuvierengan eta Linnaeusengan (edo Aristotelesengan) aurkitzen dena? Ez dago formulazioen artean berezkoa den eta berehala ezagutzen den antzekotasunik: euren analogia bera kokatuta dagoen arlo diskurtsiboaren ondorioa da.

Ez da, beraz, legitimoa jorratzen ari garen testuei, supituan, euren orijinaltasun titulua eskatzea, eta galdegitea ea noblezia mailarik baduten, hauxe neurtzen baita hemen arbasoen faltan. Arazoak zentzua bakarrik izan dezake zehaztasun osoz definitutako sailetan, muga eta agindupeko guneak zehaztu diren multzoetan, nahikoa homogeneousak diren arlo diskurtsiboak mugatzen dituzten zedarrietan⁶. Baina dagoeneko-esandakoaren pilaketa handian testu bat bilatzea geroagoko testu baten antza duena «aldeztu aurretik», historian zehar arakatzea berriro aurkitzeko aurrekarien eta oihartzunen jokoa, atzeraka jotzea lehen iturrietaraino edo berriro jaitea azken arrastoetaraino, obra bati dagokionean bere tradizioei fidelotasuna edo bere murriztezinako singularitasunaren zatia agerian jartzea, bere orijinaltasun maila igoaraztea edo jaitsaraztea, Port-Royaleko gramatikariek ez dutela ezer ez asmatu esatea, edo deskubritzea Cuvierrek uste baino aurreko gehiago zituela, hauek guztiak fraka motzetan dabilzan historialarien dibertsio atseginak, baina berantiarak, dira.

Deskribapen arkeologikoak gogoan dituen jardute diskurtsiboak uztartuta egon behar dute jarraitasun-gertaerek, ez bada gura hauek modu basatian eta inozoan finkatzea, hots, merituen arabera. Bera kokatzen den mailan ez da egokia orijinaltasun-hutsalergia kontraktotasuna: berak ez du inolako balio hierarkiarik ezartzen jatorrizko formulazio baten eta urteak eta mendeak geroago zehaztasun handiagoz edo txikiagoz errepikatuko den esaldiaren artean; ez du errozkot alderik gauzaten. Berak bakarrik bilatzen du enuntziatuaren erregulartasuna ezartzea. Erregulartasuna ez zaio hemen kontrajartzen enuntziatu desbideratzailea (ez-ohikoa, profetikoa, berandutzailea, jeniala edo patologikoa) ezaugarrituko lukeen irregulartasunari iritzi arruntaren ertzetan edo ohikoagoak diren testuetan; berak izendatzen du bere existentzia segurtatzen duen eta definitzen duen funtzio enuntziatiboa gauzaten den baldintzen multzoa, edozein hitzezko jarduteetarako eta edozein dela bera (ezohikoa edo hutsala, bakarra bere generoan edo hamaika bider errepikatutakoa). Horrela ulertuta irregulartasunak ez du ezaugarritzen erdiko kokapen jakin bat kurba estatistikot baten muga artean –berak ezin izango du balio, beraz, maiztasun edo gertakortasun-indize legez; berak agertzeko arlo efektibot bat zehazten du. Enuntziatu orok erregulartasun bat darma berarekin eta ezin da beraz banandu. Ez zaio kontrajarri behar enuntziatu baten erregulartasuna

beste baten irregulartasunari (gutxiago esperoko zena, singularragoa, berrikuntzetan aberatsagoa izango zena), baizik eta beste enuntziatu batzuek ezaugarritzen dituzten enuntziatuei. Arkeologiak ez dihardu asmaketen bila; eta soraio da baten bat lehenengo aldiz egia jakin batetaz seguru egon den uneaz (une zirrargarria, onartzen dut nik hori); berak ez du bilatzen jai giroko goiz horien argitasuna berrezartzea. Baina honen helburua ez da kontuan hartzea iritziaren fenomeno ertainak eta mundu guztiak, garai batean, errepika zezakeen tonu tristea. Linnaeusen edo buffonen, Pettyren edo Ricardoren, Pinelen edo Bichaten testuetan bilatzen duena ez da santu fundatzaileen zerrenda zehaztea; jardute diskurtsibo baten erregulartasuna eguneratzea bilatzen du. Jardute hau indarrean dago, modu berean, orijinaltasun gutxiena duten bere ondorengo guztiengan, edo bere aurreko batzuegan; eta kontua ematen du ez bakarrik baieztapen orijinalenenak (beste inork amestu ez dituenak aurretik) baizik eta baita eurek hartu eta kopia egin dituztenak euren aurrekoengandik ere. Aurkikuntza bat, ikuspegi enuntziatibotik, ez da erregulartasun txikiagokoa bera errepikatzen eta zabaltzen duen testua baino; erregulartasuna ez da jardute txikiagokoa, eraginkortasun eta ekimen txikiagokoa, hutsalkeria batean eraketa bakan batean baino. Horrelako deskribapen batean, ezin da onartu izaeren ezberdintasuna enuntziatu sortzaileen (zerbait berria agerrarazten dutenak, argitaratu gabeko informazioa ematen dutenak eta nolabait «aktiboak» direnak) eta enuntziatu imitatzaileen artean (informazioa jaso eta errepikatzen dutenak, nolabait esateagatik «pasiboak» dirautenak). Enuntziatuen arloa ez da hondartza geldoen multzo bat, une emankorrekin eteten dutena; burutik burura aktiboa den eremua da.

Enuntziatio-erregulartasunen azterketa hau norabide askotan zabaltzen da, eta hau egunen batean, agian, arakatu beharko da.

1. Erregulartasun era batek ezaugarrituko du, hortaz, enuntziatu-multzo bat, eta ez da beharrezkoa izango, ezta ahalezkoa ere, bereiztea berria izango denaren eta izango ez denaren artean. Baina erregulartasun hauek –itzuliko gara gero hona– ez dira ematen behin eta betiko; ez da erregulartasun bera aurkitzen Tournefortengan eta Darwinengan, edo Lancelotengan eta Saussurengan, Pettyrengan eta Kaynesengan. Badira, beraz, arlo homogeenak eta enuntziatio-erregulartasunak (eurek eraketa diskurtsibo bat ezaugarritzen dute), baina arlo hauek bereizten dira elkarren artean. Alabaina, ez da beharrezkoa enuntziatio-erregulartasunen arlo berri batera iragaitzarekin batera horien pareko aldaketak ematea diskurtsuaren beste maila guztietan. Aurki daitezke hitzezko jarduteak, berberak direnak gramatikaren ikuspegitik (hiztegiarenetik, sintaxiarenetik, eta modu orokorrean hizkuntzarenetik); berberak direnak, era berean, logikaren ikuspegitik (proposizio-egituraren ikuspegitik, edo bera kokatuta dagoen dedukzio-sistemarenetik); baina ezberdinak direnak enuntziatio legez. Horrela, salneurrien eta zirkulazioan dagoen moneta masaren arteko harremanaren formulazioa hitz berekin gauza daiteke –edo hitz sinonimoekin– eta arrazoiketa berarekin lor daiteke; enuntziatiboki ez da berbera Gresham edo Lockerengan eta XIX. Mendeko marginalistengan; bera ez dago lotuta han eta hemen objektuak eta kontzeptuak eratzeke sistema berarekin. Bereizi behar da, beraz, hizkuntza analogiaren (edo itzulgarritasunaren), berberatasun logikoaren (edo baliokidetasunaren) eta enuntziatio-homogeneotasunaren artean. Homogeneotasun hauetaz, eta hauetaz bakarrik, arduratzen da arkeologia. Berak, hortaz, agertzen ikus dezake jardute diskurtsibo berri bat hizkuntzaz analogoak edo logikoki baliokideak dirauten formulazioen artean (esaldi-atribuzio eta aditz-kopula teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziatio-erregulartasun bat ireki dute, arkeologiak bere espezifikotasuna deskribatu behar duelarik). Alderantziz, berak hiztegi ezberdintasunak alde batera utz ditzake, arlo semantikoen edo antolaera deduktibo ezberdinen gainetik pasa daiteke, bera gauza bada errekonozitzeko han eta hemen, eta heterogeneotasun hori eta guzti, nolabaiteko erregulartasun diskurtsibo bat (ikuspuntu honetatik, ekintzazko hizkuntzaren teoria, hizkuntzen jatorri buruzko ikerketa, jatorrizko sustraian ezarpena, XVIII. mendean aurkitzen diren erara, ez dira «berriak» Lancelotek egindako azterketetikiko).

Ikusten dugu marrazten direla horrela zenbait lotura-hausketa eta artikulazio. Ezin da gehiago esan aurkikuntza batek, hastapen orokor baten formulazioak, edo egitasmo baten definizioak hasiera ematen dionik, era masibo batean gainera, diskurtsuaren historiaren aro berri bati. Ez da gehiago bilatu behar erabateko jatorria edo iraultza osoa ematen den puntua, nondik dena antolatzen den, nondik dena ahalezkoa eta beharrezkoa bihurtzen den, nondik dena deuseztatzen den atzera ekiteko. Mota eta maila ezberdinetako gertaeraz arduratzen gara, bilbe historiko ezberdinetan harturikoak; ezartzen den enuntziatio-homogeneotasun batek ez dakar berarekin inondik ere, aurrerantzean eta hamarkadetarako edo mendeetarako, gizakiek gauza bera esan eta pentsatuko dutela; ez dakar berarekin, ezta ere, zenbait hastapenen definizioa – esplizitua edo ez– gainerako guztiak horietatik eratorriko liritekeelarik ondorio modura. Enuntziatio-homogeneotasunak (eta heterogeneotasunak) hizkuntza jarraitasunekin (eta aldaketekin) gurutzatzen dira, baita identitate (eta ezberdintasun) logikoekin ere, batzuek eta besteek pauso berean joan beharra izan gabe, batak bestearen gainean agindu gabe. Hala ere,

egon behar dute euren artean harreman batzuk eta elkarren mendekotasun batzuk, eta hauen esparrua inbentariatu beharko da.

2. Ikerketarako beste norabide bat; enuntziatio-erregulartasunen barruko hierarkiak. Ikusi da enuntziatu guztiek erregulartasunen batekin dutela zerikusia –ondorioz bata ere ezingo da kontsideratu sorketa huts bezala, edo jainuaren desordena zoragarri gisara–. Baina ikusi dugu, halaber, enuntziatu bakarra ere ezingo dela ez-aktibotzat jo, ez dela joko lehen enuntziatu baten ia irrealia den kalko edo gerizpetzat. Enuntziatio-arlo osoa aldi berean erregularra da eta erne dago: ez du loak hartzen; enuntziaturik xumeenak –neurturenak edo hutsalenak– lanean jartzen ditu bere objektua, bere modalitatea, erabiltzen dituen kontzeptuak eta berak partekatzen duen estrategia eratzeko darabiltzan arau-joko guztiak. Arauok ez dira sekula ematen formulazio batean, formulazioak zeharkatzen dituzte eta koexistentzia-espazio bat osatzen dute eurentzat; ezin da, beraz, aurkitu eurak artikulatuko lituzkeen enuntziatu singularra. Hala ere, enuntziatu-multzo batzuek arau hauek erabiltzen dituzte euren formarik orokorrean eta eurak aplikatzeko erarik zabalenean; euretatik ekinda ikus daiteke nola era daitezkeen beste objektu batzuk, beste kontzeptu batzuk, beste enuntziatio-modalitate batzuk, edo beste aukeraketa estrategiko batzuk (aplikazio-eremu zehatzagoak) orokortasun txikiagoko arauetan oinarrituta. Horrela enuntziatio-deribazio zuhaitz bat deskriba daiteke: bere oinarrian, eraketa-arauak euren hedadura zabalenean lanean jartzen dituzten enuntziatuak; gailurrean, zenbait adarkaduraren ostean, erregulartasun bera, modu finagoan artikulatua, hobeto zedarritua eta kokatua bere hedaduran, lanean jartzen duten enuntziatuak.

Arkeologiak horrela diskurtso baten deribazio-zuhaitza osa dezake –eta hau da bere gai nagusienetako–. Esaterako, historia naturalarena. Berak sustraiaren aldean jarriko ditu, enuntziatu nagusien modura, egitura behagarrien eta ahalezko objektuen arloaren definizioari dagozkionak, balia daitezkeen deskribapen-erak eta hautemate-kodeak agintzen dituztenak, ezaugarritze-aukerarik orokorrenak agerrarazten dituztenak eraiki beharreko kontzeptuen esparru bat irekiz horrela, azkenik, hautaketa estrategiko bat osatuz euren ondoko aukera kopuru handiago bati lekua egiten dietenak. Eta adarren muturrean, edo gutxienez sasiarte oso baten zeharkatzean, berraurkituko ditu «aurkikuntzak» (fosilen sailak, esaterako), eraldaketa kontzeptualak, (esaterako, generoaren definizio berria), adigai ezezagunen azalera (esaterako, ugaztunena edo organismoarena), tekniken hobekuntzak (bildumen antolaera-hastapenak, sailkatzeko eta nomenklatura-metodoa). Enuntziatu nagusietan oinarritutako deribazio hau ezin da nahastu axiometan oinarritutako dedukzio batekin; bera ezin da berdindu ideia orokor baten erneketarekin, ezta filosofia muin batenarekin ere, zeinaren esanahiak hedatuko diren poliki-poliki esperientzietan eta kontzeptualizazio zehatzetan; azkenik ez da hartu behar geni psikologikotzat, aurkikuntza batean oinarritutakoa, pittinka-pittinka bere ondorioak garatuko eta bere aukerak irekiko dituen. Bere jarduera guztiez bereizten da eta bere autonomian deskribatu behar da. Horrela historia naturalaren deribazio arkeologikoak deskriba daitezke frogaezinak diren axiometatik edo bere oinarritzko gaietatik (esaterako, naturaren jarraitasuna) ekin gabe, eta abiapuntutzat eta hari nagusitzat hartu gabe lehen aurkikuntzak edo lehen hurbilketak (Tournefortenak Linnæusen aurretik, Jonstonenak Tournefortenen aurretik). Arkeologia ordena ez da ez sistematikotasunen ordena, ezta jarraipen kronologikoa ere.

Baina ikus daiteke ahalezko galderen esparru oso bat zabaltzen dela. Izan ere, ordena ezberdinok espezifikokoak izan eta bakoitzak bere autonomia duten arren, elkarren artean harremanak eta mendetasunak izan behar dituzte. Eraketa diskurtsibo batzuei dagokienean, ordena arkeologikoa ez da beharbada ordena sistematikoaz oso ezberdina izango, beste batzuetan berak, beharbada, jarraitasun kronologikoen haria jarraitzen duen legez. Paralelismo hauek (beste leku batzuetan aurkitzen diren distorsioen kontra) aztertuak izatea merezi dute. Garrantzizkoa da, edozein modutan, ez nahastea ordena ezberdin horiek, ez bilatzea hasierako «aurkikuntza» batean edo formulazio baten orijinaltasunean dena ondorioztatu eta ateratzeko hastapena; ez bilatzea lehen hastapen orokor batean enuntziatio-erregulartasunen edo banakoen asmaketen legea; ez eskatzea deribazio arkeologikoari denboraren ordena erreproduzitu dezala edo eskema deduktibo bat azalaraz dezala.

Ezer ez litzateke faltsuagoa izango eraketa diskurtsiboen azterketan aldizkatze totalitario baten ahalegina ikustea baino: momentu batetik aurrera eta aldi baterako, mundu guztiak pentsatuko luke modu berean, azaleko ezberdintasunak izan arren, gauza bera esango luke, hiztegi polimorfo baten bidez, eta diskurtso handi baten moduko bat sortuko luke, zentzu guztietan zeharkatu ahal izango litzatekeena berdinean. Haatik, arkeologiak deskribatzen du enuntziatio-homogeneotasun maila bat, bere denborazko ebakidura duena eta biltzen ez dituen berarekin hizkuntzan aurki daitezkeen identitate eta ezberdintasun gainerako forma guztiak; eta maila honetan, berak ezartzen du ordena bat,

hierarkiak, ernetze bat, zeintzuek bazterten duten sinkronia masibo bat, amorfo bat, behin eta betiko emanikoa globalki. «Garai» deritzen batasun nahasi horietan berak sorrarazten ditu, euren espezifikotasunarekin, garai enuntziatiboak, zeintzuk artikulatzen diren, baina eurekin nahastu gabe, kontzeptuen denboraren gainean, aro teorikoen gainean, formalizatze estadioen gainean eta hizkuntza eboluzioaren etapen gainean.

III.

Kontraesanak

Ideen historiak koherentzia kreditua eman ohi dio berak aztertzen duen diskurtsoari. Egiaztatuko al ditu berak irregulartasunen bat hitzen erabileran, bateraezinak diren zenbait proposizio, elkarri egokitzen ez zaizkion esanahiak, batera sistematizatu ezin diren kontzeptuak? Kasu horretan, maila sakonago edo azalekoago batean, kohesio-hastapen bat bilatu beharra dauka, diskurtsoa antolatzeke eta berari itzultzeke ezkutuko batasuna. Koherentzia-lege hau arau heuristikoa da, prozedurazko eginbearra, ikerketaren ia behar morala: hots, ez biderkatzea alferrik kontraesanak; ez harrapatua geratzea ezberdintasun txikietan; ez ematea pisu gehiegi aldaketei, damuei, iraganera itzultzei, polemikei; ez suposatzea gizakien diskurtsoa bere barruan beti eta beti dagoela azpitik janda, kontraesanagatik, euren nahiengatik, jaso dituzten eraginengatik edo bizi diren baldintzengatik; eta, aitzitik, onartzea, hitz egiten badute eta elkarriketan badihardute euren artean, kontraesan horiek gainditzeko dela eta aurkitzeko zer puntutik aurrera izan daitezkeen menderatuak. Baina koherentzia hauxe bera bada, baita ere, ikerketaren emaitza: berak definitzen ditu azterketa burutzen duten azken batasunak; berak aurkitzen du testu baten barruko antolaera, banako baten obraren garapen era, edo diskurtso ezberdinen topalekua. Bera berregiteko suposatu egin behar da bera, eta ez da segurtasunik egongo aurkitua izan denaz, ez bazaio jarraitzen nahikoa urrun eta nahikoa denbora. Bera optimum bat bezala agertzen da: irtenbidea eman zaien al baita eta kontraesan kopuru handiena al baita eta baliabide bakunenekin.

Alabaina, lanean jartzen diren baliabideak oso ugariak dira eta, horrexegatik, aurki daitezkeen koherentziak oso ezberdinak izan daitezke. Proposizioen egia eta batzen dituzten harremanak aztertuta ez-kontraesan logikoen arlo bat defini daiteke: sistematikotasun bat aurkituko da orduan; esaldien gorputz ikusgarri batetik igoko da arkitektura huts ideal batera, zeina gramatikaren anbiguotasunak, hitzen gainkarga adierazleak ezkutatu egin duten bere itzulpena egin duten neurri berean. Baina guztiz kontra, analogien eta sinboloen hariari jarraituz, aurki daiteke gai-multzo bat, diskurtsiboa baino gehiago irudizkoa dena, arrazionala baino gehiago afektiboa, nahitik gertuago kontzeptutik baino; bere indarrak adorea ematen die irudirik kontrajarrienei, baina eurak berehala nahastuko ditu geldiro eralda daitezkeen batasun batean; horrela aurkitzen dena jarraitasun plastiko bat da, zenbait irudi eta metafora ezberdin. Tematikokoak edo sistematikoak, koherentziok esplizituak izan daitezke ala ez: errepresentazioen mailan bila daitezke, hauek subjektu hitzunaren baitan kontzientek izango lirakeelarik baina bere diskurtsoak –zirkunstantziak direla-eta edo bere hizkuntzaren formari lotuta legokeen ezgaitasun bategatik– huts egin du eurak adierazteko orduan; bila daiteke, halaber, egilea mugatu duten egituretan (egileak eraikitako egituretan baino gehiago), eta muga horiek ezarriko lizkiokete, bera konturatu gabe, postulatuak, eragiketa-eskemak, hizkuntza-arauak, baieztapenen eta oinarritzko sinesmenen multzo bat, irudi-motak, edo fantasmaren logika oso bat. Azkenik, gizabanako baten mailan ezarritako koherentzia izan daiteke gaia –bere biografia, bere diskurtsoaren zirkunstantzia bereziak– baina ezar daitezke, era berean, erreferentzia zabalagoen arabera, eta eman ahal

zaizkie garai baten dimentsio kolektiboak eta diakronikoak, kontzientzia era orokor batenak, gizarte-mota batenak, tradizio-multzo batenak, kultura oso bat bateratzen duen irudimenezko paisaia batena. Forma hauen guztien pean, horrela aurkitutako koherentziak beti paper bera jokatzen du: hots, berehala ikusgai diren kontraesanak azaleko isla direla erakustea, besterik ez; eta erakustea beharrezkoa dela argitasun sakabanatuen joko hau foku bakar batera murriztea. Kontraesana, ostentzen den edo ostendua den batasun baten irudipena da: berak kontzientearen eta inkontzientearen, pentsamenduaren eta testuaren, idealtasunaren eta adierazpenaren gorputz kontingentearen arteko desdoitzean du lekua, beste inon ez. Edozein modutan azterketak kontraesana ezabatu behar du, ahal den neurrian.

Lan honen amaieran hondar-kontraesanak geratzen dira –akzidenteak, akatsak, hutsegiteak–, edo, haatik, oinarritzko kontraesana sortzen da, azterketa osoak isil-isilean eta beraren gogoz kontra eraman izan balu bezala bertara: bateraezinak diren postulatuetan jokoan jartzea, sistemaren jatorrian bertan, adiskidetu ezin diren eraginen gurutzaketa, nahiaren lehen difrakzioa, gizarte bat bere buruari kontrajartzen dion gatazka politikoa eta ekonomikoa, hau dena, deuseztatu behar diren beste horrenbeste azaleko osagai bezala agertu beharrean, hastapen antolatzaile modura agertzen da, lege fundatzaile eta sekretu modura, kontraesan txiki guztien kontu ematen duena eta euren oinarri sendoa ematen diona: laburbilduz, beste kontrajartze guztien eredu. Era horretako kontraesanak (diskurtsoaren itxura edo akzidente izatetik urrun, hedatutako bere egia askatzeko gainditu behar dena izatetik urrun) bere existentziaren legea bera osatzen du: horrelako kontraesan batetik sortzen da diskurtsoa, aldi berean kontraesana gainditzeko eta itzultzeko hasten da diskurtsoa hitz egiten; kontraesanari ihes egiteko jarraitzen du diskurtsoak etengabe eta hasten da behin eta berriz, nahiz eta kontraesan honen bidez jaiotzen den bera gelditu gabe; bera aldatzen da, eraldatzen da, bere buruari, bere jarraitasunari ihes egiten dio, beti kontraesanaren azpian dagoelako eta sekula ezin duelako bera guztiz saihestu. Kontraesanak, orduan, diskurtsoaren harian dihardu, bere historikotasunaren hastapenak bezala.

Ideien historiak, beraz, kontraesanaren bi maila ezagutzen ditu: itxurena, diskurtsoaren batasun sakonean; eta oinarriena, diskurtsoari berari lekua egiten diona. Kontraesanaren lehen mailari dagokionean, diskurtsoa irudi ideiala da erauzi behar dena euren presentzia akzidentaletik, euren gorputz ikusgarrietatik. Bigarren mailari dagokionez, diskurtsoa kontraesanek har dezaketen irudi enpirikoa da, bere itxurazko kohesioa suntsitu behar delarik euren oldartzean eta euren indarkerian. Diskurtsoa kontraesan batetik besterako bidea da: lekua egiten badie ikus daitezkeen kontraesanei, ezkututzen duenari obeditzen diolako da. Diskurtsoa aztertzea kontraesanak desagerraraztea eta berriro agerraraztea da; kontraesanek diskurtsoan jokatzen duten jokoa erakustea; nola adieraz ditzakeen aldarrikatzea, gorputza ematea euren, edo itxura iheskor bat ematea.

Azterketa arkeologikorako kontraesanak ez dira ez gainditu beharreko itxurak, ez erauzi beharreko hastapen sekretuak. Berez deskribatu behar diren objektuak dira, bilatu gabe zer ikuspuntutik aiena daitezkeen edo zer mailatan erradikalizatzen diren eta efektu izatetik kausa bihurtzen diren. Demagun adibide sinple bat, hemen zenbait aldiz aipaturikoa: Linnaeusen hastapen fixista kontraesana izan da, ez bakarrik Peloriaren aurkikuntzagatik, bakarrik aplikazio moduak aldatu dituen, baizik eta, baita ere, zenbait baieztapen «eboluzionistengatik», Buffonengan, Diderotengan, Bordeurenengan, Mailletengan eta beste zenbaitengan aurki daitezkeenak. Azterketa arkeologikoa ez datza erakustean aurkakotasun honen azpitik, eta funtsezkoago maila batean, mundu guztiak onartzen dituela oinarritzko tesi batzuk (naturaren jarraitasuna eta bere betetasuna, duela gutxiko formen eta klimaren arteko harremana, ez-bizidunetik bizidunera iragaite ia sumaezina); bera ez datza erakustean horrelako kontrakotasun batek islatzen duela gatazka orokorrago bat, historia naturalaren esparru berezian, XVIII. mendeko jakite eta pentsamendu osoaz parte hartzen duen gatazka (sorketa ordenatu baten gaiaren eta natura oparo baten gaiaren artean behin eta betiko eskuratutakoa, murrizteazineko sekreturik gabe hedatua lehena, bigarrena, berriz, botere enigmatikoduna, historian soseguz hedatzen dena eta ordena espazial guztiak ikaritzen dituen denboraren bultzada handiaren arabera). Arkeologia saiatzen da erakusten nola baieztapen biek, fixistak eta «eboluzionistak», baduten bateratzen dituen leku bat espezieen eta generoen deskribapen jakin batean: deskribapen honek organoen egitura hartzen du gaitzat (hau da, euren forma, euren handitasuna, euren kopurua eta euren kokapena espazioan); eta berak muga dezake bi eratara (organismoaren osotasunean, edo osagai batzuetan, mugatuak bai euren garrantzia kontuan izanda edo euren erosotasun taxonomikoa kontuan izanda); bigarren kasuan taula erregular bat agerrarazten da, definitutako hainbat kasuz hornitua, eta nolabait litekeen edozein sorketaren egitaraua osatzen duena (horrela espezieen eta generoen ordenaketa betiko finkatua geratzen da, oraingoa dela, etorkizuneko dela edo honezkero desagertutakoa dela); eta lehenengo kasuan, berriz, agerrarazten dira ahaidetasun taldeak, zehaztugabeak eta irekiak, bata bestearengandik bananduak, forma berriak onartuko dituztenak, kopuruz mugarik

gabe, berdin izango delarik zenbateraino dauden aurrez existitzen diren formatatik gertu. Bi tesien arteko kontraesana ez da ebazten objektu esparru jakin batetik ateraraziz, edo objektu horien mugapenetatik eta euren zatiketetatik ateraraziz; ez da aurkitzen adiskidetzepuntua. Baina ez da bera transferitzen, ezta ere, oinarritzkoago maila batera; bera kokatuta dagoen lekua definitzen da; alternatiba txertatzen den gunea agerrarazten da; dibergentzia eta bi diskurtsoak elkarren ondoan ipintzen diren lekua finkatzen da. Egituraren teoria ez da postulatu komun bat, ez da sinesmenen funtsa orokor bat, Linnaeusek eta Buffonek partekatzen zutena, ez da baieztapen sendo eta oinarritzkoa, eboluzionismoaren eta fixismoaren gatazka atzera botako lukeena eztabaida osagarri baten mailara; euren bateraezintasunaren hastapena, euren deribazioa eta batera izatea arautzen duen legea. Azterketa arkeologikoak, kontraesanak deskribatu beharreko objektutzat hartzean, ez du bilatzen euren lekuan forma eta gai komun bat aurkitzea, baizik eta euren formaren eta aldearen neurria zehazten ahalegintzen da. Ideien historia bati dagokionez, zeinak kontraesanak batu nahiko lituzkeen irudi global baten erdi-gaueko batasun batean edo interpretatzeko edo azaltzeko hastapen orokor, abstraktu eta uniforme bideratu nahiko lituzkeen, arkeologiak desakordio-espazio ezberdinak deskribatzen ditu.

Berak, hortaz, uko egiten dio kontraesana tratatzeari funtzio orokor baten gisara, diskurtsoaren maila guztietan eta modu berean diharduena eta azterketak erabat ezabatu beharko lukeena edo lehena eta osatzailea litzatekeen forma batera bideratu beharko lukeena: kontraesanaren joko handiaren ordeztasuna –mila aurpegirekin agertzen dena, gero ezabatua dena eta azkenik berriz ezartzen dena bera burutzen den gatazka nagusian– berak ipintzen du kontraesan-mota ezberdinen azterketa, eurak kokatu ahal izateko maila ezberdinak, berak gauza ditzakeen funtzio ezberdinak.

Mota ezberdinak hasteko. Kontraesan batzuk aurkitzen dira proposizioen edo asertzioen maila hutsean, ahalezkoak egin dituen enuntziatio-erregimenari inolako eraginik egin gabe: horrela XVIII. mendean fosilen animalia izatearen tesiari kontrajartzen zitzaion euren mineral izatearen tesi tradizionalagoa; bi tesi horietatik atera ahal izan diren ondorioak benetan ugariak dira eta urrun iristen dira; baina erakuts daiteke eraketa diskurtsiboan bertan jaiotzen direla, enuntziatio-funtzioa gauzatzeko baldintza beretan; kontraesan hauek arkeologikoki deribatutako dira eta egoera terminal bat osatzen dute. Beste batzuek, haatik, eraketa diskurtsibo baten mugak gainditzen dituzte, eta enuntziatio-baldintza berdinei ez dagozkien tesiak kontrajartzen dituzte: honela Linnaeusen fixismoari Darwinen eboluzionismoa kontrajartzen zaio, baina Historia naturalaren eta biologiararen arteko aldea neutralizatzen den neurrian, eta lehenari, historia naturalari, fixismoa dagokio eta bigarrenari, biologiarari, eboluzionismoa. Hauek kontraesan estrintsekoak dira, berriro daramatenak forma diskurtsibo ezberdinen arteko kontrajartzera. Deskribapen arkeologikorako (eta kontuan izan gabe hemen prozeduraren ahalezko joan etorriak), kontrajartze honek azterketaren terminus a quo delakoa osatzen du, kontraesan deribatutak terminus ad quem delakoa osatzen duen artean. Bi mutur hauen artean, deskribapen arkeologikoak kontraesan intrintsekoak dei genitzakeenak deskribatzen ditu: eraketa diskurtsiboan bertan hedatzen direnak eta, eraketa-sistemaren puntu batean jaiota, azpi-sistemak sorrarazten dituztenak: esaterako, XVIII. mendeko historia naturalaren adibideari eutsiz, azterketa «metodikoak» eta azterketa «sistematikoak» kontrajartzen dituen kontrakotasuna. Kontrakotasuna hemen ez da azken muturrekoa: ez dira bi proposizio kontraesale objektu berari buruz, ez dira kontzeptu beraren bi erabilera bateraezinak, gehiago dira enuntziatuak eratzeko bi modu, batzuk eta besteak objektu jakin batzuen bidez ezaugarritzen direnak, subjektibotasun-posizio batzuen bidez, kontzeptu batzuen eta aukeraketa estrategiko batzuen bidez. Hala ere, sistema hauek ez dira lehenak: izan ere, erakuts baitaiteke zer puntutan eratoritzen diren biak positibotasun bat eta beretik, historia naturalarena dena. Hauek kontrakotasun intrintsekoak dira, egokiak azterketa arkeologikorako.

Maila ezberdinak ondoren. Kontraesan arkeologikoki intrintseko bat ez da egite huts eta bakun bat, nahikoa lukeena hastapen modura agerrarazita edo ondorio modura azalduta. Fenomeno konplexua da eraketa diskurtsiboaren plano ezberdinetan banatzen dena. Horrela, Historia natural sistematikorako eta Historia natural metodikorako, elkarri kontrajarri zaizkionak etengabe XVIII. mendearen zati batean zehar, ezagun daiteke: objektuen desegokitasuna (kasu batean deskribatzen da landarearen itxura orokorra, bestean aurretik mugatutako aldagaiak, kasu batean landarearen osotasuna deskribatzen da, edo gutxienez bere zatirik garrantzitsuenak, bestean euren komenentzia taxonomikoarengatik ahal iritzira aukeratutako zenbait osagai, batzuetan kontuan hartzen dira landarearen hazkunde eta heldutasun egoera ezberdinak, beste batzuetan une batera eta ikusgarritasun hobezin estadio batera mugatzen da); enuntziatio-modalitateen dibergentzia (landareen azterketa sistematikoen kasuan hautemate eta hizkuntza kode zorrotza erabiltzen da eskala konstante baten arabera; deskribapen metodikorako kodeak nahikoa libreak dira eta kokapenerako eskalek oszila dezakete); kontzeptuen bateraezintasuna («sistemetan» ezaugarri generikoen kontzeptua seinale arbitrarioa da, nahiz eta ez den nahasgarria generoak izendatzeko orduan; metodoetan kontzeptu horrexek generoaren benetako definizioa estali behar du); azkenik

aukera teorikoen bazterketa (taxonomia sistematikoak «fixismoa» ahalezkoa egiten du –baita bera zuzentzen badu ere denboraren baitako etengabeko sorketaren ideiak, zeinak taulen osagaiak pittinka-pittinka gararazten dituen, edo baita bera zuzentzen badu ere hondamendi naturalen ideiak, zeinak auzotasun linealen ordena asaldatu duen gure oraingo ikuspegiaren zioz– baina baztertzen du transformazio baten ahalbidea, metodoak onartzen duena nahiz eta ez duen bera erabat biltzen bere baitan).

Funtzioak. Kontrakotasun era hauek guztiek ez dute paper bera jokatzeko jardute diskurtsiboan: eurak ez dira, modu homogeneo batean, gainditu beharreko oztupoak edo hazkuntza-hastapenak. Ez da nahikoa, edozein modutan, horietan bilatzeko ez historia geldotzeko arrazoia ezta bera azkartzekoa ere; denbora ez da sartzen diskurtsoaren egitasunean eta idealtasunean kontrakotasunaren forma huts eta orokorretik abiatuta. Kontrakotasun hauek, beti ere, momentu funtzional mugatuak dira. Batzuek aseguratzen dute enuntziatio-arloaren garapen gehigarri bat: eurek irekitzen dituzte argudiatze, esperientzia, egiaztatze, inferentzia ugariren sekuentziak; eurek baimentzen dituzte objektu berriak mugatzea, enuntziatio-modalitate berriak sorrarazten dituzte, kontzeptu berriak definitzen dituzte edo existitzen diren erabilpen-arloa aldatzen dute: baina diskurtsoaren positibotasun-sisteman ezer aldatu gabe (horrela izan zen XVIII. mendeko naturalistek izan zituzten eztabaidetan mineralaren eta begetalaren arteko mugari buruz, bizia eta naturaren eta fosilen jatorrien arteko zedarriei buruz); gehitze-prozesu hauek irekiak irauz dezakete, edo itxiak aurki daitezke, modu erabakigarrian, eurak errefusatzeko dituen frogapen baten bidez edo alboratzen dituzten aurkikuntza baten bidez. Beste batzuek arlo diskurtsiboaren berrantolaketa bat bultzatzen dute: eurek planteatzen dute nola itzul daitekeen enuntziatio-multzo bat beste batean, kontuan izanda bata bestearen gainean artikulatu ahal izango lukeen koherentzia-puntua eta euren integrazioa espazio orokorrago batean (horrela XVIII. mendeko naturalistengan aurkitzen den sistema-metodo kontrakotasunak zenbait saialdi bultzatzen ditu bi mutur horiek deskribapen forma bakar batean berridazteko, horrela metodoari sistemaren zorrotasuna eta erregulartasuna emateko, sistemaren arbitrariotasuna metodoaren azterketa zorrotzekin bat etorrazteko); hauek ez dira objektu berriak, ez kontzeptu berriak, ezta enuntziatio-modalitate berriak ere, zaharrei gehitzen zaizkienak linealki; haatik, beste maila bateko objektuak dira (orokorragoak edo partikularragoak) beste egitura bat eta erabilpen beste arlo bat dute, beste mota bateko enuntziatuak, eta, hala ere, eraketa-arauak ez dira aldatzen. Beste kontrakotasun batzuek paper kritikoa jokatzeko dute: jardun diskurtsiboaren existentzia eta «onargarritasuna» jokoan jartzen dute; definitzen dute euren eragin ezintasunaren eta euren gibelatze historikoaren puntua (horrela historia naturalaren baitan egiten diren deskribapenak, elkartasun organikoen eta aldagai anatomikoen bidez gauzatzen diren funtzioei buruz, hau da, definitutako existentzia-baldintzetan gauzatzen diren funtzioei buruz, ez du baimentzen –gutxienez eraketa diskurtsibo autonomoaren izenean– historia natural bat egitea izakien zientzia taxonomikoa izango litzatekeena eta izaki hauen ezaugarri ikusgarrietan oinarrituriko litzatekeena).

Eraketa diskurtsibo bat ez da, beraz, testu ideiala, jarraitua eta samurra, lasterka egiten duena kontraesanen ugaritasunaren azpitik, kontraesan horiek pentsamendu koherente baten baretasun batuan ebatziz; ez da, ezta ere, kontraesan bat, hamaika aspektu ezberdinetan, islatuko den azalera, beti atzeraka, baina alde guztietan nagusi izango den kontraesana. Gehiago izango da desadostasun ugariko espazio bat; kontrakotasun ezberdinen multzo bat da, bere mailak eta paperak definitzea beharko duena. Azterketa arkeologikoak kontraesan baten nagusigoa goratzen du, kontraesan honek bere eredia izango duen proposizio bakar eta beraren aldi bereko baieztapenean eta ukazioan. Baina hau ez da kontrakotasun guztiak maila berean jartzeko pentsamenduaren forma orokorretan eta eurak indarrean baretzeko a priori itogarri batera joz. Kontua da, haatik, jardun diskurtsibo mugatu batean kokatzea eurek osatzen diren puntua, definitzea eurek hartzen duten forma, euren artean dituzten harremanak eta euren agindupeko eremua. Laburbilduz, kontua da diskurtsoa bere lastasun ugarietan gordetzea; eta ezabatzea, ondorioz, uniformeki galdutako eta berriro aurkitutako kontraesan baten gaia, logosaren ezberdindu gabeko elementuan erabakitzen dena eta berriz jaiotzen dena beti.

IV.

Gertaera konparatiboak

Azterketa arkeologikoak eraketa diskurtsiboak banakotzen eta deskribatzen ditu. Hau da, eurak alderatu behar ditu, bata besteari kontrajarri eurak agertzen diren aldiberekotasunean, egutegi bera ez dutenetatik berezi, harremanean jarri behar ditu inguratzen dituzten eta elementu orokor modura balio dien jardute ez diskurtsiboekin, berariazkoa izan dezaketen horretan. Ikerketa arkeologikoa beti pluralean dago, honetan ere garbiro bereizten da teoria baten barruko egitura aztertzen duten deskribapen epistemologiko edo «arkitektonikoez»: bera erregistro ugarietan gauzatzen da; zirritu eta tarteak zeharkatzen ditu: bere eremua du batasunak elkarren ondoan jartzen diren lekuan, banatzen diren lekuan, euren hegiak finkatzen dituztenean, elkarri aurre egiten diotenean eta elkarren artean tarte hutsak nabarmentzen dituztenean. Diskurto-mota berezi bat hartzen duenean kontuan (psikiatriarena Histoire de la Folie lanean edo medikuntzarena Naissance de la clinique lanean) muga kronologikoak konparazioen bidez ezartzeko da; halaber, aldi berean eta eurekin harremanean, arlo instituzional bat finkatzeko da, gertaeren multzo bat, jarduteak, erabaki politikoak, prozesu ekonomikoen kateatze bat, non agertzen diren gorabehera demografikoak, sorospen teknikak, eskulan premiak, langabezia maila ezberdinak, etab. Baina berak halaber, saihetseko hurbilketa baten bidez-edo (*Les Mots et les Choses* lanean esaterako), jokoan jar ditzake zenbait positibotasun ezberdin, eta hauen egoera konkomitanteak alderatuko ditu garai jakin batean, eta emandako aro batean lekua hartu duten beste diskurto-mota batzuekin erkatzen ditu.

Baina azterketa hauek guztiak sarritan egin ohi diren horietaz oso ezberdinak dira.

1. Alderaketa beti mugatua eta eskualdekoa da. Arkeologiaren forma orokorrak agerraraztetik urrun dago eta konfigurazio bereziak marraztea bilatzen du. Gramatika orokorra, aberastasunen banaketak eta garai klasikoko historia naturala kontrajartzen direnean, helburua ez da XVII. eta XVIII. mendean orokorra izango litzatekeen pentsamolde baten hiru agerpen multzokatzea –bereziki balio adierazgarriz horniturikoak eta harrigarriki ahaztuak egun arte–; ez da, eredu murriztatuetatik eta eremu berezi batetik abiatuz, zientzia klasiko osoan lanean egon diren arrazionaltasun formak berriro eratzea; ez da, ezta ere, gertukoa iruditzen zaigun aurpegi kultural baten profil ezezagunena argitzea. Ez da erakutsi nahi izan XVIII. mendeko gizon-emakumeak modu orokorrean interesatuagoak zeudela ordenan historian baino, sailkapenean bilakaeran baino, zeinuetan kausaltasun mekanismoetan baino. Kontua zen eraketa diskurtsiboen ondo zehaztutako multzo bat agerraraztea, euren artean zenbait harreman deskribagarri dituzten eraketa diskurtsiboen multzo bat alegia. Harreman hauek ez dira zabaltzen inguruko eremuetara eta ezin dira poliki-poliki transferitu diskurto garaikideen multzora, ez eta arrazoi gehiagoz «espíritu klasiko» deitu ohi denera ere: eurak zorrozki konfinatuak daude landutako triadan, eta ez dute baliorik hor zehazten den eremuan ez bada. Diskurto arteko multzo hauxe, bere multzo forman, beste diskurto-mota batzuekin harremanean dago (errepresentazioaren azterketarekin, zeinuen eta «ideologien» teoria orokorrekarekin, alde batetik; eta matematikekin, azterketa algebraikoarekin, eta mathesis bat ezartzeko ahaleginarekin, bestetik). Barruko eta kanpoko harreman hauek historia naturala, aberastasunen azterketa eta gramatika orokorra ezaugarritzen dituzte berariazko multzo modura, eta euren baitan diskurto arteko konfigurazio bat ezagutzea baimentzen dute.

Batzuek esango lukete: «Zer dela eta ez da hitz egin kosmologiari buruz, fisiologiari buruz edo exegesi biblikoari buruz? Lavoisieren aurreko kimika edo Euleren matematika, edo Vicoren historia ez al ziren gauza izango, eurak jokoan

sartuz gero, Les Mots et les Chosesen aurki daitezkeen azterketa guztiak balio gabetzeko? Ez al daude XVIII. mendeko asmamenezko aberastasunean arkeologiaren koadro estuan sartzen ez diren beste zenbait ideia?». Horiei, bidezkoa den euren pazientziarik ezari, eurek eman ditzaketen kontra-adibide guztiei nik zera erantzungo nieke: ez dago zalantzarik. Nik onartzen dut nire azterketa mugatua dela, baina ez hori bakarrik, nik horrela nahi dut eta horrela ezarri dut. Niretzat kontra-adibide bat honakoa esateko ahalbidea izango litzateke hain zuzen: hiru eraketa bereziri buruz deskribatu dituzun harreman horiek guztiak, atribuzioaren, artikulazioaren, izendapenaren eta deribazioaren teoriak elkarren artean artikulatzen diren sare horiek guztiak, jarraitasun-ezaren ezaugarrikeretan eta ordenaren jarraitasunean datzan taxonomi hori guztia, hau dena aurkitzen da uniformeki eta modu berean geometriaren, mekanika arrazionalaren, humoreen eta germenen fisiologian, historia sakratuaren kritikan eta jaiotzen ari den kristalografian. Honek frogatuko luke, hain zuzen, nik ez nuela deskribatu, nahi izan dudana moduan, interpositibotasun eskualde bat; nik garai bateko espiritua edo zientzia ezaugarrituko nukkeen – eta honen kontra ahalegindu naiz, hain zuzen, nire eginkizun osoan–. Nik deskribatu ditudan harremanek balio dute konfigurazio jakin bat definitzeko; hauek ez dira kultura baten aurpegia bere osotasunean deskribatuko duten zeinuak. Weltanschauung-aren lagunak egongo dira etsipenak jota; garrantzitsua da nik ekin dudana deskribapena ez izatea eurenaren mota berekoa. Eurentzat hutsunea, ahanztura, hutsegitea litzatekeena, niretzat baztertua izango da, guratakoea eta metodikoa.

Baina honakoa ere esan ahal izango da: Gramatika orokorra Historia naturalarekin eta Aberastasunen azterketarekin alderatu duzu. Baina zergatik ez duzu alderatu Historiarekin bera garai berean praktikatzan den moduan kontuan hartuta, kritika biblikoarekin, erretorikarekin, arte ederren teoriarekin? Ez al zenuke aurkituko interpositibotasun guztiz bestelako arlo bat? Zer pribilegio du, orduan, zuk deskribatu duzunak? Pribilegiorik bat ere ez; multzo deskribagarrien artean bat besterik ez da; gramatika orokorra hartuko balitz berriro eta ahaleginak egingo balira definitzeko berak dituen harremanak diziplina historikoekin eta testuen kritikarekin, harreman-sistema guztiz ezberdin bat diseinatzen ikusiko genuke zalantzarik gabe; eta deskribapenak diskurtso arteko sare bat agerraraziko luke, lehenari gainjarriko ez litzaiokeena, baina bera gurutzatuko lukeena puntu batzuetan. Era berean, naturalisten taxonomia alderatu ahal izango litzateke ez gramatikarekin eta ekonomiarekin, baizik eta fisiologiarekin eta patologiarekin: hor interpositibotasun berriak diseinatuko lirateke (konpara daitezke taxonomia-gramatika-ekonomia harremanak Les Mots et les Choses lanean aztertuak, eta taxonomia-patologia harremanak Naissance de la Clinique lanean aztertuak). Sareon kopurua ez dago alde zuzenetik definitua; azterketaren frogak bakarrik erakuts dezake ea existitzen diren eta zeintzuk existitzen diren (hau da, zeintzuk diren deskribagarriak). Gainera, eraketa diskurtsibo bakoitza ez da (edo edozein kasutan ez dagokio nahitaez) sistema horietako bakar bati; bera zenbait harreman-arlotan sartzen da aldi berean eta ez du horietan leku berdina betetzen eta ez du funtzio bera gauzatzen (taxonomia-patologia harremanak ez dira taxonomia-gramatika harremanen isomorfoak; aberastasunen gramatika-azterketa harremanak ez dira gramatika-exegesi harremanen isomorfoak).

Arkeologiak gogoan duen ostertza, ez da zientzia bat, pentsamolde bat, kultura bat, interpositibotasunen nahasketa da, non mugak eta gurutzatze-puntuak ezin diren bat-batean finkatu. Arkeologia azterketa konparatibo bat da eta bere egin beharra ez da diskurtsoen askotarikotasuna murriztea eta eurak orobatu behar dituen batasuna diseinatzea, baizik eta euren aniztasuna banatzea irudi ezberdinen artean. Konparaketa arkeologikoak ez du ondorio bateratzailea, baizik eta biderkatzailea.

2. XVII. eta XVIII. mendeetako Gramatika orokorra, Historia naturala eta aberastasunen Azterketa kontrajartzean, galdetu ahal izango litzateke zein ideia partekatuko zuten, garai hartan, hizkuntzalariek, naturalistek eta ekonomiaren teorikoek; galdetu ahal izango litzateke zer postulatu inplizitu suposatzen zuten guztiek batera, teoria ezberdinak izan arren, zer hastapen orokorri obeditzen zioten, isiltasunean beharbada; galdetu ahal izango litzateke zer eragin zuen hizkuntzaren azterketak taxonomiaren gainean, edo zer paper jokatu zuen natura ordenatu baten ideiak aberastasunaren teorian; ikertu ahal izango litzateke, era berean, diskurtso-mota ezberdin hauetako bakoitzaren hedapena, bakoitzari aitorturiko ospea, bere zahartasunari (edo aitzitik berria izateari) dagokion balioespina, baita bere zorrotzasun handiagoari dagokiona ere, komunikazio kanalak eta argibideen trukeak gauzatzeko balio duten bideak; erabat tradizionalak diren azterketetara itzuliz, galdetu ahal izango da azkenik zer neurritan transferituko zuen Rousseauk hizkuntzen eta euren jatorriaren azterketara botaniko modura izan zuen jakite eta esperientzia; galdetu ahal izango da zer kategoria komun erabili zuen Turgotek diruaren azterketan eta hizkuntzaren eta etimologiaren teorian; nolatan Linnaeus eta Adansonen moduko sailkatzaile batzuk birmoldatu eta erabili zuten hizkuntza unibertsal, artifizial eta perfektu baten ideia. Egia da,

galdera hauek guztiak legitimoak izango ziren (gutxienez euren artetik batzuk). Baina ez batzuk eta ez besteak dira egokiak arkeologiaren mailan.

Arkeologiak, lehenik askatu gura du –eraketa diskurtsibo ezberdinetan mantendutako espezifikotasunean eta urruntasunean– analogien eta ezberdintasunen jokia, eraketa-arauen mailan agertzen diren modu berean. Honek bost eginbehar ezberdin biltzen ditu berarekin:

a) Nola era daitezkeen osagai diskurtsibo erabat ezberdinak arau analogoetatik abiatuz (gramatika orokorraren kontzeptuak, esate baterako aditza, subjektua, osagarria, erroa, eta Historia naturalaren eta ekonomiarenak, enuntziatio-eremuaren xedapen beretatik sortzen dira –atribuzioaren teoriak, artikulazioarenak, izendapenarenak, deribazioarenak– oso ezberdinak, erro-errotik heterogeneoak diren arren); eraketa ezberdinen artean isomorfismo arkeologikoak erakustea.

b) Erakustea zer neurritan erabiltzen diren edo ez diren arau hauek modu berean, ea kateatzen diren ordena berean edo ez, diskurtso-mota ezberdinetan eredu beraren arabera kokatzen diren ala ez (Gramatika orokorrak bata bestearekin lotzen du eta ordena horretantxe atribuzioaren teoria, artikulazioarena, izendapenarena eta deribazioarena; Historia naturalak eta aberastasunen azterketak lehenengo biak eta azken biak multzokatzen dituzte, baina bata bestearen kontrako ordenan); eraketa bakoitzaren eredu arkeologikoa definitzea.

c) Erakustea guztiz ezberdinak diren kontzeptuek (balioarena eta ezaugarri espezifikoa, edo salneurriarena eta ezaugarri orokorrarena, esaterako) leku analogoa betetzen dutela euren positibotasun-sistemaren adarkatzean –isotropia arkeologiko batez hornituak daudela erakustea, alegia– nahiz eta euren erabilpen eremuak, euren formalizazio mailak, eta nagusiki euren genesi historikoak elkarrekiko arrotzak bihurtzen dituen.

d) Erakustea, ostera, nola adigai bakarrak eta berberak (hitz bakar eta berberarekin izendatua) estal ditzakeen arkeologikoki ezberdinak diren bi osagai (jatorriaren eta bilakaeraren adigaiak ez dute betetzen ez paper bera, ez leku bera, ez eraketa bera Gramatika orokorraren eta Historia naturalaren positibotasun-sisteman); desdoitze arkeologikoak zehaztea.

e) Erakustea, azkenik, nola positibotasunen artean mendetasun edo osagarritasun-harremanak ezar daitezkeen (horrela, aberastasunen eta espezieen azterketei dagokienez, hizkuntzaren deskribapenak, aro klasikoan, paper menderatzailea jokatu du, eratze zeinuen teoria den neurrian, zeinu horiek errepresentazio bera bitan banatu, markatu eta errepresentatzen duten neurrian): korrelazio arkeologikoak finkatzea.

Deskribapen hauetan guztietan ez du ezerk oinarria hartzen eraginen, aldaketen, jakinarazitako argibideen eta komunikazioen esleipenean. Kontua ez da bera ukatzea, eta ezta erantzutea ere deskribapen baten gaia izan ezin direla. Baizik eta atzera pausu bat egitea neurritz, azterketari ekiteko beste maila batean jartzea gure burua, ahalezkoak egin dituen eguneratzea; kontzeptu bat bestearen gainean proiektatzea ahalezkoa egin duten puntuak zehaztea, metodoak edo teknikak transferitzea baimendu duen isomorfismoa finkatzea, orokortzeak baimendu dituzten auzotasunak, simetriak edo analogiak; laburbilduz, bektoreen eta harmen diferentzialaren (iragazkortasunaren eta iragazgaitzasunaren) arloa deskribatzea, arlo hau, aldaketen jokoarentzat, ahalbide-baldintza historikoa izan delarik. Interpositibotasun konfigurazio bat ez da auzokoak diren diziplinen multzoa; ez da antzekotasun-fenomeno behagarri hutsa; ez da zenbait diskurtsoren diskurtso jakin honekiko edo bestearekiko harreman hutsa; euren komunikazioaren legea da. Ez da honakoa esatea: Rousseauk eta berarekin beste batzuek espezieen ordenamenduak eta hizkuntzen jatorriaz hausnarketa egin dutela-eta, taxonomiaren eta gramatikaren arteko harremanak gauzatu egin dira; Trugotek, Law eta Pettiten ondotik, dirua zeinu bezala tratatu gura izan duelako, ekonomia eta hizkuntzaren teoria gerturatu egin dira eta euren historiek ahaleginen arrastoa biltzen dute oraindik. Haatik, honakoa esatea da –deskribapen arkeologiko bat egitea nahi bada gutxienez–: hiru positibotasun hauetako bakoitzari dagozkion jarrerak diren modukoak direlako antzeko aldaketak aurkitu ahal izango lirateke obren mailan, egileenean, banakoen existentzienean, egitasmoenean eta ahaleginenetan.

3. Arkeologiak, horrela, harremanak agerrarazten ditu eraketa diskurtsiboen eta eremu ez diskurtsiboen (erakundeak, gertaera politikoak, jarduteak eta prozesu ekonomikoak) artean. Gerturatze hauek ez dute helburu modura jarraitasun kultural handiak egunean jartzea edo kausaltasun mekanismoak bakartzea. Gertaera enuntziatiboen multzo baten aurrean arkeologiak ez du galdegiten zerk eragin ote dituen (hau formulazio-testuinguruei buruzko ikerketa litzateke); berak ez du bilatzen euren bidez adierazten dena aurkitzea ere (hermeneutikaren lana); bera ahalegintzen da zehazten nola uztar daitezkeen sistema ez diskurtsiboekin bere gainean agintzen duten eraketa-arauak –zeintzuek ezaugarritzen duten berari dagokion positibotasuna–: berak definitu nahi ditu artikulazio-sistema espezifikoak.

Har dezagun adibide modura XVIII. mendean ezarri zen medikuntza klinikoa, zenbait gertaera politikoren, fenomeno ekonomikoren eta erakunde aldaketen garaikidea dena. Erraza da, modu intuitiboan gutxienez, loturak

suposatzea gertaera hauen eta erietxe-medikuntzaren antolakuntzaren artean. Baina nola aztertu lotura horiek? Azterketa sinboliko batek medikuntza klinikoaren antolakuntzan eta prozesu historikoetan bi adierazpen ikusiko lituzke, aldi berekoak, elkar islatzen eta sinbolizatzen dutenak, batak bestea ispilu modura darabilena, eta esanahiak batak bestea islatzeko amaigabeko joko batean ulertuko direlarik: bi adierazpen, zeintzuek adierazten duten biek duten forma berdina besterik ez. Horrela, elkartasun organikoaren, kohesio funtzionalaren, ehunen arteko komunikazioaren ideia medikuak –eta gaixotasunak sailkatzeko hastapena alde batera uztea gorputz elkarrekintza hobesteko– zerikusia izango lukete (eurak islatzeko baina baita euren bidez bere buruari begiratzeko ere) jardute politiko batekin, zeinak aurkitzen dituen, oraindik feudalak diren geruzapenen azpian, tankera funtzionaleko harremanak, elkartasun ekonomikoak, gizarte bat aseguratu beharko lukeena bere mendetasunen eta bere elkarrekikotasunen bidez, kolektibitatearen eran, bizitzaren analogona. Azterketa kausal batean, berriz, bilatuko litzateke zer neurritan mugatu ahal izan duten zientzia-gizon-emakumeen kontzientzia aldaketa politikoek, edo prozesu ekonomikoek, –euren interesen ostertza eta norabidea, euren balio-sistema, gauzak hautemateko euren modua, euren arrazionaltasunaren estiloa–; horrela, kapitalismo industrial bere eskulan premien kontuak ateratzen ekiten zen garai batean, gaixotasunak gizarte dimentsioa hartu du: osasun zaintzea, osaketa, gaixo behartsuei arreta eskaintzea, zergatiei eta foku patogenoei buruzko ikerketa, zama kolektiboa bihurtu dira, estatuak bere gain hartu behar duena, alde batetik, eta, bestetik, jagon behar duena. Hortik dator gorputza lanerako tresna modura balioestea, medikuntza beste zientzien eredu arabera arrazionalizatzeko kezka, biztanleriaren osasun mailari eusteko ahaleginak, terapeutikari eskainitako arreta, bere ondorioen iraupenari eta iraupen luzeko fenomenoak erregistratzeari.

Arkeologiak bere azterketa beste maila batean kokatzen du: adierazpen, islapen eta sinbolizatzeko-fenomenoak berarentzat irakurketa global baten ondorioak dira analogia formal baten edo zentzu translazioen bila dihardutenak, besterik ez; harreman kausalei dagokienez, eurak esleitzen dira bakarrik testuinguruaren mailan edo egoeraren eta eurek subjektu hitzunarengan duten eraginaren mailan. Bai batzuk eta bai besteak koka daitezke bakarrik behin definituta zer lekutan agertzen diren euren positibotasunak eta positibotasun hauek eratzeko behar izan diren arauak. Eraketa diskurtsibo bat ezaugarritzen duen harreman-arloa da sinbolizazioak eta ondorioak hautematea, kokatzea eta mugatzea ahalezkoa egingo duen lekua. Arkeologiak mediku-diskurtsioa jardute kopuru jakin batera hurbiltzen badu, horren helburua da adierazpena baino «berehalakotasun» gutxiagoko harreman batzuk aurkitzea, baina harreman hauek izan behar dute subjektu hitzunen kontzientziak ordezkatzeko duen kausaltasun baten harremanak baino askoz ere zuzenagoak. Berak ez du erakutsi nahi nola jardute politikoak mugatu duen diskurtso medikuaren zentzua eta forma, baizik eta nola eta zer dela-eta hartzen duen parte bere azaleratze, txertatze eta funtzionatze-baldintzez. Harreman hau zenbait mailari eslezi dakiok. Hasteko, objektu medikua ebakitzeko eta zedarrizteko mailari: honek ez du esan nahi, jakina, XIX. mendearen hasieratik aurrera jardute politikoak ezarri dizkiola medikuntzari objektu berriak, esaterako ehunetako lesioak edo harreman anatomo-fisiologikoak; haatik, berak arlo berriak ireki ditu mediku-objektuak kokatzeko (arlo hauek administratiboki batuta eta zainpean dagoen biztanleria masak osatzen ditu, bizitza eta osasun-arau jakin batzuen arabera balioetsia, erregistratze era dokumental eta estatistikoen arabera aztertua; aro iraultzaileko eta napoleonikoko herri armada handiek ere osatzen dute, euren mediku-kontrol era berezia eta guzti; ospitale-sorospen erakundeek ere osatzen dute, halaber, eta hauek definituak izan dira, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, garaiko premia ekonomikoen arabera eta gizarte klaseen elkarrekiko kokapenaren arabera). Jardute politikoak diskurtso medikuarekin duen harreman hau medikuntzari emandako estatusen ere ikusiko dugu agertzen; estatus hau diskurtso honen jabe pribilegiatua bihurtuko da, baina baita ia bakarra ere, harreman instituzionalaren forman, eta hau medikuak izan dezake ospitaleratutako gaixoarekin edo bere bezero pribatuekin jakite horrek preskribitzen edo baimentzen duen irakaspen edo hedapen moduetan. Azkenik, harreman hau atzeman daiteke diskurtso medikuari esleitzen zaion funtzioan edo berari eskatzen zaion paperean, kontua denean gizabanakoez epaia ematea, erabaki administratiboak hartzea, gizarte baten arauak ezartzea, beste maila bateko gatazkak itzultzea –eurak ebazteko edo ezkutatzeko–, gizarteari buruzko azterketei eta berarekin zerikusia duten jardutei eredu naturalak eskaintzea. Kontua ez da, orduan, erakustea nola eratu dituen edo aldarazi dituen kontzeptu medikuak eta patologiarenean egitura teorikoa gizarte jakin baten jardute politikoak; baizik eta erakustea nola diskurtso medikua (bera ulertuta objektuen arlo zehatz bat gogoan hartzen duen jardute modura, estatutuz izendatutako zenbait gizabanakoen eskuetan dagoena eta gizartean funtzio batzuk bete beharra duena) artikulatzen den kanpokoak zaizkion eta berez diskurtso izaera ez duten jarduteen gainean.

Azterketa honetan arkeologiak eskegita uzten badu adierazpenaren eta islapenaren gaia, uko egiten badio diskurtsoan ikusteari beste nonbaiten kokatutako gertaeren edo prozesuen proiektzio sinbolikoaren azalera, hori ez da izango

berriz aurkitzeko kateatze kausal bat, deskribatu ahal izango litzatekeena puntuz puntu eta baimenduko lukeena harremanean jartzea aurkikuntza bat eta gertaera bat edo kontzeptu bat eta gizarte-egitura bat. Baina, bestalde, eskegita uzten badu horren antzeko azterketa kausal bat, saihestu nahi badu subjektu hiztun nahitaezko erreleboa, ez da diskurtsoaren independentzia subiranoa eta bakartia bermatzeko; jardute diskurtsibo baten existentzia eta funtzionamendu-eremua aurkitzeko da. Beste hitz batzuetan, diskurtsoen deskribapen arkeologikoa historia orokor baten dimentsioan zabaltzen da; bera ahalegintzen da aurkitzen erakundeen eremu oso hori, prozesu ekonomikoena, eraketa diskurtsibo bat artikulatu ahal den gizarte-harremanena; bera ahalegintzen da erakusten diskurtsoaren autonomiak eta espezifikotasunak ez diola ematen diskurtso horri idealtasun hutsaren estatusa ezta erabateko independentzia historikoaren estatusa ere; egunean jarri nahi duena zera da: maila berezi bat non historiak definitutako diskurtso-mota ezberdinetarako aukera ematen duen, eta diskurtso hauek euren historikotasun-mota berezia dute eta historikotasun ezberdinen multzo oso batekin harremanean daude.

V.

Aldaketa eta transformazioak

Zer esan dezakegu orain aldaketaren deskribapen arkeologikoaz? Ideien historia tradizionalari dagokionean nahi edo ahal izango diren kritikak egin ahal izango dira: bere lana izango da gutxienez funtsezko gaitzat hartzea jarraitasun-fenomenoak eta denborazko kateatzeak, eurak aztertzea eboluzioaren eskemen arabera, eta deskribatzea horrela diskurtsioen zabalpen historikoa. Arkeologiak, haatik, ematen du historia jorratzen duela bakarrik bera izozteko. Alde batetik, eraketa diskurtsiboak deskribatuz, alde batera uzten ditu bertan ager daitezkeen denborazko sailak; arau orokorrak bilatzen ditu, denboraren puntu guztietan balio dutenak uniformeki eta modu berean: berak, orduan, ez dio ezartzen garapen beharbada geldo eta hautemanezin bati sinkronia baten irudi estugarria. Berez hain labaina den «ideien mundu» honetan, non egonkorrenak diruditen irudiak hain agudo ezabaten diren, non, osterantzean, ematen diren hainbeste irregulartasun gero behin betiko estatusa jasoko dutenak, non etorkizunak aurrea hartzen dion beti bere buruari, iragana etengabe geroraten den artean, ez al du arkeologiak pentsamendu geldi baten balioa izango? Eta, bestalde, berak kronologiara jotzen duenean, ematen du bakarrik dela euskarriak diren bi puntu zehazteko, positibotasunen mugetan: eurak jaiotzen diren unea eta eurak desagertzen diren unea, ematen du iraupena bakarrik erabiliko litzatekeela landu gabeko egutegi hori zehazteko, baina bera ez litzatekeela kontuan izango azterketa osoan zehar, ematen du denbora bakarrik egongo litzatekeela hausturaren une hutsean, pitzadura zuri eta paradoxikoki intenporal batean, non bat-batean eraketa batek bestea ordezkatzeko duen. Positibotasunen sinkronia, ordezkapenen bat-batekotasuna izanik denbora saihesten da, eta berarekin deskribapen historiko baten aukera desagertzen da. Diskurtsioa garapenaren legetik erauzten da eta jarraitasunik gabeko intenporaltasun batean ezartzen da. Bera zatika gerarazten da: betikotasunaren badaezpadako zatikiak. Baina ez dago zer egiterik: elkarri jarraitzen dioten hainbat betikotasun, irudi finkeoak sorta, elkar eklipsatzen dutenak txandaka, honek ez du mugimendurik egiten, ez denborarik, ez historiarik. Beharrezkoa da, hala ere, gauzei hurragotik begiratzea.

A

Eta hasteko, eraketa diskurtsiboen itxurazko sinkronia. Gauza bat egia da: arauak enuntziatu guztietan sartuta ere, eta, ondorioz, enuntziatu bakoitzarekin erabiltzen badira ere, ez dira aldi bakoitzean aldatzen; berriro topa daitezke jardunean enuntziatuetan edo denboran zehar oso sakabanatutako enuntziatu-multzoetan. Ikusi dugu, esaterako, Historia naturalaren objektu ezberdinak, ia mende batean zehar –Tournefortengandik hasita Jussieurenganaino– eraketa-arau berdinen arabekoak zirela; ikusi dugu atribuzioaren teoria berdina dela eta paper bera jokatzeko duela Lancelotengan, Condillacengan eta Destutt de Tracyrengan. Are gehiago, ikusi dugu enuntziatuen ordenak deribazio arkeologikoaren arabera ez duela erreproduzitzen derrigor jarraitasunaren ordena: arkeologikoki Beauzéerengan zenbait enuntziatu aurki daiteke Port-Royaleko Gramatikan aurkitzen diren enuntziatuen aurrekoak direnak. Hortaz, era horretako azterketa batean bada denborazko jarraitasunaren eskegitze bat –zehazkiago esanda formulazioen egutegiaren eskegitzea–. Baina eskegitze honen helburua da eraketa diskurtsiboen denborazkotasuna ezaugarritzen duten harremanak agerraraztea, eurak artikulatuko dituztelarik azterketa eragotziko ez duten sailetan.

a) Arkeologiak enuntziatu-multzo baten eraketa-arauak definitzen ditu. Berak erakusten du horrela nola bihurtu daitezkeen gertaeren jarraitasun bat, bera agertzen den modu horretantxe, diskurtsioaren objektu, nola erregistratu daitezkeen, deskribatu,

azaldu, nola elaboratua izan daitekeen kontzeptuetan eta nola eman dezakeen hautaketa teoriko baterako aukera. Arkeologiak diskurtso baten iragazkortasunaren maila eta era aztertzen ditu: berak hastapen bat ematen du diskurtso hori artikulatzeko jarraitutako gertaeren kateaketa batean; halaber definitzen ditu gertaerak enuntziatueta transkribatzeko operadoreak. Berak, esaterako, ez du auzitan jartzen egon daitekeen harremana aberastasunen azterketaren eta diruaren gorabehera handien artean XVII. eta XVIII. mendeetan. Bera ahalegintzen da erakusten krisi horietan diskurtsoaren objektutzat jo daitekeena, nola aurki daitezkeen kontzeptualizatuta krisi horiek, nola prozesu horietan zehar kontrajartzen ziren interesek euren estrategiak erabil zitzaizketen bertan. Edo, gehiago oraindik, berak ez du aldarrikatzen kolera izango ez zenik gertaera bat medikuntzarentzat: berak erakusten du nola diskurtso klinikoak jarri zituen lanean arau batzuk, bideratu zutenak objektu medikuen eremu oso bat berrantolatzea, erakusten du, gainera, erregistratzeko eta oharrak hartzeko metodo-multzo oso bat erabili ahal izan dela, hanturaren kontzeptua alde batera utzi ahal izan dela eta behin betiko baztertu ahal izan dela sukarren arazo teorikoa. Arkeologiak ez du ukatzen «kanpoko» gertaerekin korrelazioan dauden enuntziatu berriak izateko aukera. Bere lana da erakustea zer baldintzatan egon daitekeen euren artean era horretako korrelazioa, eta zertan datzan hain zuzen korrelazio hori (zein diren bere mugak, bere era, kodea, ahalbidearen legea). Berak ez du saihesten diskurtsoen mugikortasuna, eurak gertaeren arabera higiarazten dituen; bera ahalegintzen da mugikortasun hori pizten den maila askatzen, gertaeren lozagia jartzeko maila dei daitekeena. (Eraketa diskurtsibo bakoitzarentzat berezia den lozagia jartzea, ez dituen ez arau berdinak, ez eragile berdinak, ezta sentibilitate berdina ere, esaterako aberastasunen azterketan, ekonomia politikoan, garai bateko «gorpuzkeren» medikuntzan eta egungo epidemiologian)

b) Gainera, arkeologiak positibotasun bati esleitu dizkion eraketa-arauak ez dute orokortasun bera: batzuk partikularragoak dira eta beste batzuetatik eratortzen dira. Mendekotasun hau hierarkikoa izan daiteke bakarrik, baina denborazko bektore bat ere ekar dezake berarekin. Horrela Gramatika orokorrean aditza-atribuzioaren teoria eta ez-artikulazioarena bata besteari lotuta daude; eta bigarrena lehenengotik eratortzen da, baina ezin da zehaztu euren artean jarraitasun ordenarik (alde batera utzita azalpenerako aukeratu dena, bai deduktiboa, bai erretorikoa dela). Aitzitik, osagarriaren azterketa edo sustraien ikerketak ezingo liriteke agertu (edo berragertu), ez bada behin garatuta atribuzio esaldiaren azterketa edo izenari buruzko ikuskera, bera errepresentazioaren zeinu analitikotzat jota. Beste adibide bat: garai klasikoan, egiturazko ezaugarrien arabeko espezieen sailkapenak inplikatzeko du izakien jarraitasunaren hastapena; eta zentzu honetan aldi berekoak dira biak; oster, behin sailkapen klasiko hau ekinda interpretatu ahal izango dira hutsuneak eta gabeziak naturaren, lurraren eta espezieen historiaren kategorien bidez. Beste hitz batzuetan, eraketa-arauen adarkadura arkeologikoa ez da aldi berekoa modu uniforme: badira denboran neutroak diren harremanak, adarrak, deribazioak; badira beste batzuk denborazko norabide mugatua inplikatzeko dutenak. Arkeologiak, beraz, ez du eredutzat hartzen ez aldibereotasun eskema logiko hutsa, ezta gertaeren jarraitasun lineala ere, baina bera ahalegintzen da erakusten nahitaz elkarren ondokoak diren eta ez diren harremanen arteko gurutzaketa. Ez da sinetsi behar, beraz, positibotasun-sistema bat irudi sinkroniko bat izango denik, zeina hauteman daitekeen bakarrik prozesu diakronikoaren osotasuna parentesi artean jarri gero. Jarraitasunarekiko aiherga izan barik, arkeologiak deribazioa denborazko bektoreak kokatzen ditu.

Arkeologiaren asmoa ez da aldi berekotzat jotzea elkarren ondoko modura ematen dena; ez da ahalegintzen denbora geldiarazten eta ezta gertaeren denborazko jarioa ordezkatzeko ere irudi geldi bat diseinatzen duten korrelazioekin. Berak honako gaia eskegitzen du, hots, jarraitasuna absolututzat jotzea: lehena eta banaezina den kateaketatzat jotzea, diskurtsoa jarraitasun horren mendekoa izango lukeena bere amaikortasunaren legeagatik; eskegitzen du, halaber, diskurtsoan forma bakarra eta jarraitasun maila bakarra baino ez duen gaia. Gai hauen ordezkariak berak ipintzen ditu azterketa batzuk, agerrarazten dutenak aldi berean elkarri gainjartzen zaizkion jarraitasun forma ezberdinak (eta formekin ez da ulertu behar bakarrik erritmoak edo kausak, baizik eta sailak eurak) eta horrela zehaztutako jarraitasunak artikulatzen diren erak. Jarraitu beharrean jatorrizko egutegi baten haria, zeinaren arabera ezarriko litzatekeen prozesu laburren edo iraunkorren egutegia, une bateko fenomenoena eta iraupenena, ahaleginak egiten dira erakusteko nola egon daitekeen jarraitasuna, eta zer maila ezberdinetan aurkitzen diren jarraitasun ezberdinak. Beharrezkoa da, beraz, diskurtsoaren historia arkeologikoa bat eratzeke, gure burua askatzea aspaldian euren irudia ezarri duten bi eredu: hitzaren eredu lineala (eta, alde batetik, gutxienez idazketarena) non gertaera guztiak elkarren ondoan ematen diren, kointzidentzia eta gainjartze ondorioak gertatu eziz; eta kontzientzia jarioaren eredu, non orainak etengabe ihes egiten dion bere buruari etorkizunaren irekidura eta iraganaren atxikipenean. Paradoxikoa dirudien arren, eraketa diskurtsiboek ez dute kontzientziaren ibilbideak duen historikotasun eredu bera, ezta hizkuntzaren linealtasunak duena ere. Diskurtsoa, gutxienez arkeologiak aztertzen duen gisara, hau da bere positibotasun mailan, ez da bere egitasmoa hizkuntzaren kanpoko forman aterpetzera datorren kontzientzia; ez da hizkuntza bat gehi bera berba egingo duen subjektu bat. Kateatze eta jarraitasun forma propioak dituen jardute bat da.

B

Arkeologiak hausturez berba egiten du, eta failez, ebakiez, positibotasun era guztiz berriez eta bat bateko birbanatzeaz ere, ideien historiak baino erraztasun handiagoz. Ekonomia politikoaren historia egitea tradizionalki zen Ricardoren aurrekoa izan zitekeen guztia bilatzea, baita bere azterketak aldez aurretik diseinatu ahal izango zukeen guztia bilatzea ere, euren metodoak eta adigai nagusienak, bere aurkikuntzak gertakorrangoak bihur zezakeen guztia; gramatika konparatzailearen historia egitea zen hizkuntzen seme-alabatasunari eta ahaidegoari buruzko aldez aurretiko –Boppen eta Rasken aurretiko– arrastoa berraurkitzea; Anquetil-Duperronek eremu indoeuroparraren sorreran izan ahal izan zuten ekarpena zehaztea; 1769an egin zen sanskritoaren eta latinaren konjugazioen arteko lehen alderaketa berriro eguneratzea; Harrisengana eta Ramusengana jotzea, behar izanez gero. Arkeologiak alderantziz jokatzen du: historiaren pazientziak luzatu dituen hari guztien korapiloak askatzea bilatzen du; ezberdintasunak biderkatzen ditu, komunikazio lerroak nahastarazten ditu, eta saiatzen da zailago egiten batetik besterako iragaiteak; ez da ahalegintzen frogatzen ekoizpenaren azterketa fisiokratikoak Ricardorena gertatzen zuela; ez du egokitzen jotzen bere azterketetarako esatea Coeurdoux Boppen aurrekaria izan zela.

Zerekin dago lotuta behin eta berriz jarraitasun-ezei buruz jardute hau? Egia esan, paradoxikoa da bakarrik historialarien ohiturei dagokienean. Historialarien ohitura hau da –bere kezkekin jarraitasunei buruz, iragaitei buruz, aurrerapenei buruz, aurretiko zirriborroei buruz– sarritan paradoxa jokatzen duena. Daubentonengandik Cuvierenganaino, Anquetilengandik Boppenganaino, Graslin, turgot edo Forbonnaisengandik Ricardorengaino, urruntasun kronologikoa oso txikia izan arren, ezberdintasunak kontaezinak eta oso izaera ezberdinekoak dira: batzuk kokatuta daude, beste batzuk orokorrak dira; batzuek metodoetara darabate, beste batzuek kontzeptuetara; batzuetan objektuen eremua hartzen da kontuan, beste batzuetan hizkuntz-tresna osoa. Deigarriagoa oraindik izango da medikuntzaren adibidea: mende laurden batean, 1790etik 1815era diskurtso medikua aldatu egin da XVII. mendetik baino gehiago, erdia arotik baino gehiago zalantzarik gabe, eta beharbada Greziako medikuntzatik baino gehiago: aldaketa honek objektuak agerrarazi zituen (lesio organikoak, foku sakonak, ehunetako aldaketak, organoen arteko hedatze bideak eta erak, zeinu eta korrelazio anatomo-klinikoak), foku patologikoa detektatzeko eta behaketa teknikak erregistratzeko; hautemateko beste sailkatze bat eta deskribatzeko hiztegi ia guztiz berria; kontzeptu-jokoak eta banaketa nosografiko berriak (desagertzen dira batzuetan ehunka urte eta beste batzuetan milaka urte dituzten kontzeptuak, sukarrarena eta gorpuzkerarena esaterako, eta agian mundua haina zaharrak diren gaixotasunak –tuberkulosia– banakatuak eta izendatuak dira). Utz diezaiegun, beraz, oharkabetasunagatik Nosografia filosofikoa eta mintzei buruzko tratatua sekula ireki ez dituztenei arkeologiak ezberdintasunak nahierara asmatzen dituela esateko ardura. Bera saiatzen da euretaz benetan arduratzen, besterik ez: euren mataza askatzen, nola banatzen diren zehazten, nola biltzen duten elkar, nola agintzen duten bata bestearen gainean eta nola egiten diren bata bestearen menpeko, zer kategoria ezberdinen zati diren; laburbilduz, kontua da ezberdintasun horiek deskribatzea, euren arteko ezberdintasunen sistema finkatuz. Arkeologiaren paradoxa, egotez gerotan, ez da berak ezberdintasunak biderkatzen dituela, baizik eta eurak murrizteari uko egiten diola –eta hau ohiko balioen kontra doa–. Ideien historiari dagokionez ezberdintasuna, bera agertzen den legez, hutsegitea edo azpikeria da; azterketaren ernetasuna, bere aurrean gelditu beharrean, bere korapilo askatzen saiatu behar da: bere azpian ezberdintasun txikiagoa aurkitzen, eta honen azpian beste bat, mugatuagoa oraindik, eta horrela mugarik gabe heldu arte muga idealeraino, jarraitasun perfektuaren ez-ezberdintasuneraino, alegia. Arkeologiak, aitzitik, bere deskribapenaren objektutzat hartuko du trabatzat jo ohi dena: bere egitasmoa ez da ezberdintasunak gaintzea, baizik eta eurak aztertzea, esatea, zehatz-mehatz, zertan dautzan, eta eurak ezberdintzea. Nola egiten du lan ezberdintasun honek?

1. Arkeologiak, kontsideratu beharrean diskurtsoa gertaera homogeen sail batez osatua dagoela (banakako formulazioak), bereizten ditu, diskurtsoaren sendotasunean bertan, ahalezko gertaeren zenbait plano: enuntziatuen plano euren banakako azalartzean; objektuak agertzen diren plano, enuntziatio-motak, kontzeptuak, hautaketa estrategikoak (edo dagoeneko badiren horiei eragiten dien transformazioak) agertzen diren plano; eraketa-arau berriak deribatzeko plano, dagoeneko lanean diharduten arauetan oinarrituta –baina beti positibotasun bakar eta berberean–; azkenik, laugarren maila batean, eraketa diskurtsibo bat beste batekin ordezkatzeko den plano (edo positibotasun agertze edo desagertze hutsa). Gertaerok, bitxiak direnak, askotik gainera, arkeologiarentzat garrantzitsuenak dira: berak bakarrik agerraraz ditzake, edozein kasutan. Baina ez dira eurak bakarrik bere deskribapenaren objektu eksklusiboak; huts egingo da sinesten bada berak beste guztien gainean agintzen due la erabat eta bereizi ahal izan diren plano ezberdinetan antzerako eta aldi bereko hausturak eragiten dituela. Diskurtsoaren sendotasunean ematen diren gertaera guztiak ez daude batzuk besteen gainean. Egia esan, eraketa diskurtsibo baten agerpenak

berarekin dakar objektuen berritze zabala, enuntziazio-arena, kontzeptuena eta estrategiena (hastapen hau ez da, hala ere, unibertuala: Gramatika orokorra XVII. mendean ezarri zen gramatikaren tradizioan aldaketa askorik ekarri barik); baina ezinezkoa da finkatzea bat-batean bere presentzia adierazten duen kontzeptu mugatua edo objektu partikularra. Ez da beharrezkoa, beraz, era horretako gertaera bat deskribatzea formulazio baten azaleratzeari edo hitz berri baten agertzeari komeni dakizkiokeen kategorien arabera. Alferrik da horrelako gertaera baten aurrean honelako galderak egitea: «zein da egilea? zeinek egin du hitz? zer egoeratan eta zer testuingururen barruan? zer asmok bultzatuta zer egitasmorekin?». Positibotasun berri baten agerpena ez da adierazten esaldi berri baten bidez –ustekabekoa, harrigarria, logikoki aurretik jakin ezin dena, estiloaren aldetik desbideratzailea– testu batean txertatuko litzatekeena eta iragarriko lukeena bai kapitulu berri baten hasiera, bai esatari berri baten parte hartzea. Mota guztiz ezberdineko gertaera da.

2. Era horretako gertaerak aztertzeke, ez da nahikoa aldaketak egiaztatzea, eta eurak lotzea bai sorketaren ereduari, teologikoa edo estetikoa (bere transzendentzia eta guzti, bere orijinaltasunen eta bere asmaketen joko osoarekin), bai kontzi entzia hartzearen eredu psikologikoari (bere aurreko ilunekin, bere aurrerapenekin, bere zirkunstantzia lagungarriekin, berregituratzeko bere ahalmenekin) baita eboluzioaren eredu biologikoari ere. Beharrezkoa da definitzea zehaztasunez zertan dautzan aldaketa hauek: hau da, ezberdindu gabeko aldaketari erreferentzia –aldi berean gertaera guztien edukitzailea eta euren jarraitasunaren hastapen abstraktua– ordezkatzeko transformazioen aldaketarekin. Positibotasun baten desagertzea eta beste baten azaleratzea biltzen du zenbait transformazio mota ezberdin. Partikularrenetik orokorrenera joanda deskribatu ahal eta behar da: nola transformatzen diren eraketa-sistema baten osagai ezberdinak (esaterako, zein izan diren langabezia tasen eta lan eskakizunen aldaketak, zein izan diren korporazioei eta unibertsitateari buruzko erabaki politikoak, zein izan diren premia berriak eta sorospen aukera berriak XVIII. mendearen bukaeran –osagai hauek guztiek medikuntza klinikoaren eraketa-sisteman sartzen dira–); nola transformatzen diren eraketa-sistema baten berezko harremanak (esaterako, XVII. mendearen erdian pertzepzio-arloaren, hizkuntza kodearen, artekaritza instrumentalaren eta informazioaren arteko harremana, bizidunei buruzko diskurtsoan erabilitakoa, aldatua izan zen Historia naturalaren objektuak definitzea baimenduz); nola izan diren transformatuak eraketa-arauen arteko harremanak (esaterako, nola aldatu zuen biologiak Historia naturalak ezarria zuen ordena eta mendetasuna ezaugarritzearen teoriaren eta denbora deribazioen azterketaren artean); azkenik nola transformatu ziren positibotasun ezberdinak arteko harremanak (nola Filologia, Biologia eta Ekonomiaren arteko harremanek transformatzen dituzten Gramatikaren, Historia naturalaren eta aberastasunen Azterketaren arteko harremanak; nola deskonposatzen den hiru diziplina hauen harreman pribilegiatuak diseinatzen zituen diskurtso arteko konfigurazioa; nola aurkitzen diren aldatuak euretako bakoitzaren harremanak matematikekin eta filosofiarekin; nola diseinatzen den leku bat beste eraketa diskurtsibo batzuentzako eta bereziki giza zientzia deituko den interpositibotasun honetarako). Aldaketaren indar bizia aipatu baino (bere hastapena bailitzan) bere zergatiak bilatu baino (bera ondorio huts eta soila besterik ez bailitzan), arkeologia ahalegintzen da zehazten «aldaketaren» oinarria den transformazioen sistema; ahalegintzen da lantzen adigai huts eta abstraktu hori berari transformazioaren estatus aztergarria emateko. Ulertzen da zenbait espirituk –mende oso batean zehar historia (aldaketa, jarioa, eboluzioa) irudikatzeke erabili diren metafora zahar horiei atxikita– bertan bakarrik dakusatela historiaren ukazioa eta jarraitasun-ezaren baieztapen zapuztua; honegatik, izan ere, euren ezin dute onartu aldaketa eredu arrotz horietaz guztietaz gabetzea, berari kentzea aldi berean lege unibertsal gisa dagokion lehenetsuna eta ondorio orokorra izateko estatusa eta bere ordezkari transformazio ezberdinen azterketa jartzea.

3. Eraketa diskurtsibo bat beste batekin ordezkatzeko delat esatean, ez da esaten objektuen, enuntziazioen, kontzeptuen, aukeraketa teoriko erabat berrien mundu oso bat, guztiz armatua eta antolatua, sortzen dela behingoan eta betiko bera bere lekuan jarriko duen testu batean; esaten da harremanen transformazio orokor bat gertatu dela, baina honek ez dituela nahitaez aldatzen osagai guztiak; esaten da enuntziatuek eraketa-arau berriei obeditzen dietela, ez da esaten objektu edo kontzeptu guztiak, enuntziatu edo aukeraketa teoriko guztiak desagertzen direla. Aitzitik, arau berri hauetatik abiatuta deskriba eta azter daitetzeko jarraitasun, itzulera eta errepikapen-fenomenoak: ez da ahaztu behar, hain zuzen, eraketa-arau bat ez dela ez objektu baten mugapena, ez kontzeptu baten era edo edukia, baizik eta euren ugaritasunaren eta sakabanaketaren hastapena. Osagai hauetako batek –edo euren arteko askok– berbera irauten dezake (ebaketa bera gorde, ezaugarri berdinak, egitura berdinak) baina sakabanaketa-sistema ezberdinen zati izan daiteke eta eraketa-lege ezberdinen mendeko ere. Ondokoen moduko fenomenoak aurki daitetzeko beraz: zenbait positibotasun ezberdinetan zehar irauten duten osagaiak, euren formak eta edukiak berdina dirautelarik, baina euren eraketa heterogeneoa izanik (aurki daiteke horrela moneta zirkulazioa objektutzat hartuta lehenik aberastasunen Azterketan eta ondoren Ekonomia politikoarenean; karakterearen kontzeptua lehenik Historia naturalean eta ondoren Biologian); eraketa diskurtsibo batean sortzen, aldatzen, antolatzen diren osagaiak, azkenean egonkortuta beste batean agertzen direlarik (esaterako, erreflexuaren kontzeptua, honi dagokionez G. Canguilhemek erakutsi du Willisen eta Prochaskaren arteko zientzia klasikoan eratu dela eta gero zientzia modernoan sartu dela); berandu agertzen diren osagaiak, eraketa diskurtsibo baten azken deribazio modura, eta ondoko eraketa batean lehen lekua betetzen dutenak (horrela organismoaren adigai XVIII. mendearen bukaeran agertu zen, ezaugarritze eginkizun taxonomiko osoaren emaitza bezala, Cuvieren garaioko biologian kontzeptu nagusia bihurtuz; lesio fokuen adigai ere, Morgagnik eguneratu zuena eta medikuntza klinikoaren

kontzeptu nagusienetakoa bihurtu dena); denboraldi bat erabili gabe, ahaztuta edo baliagabetua egon eta gero atzera agertzen diren kontzeptuak (hala nola, Linnaeusen *fixismora* itzulera Cuvieren moduko biologo baten aldetik edo jatorrizko hizkuntzaren ideia zaharraren suspertzea XVIII. mendean). Arkeologiaren arazoa ez da fenomeno hauei uko egitea, ezta eurei garrantzia kentzea ere; baizik eta eurei neurria hartzea eta azaltzen ahalegintzea: nola egon daitezke iraupen horiek edo errepikapen horiek, kateatze luze horiek edo denbora saihesten duten bihurgune horiek? Arkeologiak ez du jarraitasuna hartzen lehen eta azken datutzat, gainerako guztiak azalduko dituen; aitzitik, kontsideratzen du berberak, errepikatzen denak eta etengabeak ez du tela hausturek baino arazo gutxiago ematen; arkeologiarantz berbera eta jarraitua ez dira azterketaren bukaeran berraurkitu behar dena; jardute diskurtsiboaren inguramenean agertzen dira; positibotasunen eraketa-arauen agindupean daude eurak ere; inertzia oinarritzako eta lasaigarri hori adierazi gabe (zeina aldaketaren erreferentzia egiteko joera dugun) eurak aktiboki eta erregulariki eratuak izaten dira. Eta arkeologiari jarraitasun-ezaren azterketa lehenestea aurpegiratzen diotenei, historiaren eta denboraren agorafobiko horiei guztiei, haustura eta irrazionaltasuna nahasten duten horiei guztiei, nik zera erantzuniko diet: «zeuek baliogabetzen duzue jarraitasuna, beretaz egiten duzuen erabilerekin, zeuek tratatzen duzue bera osagai-euskarri modura, gainerako guztiaren erreferentzia izan behar duena, zeuek bihurtzen duzue bera jardute diskurtsibo ororen lehen legea, funtsezko astuntasuna; zeuek gura duzue aldaketa oro inertzia honen arloan aztertzea, higidura oro grabitazioaren arloan aztertzen den legea. Baina zeuek estatus hori ematean bera neutralizatu egiten duzue eta bultzatzen duzue denboraren kanpoko mugetara, jatorrizko pasibotasun baterantz. Arkeologiaren asmoa jarrera hori alderantzikatzea da, edo hobe esanda (kontua ez baita jarraitasun-ezari atxikitzea orain arte jarraitasunari eman zaion papera) jarraitasunari eta jarraitasun-ezari elkarren aurka jokaraztea: erakustea jarraitasuna sakabanaketaren baldintza beretan eta arau berdinekin eratzen dela; eta jardute diskurtsiboaren arlo berean sartzen dela –ezberdintasunak, asmaketak, berritasunak edo desbideraketak baino ez gehiago eta ez gutxiago»–.

4. Positibotasunen agerpenak eta ezabapenak, eurek eragiten duten ordezkapenen jokoak, ez dute prozesu homogeenoa bat osatzen, alde guztietatik modu berean garatuko litzatekeena. Ez da pentsatu behar haustura izango denik eraketa diskurtsibo guztiak aldi berean mendean dituen deriba orokor handi baten gisako zerbaite: haustura ez da denbora eten bat, bereizi gabea, tartekatuko litzatekeena –une batez besterik ez bada– bi aldi nabarmenen artean; ez da iraupenik gabeko lapsusa, bi garai bereiziko litzatekeena eta faila baten alde batera eta bestera bi denbora heterogeenoa zabalduko litzatekeena; transformazio kopuru jakin batek zehaztutako jarraitasun-eza da, definituriko bi positibotasunen artean dagoena. Horrela, haustura arkeologikoen azterketak helburutzat du finkatzea, hainbeste aldaketa ezberdinen artean, hierarkiak, osagarritasunak, bat etortzeak eta desdoitzeak: laburbilduz, jarraitasun-ezen sakabanaketa deskribatzea.

Eraketa diskurtsibo guztiak bat-batean eta une jakin batean zatituko litzatekeen haustura bakar baten ideia, eurak mugimendu bakar batean moztuz eta arau berberen arabera eratu berriz –ideia hau ezin da eutsi–. Zenbait transformazio garaikide izateak ez dakar euren aldibereketasuna: transformazio bakoitzak denborazko «biskositate» indize berezia du. Historia naturala, gramatika orokorra eta aberastasunen azterketa modu analogoan osatu dira eta hirurak XVII. mendean zehar; baina aberastasunen azterketaren eraketa-sistema lotuta zegoen baldintza eta jardute ez diskurtsiboaren kopuru handi bati (salgaien joan-etorria, moneta manipulazioa eta bere ondorioak, merkataritzaren eta manufakturen babes-sistema, moneta bihurtutako metal kopuruaren oszilazioa); hortik dator mende bat baino gehiagoko garatu den prozesu baten geldotasuna (Grammon-tengandik Cantillonenganaino), bien bitartean Gramatika eta Historia naturala ezarri zituen transformazioak ez ziren luzatu hogeita bost urte baino askoz gehiagoko. Alderantziz, garaikideak, analogoak eta lotutakoak diren transformazioek ez daramate eredu bakar batera, ugalduko litzatekeena zenbait aldiz diskurtsuoen azaleran eta guztiei ezarriko liekeena haustura era guzti berbera: deskribatu denean filologia, biologia eta ekonomia sorrarazi duen haustura arkeologikoa, kontua zen erakustea nola zeuden uztartuta hiru positibotasun horiek (zeinuaren azterketaren eta errepresentazioaren teoriaren desagerpenagatik) zer ondorio simetriko ekoitzezakeen berak (izaki bizidunen osotasunaren eta moldaketa organikoaren ideia; hizkuntzen koherentzia morfologikoaren eta eboluzioaren ideia; bere barruko legeak eta eboluzio mugak dituen ekoizpen eraren ideia); baina kontua zen, halaber, erakustea zein ziren transformazio hauen ezberdintasun espezifikoak (nola sartzen den historikotasuna bereziki hiru positibotasun hauen modu zehatz batean, nola, beraz, euren harremana historiarekin ezin den izan berdina, guztiek berarekin harreman definitua duten arren).

Azkenik, badira haustura arkeologiko ezberdinen artean desdoitze garrantzitsuak, –eta batzuetan baita oso gertukoak eta harreman ugari lotutakoak diren eraketa diskurtsiboaren artean ere–. Horrela da hizkuntzaren eta azterketa historikoaren diziplinetan: XIX. mendeko lehen urteetan gramatika historikoa eta konparatua jaiotzera ekarri zuen transformazio handia mende erdi pasatxoan aurreratu zaio diskurtsu historikoaren mutazioari: horrela, filologia sartuta zegoen interpositibotasun-sistema sakonki birmoldatu zen XIX. mendeko bigarren erdian, filologiaren positibotasuna auzitan jarri gabe. Hortik datoz «zaticako desdoitzearen» fenomenoak, honetaz beste adibide nabari bat eman daiteke: gainbalioa, irabazien tasaren jaitsiera, Marxengan aurkitzen diren legeak, dagoeneko Ricardoren lanean dagoen positibotasun-sistemaren bidez deskriba daitezke; alabaina, kontzeptuok (berriak direnak, eurak eratzeko arauak ez diren arren) agertzen dira –Marxengan bertan– aldi berean jardute diskurtsibo guztiz ezberdin bati uztartuak: eurak eratu dira lege berezien arabera, beste leku bat betetzen dute, ez dira agertzen kateaketa berdinetan: positibotasun berri hau ez da Ricardoren azterketen transformazioa; ez da ekonomia politiko berria;

diskurtsoa da, eta bere ezarpena etorri da zenbait kontzeptu ekonomikoren deribazioarekin, baina, hala ere, berak definitzen ditu ekonomisten diskurtsoa gauzatzeko behar diren baldintzak eta balio dezake ekonomia politikoaren kritikaren teoria eta kritika modura.

Arkeologiak desegiten du hausturen sinkronia, aldaketaren eta gertaeraren arteko batasun abstraktua bananduko zituzkeen modura. Garaia ez da ez bere oinarrizko batasuna, ez bere ostertza ez bere objektua: arkeologiak hitz egiten badu, beti ere i zango da jardute diskurtsibo zehatzengatik eta bere azterketen emaitza bezala. Aro klasikoa, sarritan aipatua izan zena azterketa arkeologikoetan, ez da denbora-irudia, bere batasuna eta era hutsa ezartzen diena diskurtso guztiei; jarraitasunen, ez-jarraitasunen, positibotasunen barruko aldaketen, agertzen eta desagertzen diren eraketa diskurtsiboen gurutzatzeari eman dakiokeen izena da. Era berean, haustura, ez da arkeologiarentzako bere azterketen topea, urrunetik adierazten duen muga, ber a mugatu ezinik, berari espezifikotasuna eman ezinik; haustura izena da, ematen zaiena eraketa diskurtsibo bat edo ugariren erregimen orokorra daramaten transformazioei. Horrela Iraultza frantsesak –orain arteko azterketa arkeologiko guztiak berari zuzendu zaizkionez– ez du diskurtsotik kanpoko gertaera baten papera jokatzeko, behar den moduan pentsatzeko diskurtso guztietan aurkitu beharko genukeelarik gertaera horrek lukeen diskurtso guztiak zatikatzeko efektua; Iraultza frantsesak funtzionatzen du multzo konplexu baten gisara, artikulatua, transformazio deskribagarrien multzo gisara, zeintzuek ukitu gabe utzi duten zenbait positibotasun, beste zenbaitentzat oraindik gureak diren arauak finkatu dituztelarik, eta, halaber, desegin berriak diren edo gure begien aurrean desegiten ari diren positibotasunak ezarri dituztelarik.

VI. Zientzia eta Jakite

Zedarritze isil bat ezarri zaie aurreko azterketa guztiei, euren hastapena eman gabe, bere zirriborroa zehaztua izan gabe. Aipatutako adibide guztiak, salbuespenik gabe, eremu oso mugatu bati dagozkio. Urrun gaude ez bakarrik diskurtsoaren eremu eskerga horren inbentarioa egitetik, baita bera zundatzetik ere: zergatik ez ditut inondik ere kontuan hartu literatur testuak, eta ezta testu filosofikoak edo politikoak ere? Eskualde hauetan, ez al dute lekurik eraketa diskurtsiboek eta positibotasun sistemek? Eta zientzien esparru hutsa kontuan hartuz, zergatik utzi ditut isilpean matematikak, fisika edo kimika? Zergatik ekarri ditut harira zenbait diziplina zalantzarri, oraindik eragabeak eta, beharbada, betik zientziaren atalasearen azpitik iraungo dutenak? Hitz batean esanda, zer harreman dago arkeologiaren eta zientzien azterketaren artean?

a) Positibotasunak, diziplinak, zientziak.

Lehen arazoa: arkeologiak ez al ditu deskribatzen bakarrik pseudozientziak (psikopatologia, esaterako) «eraketa diskurtsibo» eta «positibotasun» hitz ausart xamarrekin, hau da, euren historiaurreko egoeran dauden zientziak (hala nola historia naturala) edo ideologiak erabat barrendutako zientziak (hala nola ekonomia politikoa)? Ez al da beti ia-zientifikoa iraungo duenaren azterketa pribilegiatua? «Diziplina» baderitzegu euren antolaera eredu zientifikoetatik mailegatu dituzten enuntziatu-multzoei, koherentziarako, frogagarritasunerako joera dutenei, zientzia modura jasotzen, instituzionalizatzen, transmititzen eta batzuetan irakasten direnei, ezin izango dugu horregatik esan arkeologiak deskribatzen dituela benetan zientziak ez diren diziplinak eta, haatik, epistemologiak deskribatzen dituela existitzen diren diziplinetan oinarrituta eratu ahal izan diren zientziak.

Galdera hauei ezezkoarekin erantzun ahal izango zaie. Arkeologiak ez ditu diziplinak deskribatzen. Gehien jota, hauek positibotasunen deskribapenaren abiapuntutzat har daitezke; baina eurek ez dituzte mugak zehazten; ez dituzte behin betiko ebakidurak ezartzen; ez dira atzera aurkitzen azterketaren bukaeran lehengo egoera berean; ezin da ezarri finkatutako diziplinen eta eraketa diskurtsiboaren artean harreman biunibokorik.

Hona hemen distortsio honen adibide bat. Histoire de la Folie-ren lotura-puntua zen diziplina psikiatriko baten sorrera XIX. mendearen hasieran. Diziplina honek ez zuen XVIII. mendeko tratatuetan aurkitzen diren «buruko gaitzen» edo «nerbio gaixotasunen» eduki bera, eta ezta barruko antolaera bera, ez leku bera medikuntzan, ez funtzio praktiko bera, ez erabilera bera ere. Alabaina, diziplina berri honi galdatzean bi gauza aurkitu dira: harreman-joko batek egin du bera ahalezkoa agertu den garaian eta berak mugatu du kontzeptuen, azterketen eta frogapenen ekonomian aldaketa handi hori, tartean ospitaleratzeak daudela, eroetxeratzeak, gizarte-baztertzeen baldintzak eta prozedurak, jurisprudentziaren arauak, lan industrialaren eta moral burgesaren arauak, labur esanda, jardute diskurtsibo honentzat enuntziatuen eraketa ezaugarritzen duen multzo osoa; baina jardute hau ez da bakarrik agertzen estatus eta asmo zientifikoa duen diziplina batean; jardunean aurkitzen da, halaber, testu juridikoetan, literatur adierazpenetan, hausnarketa filosofikoetan, politika mailako erabakietan, eguneroko bizitzaren asmoetan, iritzietan. Diziplina psikiatrikoak eta diziplina honi eskerrak kokatu ahal den eraketa diskurtsiboak ez dute hedadura bera, ezta hurretik ere ez: bera gainditzen du askotik eta alde guztietatik inguratzen du. Baina bada gehiago: denboran atzera jo eta bilatuz gero, XVII. eta XVIII. mendeetan, psikiatriaren

ezarpenaren aurrekoa izan ahal izan dena, jabetuko gara ez dagoela bere aurreko inolako diziplinarik: garai klasikoko sendagileek eldarnioei buruz, malenkoniari buruz, nerbio gaixotasunei buruz esandako guztiak ez zuen osatzen inolaz ere ez diziplina autonomorik, gehien jota izango zen sukarraren, humoreen aldaketan edo burmuinaren eritasunen azpian egindako iruzkina. Hala ere, finkatutako diziplina baten falta egonda ere, bazen lanean jardute diskurtsibo bat, bere erregulartasunekin eta bere trinkotasunarekin. Jardute diskurtsibo hau txertatuta zegoen medikuntzan, baina baita administrazio-araueetan ere, literatur edo filosofia testuetan, kasuistikan, behartsuei zuzendutako derrigorrezko lan edo laguntza teorietan edo egitasmoetan. Garai klasikoan badago, beraz, eraketa diskurtsibo bat eta positibotasun bat, hauek deskribatzeko guztiz eskura daude, baina ez dagoenik psikiatriarekin pareka daitekeen inolako diziplinarik.

Baina egia bada positibotasunak ez direla ezarritako diziplinen bikoizketa hutsa, ez al dira izango etorkizuneko zientzien zirriborroa? Eraketa diskurtsiboaren izenaren azpian ez al da adierazten zientzien atzera begirako proiektzioa euren iraganerantz, gerizpe bat euren aurrekoa izan denaren gainera zuzentzen dutena, alegia itxuran aurretik eurak zirriborratu dituenaren gainera zuzentzen dutena? Esaterako, aberastasunen azterketa edo gramatika orokor modura deskribatu dena (eurei emanaz beharbada guztiz artifiziala izango den autonomia) ez al da izango, besterik gabe, ekonomia politikoa bere hasierako egoeran edo hizkuntzaren zientzia benetan zorrotza ezarri baino lehenagoko aroa? Mugimendu atzerakoi baten bidez, bere legitimitasuna ezartzea zaila izanik, ez al da arkeologia ahalegintzen berriro multzokatzen jardute diskurtsibo independente batean zientzia bat ezartzeko beharrezkoak diren osagai heterogeneo eta sakabanatu guztiak, derrigor euren konplizitatea eskaini behar duten osagaia guztiak?

Hemen ere erantzunak ezezkoa izan behar du. Historia naturalaren izenaren azpian aztertua izan den guztiak ez du batzen, irudi bakar batean, XVII. eta XVIII. mendeetan, bizitzaren zientziaren zirriborro modura balio izan zezakeen guztia, bere genealogia legitimoan ager daitekeen guztia. Horrela eguneratutako positibotasunak, benetan, ondo argitzen ditu zenbait enuntziatu, zerikusia dutenak izakien arteko antzekotasunekin eta ezberdintasunekin, euren egitura ikusgarriarekin, euren ezaugarri espezifikoa eta generikoekin, euren ahalezko sailkapenarekin, banatzen dituen jarraitasun ezekin eta uztartzen dituen trantsizioarekin; baina alde batera uzten ditu beste zenbait azterketa, garai berekoak direnak, hala ere, eta euren diseinatzen dituzte biologiaren antzinako irudiak: mugimendu erreflexuaren azterketa (nerbio-sistemaren anatomo-fisiologia osatzeko hain garrantzitsua izango dena), germenen teoria (itxuran bilakaeraren eta genetikaren arazoei aurre hartzen diena), animalien edo landareen handitzeari buruzko azalpena (organismoen fisiologia orokorraren gai nagusienetakoa izango dena). Gehiago oraindik: Historia naturalak –diskurtso taxonomikoa, zeinuen teoriari eta ordenaren zientziaren egitasmoari loturikoa– etorkizuneko biologiari aurrea hartu beharrean baztertu egiten zuen, bere sendotasunagatik eta bere autonomiagatik, bizitzari buruzko zientzia bateratu baten osaketa. Era berean, Gramatika orokor modura deskribatzen den eraketa diskurtsiboak ez du argitzen, ezta hurretik ere ez, garai klasikoan hizkuntzari buruz esan ahal izan den guztia, hau da, ez du argitzen geroago, filologian, horren jaraunspen edo arbuio modura, garapen edo kritika modura aurkitu ahal izango dena: alde batera uzten ditu exegesi biblikoaren metodoak eta Vicok edo Herderrek formulatu zuten hizkuntzaren filosofia. Eraketa diskurtsiboak, beraz, ez dira etorkizuneko zientziak, eurak isilpean osatuko diren unean bertan, oraindik euren buruaz jabetu gabekoak: eurak ez daude, izan ere, mendetasun egoera batean zientzien ortogenesiarekiko.

Esan behar al da, orduan, ezin dela zientziarik egon positibotasuna dagoen lekuan, eta positibotasunak, eurak aurkitu ahal diren lekuan, beti zientziari dagozkiola? Suposatu behar al da zientziarekin harreman kronologikoan egon beharrean ordezkotako egoeran daudela? Eurak al dira akats epistemologiko jakin baten nola edo halako irudi positiboa? Baina, baita kasu honetan ere, kontra-adibidea eman daiteke. Medikuntza klinikoa ez da benetan zientzia bat. Ez bakarrik betetzen ez dituelako irizpide formalak eta fisikatik, kimikatik, edo fisiologiatik ere, espero daitekeen zorrotzasun maila; baizik eta berak ia antolatuta gabeko pilaketa bat dakarrelako berarekin, behaketa empirikoena, saio eta emaitza gordinena, errezetena, agindu terapeutikoena, araudi instituzionalena. Eta, hala ere, ez-zientzia hau ez dagokio zientziari bakarrik. XIX. mendean zehar, guztiz eratutako zientzien artean harremanak ezarri ditu: fisiologia, kimika, edo mikrobiologia kasu; gainera, anatomia patologikoaren gisako diskurtsoak sorrarazi ditu, eta handikeria litzateke, zalantzarik gabe, hauei sasi zientzia izena ematea.

Beraz, ezin dira eraketa diskurtsiboak parean jarri ez zientziekin, ez etorriko diren zientziek diseinatzen dituzten irudiekin, ezta, azkenik, hasieratik zientifikotasun oro baztertzeko dutenarekin. Zer gertatzen da orduan positibotasunen eta zientzien arteko harremanarekin?

b) Jakite.

Positibotasunek ez dituzte ezaugarritzen ezagutzeko erak –bai a priorizko eta beharrezko baldintzak badira, bai historiak txandaka lanean jarri ahal izan diren arrazionaltasun erak badira–. Baina eurek ez dute definitzen ezagupenen egoera denboraren une jakin batean: ez dute balantzea egiten ordutik aurrera frogatu ahal izan denari buruz, behin betiko eskuratutako ezagupenaren estatusa hartu duenari buruz, frogarik gabe eta nahikoa frogapenik gabe onartu denari buruz, edo sinesmen arruntaren indarrez edo irudimenaren indarrak horrela eskatuta onartu denari buruz. Positibotasunak aztertea da erakustea zer arauen arabera era ditzakeen jardute diskurtsibo batek objektu taldeak, enuntziatio-multzoak, kontzeptu-jokoak, aukeraketa teorikoen sailak. Horrela eraturako osagaiek ez dute zientziarik osatzen, idealtasun-egitura definitu batekin; euren harreman-sistema, zalantzarik gabe, ez da hain zorrotza; baina hauek ez dira bata bestearen ondoan pilatutako ezagupenak, esperientziatik, tradizioetatik edo aurkikuntza heterogeneoetatik datozenak, beretzat dituen subjektuaren nortasunaren bidez loturikoak bakarrik. Proposizio koherenteak (edo ez) mamitzeko oinarria dira, deskribapen zehatzagoak edo zehaztasun txikiagokoak gararazteko, egiaztapenak gauzatzeko, teoriak hedatzeko. Ezagupen modura edo irudipen modura, onartutako egia edo salatutako hutsegitearen modura, behin betiko lorpen edo gainditutako trabaren modura agertu eta funtzionatuko duenaren aurrekoa eraten dute. Garbi ikusten da aurreko hau ezin dela aztertu datu baten modura, bizi izandako esperientzia modura, irudimenezkoan edo hautematean txertatutakoa, gizateriak bere historian zehar arrazionaltasunaren eran berrartu behar izan duena, edo gizabanako bakoitzak zeharkatu beharko lukeena bere aldetik berriz ere aurkitu gura baditu bertan bilduta edo ezkatuta dauden esanahi idealak. Gogoan duguna ez da aurrezagutza bat edo berehalako ezagutzatik apodiktikora doan egoera arkaikoa; gogoan duguna da jardute diskurtsiboak eratu behar dituen osagaiak diskurtso zientifikoa osatu ahal izateko eta bera bereizteko ez bakarrik bere eraz eta bere zorrotasunaz, baizik eta, baita ere, arduratzen den objektuez, jokoan ipintzen dituen enuntziatu-motetz, manipulaten dituen kontzeptuez eta erabiltzen dituen estrategiez. Hontara, zientzia ez dagokio bizi behar izan denari edo bizi behar denari, horrela berezkoa zaion idealtasun asmoa oinarritzeko; baizik eta esan behar izan denari –edo esan behar denari– dagokio, berak diskurtso bat eduki ahal dezan, behar izanez gero, zientifikotasun-irizpide formal eta esperimentalei erantzungo diena.

Osagaien multzo hauxe dei daiteke jakite, alegia, jardute diskurtso batek modu erregularrean eratu dituen osagaien multzoa, zientzia bat osatzeko ezinbestekoak direnak, euren helburua ez izan arren zientzia hori sorraraztea. Jardute diskurtsibo batean zertaz hitz egin daitekeen, horixe da jakite bat, eta jardute diskurtsiboa era horretara zehaztua geratzen da; jakite bat eremu bat da, estatus zientifikoa bereganatuko duten ala bereganatuko ez duten objektu ezberdinek osatzen dutena (XIX. mendeko psikiatriaren jakite ez da egiaztat jo denaren batuketa, aitzitik diskurtso psikiatrikoan mintzagai izan daitezkeen jokoaren, berezitasunen, desbideraketen multzoa da); jakite, halaber, espazio bat da, non subjektuak lekua har dezakeen bere diskurtsoan gogoan dituen objektuez jardun egiteko (zentzu honetan medikuntza klinikoaren jakite da diskurtso medikoaren subjektuak zer ditzakeen funtzioen multzoa, hau da, begiratze, galdetze, deszifratze, erregistratze, erabakitze funtzioen multzoa); jakite, halaber, koordinazio eta menderakuntza-arlo bat da, non enuntziatuak edo kontzeptuak agertzen diren, definitzen diren, erabiltzen diren eta transformaten diren (maila honetan, Historia naturalaren jakite, XVIII. mendean, ez da esandako guztiaren batuketa, aitzitik moduen eta deien multzoa da, zeintzuen arabera enuntziatu berri oro dagoeneko esan denean sartu ahal den); azkenik jakite bat definitzen da diskurtsoak eskaintzen dituen erabilpen eta eskuratze aukeren bidez (horrela, ekonomia politikoaren jakite, garai klasikoan, ez da eutsitako tesi ezberdinei buruzko tesia, baizik eta jakite hori beste diskurtso batzuekin edo diskurtsiboak ez diren beste jardute batzuekin artikulatzen den puntuen multzoa). Badira zientziez independenteak diren jakitek (ez direnak ez zirriborro historikoa, ez bizi izan den atzealdea), baina ez dago jakiterik jardute diskurtsibo definitu bat barik; eta jardute diskurtsibo oro berak eraten duen jakiteaz defini daiteke.

Kontzientzia-ezagutza-zientzia ardatza zeharkatu beharrean (zeina ezin den askatu subjektibotasunaren adierazleaz) arkeologiak jardute diskurtsibo-jakite-zientzia ardatza zeharkatzen du. Eta ideien historiak bere azterketaren oreka-puntua ezagutzaren osagaian aurkitzen duenean (berriro galdeketa transzendentala aurkitzera behartua dagoelarik, bere gogoz kontra izan arren), arkeologiak bere oreka-puntua jakitearen azterketan aurkitzen du –hau da, subjektua nahitaez jarrita dagoen eta derrigor mendekoa den eremu batean, non berak sekula ezingo duen titular modura agertu (dela jardute titular modura, dela kontzientzia enpiriko modura)–.

Baldintza hauetan ulertzen da beharrezkoa dela arretaz bereiztea eremu zientifikoak eta esparru arkeologikoak: euren hausturak eta antolaera-hastapenak guztiz bestelakoak dira. Zientifikotasun-eremu batean sartzen dira bakarrik eraiketa-arau jakin batzuk betetzen dituzten proposizioak; zentzu bera izango luketen baieztapenak, gauza bera esango

luketenak, haiek bezain egiazkoak izango lirakeenak, baina sistematikotasun ezberdinen arabera izanik, eremu honetatik baztertuko lirake: espezieen bilakaerari buruz Le rêve d'Alambert-en esaten denak ondo itzul ditzake garai hartako kontzeptu jakin batzuk edo hipotesi zientifiko batzuk; honek, gainera, etorkizuneko egiaren bat aurrera dezake; honek ez du zerikusirik Historia naturalaren zientifikotasun-eremuarekin, aitzitik, bere esparru arkeologikoari dagokio, behintzat, bertan aurki badaitezke lanean Linnaeusengan, Buffonengan, Daubentonengan edo Jussieurengan aurki daitezkeen eraketa-arau berberak. Esparru arkeologikoek «literatur» edo «filosofia» testuak zeharka ditzakete testu zientifikoak zeharka ditzaketen bezalaxe. Jakite ez dago sartuta frogapenetan bakarrik, bera egon daiteke, halaber, fikzioetan, hausnarketetan, kontakietan, araudi instituzionaletan, erabaki politikoetan. Historia naturalaren esparru arkeologikoak biltzen ditu *Palingénésie philosophique* edo Telliamed lanak, nahiz eta euren ez duten betetzen oso neurri handian garai hartan onartzen ziren arau zientifikoak, eta, gutxiago oraindik, zalantzarik gabe, geroago eskatuko zirenak. Gramatika orokorraren esparru arkeologikoak Fabre d'Olivetaren ameskeriak biltzen ditu (sekula jaso ez dutenak estatus zientifikoa eta gehiago sartzen direnak pentsaera mistikoaren erregistroan) ez atribuzio-proposizioen azterketa baino gutxiago (orduan egia nabarizatzen hartzen zena, eta bertan gramatika generatiboak gaur egun aurki dezake prefiguratu bere egia).

Jardute diskurtsiboak ez du bat egiten berak eragin dezakeen elaborazio zientifikoarekin; eta berak eratzen duen jakite ez da gauzatutako zientzia baten ez zirriborro zimurtua, ez eguneroko azpiproduktua. Zientziak –gutxi axola oraingoz zer ezberdintasun dagoen zientifikotasun estatusa edo horren ustea duten diskurtsioen eta benetako irizpide formala erakusten duten diskurtsioen artean– agertzen dira eraketa diskurtsibo baten ingurumenaren baitan jakiteko atzealde baten gainean. Honek arazo bi sail zabaltzen ditu: zein izan daiteke zientifikotasun-eremu baten lekua eta papera bera diseinatzen den esparru arkeologikoan? Zer ordenaren eta zer prozesuren arabera betetzen da zientifikotasun-eremu baten sorrera emandako eraketa diskurtsibo batean? Arazo hauei ezingo zaie hemen eta orain erantzuna eman: helburua da adieraztea zer norabidetan aztertu ahal izango den, beharbada, ez besterik.

c) *Jakite eta ideologia.*

Behin erata, zientzia batek ez du berriz hartzen, bere aldetik eta berezkoak zaizkion kateatzeetan, bera agertzen den jardute diskurtsiboa eratzen zuen guztia; gainera, berak ez du desagerrarazten –huts egitean, aurreiritzien edo irudimenaren historiaurrera bidaltzeko– inguratzen duen jakite. Anatomia patologikoak ez du murriztu eta zientifikotasunaren arauetara itzularazi medikuntza klinikoaren positibotasuna. Jakite ez da lantoki epistemologiko bat, deuseztatuko litzatekeena bera burutu duen zientzian. Zientzia (edo zientziazat jotzen dena) jakite-arlo batean kokatzen da eta paper bat jokatzeko du bertan. Paper hau aldatzen da eraketa diskurtsibo ezberdinen arabera eta euren mutazioekin. Garai klasikoan espirituairene gaixotasunei buruzko ezagutza medikuntzat jotzen zenak oso leku mugatua betetzen zuen eromenari buruzko jakitean: nekez osatzen zuen loratze azalera bat baino gehiago, beste zenbaiten artean (jurisprudenzia, kasuistika, polizia-araudia, etab.); aitzitik, XIX. mendeko azterketa psikopatologikoek, hauek ere buruko gaixotasunen ezagutza zientifiko batetik ateratzen zirenak, paper oso ezberdina eta askoz ere garrantzitsuagoa jokatu dute eromenaren jakitean (eredu eta erabakitze mailaren papera). Era berean, diskurtsio zientifikoak (edo ustez zientifikoak) ez du aseguratzen funtzio bera ekonomia jakitearako XVII. mendean eta XIX. mendean. Eraketa diskurtsibo guztietan, zientzia eta jakitearen arteko harreman zehatza aurkitzen da; azterketa arkeologikoak, horien artean bazterketa edo kenketa-harremana definitu beharrean (bilatuz zer den jakitean zientziari ebasten zaiona eta kontra egiten diona, zer dagoen zientzian oraindik jakitearen auzotasunarekin eta eraginarekin konprometituta dagoena), erakutsi behar du positiboki nola txertatzen den eta nola funtzionatzen duen zientzia batek jakitearen ingurumenean.

Zalantzarik gabe hor, joko-espazio horretan, ezartzen dira eta zehazten dira ideologiak zientziekin dituen harremanak. Ideologiaren nagusitzea diskurtsio zientifikoaren gainean eta zientzien funtzionamendu ideologikoa ez dira artikulatzen euren egitura idealaren mailan (baita ikusteko modu errazagoan edo zailagoan itzuli ahal badira ere egitura horretara), ezta gizarte batean eurretaz egiten den erabilpen teknikoaren mailan ere (nahiz eta gizarte horrek bere eragina jaso ahal izan), eta ezta bera jasotzen duten subjektuen kontzientziaren mailan ere; eurak artikulatzen dira zientzia jakitean oinarrituta ebakitzen denean. Ideologiari buruzko galdera zientziari egin ahal bazaio, hau jakitean kokatzen den neurrian izango da, bere objektuetako batzuk egituratzen dituen neurrian, enuntziatu jakin batzuk sistematizatzen dituen neurrian, bere kontzeptuetatik eta estrategietatik batzuk formalizatzen dituen neurrian, hau guztia zientzia jakitearekin identifikatu gabe, baina bera ezabatu eta baztertu gabe; hau horrela izango da lantze honek jakite moldatzen duen neurrian, alde batetik bera aldatuz eta birbanatuz eta, bestetik, bera baieztatuz eta berari balioa izaten utziz; hau horrela izango da zientziak bere

lekua erregulartasun diskurtsibo batean aurkitzen duen neurrian, non, hori dela eta, bera hedatzen den eta funtzionatzen duen jardute diskurtsiboen, edo ez diskurtsiboen, arlo oso batean. Laburbilduz, ideologiari buruzko galdera zientziari eginda, ez da berak (modu kontzientean edo ez hain kontzientean) islatzen dituen egoerei edo jardutei buruzko galdera; ez da ezta bere balizko erabilerari buruzko edo egin ahal izan diren erabilera txarrei buruzko galdera ere; jardute diskurtsibo gisako euren existentziari buruzko galdera da, eta euren funtzionamenduari buruzkoa beste jardute diskurtsiboen artean.

Oro har esan daiteke, alde batera utzita bitartekotza eta espezifikotasun guztiak, ekonomia politikoak bere papera duela gizarte kapitalistan, burges klasearen interesei zerbitzatzen diela, berak eta berarentzat egindakoa dela, azkenik bere jatorrien estigma daramala, baita bere kontzeptuetan eta bere arkitektura logikoan ere; baina ekonomiaren egitura epistemologikoaren eta bere funtzio ideologikoaren arteko harremanei buruzko edozein deskribapen zehatzagok pasa beharko du bera sorrarazi duen eraketa diskurtsiboaren azterketatik eta baita berak landu eta sistematizatu behar izan dituen objektuen, kontzeptuen aukeraketa teorikoen azterketatik ere; eta erakutsi beharko da, orduan, nola, positibotasun hori sorrarazi duen jardute diskurtsiboak funtzionatu duen beste jardute batzuen artean, eta hauek, beharbada, ordena diskurtsibokoak izan zitezkeen baina baita ordena politiko edo ekonomikokoak ere.

Honek guztiak zenbait proposizio aurreratzea baimentzen du:

1. Ideologia ez dagokio zientifikotasunari bakarrik. Diskurtso gutxi egin dio diskurtso klinikoak edo ekonomia politikoak hainbat leku ideologiari: hau ez da nahikoa arrazoi euren enuntziatuen multzoei hutsegitea, kontraesana, objektibotasun falta atxikitzeko.

2. Kontraesaneak, hutsuneak, akats teorikoak zientzia baten funtzionamendu ideologikoa adieraz dezakete (edo zientifikoa izan nahi duen diskurtso batena); aukera eman dezakete zehazteko eraikinaren zein puntutan izan ditzakeen bere ondorioak funtzionamendu honek. Baina funtzionamendu honen azterketa egin behar da positibotasunaren mailan eta eraketa-arauek eta zientifikotasun egituren arteko harremanen mailan.

3. Bere burua zuzenduz, hutsegiteak arteztuz, bere formalizazioak estutuz, ezta horrela ere ez da askatzen diskurtsoa ideologiarekin duen harremanaz. Honen papera ez da gutxitzen zorrotasuna hazten den eta faltsutasuna ezabatzen den neurrian.

4. Zientzia baten funtzionamendu ideologikoari aurre egitea bera agerrarazteko eta aldatzeko, ez da bere baitan egon daitezkeen auresuposizio filosofikoak eguneratzea; ez da bera ahalezkoa egin duten eta legitimatzen duten oinarrietara itzultzea: aitzitik, bera, atzera ere, auzitan jartzea da eraketa diskurtsiboa den neurrian; bere objektuak, bere enuntziatu-motak, bere kontzeptuak, bere aukeraketa teorikoak eratzeko sistemari aurre egitea da, bere proposizioen kontraesan formalei aurre egitea baino. Bera berriro gogoan hartzea jarduteen arteko jardute legez.

d) Atalase ezberdinak eta euren kronologia.

Eraketa diskurtsibo bati buruzko zenbait azaleratze ezberdin deskriba daitezke. Positibotasun atalase deitu ahal izango da jardute diskurtsiboa banakotzen den eta autonomia hartzen duen unea, eta ondorioz, jardunean enuntziatuak eratzeko sistema bat eta bakarra dagoen unea, edo, are gehiago, sistema hau transformatzen den unea. Eraketa diskurtsibo baten jokoan enuntziatuen multzo bat ebakitzen denean, horren helburua da egiaztatze eta koherentzia-arauek balioestea (baita lortu gabe bada ere) eta jakitearen gainean funtzio menderatzailea betetzen badu (eredu, kritika edo egiaztapen funtzioa), orduan esango da eraketa diskurtsiboak epistemologizazio atalasea iragan duela. Horrela diseinatutako irudi epistemologikoak irizpide formal kopuru jakin bati obeditzen dionean, bere enuntziatuak erantzuten dietenean ez bakarrik eraketa-arau arkeologikoei, baizik eta baita proposizioak eratzeko arau jakin batzuei ere, esango da eraketa diskurtsiboak zientifikotasun atalasea iragan duela. Azkenik, diskurtso zientifiko honek, bestalde, definitu ahal dituen beharrezkoak zaizkion axiomak, erabilitako osagaiak, berarentzat legitimoak diren proposizio-egiturak eta onartzen dituen transformazioak, horrela, bere burutik hasita, zabaldu ahal duenean berak osatzen duen eraikin formala, formalizazio atalasea iragan duela esango da.

Atalase ezberdinen banaketa denboran, euren jarraitasuna, euren desdoitzea, euren balizko kointzidentzia, elkarren gainean agindu edo elkar inplikatu ahal duten modua, eurak ezartzen diren baldintzak, horrek guztiak osatzen du arkeologiaren miaketa-eremurik nagusienetakoa. Euren kronologia, izan ere, ez da ez erregularra, ez homogenea. Ez dute bera eraketa diskurtsibo guztiek urrats berean eta aldi berean iragaiten, giza ezagupenen historia aro ezberdinetan taxutuz horrela: zenbait positibotasunek formalizazioaren atalasea iragan duten garaian, beste zenbait ez dira heldu oraindik zientifikotasunarenera edo ezta epistemologizazioarenera ere. Gehiago oraindik: eraketa diskurtsibo bakoitza ez da iragaiten atalase batetik bestera jarraian, heldze biologikoaren estadio naturaletatik legez, non aldagai bakarra izango zen

sortasun denbora edo tarteen iraupena. Sakabanaketa ebolutiboa ez duten gertaerez dihardugu: euren ordena berezia eraketa diskurtsibo bakoitzaren ezaugarrietako bat da. Hona hemen ezberdintasun horien adibide batzuk.

Zenbait kasutan, positibotasun atalasea epistemologizazioarena baino askoz lehenago iragaiten da: horrela psikopatologiak, zientifikoa izateko nahia duen diskurtsio legez, bera baino askoz lehenagokoa zen jardute diskurtsibo bat epistemologizatu zuen XIX. mendearen hasieran, Pinel, Heinroth eta Esquirolekin, eta jardute diskurtsibo honek bere erregulartasun-sistema eta bere autonomia eskuratu zuen denbora asko pasa ondoren. Baina gerta daiteke, halaber, bi atalase hauek denboran nahastuak izatea, eta positibotasun baten ezarpena eta irudi epistemologiko baten azalratzea era batera gertatzea. Batzuetan zientifikotasun atalaseak positibotasun batetik beste baterako iragaiteari lotuta daude; batzuetan ezberdinak dira; horrela Historia naturaletik (berezkoa zaion zientifikotasunarekin) biologiarako iragaitea (organismo ezberdinen korrelazio espezifikoen zientzia modura eta ez izakien sailkatzearen zientzia modura) ez zen gauzatu Cuvieren garaian positibotasun bat beste bat bihurtu arte; aitzitik, Claude Bernarden medikuntza esperimentalak, eta Pasteuren microbiologiak ondoren, aldatu egin dute anatomiak eta fisiologia patologikoak behar duten zientifikotasuna, jokatik kanpo geratu gabe medikuntza klinikoaren eraketa diskurtsiboa, bera bere garaian ezarria izan zen moduan kontuan hartuta. Era berean, eboluzionismoak diziplina biologikoetan ezarri zuen zientifikotasun berriak ez zuen aldatu Cuvieren garaian definitua izan zen positibotasun biologikoa. Ekonomiaren kasuan loturen hausturak oso ugariak dira. XVII. mendean positibotasun atalase bat ezagut daiteke: berak bat egiten du merkantilismoaren teoria eta jardunarekin; baina bere epistemologizazioa pittin bat geroago gertatuko da, mendearen bukaeran, edo hurrengo mendearen hasieran, Lockerekin eta Chantillonekin. Hala eta guztiz ere, XIX. mendeak, Ricardorekin, aldi berean positibotasun-mota berria markatzen du, hau da, epistemologizazio modu berria, (Cournotek eta Jevonsek ere aldatuko dutena, Marxen beraren garaian, ekonomia politikotik abiatuta) zeinak agerraraziko duen jardute diskurtsibo guztiz berria.

Zientzian egien metaketa lineala onartzen bada bakarrik, ez bada bertan onartzen, bere mailak, bere atalaseak, bere haustura ezberdinak dituen jardute diskurtsiboa, zatiketa historiko bakarra baino ezingo da deskribatu, eta bera hartuko da eredu modura denboran barrena eta jakite era guztietarako: oraindik zientifikoa ez denaren eta betiko denaren arteko zatiketa. Lotura hausketen sendotasun osoa, hausturen sakabanaketa osoa, euren ondorioen desdoitze osoa eta euren elkarren mendetasunaren jokoa beti murriztuta aurkituko da errepikatu behar den sorreraren ekinga monotonora.

Zalantzarik gabe zientzia bakar bati dagokionean bakarrik ezingo dira bereizi atalase ezberdin hauek eta ezingo da atalase hauen artean deskribatu antzerako desdoitze-multzo bat: matematikak, bera da zientzia bakarra behingoan iragan duena positibotasun atalasea, epistemologizazioarena, zientifikotasunarena eta formalizazioarena. Bere existentziaren ahalbideak berak eskatzen du alde aurretik emana izan dadila gainerako zientzia guztietan barreiatuta dagoena historia osoan zehar: matematikaren lehen positibotasunak eratu beharra zuen dagoeneko formalizatutako jardute diskurtsiboa (baita ondoren beste formalizazio batzuk gauzatu behar baziren ere). Hortik dator bere ezarpena izan dadila aldi berean hain enigmatikoa (azterketarako hain eskuragaitza, ekinaldi absolutuaren eran hain estutua) eta hain balioztatua (aldi berean sorrera eta oinarri modura balio du eta); Hortik dator ezen lehen matematikariaren lehen keinuan ikusi zela idealtasun baten osaketa, historia osoan zehar hedatu dena eta ez dena auzitan jarri ez bada izan bera errepikatzeko eta gardentzeko; hortik dator ezen matematikaren hasiera ikertzen dela gutxiago gertaera historiko bezala eta gehiago historikotasun-hastapen gisara; hortik dator, azkenik, ezen gainerako zientziei dagokienez, euren sorrera historikoaren deskribapena, euren haztamuka ibiltzeena, euren porrotena, euren beranduko azalratzeena lotzen dela geometriaren eredu metahistorikoarekin, bat-batean eta betiko agertzen dena lur-neurketaren lan arruntetatik. Baina diskurtsio matematikoaren ezarpena beste zientzien jaiotza eta bilakaeraren eredu modura hartuz gero, arriskua dago historikotasun era guztiak homogeneousatzeko, jardute diskurtsibo batek iragan ditzakeen atalase ezberdinak murrizteko haustura bakar baten mailara, eta baita jatorriaren arazoa denboraren une guztietan erreproduzitzeko mugagabeki ere: horrela azterketa historiko-transzendentalaren eskubideak birbideratuta aurkituko lirateke. Matematikak eredu izan dira diskurtsio zientifiko gehienentzako, zorrotasun formal eta demostratibora heltzeko euren ahaleginean; baina zientzien bilakaerari buruz galdegiten duen historialariarentzat, eredu txarra dira, edozein modutan orokortu ezingo litzatekeen ereduak.

e) Zientzien historia-mota ezberdinak.

Kokatu ahal izan diren atalase ugariak era askotako azterketa historikoak baimentzen dituzte. Hasteko formalizazioaren mailako azterketak: matematikek euren buruaz etengabe kontatzen diharduten historia da, euren burua lantzen duten heinean. Une jakin batean izan direna (euren eremua, euren metodoak, euren definitzen dituzten objektuak,

darabilten hizkuntza) ez da sekula jaurtitzen ez-zientifikotasunaren kanpoko arlora; baizik eta beti eta beti birdefinituta aurkitzen da (besterik ez bada ezohikoa bihurtu den edo denbora baterako antzutasunean erori den esparruan) eurek osatzen duten eraikin formalean; iragan hau agertzen da teoria abstraktu baten, teoria boteretsu edo maila goienagoko baten, kasu berezia bezala, teoria inozo gisara, modu partzialean eta ez nahikoa orokortuan; matematikek euren benetako ibilbide historikoa birtranskribatzen dute auzotasunen, dependentzien, mendekotasunen, mailakako formalizazioen, biltzen dituzten orokorketen hiztegian. Matematikaren historia honetarako (eurek osatzen dutena eta eurek kontatzen dutena euren buruz) Diofanteren aljebra ez da eskegita geratu den esperientzia; aljibraren kasu berezia da bera Abel eta Galoisen ondotik ezagutzen den modura gogoan hartuta; exauzioen greziar metodoa ez da izan kale itsu bat, beharrezkoa egiten duena bertatik irtetea; kalkulu integralaren eredu inozoa da. Gorabehera bakoitzak bere maila eta bere kokapen formala du. Azterketa errekurrentziala da eta bera bakarrik zientzia osatu baten barruan gauza daiteke eta behin bere formalizaketa atalasea iraganda⁷.

Beste alde batetik zientifikotasunaren atalasean kokatzen den azterketa historikoa dago eta honek galdegiten du nola iragan daitekeen bera irudi epistemologiko ezberdinetatik abiatuta. Kontua da jakitea, esate baterako, nola kontzeptu bat – metaforaz eta irudimenezko edukiz bete oraindik– gardendu den eta hartu ahal izan duen kontzeptu zientifikoaren estatusa eta funtzioa. Kontua da jakitea nola esperientzia esparru batek, dagoeneko kokatua, dagoeneko neurri bateraino artikulatua, baina berehalako erabilpen praktikoz edo balioespen eraginkorrez zeharkatua, osatu ahal izan duen eremu zientifikoa. Jakitea, modu orokorragoan, nola zientzia bat ezarria izan den zientziaurreko maila baten gaintetik eta aurka, zientziaurreko maila honek aldi berean hura prestatuko zuelarik eta aurka egingo ziolarik, nola iragan ahal izan dituen berari kontrajartzen zitzaizkion trabak eta mugapenak. G. Bachelardek eta G. Canguilhemek historia honen ereduak eman dituzte. Berak ez du beharrik, azterketa errekurrentzialak aitzitik baduen moduan, zientziaren barruan ipintzeko bere burua, gertaera guztiak atzera banatzeko berak osatutako eraikinean eta bere formalizazioa kontatzeko orain berea den hiztegi formalean: nola egin ahal izango luke horrelakorik bestela, kontuan izanda berak erakusten duela zertaz askatu duen zientziak bere burua eta zer bota behar izan duen bere baitatik kanpo zientifikotasunaren atalasea heltzeko. Horrexegatik deskribapen honek osatutako zientzia hartzen du arau modura; berak kontatzen duen historia egia eta hutsegitearen arteko kontrakotasunak taxutzen du, arrazionalaren eta irrazionalaren artekoak, trabaren eta emankortasunaren artekoak, araztasunaren eta ez-araztasunaren artekoak, zientifikoaren eta ez zientifikoaren artekoak. Hemen zientzien historia epistemologiko batez dihardugu.

Azterketa historikoaren hirugarren mota: honek epistemologizazio-atalasea hartzen du eraso-puntu modura –alegia, euren positibotasunak definitzen duen eraketa diskurtsiboaren arteko zatiketa-puntua eta baita nahitaez zientziak ez diren irudi epistemologikoena ere (zeintzuk bestalde ez diren sekula zientziak izatera helduko)–. Maila honetan zientifikotasunak ez du balio arau modura: historia arkeologiko honetan jardute diskurtsiboak biluzten ahalegindu gara, eurek jakite bat sorrarazten duten neurrian eta jakite honek zientziaren estatusa eta papera hartzen duen neurrian. Maila honetan zientzien historia bat ekitea ez da eraketa diskurtsiboak deskribatzea egitura epistemologikoak kontuan izan gabe; baizik eta erakustea zientzia baten ezarpena eta, beharbada, bera formalizatua bihurtzea, ahalezkoa eta eraginkorra egin dela eraketa diskurtsibo baten baitan eta honen positibotasunaren aldaketetan. Kontua da, beraz, era horretako azterketa baterako, zientzien historia perfilatzea jardute diskurtsiboaren deskribapen batetik abiatuz, definitzea nola egin ahal izan dien lekua epistemologizazio-prozesuei, zer erregulartasunaren arabera eta zer aldaketari eskerrak, nola eskuratu ahal izan dituen zientifikotasun-arauak, eta, agian, nola heldu ahal izan den formalizazio-atalaseraino. Zientzien sendotasun historikoan jardute diskurtsiboaren maila bilatzean, ez da gura jardute hori maila sakon eta jatorrizko batera ekartzea berrituz, ezta bizi izandako esperientziaren mailara ekartzea ere (edozein geometriaren aurretik ematen den lur irregular eta txikitura, astronomia laukitu guztietan zehar distiratzten duen zerura); positibotasunen, jakitearen, irudi epistemologikoen eta zientzien artean agerrarazi nahi da ezberdintasunen joko osoa, harremanena, desbideraketena, desdoitzeena, independentziena, autonomiena, eta nola artikulatzen diren elkarren artean euren historikotasun bereziak.

Eraketa diskurtsiboaren, positibotasunaren eta jakitearen azterketa eurek irudi epistemologikoekin eta zientziekin dituzten harremanetan, honi deritzo epistemearen azterketa, bera bereizteko zientzien historien ahalezko beste formez. Beharbada suposatuko da episteme hau mundu ikuskera baten antzeko zerbait dela, ezagutza guztien historiaren pusketa, bakoitzari ezarriko lizkiekeena arau berak, postulatu berak, arazoien maila orokor bera, garai bateko gizon-emakumeek saihestu ezingo luketen pentsatzeko egitura jakin bat, –izengabeko esku batek idatziko lukeena behin eta betiko.

Epistemerekin ulertzen da, hain zuzen, garai jakin bateko harremanen multzoa, zeintzuek batu ditzaketen irudi epistemologikoak, zientziak eta, behar izanez gero, formalizatutako sistemak sorrarazten dituzten jardute diskurtsiboak; ulertzen da, halaber, epistemologizaziorako, zientifikotasunerako, formalizaziorako iragaiteak eraketa diskurtsibo hauetako bakoitzean kokatzeko modua; atalase hauen banaketa, batera gerta daitezkeenak, batzuk besteen mendeko izan daitezkeenak edo denboran desdoituak egon daitezkeenak; irudi epistemologikoen edo zientzien artean egon daitezkeen alboko harremanak, hauek elkarren ondokoak baina ezberdinak diren jardute diskurtsiboak adierazten dituzten artean. Epistemea ez da ezagupen era bat edo arrazionaltasun-mota bat, zeinak adieraziko lukeen subjektu baten, espiritu baten edo garai baten batasun subiranoa, horretarako zientzia ezberdinenak zeharkatuz; garai jakin batean zientzien artean aurkitu ahal izango liratekeen harremanen multzoa da, eurak erregulartasun diskurtsiboen mailan aztertzen direnean.

Epistemearen deskribapenak oinarritzko zenbait ezaugarri agertzen ditu: berak agortezineko arloa irekitzen du, sekula itxi ezingo dena; ez du helburu gisara garai jakin bateko ezagupenak obeditzen duten postulatu-sistema berriz eratzea, baizik eta harreman-arlo zehaztugabe bat zeharkatzea. Bestalde, epistemea ez da irudi geldia, egun batean agertutakoa eta bat batean eta modu zakarrean ezabaraziko dena: etendurak, desdoitzeak, kointzidentziak ezartzen eta desegiten diren multzo mugikor zehaztugabea da. Gainera, zientzien, irudi epistemologikoen, positibotasunen eta jardute diskurtsiboen arteko harreman-multzo den legez, epistemeak baimentzen du garai jakin batean diskurtsoari ezartzen zaizkion betebeharren eta mugapenen joko antzematea: baina mugapen hau ez da mugapen negatibo bat zeinak ezagupenari ezjakintasuna kontrajartzen dion, arrazoimenari irudimena, esperientzia armatuari itxurekiko leialtasuna, eta inferentziei eta dedukzioei ameskeria; epistemea ez da garai batean jakin daitekeena, kontuan izanda gabezia teknikoak, adimen ohiturak edo tradizioak jarritako mugak; epistemea jardute diskurtsiboen positibotasunean irudi epistemologikoak eta zientziak ahalezkoak egiten dituen zera da. Azkenik, ikusten da epistemearen azterketa ez dela galdera kritikoa atzera kontuan hartzeko modu bat («zientzia baten gisako zerbait emanez gero, zein da bere eskubidea edo legitimotasuna?»); galdera bat da, zientziaren datuak jasotzen dituen bakarrik galdegiteko zer den zientzia horrentzat zientzia gisara emana izatea. Diskurtso zientifikoaren enigman berak jokoan jartzen duena ez da zientzia izateko bere eskubidea, bera existitzen dela baizik. Eta bera zientziaren filosofia guztietatik banatzeko arrazoiak honakoa da: ez duela lotzen gertaera hori jatorrizko emate batekin, zeinak subjektu transzendental batean oinarrituko lukeen gertaera eta eskubidea, baizik eta jardute historikoaren prozesuekin.

f) Beste arkeologia batzuk.

Badago oraindik galdera bat eskegita: bururatu ahal izango litzateke azterketa arkeologiko bat, jakite baten erregulartasuna agerraraziko lukeena baina asmorik izango ez lukeena bera aztertzeko irudi epistemologikoei eta zientziei begira? Epistemerantzako orientazioa al da arkeologiari ireki ahal zaion bakarra? Arkeologia izan behar al da –eta eskusiboki– zientzien historiari buruz galdegiteko modua bat? Beste hitz batzuetan, arkeologiak, gaur egun arte diskurtso zientifikoaren esparrura mugatuta, gainditu ezin duen behar bati obeditu al dio, ala zirriboratu al ditu berak, adibide partikular baten gainean, guztiz beste hedapen bat izan dezaketen azterketa erak?

Oraingoz gutxiegi aurreratu dut galdera honi behin betiko erantzuna emateko. Baina erraz irudikatzen ditut nik –saiatu beharko diren makina bat froga eta haztamu ugari salbu– norabide ezberdinetan garatuko liratekeen arkeologiak. Har dezagun, esaterako, «sexualitatearen» deskribapen arkeologikoa. Oraindik bertatik garbi ikusten dut nola orientatu litekeen bera epistemeruntz; erakutsiko litzateke zer modutan XIX. mendean eratu diren biologia edo sexualitatearen psikologiaren gisako irudi epistemologikoak; eta zer hausturarengatik ezarri zen Freudekin tankera zientifikoa duen diskurtsoa. Baina nik hautematen dut, halaber, azterketarako beste aukera bat. Gizon-emakumeen jokaera sexuala garai zehatz batean landu beharrean (bere legea bilatuz gizarte-egitura batean, inkontziente kolektibo batean, edo jarrera moral jakin batean), gizon-emakumeek sexualitateari buruz pentsatu ahal izan dutena deskribatu beharrean (zer interpretazio erlijioso eman zioten berari, zer balioespen edo gaitzespen atxikitzen zioten, zer iritzi edo arazo moral izio zezakeen), galdegingo da ea, jokaera hauetan, nola errepresentazio hauetan, ez al den aurkituko sartuta jardute diskurtsibo oso bat; ea sexualitatea, diskurtso zientifiko baterantzako orientaziotik kanpo, ez ote den izango beretaz hitz egin ahal izango den objektu-multzo bat (edo beretaz hitz egitea debekatua izango den objektu-multzoa) ahalezko enuntziatuen arlo bat (bai adierazpen lirikoak direla, bai preskripzio juridikoak direla), kontzeptuen multzo bat (ager daitezkeenak, zalantzarik gabe, adigaien edo gaien oinarritzko eran), aukeraketen joko bat (ager daitekeena jokaeren koherentzian edo preskripzioen sisteman). Era horretako arkeologiak, bere eginbeharrean arrakasta izango balu, erakutsiko luke nola dauden jardute diskurtsibo jakin bati lotuta debekapenak, bazterketak, mugapenak, balioespenak, askatasunak, sexualitatearen arau-hausturak eta bere hitzezko, edo ez

hitzezko, agerpen guztiak. Berak agerraraziko luke «hitz egiteko modu» bat, ez, egia esan, sexualitatearen azken egia bezala, baizik eta bera deskribatzea bideratuko duen dimentsioetako bat bezala; eta erakutsiko da berba egiteko era hau nola dagoen sartuta, ez diskurtso zientifikoetan, baizik eta debekapenen eta balioen sistema batean. Azterketa hau egingo da horrela ez epistemearen norabidean, baizik eta etika dei genezakeenarenean.

Baina hona hemen ahalezko beste orientazio baten adibidea. Margo bat aztertzeko margolariaren ezkutuko diskurtsoa eratu behar da berriz; asmoa egon daiteke aurkitzeko bere asmoen zurrumurrua, transkribatzen ez dena hitzetan, baizik eta lerroetan, azaleretan eta koloreetan; saia gaitzeko bere mundu ikuskera eratzten duela suposatzen den filosofia inplizitoa ateratzen. Litekeena da, halaber, garaiko zientziari edo, gutxienez, iritziari, galdegitea eta bilatzea ea zer izan den margolariak bertatik mailegatu ahal izan duena. Azterketa arkeologikoak beste helburu bat izango luke: berak bilatuko luke ea espazioa, urruntasuna, sakontasuna, koloreak, argitasuna, proportzioak, bolumena eta profila ez ote ziren garai hartan kontuan hartuak izango, ez ote ziren izendatuko, enuntziatuko, kontzeptualizatuko jardute diskurtsibo batean; eta ea jardute diskurtsibo honetatik aterako zen jakite ez ote zen sartuko beharbada teorietan eta espekulazioetan, irakasteko eretan eta errezetetan, baina baita prozeduretan, tekniketan, eta ia margolariaren keinuan bertan. Kontua ez litzateke izango erakustea margolana adierazteko edo «esateko» modua dela, bere berezitasuna izango litzatekeelarik hitzak alde batera utzi ahal izango litzukeela. Erakutsi beharko litzateke ezen bere dimentsioetatik batean gutxienez jardute diskurtsibo bat dela, tekniketari eta ondorioetan gorpuzten dena. Horrela deskribatua, margolana ez da ikusmen hutsa, ondoren espazioaren materialtasunean transkribatu beharko litzatekeena; ez da, halaber, keinu biluzia ere, non esanahi mutuak eta hutsak mugarik gabe askatu beharko liratekeen geroagoko interpretazioen bidez. Bera jakite baten positibotasunak zeharkatzen du erabat –eta kontuan izan gabe ezagupen zientifikoak eta gai filosofikoak–.

Niri iruditzen zait mota bereko azterketa egin ahal izango litzatekeela, halaber, jakite politikoari buruz. Saiatuko gara ikusten ea gizarte baten, talde baten edo klase baten jokaera politikoa ez ote duen zeharkatzen jardute diskurtsibo mugatu eta deskribagarri batek. Positibotasun honek ez du bat egingo, jakina, ez garaiko teoria politikoeekin ez mugapen ekonomikoekin: berak definituko luke politikan enuntziazioaren objektu bihurtu daitekeena, enuntziazio horrek har ditzakeen erak, bertan lanean aurkitzen diren kontzeptuak eta hartzen diren aukera estrategikoak. Jakite hau berak eragin dezakeen epistemearen norabidean aztertu beharrean –beti ere ahalezkoa dena–, aztertuko litzateke jokaeren norabidean, borrokenean, gatazkenean, erabakienean eta taktikenean. Horrela agerraraziko da jakite politiko bat eta hau ez da jardutearen bigarren teorizazio baten mailakoa eta ez da teoriaren erabilpena ere. Izan ere, bera erregulari eratu du jardute diskurtsibo batek, hedatzen dena beste jardute diskurtsibo batzuen artean eta euren gainean artikulatzen dena, ez da adierazpen bat, zeinak «islatuko» lukeen modu egokiagoan edo desegokiagoan «datu objektiboen» edo benetako jarduteen kopuru jakin bat. Bera inskribatzen da, hasiera hasieratik, jardute ezberdinen arloan, non berak aurkitzen duen, aldi berean, bere espezifikazioa, bere funtzioa eta bere mendetasunen sarea. Era horretako deskribapena ahalezkoa balitz, agerikoa da ez litzatekeela beharrezkoa izango banakoaren kontzientzia baten edo kontzientzia kolektibo baten mailatik pasatzea jardute eta teoria politiko baten artikulazioaren gunea antzemateko; ez litzateke beharrezkoa izango bilatzea zer neurritan kontzientzia horrek adieraz ditzakeen, alde batetik, baldintza mutuak eta bestetik egia teorikoekiko sentiberatasunaren erakustea; ez litzateke planteatu beharko kontzientzia hartzearen arazo psikologikoa; aztertu beharko lirateke jakite baten eraketa eta transformazioak. Esate baterako, arazoa ez litzateke izango zer unetik aurrera agertzen den kontzientzia iraultzailea, ezta zer paper jokatu ahal izan duten baldintza ekonomikoek eta argitze teorikoaren lanak kontzientzia horren sorreran. Kontua ez litzateke izango gizon iraultzailearen biografia orokorra berriz marraztea edo bere egitasmoaren sustraiak aurkitzea; baizik eta erakustea nola eratzten diren jokaeretan eta estrategietan jartzen diren jardute diskurtsiboak eta jakite iraultzailea, gizarteari buruzko teoria bat sorrarazten dutenak eta batzuen eta besteen arteko interferentzia eta elkarrekiko transformazioa eragiten dutenak.

Egin berri dugun galderari: arkeologia zientziez baino ez da arduratzen? Ez al da bera diskurtso zientifikoaren azterketa baino? erantzun dakioke orain. Eta bi ezezkoekin erantzun. Arkeologia deskribatzen ahalegintzen dena, ez da zientzia bere egitura espezifikoa, baizik eta oso gauza ezberdina den jakitearen eremua. Gainera, jakiteaz arduratzen bada irudi epistemologikoekin eta zientziekin harremanak dituen neurrian, era berean, jakiteaz galdegin dezake norabide ezberdin batean eta deskriba dezake bera beste harreman-sorta batean. Orain arte epistemoearekiko orientazioa izan da esploratu dena. Honen arrazoia honakoa da: zalantzarik gabe gure kulturak ezaugarritzen dituen gradiente batengatik, eraketa diskurtsiboek ez diote uzten euren burua epistemologizatzeari. Positibotasunen eremua agertu ahal izan da zientziei

galdekatuz euren historiari buruz, euren batasun bitxiari buruz, euren sakabanaketa eta euren hausturei buruz; eraketa diskurtsiboen joko antzeman ahal izan da diskurtso zientifikoaren zirituan. Ez da harritzekoa baldintza hauetan esparru emankorrena, deskribapen arkeologikoari irekiena, izan dadila berpizkundetik XIX. mendera arte hainbat eta hainbat positibotasunen epistemologizazioa gararazi duen «garai klasikoa»; ez da harritzekoa, era berean, eraketa diskurtsiboak eta jakitearen erregularitasun espezifikoak diseinatuak izatea zientifikotasunaren eta formalizazioaren maila lortzea zailena izan den lekuetan. Baina hau ez da erasorako lehentasunezko puntua; hau ez da arkeologiarentzako nahitaezko eremua.

V.

– Liburu honetan zehar, ahalegindu zara, ondo edo gaizki, zeure burua «estrukturalismoaz» edo hitz horrekin ulertu ohi denaz bereizten. Nabarmendu duzu ez darabiltzazula ez bere metodoa eta ezta bere kontzeptuak ere; ez dituzula aipatzen hizkuntza deskribapenaren prozedurak; ez duzula inolako kezkarik formalizazioarekin. Baina zer esan gura dute ezberdintasun hauek? Ez bada zuk huts egin duzula egitura azterketek positibotzat izan dezaketenaz baliatzean, zorrotzasunez eta eraginkortasun demostratiboz ekar dezaketenaz baliatzean? Ez bada gogoan hartzen ahalegindu zaren eremua bihurria zaiola era honetako ekimenari eta bere aberastasunak ihes egin diela gelditu gabe zuk itxi gura zenituen eskemei? Eta aisetasun handiarekin, mozorrotu egin duzu zure metodoaren ezintasuna; orain zu beti benetako azterketa estruktural batetik banatuta zaituen eta izango zaituen garaiezinako urruntasuna nahitako ezberdintasuna bailitzan erakusten diguzu.

Izan ere, zuk ez duzu lortu gu nahastea. Egia da ezen, erabili dituzun metodoek utzi duten hustasunean, zuk sartu duzula adigaien sail oso bat, itxuran arrotzak direnak orain hizkuntzak edo mitoak, literatur lanak edo ipuinak deskribatzen dituztenek onartzen dituzten kontzeptuentzat. Eraketez, positibotasunez, jakiteaz, jardute diskurtsiboez hitz egin duzu: hitzen panoplia oso bat, zuk harrotasunez euren berezitasuna eta euren ahalmen harrigarriak azpimarratzen dituzularik une oro. Baina asmatu beharko ote zenuen zuk hainbeste xelegekeria, ahalegindu izan ez bazina estrukturalismoaren oinarritzko gai batzuk –postulatu ihardukigarrienak, filosofikoki zalantzarrienak osatzen dituztenak, gainera– baliozkoak egiten eurentzat arrotza den eremu batean? Ematen du hau guztia gertatzen dela zuk hartu duzulako azterketa-metodo garaikideetatik, ez lan enpirikoa eta serioa, baizik eta bi edo hiru gai, estrapolazioak direnak beharrezko hastapenak baino gehiago.

Horrela nahi izan dituzu zuk diskurtoaren berezko dimentsioak murriztu, bere berezko irregulartasuna ahaztu, ekimen edo askatasun kutsua ekar dezakeena ezkutatu, hizkuntzan ezartzen duen desoreka berdindu: irekidura hau itxi nahi izan duzu berriz. Hizkuntzalaritza era jakin baten antzera, zuk bilatu duzu subjektu hitzuna alboratzea; uste izan duzu diskurtoari bere antropologia erreferentzia guztiak kendu ahal izango zenizkiola eta landu ahal izango zenuela sekula inork formulatu izan ez balu bezala, zirkunstantzia berezietan jaino izan ez balitz bezala, errepresentazioek zeharkatuko ez balute bezala, inori zuzenduko ez balitzaio bezala. Azkenik aldiberekotasun-hastapen bat ezarri diozu: uko egin diozu diskurtoa (beharbada hizkuntza ez bezala) funtsean historikoa dela ikusteari, ez dagoela osatuta eskura dauden osagaiez, baizik eta benetakoak eta elkarren ondokoak diren gertaerez, ezin dela bera aztertu hedatuta dagoen denboratik at.

– Arrazoa duzu: ez dut gogoan hartu diskurtoaren transzendentzia; baztertu egin dut, bera deskribatzean, subjektibotasun bati egokitzea; ez diot lehen balioa eman bere izaera diakronikoari, bere era orokorra izan beharko balu bezala. Baina honen guztiaren helburua ez zen luzatzea, hizkuntzaren eremuaz gaindi, frogatuak izan ziren kontzeptuak eta metodoak. Diskurtoaz hitz egin badut, ez da izan erakusteko hizkuntzaren mekanismoek edo prozesuek oso-osorik dirautela bertan; baizik eta agerrarazteko, hitzezko jarduteen sendotasunean, azterketa ahalezko mailen aniztasuna; erakusteko hizkuntza egituraketaren alboan (edo interpretazioarenean), gauzatu ahal izango zela enuntziatuen, euren eraketaren eta diskurtoari berezkoak zaizkion erregulartasunen deskribapen zehatza. Baztertu baditut subjektu hitzunari buruzko aipamenak, ez zen subjektu hitzun guztiek era berean erabili beharko zituzten eraikitze-legeak edo erak aurkitzeko,

ez zen diskurtso unibertsal handiari, garai bateko gizon-emakume guztientzat bat izango litzatekeenari, hitz eragiteko. Kontua zen, aitzitik, zertan oinarritzen ziren ezberdintasunak, nola litekeen gizon-emakumeek, jardute diskurtsibo beraren baitan, hitz egin dezaten objektu ezberdinei buruz, nola izan ditzaketen aurkako iritziak, nola egin ditzaketen hautaketa kontraesankorrak; kontua zen, halaber, erakustea zertan bereizten ziren jardute diskurtsiboak elkarren artean; laburbilduz, ez dut baztertu nahi izan subjektuaren arazoa, subjektuak diskurtsoaren aniztasunean bete zitzakeen lekua eta funtzioak definitu gura izan dut. Azkenik, zeuk egiaztatu ahal izan duzu: ez dut historia ukatu, aldaketaren kategoria orokorra eta hutsa eskegita eduki dut maila ezberdinetako transformazioak agerrarazteko; uko egiten diot denboraltze eredu uniformeari deskribatzeko, jardute diskurtsibo bakoitzari dagokionean, bere metatze, baztertze, berpizte, arauak, bere berezko deribazio erak eta lozagia sartzeko jarraitasun ezberdinen gainean.

Ez dut, beraz, eginkizun estrukturalista bere muga legitimoetatik harantzago eraman nahi izan. Eta erraz onartuko didazu ez dudala ezta behin ere ez erabili egitura hitza Les Mots et les Choses lanean. Baina utz ditzagun, ondo baderitsozu, «estrukturalismoari» buruzko eztabaidak; hauek irauten baitute gaur egun lanean dihardutenek alde batera utzi dituzten eskualdeetan, eta nekez iraun gainera; emankorra izan zitekeen borroka honetan bakarrik mimoek eta ferietako salerosleek jarraitzen dute.

– Eztabaida horiek saihestu gura izan dituzun arren, ezingo diozu arazoari ihes egin. Izan ere, ez gara estrukturalismoaz berba egiten ari. Gogo onez onartzen dugu bere zuzentasuna eta eraginkortasuna: aztertu behar denean hizkuntza bat, mitologiak, herri kondairak, olertiak, ametsak, literatur lanak, filmak beharbada, deskribapen estrukturalak zenbait harreman agerrarazten ditu, bera gabe ezin izango liratekeenak bakartu; osagai errepikariak definitzea baimenduko luke, euren kontraktotasun motekin, eta euren banakotze-irizpideekin; berak, gainera, eraiketa-legeak, baliokidetasunak eta transformazio-

-arauak ezartzea baimentzen du. Eta hasieran zenbait aitzakia nabarmendu ahal izan diren arren, onartzen dugu orain inolako trabarik gabe gizon-emakumeen hizkuntza, inkontzientea eta irudimena egitura-legeen arabekoak direla. Baina erabat errefusatzeko dugu zuk egiten duzuna: hots, diskurtso zientifikoak eta euren jarraitasunak aztertu ahal izatea eurak lotu gabe eginkizun eratzaile gisako zerbaitekin, onartu gabe, baita euren zalantzetan ere, jatorrizko egitasmo baten edo oinarritzko teologia baten irekitasuna, aurkitu gabe eurak lotzen dituen eta guk eurak atzera antzematea bideratuko digun jarraitasun sakona; biluztu ahal izatea arrazoia bilakaera, eta pentsamenduaren historia subjektibotasun edozein arrastoz askatzea. Zehatz dezagun eztabaida gaia: onartzen dugu hitz egin daitekeela osagaiei buruz, eraikitze-arauei buruz hizkuntzari buruz orokorki, beste leku batekoa eta garai batekoa den mitoen hizkuntzari buruz, edo, baita ere, edozein modutan ere arrotz xamarra egiten zaigun gure inkontzientearen edo gure ekintzen hizkuntzari buruz; hala ere, guk murrizteaz jotzen dugu, bere sendotasun historikoan, gure jakitearen hizkuntza, guk hemen eta orain darabilgun hizkuntza hau, beste hizkera batzuk aztertzea bideratzen digun diskurtso estruktural horixe bera. Zuk ezin duzu ahaztu, jakina, hortik abiatuta –bere genesi geldotik, gaur egungo egoerara ekarri duen bere bilakaera ilunetik abiatuta– hitz egin ahal dugula beste diskurtsoei buruz eurak egiturak balira bezala; berak eman digu horretarako aukera eta eskubidea; berak eratzen du orban ilun bat, gure inguruan dauden gauzak gaur egun ikusten ditugun modura jartzen dituena. Ontzat jotzen dugu osagaiekin, harremanekin, jarraitasun-ezekin jokatzeko aztertzen direnean elezahar indoeuroparrak edo Racineren tragediak; onartzen dugu ere subjektu hitzunari buruzko galdera albora uztea, ahal den neurrian; baina auzitan jartzen dugu burututako ahaleginak erabil daitezkeenik azterketa jarioan ipintzeko atzera ere, harik eta eurak ahalezkoak egiten dituen diskurtsoaren eretara heldu arte eta zalantzan jartzeko guk gaur egun nondik hitz egiten dugun lekua bera ere. Subjektibotasuna saihesten den azterketa hauen historiak bere transzendentzia bera gordetzen du.

– Niri iruditzen zait horixe dela, hain zuzen (eta hainbeste jorratutako estrukturalismoaren arazoan baino askoz ere gehiago) eztabaida-puntua, eta baita zuk aurka egiteko arrazoia ere. Utzidazu –joko modura, jakin ere badakizu ez daukadala nik interpretaziorako joera– zuri esaten nola ulertu dudan nik zuk oraintxe emandako diskurtsoa. «Zalantzarik gabe, esan duzu isilean, aurrerantzean onartu beharra daukagu diskurtso deduktiboak formalizatzea, atzealdean izan ditugun liskar guztiak izanda ere; zalantzarik gabe jasan behar dugu sistema filosofiko baten arkitektura deskribatzen dela, eta ez hainbeste arima baten historia edo existitzeko egitasmo bat; zalantzarik gabe, eta edozein gauza pentsatzen dugula ere, begi onez hartu behar ditugula literatur lanak hizkuntzaren egiturekin uztartzen dituzten azterketak, eta ez banakoak bizi izan duen esperientziarekin uztartzen dituztenak. Zalantzarik gabe bertan behera utzi behar izan ditugu beste garai batean kontzientziaren subiranotasunarekin lotzen genituen diskurtso horiek guztiak. Baina mende erdia baino gehiago pasa ondoren galdu duguna, orain bigarren mailan berreskuratzeko itxaropena dugu, azterketa horiek guztiak aztertuz edo

gutxienez guk eurei zuzentzen diegun oinarrizko galdeketaren bidez. Guk galdegingo diegu ea nondik datozen, zein den eurak, konturatu ere egin gabe, zeharkatzen dituen halabehar historikoa, zer inozotasunek bihurtzen dituen itsuak eurak ahalezkoak egiten dituen baldintzetarako, zer itxidura metafisikotan dagoen bilduta euren oinarrizko positibismoa. Eta, ondorioz, ez du azkenean garrantzirik edukiko inkontzientea ez dadila izan kontzientziaren ertz inplizitua, guk uste izan dugun eta baieztatu izan dugun bezala; ez du garrantzirik izango mitologia bat ez dadila izan mundu ikuskera bat eta eleberri bat izan dadila bizi izan den esperientzia baten kanpoko alderdia; izan ere, «egia» berri hauek guztiak ezartzen dituen arrazoia zaintza zorrotz baten pean daukagu: ez berak, ez bere iraganak, ez bera ahalezkoa egiten duenak eta ezta bera gurea egiten duenak ere ez dio ihes egiten esleipen transzendentalari. Orain berari –eta erabaki sendoa hartua dugu ez diogula honi uko egingo– galdegingo diogu jatorriari buruz, lehen eraketari buruz, ostertz teleologikoari buruz, denborazko jarraitasunari buruz. Bera da, gurea bailitzan gaurkotzen den pentsamendu hori, guk mantentzen duguna eremu historiko-transzendentallean. Horregatik, nahitaez onartu behar baditugu, gogo onez edo txarrez, estrukturalismo guztiak, ezin onartuko genuke ukitzea pentsamenduaren historia hau, geure historia dena; ezin onartuko genuke askatzea hari transzendental horiek guztiak, hain zuzen bera XIX. mendearen ondotik jatorriaren eta subjektibotasunaren problematikarekin lotu dutenak. Gu babesten gaituen eta sendo defendatzeko asmoa dugun gotorleku honetara hurbiltzen denari, behin eta berriz esango diogu, profanazioa geldiarazten duen keinuarekin: «*Noli tangere*».

Hala ere, aurrera jarraituko dut temati. Ez ziur ez nagoelako garaipenarekin ezta seguru ere nire armekin, baizik eta iruditu zaidalako, oraingoz behintzat, hori dela funtsezkoa: hots, pentsamenduaren historia bere lotura transzendentalaz askatzea. Arazoa ez zen niretzat, inondik ere ez, bera egituratzea, jakitearen bilakaerari edo zientzien sorrerari aplikatuz zenbait kategoria, hizkuntzaren eremuan probatuak izan direnak. Kontua zen historia hau aztertzea jarraitasun-ez batean, lehenagotik murriztu ez duena inolako teleologiak; bera sakabanaketa batean kokatzea, lehenagoko ostertzik bilduko ez lukeena inondik ere ez, bera hedatzen uztea anonimatu batean, zeinari ez dion subjektuaren era ezarriko inolako konstituzio transzendentalik; bera denborazkotasun bati irekitzea, zeinak ez duen aginduko egunsentiaren itzulerarik. Kontua zen bera nartzisismo transzendentalik gabe uztea erabat; beharrezkoa zen bera askatzea bera itxita zegoen zirkulutik, jatorri galduaren eta berraurkituaren zirkulutik alegia; beharrezkoa zen erakustea pentsamenduaren historiaren eginbearra ezin zela izan ezagutaraztea honako une transzendentalak: hots, Kanten ondotik mekanika arrazionalak gehiago izan ez duen uea, Husserlen ondotik idealtasun matematikoen gisara eta Merleau-Pontyren ondotik hautemandako munduaren esanahien gisara, eginahalak egin diren arren eurak aurkitzeko.

Eta nik uste dut azken baten, estrukturalismoaren azaleko eztabaidak sartu duen nahastea eta guzti, oso ondo ulertu dugula elkar; zera esan nahi dut: oso ondo ulertzen dugu batzuek eta besteek egin nahi duguna. Oso normala zen zuk defendatzea historia jarraitu baten eskubideak, irekia izango litzatekeena aldi berean teleologia baten lanari eta kausaltasunaren prozesu zehaztugabeari; baina ezagutu ez bada bere mugimendua, berezkotasuna eta barruko dinamismoa, ez da izan bera inbasio estruktural batetik babesteko; zuk benetan kontzientzia eratzaile baten ahalmenak bermatu nahi zenituen, eurak zirelako auzitan zeudenak. Baina defentsa hau beste leku batean gertatu behar zen, eta ez eztabaidaren beraren lekuan bertan; izan ere, aitortuko bazenio ikerketa enpiriko bati, historiako lan xume bati, dimentsio transzendentalari erantzuteko eskubidea, orduan oinarrizkoan amore emango zenukeen. Hortik lekualdaketa batzuk datoz. Arkeologia tratatzea jatorriari buruzko ikerketa modura, a priori formalena, ekintza fundatzaileena, laburbilduz fenomenologia historiko baten modura (bere lana denean, aitzitik, historia eginkizun fenomenologikoaz askatzea) eta objektatzea berak huts egin duela bere lanean eta bakarrik gertaera enpiriko batzuk aurkitzen dituela. Ondoren deskribapen arkeologikoari eta atalaseak, hausturak eta transformazioak ezartzeko bere nahiari kontrajartzea historialarien benetako lana, hau da, jarraitasuna erakustea (hamarnaka urtetik hona hori ez denean historiaren asmoa); eta enpirikotasunetik axolagabetasuna aurpegiratzea. Ondoren bera kultur osotasunak deskribatzeko eginkizuntzat jotzea, ezberdintasun nabarmenenak homogeneizatzeko eta forma hertsagarrienak aurkitzeko (bere asmoa denean jardute diskurtsiboen espezifikotasun berezia definitzea), eta berari objektatzea ezberdintasunekin, aldaketekin eta mutazioekin. Azkenik bera kontuan hartzea estrukturalismoaren inportazioa bailitzan historiaren eremuan (nahiz eta bere metodoak eta kontzeptuak ezingo duten inolaz ere ez nahasketa sortu) eta erakustea, orduan, ezingo lukeela funtzionatu benetako egiturazko azterketa bezala.

Lekualdatzeen eta ez-ezagutzen joko hau guztia erabat koherentea eta beharrezkoa da. Bigarren mailako onura zekarren berarekin: toleratu behar diren estrukturalismoaren era hauei guztiei, hainbeste gauzatan amore eman behar izan zaien erei, diagonalean begiratu ahal izatea; eta euri esatea: «begira zer arrisku hartuko zenuketen oraindik gureak diren eremu hauek ukituko bazenituzte, zuen prozedurak, beste nonbaiten beharbada baliagarriak izan daitezkeenak, hemen berehala aurkituko lituzkete euren mugak; aztertu nahiko zenukeen eduki osoari ihes egiten utziko liokete; zuen enpirismo zuhurrari uko egin beharko zenukete; eta, zuen gogoz kontra, ontologia eta egitura bitxi batean eroriko zinatekete. Izan ezazue, beraz, nahikoa zuhurtasun geratzeko zalantzarik gabe konkistatuak dituzuen lurralde horietan, euren mugak geuk zehazten ditugunez aurrerantzean itxura egingo dugu geuk eman dizkizuegula». Onura nagusienari dagokionean, zeran datza, jakina, aspalditik nahastuta gaituen eta etengabe hazten doan krisia mozorrotzen dela: krisi honek zerikusia du Kanten ondoren filosofia identifikatu duen hausnarketa transzendentalarekin; zerikusia du gure orainaren ezberdintasuna saihesteko balio digun jatorriaren gaiekin, itzuleraren agintzariarekin; zerikusia du galdera horiek guztiak gizakiaren izateari buruzko galderaren inguruan ordenatzen dituen antropologi pentsaerarekin, jardutearen azterketa saihestea baimentzen duena; zerikusia du ideologia humanista guztiekin; zerikusia du –azkenik eta batez ere– subjektuaren estatusarekin. Eztabaida hau da zuk mozorrotu gura zenukeena eta, nire ustez, bertatik arreta aldendu gura zenuke geniaren eta sistemaren joko gozagarriak bilatuz, sinkroniarena eta bilakaerarena, harremanarena eta zergatiarena, egiturarena eta historiarena. Seguru al zaude ez duzula metatesi teoriko bat gauzatzen?

– Demagun, hortaz, eztabaida dagoela zuk diozun lekuan hain zuzen; demagun kontua dela pentsamendu transzendentalaren azken gordelekua defendatzea edo erasotzea, eta onar dezagun gure gaurko eztabaida ondo egokitzen dela zuk hitz egiten duzun krisi horretan: zein da orduan zure diskurtsoaren izenburua? Nondik dator bera eta nondik jaso lezake hitz egiteko eskubidea? Nola legitima liteke bera? Ikerketa enpiriko bakarra baino ez baduzu egin diskurtsoen agerpenari eta transformazioari buruz, deskribatu badituzu esaldien multzoak, irudi epistemologikoak, jakite baten forma historikoak, nola egin diezaiokezu ihes positibismo guztien inozotasunari? Eta nola izan liteke baliozkoa zure eginkizuna jatorriaren arazoaren aurrean eta subjektu eratzaile batera jo behararen aurrean? Baina zure asmoa bada errozkoko galdera bat agertzea, zure diskurtsoa ipini gura baduzu gu geu ipinita gauden mailan bertan, orduan badakizu jakin bera gure jokoan sartuko dela eta luzatu egingo duela beretzat askatzeko ahaleginetan diharduen dimentsioa. Edozein modutan, esan behar diguzu nahitaez zer diren diskurtso horiek, zeintzuen atzetik ibili zaren temati orain dela ia hamar urtetik hona, euren egoera zibila zein den zehazteko arreta hartu gabe. Hitz batean esanda, zer dira eurak: historia ala filosofia?

– Onartu behar dut galdera honek nahasten nauela, lehentxeago jarri berriak dituzun eragozpenak baino gehiago. Ez nau harritzen inondik ere ez; baina nahiago nuen bera eskegita uztea oraindik denbora pixka bat luzeagoz. Izan ere, oraingoz, eta ezin dut esan noiz arte, nire diskurtsoak (nondik hitz egiten duen zehaztera oraindik heldu gabe dagoelarik) saihesten du berak euskarriztat hartu ahal izango lukeen zorua. Diskurtsoei buruzko diskurtsoa da: baina ez du horien baitan bilatzen leku ezkutu bat, estalitako jatorria, berak askatu egin beharko lukeena besterik ez; bere asmoa ez da berez eta bere baitatik hasita teoria orokor bat ezartzea, diskurtso horiek bere eredu zehatzak izango liratekeelarik. Kontua da sakabanaketa bat zabaltzea, murriztu ezingo dena, sekula ere ez, ezberdintasunen sistema bakar batera, barreiapen bat zabaltzea, uztartuko ez dena erreferentzia ardatz absolutuekin; kontua da deszentramendu bat gauzatzea, pribilegiarik utzi gabe inongo erdigunerari. Era horretako diskurtso baten lana ez da ahanztura ezabatzea, ezta ere aurkitzea, esandako gauzen sakon sakonean, eurak isiltzen diren tokian, euren jaiotze-unea (berdin da euren sorketa enpirikoa den, edo jatorria ematen dien ekintza transzendentala den); ez ditu ahaleginak egiten bera izateko jatorrizkoaren bilketa edo egiaren oroitzapena. Berak, aitzitik, ezberdintasunak egin behar ditu: objektu bezala eratu behar ditu, eurak aztertu eta euren kontzeptua definitu behar du. Diskurtsoaren arloa zeharkatu ordez, berregiteko bere kontura eskegita utzitako orohartzeak, esandakoan bilatu beharrean beste den diskurtso ezkutua, berbera dirauena (ondorioz, alegoriaren eta tautologiaren jokoa egin beharrean gelditu gabe) berak ezberdintzeak gauzatzen ditu gelditu gabe, bera diagnostikoa da. Filosofia oroitzapena bada, jatorria itzultzea, nik egiten dudana ezin da, inondik ere ez, filosofiatzat jo; eta pentsamenduaren historia baldin bada erdi ezabatutako irudiei berriz bizitza ematea, nik egiten dudana ez da historia.

– Esan berri duzunetik gorde behar da, gutxienez, zure arkeologia ez dela zientzia. Hor airean uzten duzu bera, deskribapenaren estatus ez ziurrekin. Oraindik, zalantzarik gabe, zirriborro egoeran dagoen diziplinatzat jotzea nahiko lukeen diskurtso horietako bat da; honek diziplina hauen egileei abantaila bikoitza ematen baitie, alde batetik, ez dutela bera oinarritu behar zientifikotasun esplizitu eta zorrotz batean eta, bestetik, bera irekitzen dutela etorkizuneko orokortasun baten gainean, bere jaiotzaren halabeharrez askatzen dituen; XIX. mendearen ondoren iragarri ziren hainbat eta hainbat

oinarritzetako bat: izan ere, ondo dakigu jakin, arlo teoriko modernoan, gustukoa duguna ez dela sistema frogagarriak asmatzea, baizik eta aukerak irekitzen dituzten diziplinak asmatzea, egitasmoa diseinatuz, euren etorkizuna eta xedea besteen esku uzten delarik. Baina euren marrazketaren zirriborroa bukatu ahala desagertzen dira euren egileekin. Eta eurek gertatu beharko zuketena arloa antzua geratzen da betiko.

– Egia zehatza da nik ez dudala sekula aurkeztu arkeologia zientzia modura, eta ezta etorkizuneko zientziaren lehen oinarri modura ere. Eta ikerketa zehatzen bidez atera dudana jasotzen ahalegindu naiz –beti ere zuzenketa ugari egiteko gertu– etorkizuneko eraikin bat egiten baino. Arkeologia hitzak ez du balio aurrerapen gisara; berak hitzezko jardutearen azterketari ekiteko lerro bati izena ematen dio, besterik ez: maila baten zehaztapena da: enuntziatuarena eta artxioboarena; eremu baten mugapena eta argitzapena: jokoan jartzen ditu erregulartasun enuntziatiboak eta positibotasunak; eraketa-arauak, deribazio arkeologikoa, a priori historikoa eta era horretako kontzeptuak. Baina bere dimentsio ia guztietan eta bere ertz ia guztietan, eginkizunak zerikusia du zientziekin, tankera zientifikoko azterketekin edo zorrotasun-irizpideei erantzuten dien teoriekin. Hasteko zerikusia du arkeologikoki deskribatutako jakitean oinarrituta osatzen diren eta euren arauak hartan oinarrituta osatzen dituzten zientziekin: hauek dira berarentzat objektu-zientziak, dagoenez gero anatomia patologikoa, filologia, ekonomia politikoa, biologia izan ahal izan diren legez. Harremana du, halaber, azterketaren zenbait era zientifikorekin eta hauetatik bereiziko da bai mailagatik, bai eremuagatik, bai metodoengatik, eta mugak ditu eurekin zatiketa lerro berezien arabera; esandako gauzen masan, eraso egiten zaionean enuntziatuari bera definituta hitzezko jardutea gauzatzeko funtzio modura, enuntziatu hau bereizten da arlo pribilegiatu modura hizkuntza konpetentzia izango lukeen ikerketa batetik: era horretako deskribapen batek, enuntziatuaren onargarritasuna definitzeko, eredu sortzaile bat osatzen duen artean, arkeologia ahalegintzen da eraketa-arauak ezartzen, horrela eurak gauzatzeko baldintzak definitzeko; horrela, aztertzeke bi modu hauen artean badira zenbait analogia, baina baita ezberdintasunak ere (bereziki, formalizatzearen ahalezko mailari dagokionean); edozein modutan, arkeologiarentzat, gramatika generatiboak azterketa lotu baten papera jokatzeko du. Bestalde, deskribapen arkeologikoak, euren garapenean eta zeharkatzen dituzten arloetan, beste diziplina batzuen gainean artikulatzen dira: arkeologiak, enuntziatuek inplika ditzaketena subjektuaren kokapen ezberdinak definitzeko ahaleginean, gaur egun psikoanalisiak planteatzen duen arazo bat zeharkatzen du, alde batera utziz subjektibotasun psikologiko edo eratzaile batekiko erreferentzia oro; objektuen eraketa aztertzean, eurak azaleratzen diren eta zehazten diren arloak eta diskurtsoaz jabetzeko baldintzak aztertzean, berak aurkitzen du gizarte eraketan azterketa. Hauek dira arkeologiarako beste horrenbeste espazio korrelatibo. Azkenik, ekoizpenen teoria orokor bat eratzea ahalezkoa den neurrian, arkeologiak jardute diskurtsibo ezberdinen berezko arauen azterketa denez, teoria inguratzailea dei daitekeena aurkituko du.

Nik arkeologia ipintzen badut honezkero eratuta dauden beste zenbait diskurtsoren artean, honen arrazoia ez da, hurbiltasunagatik eta kutsatzetik, onura atera nahi dudala eta berak bere buruari eman ezingo dion estatusa eman gura diodala; ez da berari lekua emateko, behin betiko diseinatua, konstelazio geldi batean; baizik eta, artxioboarekin batera, sorrarazteko eraketa diskurtsiboak, positibotasunak, enuntziatuak, euren eraketa-baldintzak, eremu berezi bat. Eremu hau ez da oraindik inolako azterketaren gaia (gutxienez berezkoa izan dezakeen horretan, berezkoa eta interpretaziora eta formalizaziora murriztu ezina izan dezakeen horretan); baina ez du ezerk alde aurretik bermatzen eremu honek –ni orain nagoen kokapen-puntu landu gabe honetan– iraunkor eta autonomo iraungo duenik. Hala eta guztiz ere, litekeena da arkeologiak zera baino ez dezala egin, tresna baten papera joka dezala, artikulatuko duena iraganean baino modu zehaztugabeagoan, gizarte eraketan eta deskribapen epistemologikoen azterketa; edo aukera eman dezala zehazteko ekoizpenaren teoria orokor baten eta enuntziatuaren azterketa generatiboaren arteko gurutzaketa gunea. Azkenik, gerta liteke arkeologia izatea gaur egungoa den abagune teorikoaren zatia. Nik oraingo ezin dut erabaki abagune honek banaka daitekeen diziplina bat gauzaten ote duen, honen lehen ezaugarriak eta muga orokorrak hemen zirriborrotzen direlarik, edo iziotzen ote duen arazo-sorta bat, zeintzuen oraingo koherentziak eragozten ez duen geroago eurak atzera ere gogoan hartu ahal izatea, beste nonbaiten, beste modu batean, maila goragokoan edo metodo ezberdinez baliatuz. Eta egia esan, seguruenik ez dagokit niri hori erabakitzea. Onartzen dut nire diskurtsoa ezabatzen dela, bera honaino ekarri ahal izan duen irudia bezala.

– Zuk zeuk besteei ukatzen diezun askatasunaren erabilpen bitxia egiten duzu. Izan ere, kualifikatu nahi ez duzun espazio aske baten arlo osoa hartzen duzu zeuretzat. Baina ahazten al duzu zer arreta jarri duzun beste batzuen diskurtsoa arau sistemetan ixteko? Ahazten al dituzu kontu handiz deskribatu dituzun eginbehar horiek? Ez al diezu gizabanakoei kendu euren diskurtsoaren kokagunea diren positibotasunetan pertsonalki parte hartzeko eskubidea? Zuk euren hitzetatik

txikiena lotu egin duzu eginbehar batzuekin, zeintzuek konformismora kondenatzen duten euren berrikuntzarik txikiena. Erraza duzu iraultza zure buruaz diharduzunean, baina zaila besteez diharduzunean. Hobe litzateke, zalantzarik gabe, kontzientzia argiagoa bazeneuka zuk hitz egiten duzun baldintzei buruz, eta, ostera, konfiantza handiagoa gizakien benetako ekintzetan eta euren aukeretan.

– Beldur naiz ez ote duzun hutsegite bikoitza egin: definitzen ahalegindu naizen jardute diskurtsiboei dagokienean, alde batetik, eta giza askatasunari zuk zeuk gordetzen diozun atalari dagokienean, bestetik. Ezartzen ahalegindu naizen positibotasunak ez dira ulertu behar gizabanakoen pentsamenduari kanpotik ezartzen zaizkion ebazpen-multzo bat bezala, ezta barrutik eta alde aurretik bertan bizi den ebazpen-multzo bat bezala ere; eurek gehiago osatzen dute baldintzen multzo bat, baldintza hauen arabera jardute bat zertzen den, euren arabera jardute honek neurri batean edo guztiz berriak izango diren enuntziatuak sorrarazten ditu eta, azkenik, euren arabera jardute hori aldatua izan daiteke. Subjektuen ekimenari ezarritako mugak baino gehiago izango da bera artikulatzen den eremua (bere erdigunea izan gabe), berak darabiltzan arauak (ez berak asmatutakoak eta berak ezta formulatutakoak ere) bere oinarria diren harremanak (izan gabe bera azken emaitza edo bateratze gunea). Kontua da jardute diskurtsiboak agerraraztea euren konplexutasunean eta euren sendotasunean; erakustea hitz egitea zerbait egitea dela, –pentsatzen dena adierazteaz beste zerbait, badakiguna itzultzeaz beste zerbait, hizkuntza baten egiturei jokarazteaz beste zerbait–; erakustea keinu zaila eta nekoso dela enuntziatu bat alde aurretik existitzen den enuntziatu-sail bati gaineratzea, honek baldintza batzuk eskatzen dituela (eta ez bakarrik egoera bat, testuinguru bat, zio batzuk) eta arau batzuk dakartzala berarekin (eraikitzeo arau logiko eta hizkuntzazko ezberdinak); erakustea aldaketa batek, diskurtsoaren ordenan, ez dakarrela berarekin ez «ideia berririk», ez asmaketa eta sormen apur bat, ez buruera ezberdinik, baizik eta jardute baten baitako transformazioak dakartzala, beharbada bere ingurukoetan eta euren artikulazio komunean. Ez diot uko egin diskurtsoa aldatzeko aukerari, ezta urretik ere ez: kendu egin diot subjektuaren gaineko subiranotasunaren eskubide berezia eta berehalakoa.

«Nire aldetik, eta bukatzeko, galdera bat egin nahi nizuke: zer ideia duzu aldaketari buruz, eta, esan dezagun, iraultzari buruz, gutxienez ordena zientifikoan eta diskurtsoaren arloan, bera lotzen baduzu subjektu eratzailearen zentzuaren, egitasmoaren, jatorriaren eta itzuleraren gaiarekin, laburbilduz, historian logosaren presentzia unibertsala bermatzen duen gai-multzoarekin? Zer aukera ematen diozu bera aztertzen baduzu metafora dinamikoan, biologikoen, eboluzionisten, ikuspegitik, hauetan deuseztatu ohi delarik aldaketa historikoaren arazo zail eta berezia? Zehazkiago esanda oraindik: zer estatus politiko eman diezaiokezu diskurtsoari ez baduzu horretan ikusten dir-dir egiten duen gardentasun xumea baino, hau da, gauzen eta pentsamenduen mugetan dagoen unea? Europako diskurtso iraultzailearen eta diskurtso zientifikoaren jarduteak, ia berrehun urtetik hona, ez al zaitu askatu zerako ideiaz: alegia, hitzak haizea direla, kanpotiko marmarra, hegalean hotsa, nekez entzuten dena historiaren seriotasunean? Ala irudikatu behar al da, irakaspen hau arbuiatzeko, zuk uko egiten diozula, temati, jardute diskurtsiboak euren berezko existentzian gogoan hartzeari eta irakaspen horren aurka eutsi gura duzula espirituaren, ezagupenen, arrazoiaren, ideien edo iritzien historia bat? Zein beldurrek, beraz, behartzen zaitu kontzientziaren mailan erantzutera, hitz egiten zaizunean jardute batez, bere baldintzez, bere arauz, bere transformazio historikoez? Zein beldurrek, beraz, behartzen zaitu bilatzera, muga guztien gainetik, hausturen, astinduen, etenduren gainetik, mendebaldearen halabehar historiko-transzendental handia?

Nik uste dut galdera honetarako erantzun politikoa besterik ez dagoela. Utz dezagun, gaurkoagatik, airean eskegita bera. Beharbada berriz gogoan hartu beharko da laster beste modu batean.

Liburu hau atariko zenbait zailtasun baztertzeko egin da, besterik ezertarako ere ez. Badakit nik jakin, beste edozeinek bezala, zer neurritan izan daitezkeen «eskergabekoak» –hitzaren zentzu zorrotzean– aipatzen ari naizen eta orain dela hamar urte ekin nituen ikerketak. Badakit zer neurritan izan daitezkeen mikatz xamarra diskurtsoak jorratzea arau anonimoen multzo ilun batetik abiatuta, eta ez euren bidez adierazten den kontzientzia gozo, mutu eta minetik. Zer neurritan den ezatsegina jardute baten mugak eta beharrak agerraraztea, jeinuaren eta askatasunaren jokoak, gardentasun hutsean, hedatzen ikusteko ohitura zegoen lekuan bertan. Zer neurritan den probokatzailea transformazioen sorta bezala tratatzea diskurtsoaren historia hau, adoretuko luketena bizitzaren metamorfosi lasaigarriek edo bizi izandakoaren guratuko jarraitasunak. Zer neurritan den jasanezina azkenik –kontuan izanda zer ipini behar duen bakoitzak bere diskurtsoan, hitz egiten ahalegintzen denean, kontuan izanda ere zer pentsatzen duen bakoitzak ipintzea «bere buruaz»– zer neurritan den jasanezina ebakitzea, aztertzea, konbinatzea eta berrosatzea testu horiek guztiak, zeintzuk orain, atzera ere, isiltasunera ekarri diren egilearen aurpegi antzaldatua diseinatu gabe inoiz ere ez: «baina zer! pilatutako hainbeste hitz, hainbeste paperetan ipinitako hainbeste marka, kontaezineko hainbeste begiradari eskainitakoak, halako ardura handia eurak

gordetzeko artikulatzen dituen keinuaz aparte, halako erruki sakona eurak gordetzeko eta gizakien oroimenean irartzeko – eta hau guztia ez geratzeko eurak marraztu dituen eskuaren arrastorik, ezta euren baitan baretasuna bilatzen zuen egonezinarena, eta ezta amaitutako bizitza honena ere, bizirauteko hitz horiek baino ez dituen bizitza bukatu honena?–. Diskurtsoa, bere mugapenik sakonenean ez al da «arrastoa» izango? Bere zurrumurrua ez al da izango substantziarik gabeko hilezkortasunen lekua? Onartu beharko litzateke diskurtsoaren denbora ez dela kontzientziaren denbora, azken hau historiaren dimentsiotara eramanda, edo kontzientziaren eran dagoen historiaren denbora? Beharrezkoa ote litzateke suposatzea nire diskurtsoan ez dagoela nire biziraupena? Eta suposatzea hitz eginaz ez dudala nire heriotza konjuratzen, baizik eta bera ezartzen dudala, edo, gehiago oraindik, deuseztatzen dudala barrukotasun oro nire bizitzaz hain ezberdina den kanpokotasun horretan, hain neutroa ezen bereizten ez duen nire bizitzaren eta nire heriotzaren artean?»

Hauei guztiei dagokienez ulertzen dut euren ezinegona. Nekez onartu dute, ez dago zalantzarik, euren historia, euren ekonomia, euren gizarte jardutea, eurek hitz egiten duten hizkuntza, euren arbasoen mitologia, euren haurtzaroan kontatu zizkieten alegiak, arau batzuen mendekoak direla, euren kontzientzian ematen ez direnak euren osotasunean; eurek ez lukete gura, gainera, ken diezaieten euren diskurtsoa, gogokoa dutena esan ahal izateko, berehala, urruntasunik gabe, eurek pentsatzen dutena, sinesten dutena, irudikatzen dutena; gurago dute ukatu diskurtsoa jardute konplexua eta berezitua dela, azter daitezkeen arauak eta transformazioei obeditzen diena, honako ziurtasun kontsolagarria galdu baino: alegia, mundua edo bestela bizitza aldatu ezin badute, gutxienez euren «zetzua» aldatu ahal izango dutela, horretarako hitz baten freskototasun hutsaz baliatuz, euren baitatik letorkeen hitza, jatorritik gertu iraungo lukeena mugarik gabe. Hainbeste gauzak egin die ihes dagoenez gero euren hizkuntzan! Ez dute nahi ihes egin diezaiela baita eurek esaten dutenak ere, diskurtsoaren zatiki honek –hitza edo idazketa, ez du axolarik– euren bizitza urrunago eta luzaroago eraman behar duena bere existentzia hauskor eta ez ziurrean. Ezin dute jasan (eta apur bat ulertzekoa da) inori entzutea zera esaten: «diskurtsoa ez da bizitza: bere denbora ez da zuena; bere baitan ez zarete heriotzarekin adiskidetuko; litekeena da zuek Jainkoa hil izana esan duzuen guztiaren pisuaren azpian, baina ez ezazue pentsa zuek, esan duzuen horrekin guztiarekin, egingo duzuenik bera baino gehiago biziko den gizakia.»

Aurkibidea

HITZAURREA..... 7

BIBLIOGRAFIA

I SARRERA

II ERREGULARTASUN DISKURTSIBOAK

I DISKURTSOAREN BATASUNAK

II Eraketa diskurtsiboak

III Objektuen eraketa

IV Modalitate enuntziatiboen eraketa

V Kontzeptuen eraketa

VI Estrategien eraketa

VII Oharrak eta ondorioak

III ENUNTZIATUA ETA ARTXIBOA

I Enuntziatua definitzea

II Enuntziatio-funtzioa

III Enuntziatuen deskribapena

IV Bakantasuna, kanpokotasuna, metaketa

V A priori historikoa eta artxiboa

IV DESKRIBAPEN ARKEOLOGIKOA

I Ideien arkeologia eta historia

II Orijinala eta erregularra

III Kontraesanak

IV Gertaera konparatiboak

V Aldaketa eta transformazioak

VI Zientzia eta Jakite

V

OHARRAK